









AITA GASPAR ASTETE-EREN

ICASBIDE CRISTINAUCORRAREN

Azalduera Laburrac

**On Andres Errazeta eta Begira,
Ochandiano-có Arimazainac,**

Euzorrak imindiac.

URTELEN DABE ARGUITARA,

Beaztan leguez.




DURANGON:

ROBERTO SOLOAGA-EREN Moldizleguain,

Artegian 24.

1899



N.º 683

Santxo el Sabio

A.T.V.
2006



AITA GASPAR ASTETE-BEREN

Ieasbide Cristinaueorraren

Azalduera laburrac.



JAUBETASUNA DAUCA.

N.M. 145
R. 32143

A.T.V.
2006



AITA GASPAR ASTETE-EREN
ICASBIDE CRISTINAUCORRAREN

Azalduera Laburrae,

ON ANDRES ITURZAETA ETA EQUIA,

Ochandiano-co Arimazainac,

Euzcaraz iminiac.

URTETEN DABE ARGUITARA,


Bear dan leguez.



DURANGON:

ROBERTO SOLOAGA-EREN *Moldiztegiian*, Artecallian 24,

1899.



Obispado de Vitoria

Por las presentes concedemos nuestra licencia para que imprima V. y publique su obra titulada **Aita Gaspar Astete-eren Ieasbide Cristinaueorraren Azalduera laburrare**, toda vez que nada se contiene en ella que se oponga al dogma católico y sana moral, antes al contrario su lectura será muy provechosa para el pueblo fiel y servirá de gran alivio á los Reverendos Sacerdotes vascogados para cumplir la gravísima obligación de explicar la doctrina cristiana á los feligreses.

Dios guarde á V. muchos años.—Vitoria 14 de Noviembre de 1898.

El Obispo de Vitoria.

Dr. D. Andrés Iturzaeta, Presbítero Cura
Económico de

OCHANDIANO.

BERBA BI NIÑE ANAYA EUSCALDUNAI.

Da egua bat, guztioc ondo ezagututem doguna, gnezaldi onetan ecingueia-gocoac eta bildurgarriac dirala, arimen betico arerio infernucoac eguiten dituzan aleguinac, Jesusen artalde maitean nasaiqueria eta bidegabelasuna sartu eragitero. «Nec ez daquiz, bazter, leku eta inguru guztietan gaurco egunean entzuten diran berbeta deabruzoac, eta icusten diran eguiquera nasai eta dongae? Eta au guzti su jazarako eguiten dau demonimoac gure euscalerrietan bere? Jaungoikoaren ezaunpera eguiazcoa galdu daiten gure artian; Jesuseganaico mailetasun sutsua otsitu dailen euscaldunen biotzelan; gure anchinaco siniste santua urrindu daiten gugandie. Dirudi, infernuak zabaldu dituzala bore ao baltz guztiac, eta bota dituzala bere amorru deabruzoac euscaldunen guñera bere, beste emparau lecuetan egun izan daben leguez. Ez dot uste, aurquitulen dala inor gure artian, egua negargarrizco au ez daquinie: oehadictan, ausoleguietan, errietan, urietan, batzarretan, edonun, guzti zabal eta ugari dabilz iracalisi charrac.

«Cer da badá, aldi negargarrizco onetan egun bear dana? »A! baldin Jesus Jaunaren arerioac burrukarako ain indartsu eta ain gogor aguertutem diranean, gu egoten bagara, ecer egun baga, lotan dagozan zaintzallac leguez; baldin *caba-suluetatik urteniko bazaurren*, Jesucristoren artalde maitea ito eta iruntesiteko, prest eta guertu aurquitulen diranean, gue, ehacur mutuac leguez, ez badanagu aoric ausi edo saunca eguiteco; «cer jazoco da gure artian? Guztioen galdu mendi beticoa. Alaco zorichar beticoan iesi ez gaitezan, eta neure gogoan ondo arturic, Jesus gure Salbaguillearen Eleiza egunaconc ainbesie gogorbasunegaz iminten deuzcun eguinbear ain estua eta ain aztuna, azartulen naz argitlara emotera Aita Astete-eren Icasbide Cristinaucorraren azalduera laburrac, gue gure amaren bularragaz batera irantsi guenduan enzquerazco izqneta gozo eta ederrean. Dinot; *eguinbear ain estua et: ain aztuna*; hada alaica da, Jaungoikoaren berba santua adierazoleko eta gure eleiztar guztiai bearreco iracatsi onac emoteco daudaguna. Deritzat guzti mesedegaria eta oneragarria izango dala Arimazainentzat eta Eleizguizonentzat, eta ez guichiago eleiztar euscaldun guztientzat, Apezpico edo Obispo Jaunac diñoan leguez, nire escuelatic urtetan daben lan labor eta euzquerazco au. Guizona berez da argala eta erquiña; guizonac egin egun leique, bere indarren gañetic dogoan gauzaric; eta orre-antzie ondo exagutulen dol ez dala osoro ona eta utsune bagacoa, nie horondaterie onenagaz arguitaratulen dodan liburu au. Nie gura neunqueanada, liburu au irauretan daben guztiac, atera daguiciela euren arimentzat onera edo mesede dontsu bat. Onegaz gueratuco mintzateque pozic eta atseginez beteric, eta onegaz gueratuco litzatequez gueyeguiian eta larreguiian sariturie eta ordaindurie nire buruansie eta aleguin guztiac.

Onenbestegaz agur gozo bat bialdutem deutzuel, nire anaya euscaldun maitean, eta dempore berean escatutem deutzuel, Jesusen Biotz estitsua Litarteko dala, gomutau zaitecela nire arimeagaz, ni zuenacaz beti gomutauco nazan leguez.

A. Iturzaeta-coa.



Ieasbide cristinaucorraren azalduerea,

Lenengo iracatsia.—Cristinuaren icenaren ganean.

Itanduten dot: ¿Cristinua zara? Erantzuten dot:
Bai; Jaungoicoaren graciagaz.

AZALDUEREA.

¿Cergaitic esaten dozu «bai, Jaungoicoaren graciagaz?» Ez nazalaco neure irabaciaegaitic, ez neure guruzoenacgaitic, ezpada gracia utsagaitic eta Jaungoicoaren erruquitasunagaitic.

¿Andia da cristinuaren duintasuna? Lurreco duintasun guztietafic andiena.

¿Cergaitic? Cergaitic eguiten gaituzan Jaungoicoaren seme, Jesucristoren anaia, Espiritu Santuaren eleiza bici eta zoriontasuneko erreñu beticoaren jaubeguei.

¿Ce escubide emoten deuzen cristinu izateac? Bein garbituac eta barrirojiaoac gu izan ezquero bautismo santuan, dauagu escubidea: 1.^o artuteco, euren demporan, Sacramentu guztiac; 2.^o Eleizaco on arimaco guztietañ eta fededun guztien eguite onetan alde euquiteco, eta 3.^o, irauten badogu gueure eguinbear eta cereguinen betetasunean, biciteco ceruan betietatasun guztian.

¿Cer icasi bear dogu, esan danetic? Cristinuen duintasun andi eta ereguia gauza guztien ganetic maitetu eta ascotan euquiten.

JAZOEREA.

Eleiza bateco atean batuten zan limosnea. Eleiza barri bat eguiteco asmuagaz. Errico emacume preminiadun batec emoten dan amar errialeco bat, cein zan, berac eucan diru guztia. Errataeo arimazain edo abade, bera ondo ezagututen ebanac, dirautso:—¡Emacume preminiaduna! artu eguizu diru ori, bada zue orren premisia eta beur gueiago daucazu.—Orduan emacumeac, sinistez eta arrotasun santuz beterie, erantzun eutsan: ¡Ni preminiaduna! bada jeerl *gez al naz cristinaua*, eta, berangaitie, erregue audi baten alabea eta erreñu andi baten jaubegueia?

Iracatsi 2.^º—Cristinauaren eguinbearrac.

¿Cer esan gura dau cristinauac? Cristoren guizona. ¿Cer adictan dozu Cristoren guizonagaz? Jesueristoren fede edo sinistea daucana, cein artu eban Bateoan, eta bera servietaco esquiniric dagoana.

AZALDUEREA.

¿Cer izan bear dan cristinauac? Cristori guztiz eta osoro esquiniric dagoan guizon bat, Jesueristoren espirituagaz azeorturic eta indarturic dagoana, bere banderapean icentauric dagoana, Cristoren arrioai jarqui eta burruean eguiteco, Bateo santuan berba emon eban leguez.

Au onelan dala, ¿celaeo eguinbearrac edo cereguinac daucaz cristinauac? Cristoren gudari edo soldadu on bat leguez euqui bear dau sinistea Jesueristogan, sinisturic, berac aguertu eta iracatsi deuzcun guztia, eta iraunic bere aguindupean, bete eta gordetan dituzala bere aguindua.

¿Sinistuten ez dabena, baña aguindua bete eta gordetan dituzana, ¿da cristinaua? Ez: cergaitie ez daucun Jesueristoren sinisturic.

¿Eta sinistuten dabena, eta sinisturico guizac eguiten ez

dituzana? Ez da cristinan ona, bete eta gordetan ez dituztako Jesueristoren aguinduac.

„Ce iracatsi atera bear dogu emendie? Izan bear gareala su-
cenac gueu gueugan, gueure sinisteagaz bat eguiten doguzala
gueure eguiquera eta bicierac; edo bardin dau leguez, ez dala
asco eta naico sinistea, eguiteac baga, protestanteac gura da-
been leguez; eta ez dirala asco eta naicoac eguiteac, sinistea
baga, donga eta charrac esaten daben leguez.

JAZOEREA.

San Pacomio zan gentila eta gudari edo soldaduaren aguinta-
ria; gocez eta ibiltez degaiturie eta necaturic joazan aldi baten,
eldu ciran cristinauen erri batera, eta ozta sartutene dira erri
atara, noz berlacoak bereala asiten diran, curai, bear eben la-
guntasuna, emotera; icusiric San Pacomioe caridide au, itan-
du eban: celako gentea zan, ondo eguiteco, ain macurturie eta
etzungo egoan a,—eta erantzun eutsen:—cirala cristinauac.—
Eta „cer da cristinaua?—barriro itandu eban, eta erantzun
eutsen:—Cristinaua da Jaungoico bacar baten adoratzallea,
Jesueristoren ieaslea, inori gachie ez eguiteco, eta bai al dabean
on guztia eguiteco, esquiniric dagoana.—Onegaz biurtu zan,
guizonac onac eguiten dituzan Jesusen erreliginoe santura, eta
eldu zan santa izatera.

Iracatsi 3.^a—Cristinauaren ezaugarri edo señalea.

„Cein da cristinauaren señalea? Curutze Santua. „Cergaitic?
Cergaitic dan Cristo eurutzean josiyaren irudia, ceñetan eros
guinduzan. „Cemba modutan eguiten dau cristinauaren señale
ori? Modu bitan. „Ceintzuc dira? Ceñatutea eta Aitearen egui
tea. „Cer da ceñatutea? Escumaco erpuruagaz iru curutze
eguitea: lenengoa becoquian, bigarrena aoan, eta irugarrena
bularrean, Jaungoicoagaz berba eguiten dogula. „Cergaitic ce-
ñatuten zara becoquian? Jaungoicoae librau gaguzan pesa-
mentu gaistoetatic. „Cergaitic aoan? Jaungoicoae librau gagui-

zan berba gaistoetatic. ¿Cergaitic bularream? Jaungoicoae librau gaguizan eguito eta gurari gaistoetatic. ¿Cer da Aitearen eguitea? Escumaco atz biyacaz curutze bat eguitea, becoquitic bularrera eta esquerreco sorbuldatic escumacora, Irubatasun edo Trinidad guztiz Santuari gagocazala.

AZALDUEREA.

¿Ceintzuc dira Curutze Santuaren ereguitasunac? Batezberre dira iru: 1.^a Da ezaugarri bat, erristinauerria beste emperan guztiagandie desbardindu eta ondo esagutu eraguiten dabena; 2.^a Da Jesus curutzean josiaren irudi bat, bere amodio andia eta beraganaco gure eguinbearrae gogoratu eraguiten deuzcuzana; 3.^a Da gure sinistearen adierazoera labur bat; autortutene dogula bere bitartez Jaungoiconaren batasuna, edo Jaungoico bacar bat dagoala, esaten dogunean *icenean* eta ez *icenetan*; Personen irutasuna, edo iru Persona dirala, iru Persona Jaungoicozcoac aitatuten doguzanean; eta Curutzean eguin zan gure erostea.

¿Cer atera bear dogu emendic? Zoriontasun auditatzat enqui bear dogula Curutze Santua, eta ez gareala iñoz lotsatu bear beragaz, dongac eguiten dabeen leguez.

JAZOEREA.

Lotsatu zan bat *Curutze Santuaren...* eguiten beste batzuen aurrean. Ieusirie beste an egoan bntec lotsatu zala, gauza ain on bat eguiten, siniste eta zelo andiz beteric, aguiraca eguin eutsan, cirautsala: ¡Celan! ¿Jesucristo ez zan lotsatu Curutze baten ilten, gu erostearren, eta i lotsatuten az eure ganean eguiten gneure erostearren ezangarri eregui eta goratua?

Iracatsi 4.^a—Curutze Santuaren indarrac.

¿Noz eguin bear dogu Curutze ori? Eguite omen bat asten dogun guztian, premiña, tentaciñoe edo bidaune donguetan

aurquitudun gareanean; batezberre oetie jaguieran, echetie urteieran. Eleizan sartzeran, jatorduan eta oera etzieran. ¿Cergaitie ain sarri? Cergaitie beti eta leku guztietan darraicuzan gueure arerioae, gu goitu eta galtzeco asmoz. ¿Ce arerio dira orrec? Demoninoa, mundua eta araguia. ¿Beraz arerio orreec goituteco, Curutzeae indarra dauco? Bai, Jauna. ¿Nundic jatorco Curutzeari indar ori? Cristoc bere eriotzeagaz anche goitu cituzalaco. Curutzéa adoretan dozunean ¿celan esaten dozu? Adoretan eta bedeinecatuten zituguz, Cristo, cerren Curutze Santuagaz libran cenduan mundua.

AZALDUEREA.

¿Esan al daiquedazuz Curutze Santuaren indarren batzuc? Bai, Jauna: 1.^a Da demoninoaren contraco arma altsu eta sendo bat. Alan San Antonioc, Curutze Santuagaz sendaturie, burru-caraco aurrerabidea emoten eutsan demoninoari, eirautsala: «Curutzearen ezaugarria eta Jaungoicoaganako icharopena doe, ire indar guztiai eutsico jeutsen ormalodi sendo bat».

2.^a Da bieitzaco estutasun eta larritasun guztietaraco pozgarri andi bat. Zazpi urteko mutilchu batec iragoten eban gueisotasun andi bat, min guztiz icaragarrizeoac emoten eutsazana: bere samintasun eta nequen erdian icusten eben, sarri artutun ebala Curutze Santua bere estuetan, eta onerazpen andiaguz mun gozo asco eguiten eutsazala; eta berari itandurie cergaitie mun eguiten eutsan aimbeste bidar, mutilchu onae erantzun eban: «Berac lagundi eta postuten nau.»

3.^a Da liburu zabaldurico bat, ceñetan iracurri eta icasí leitequezan eguiric andienac eta onoidaderic miragarrrienac. Cristinau guztiz on batec gueiago ezagutu eta maitetu gura eban Jaungoicoa, eta orretaraco joan zan itundutera Jesus Curutzean josingaz, eta Onec erantzun eutsan: «Ni izango naz zure liburua.»

¿Celan onretan dau Elizeac Curutze Santua? Ecingueiagoan: Iminten dituz Curutze Santu Eguiazcoaren erliquiac lecuric eregienean, emoten deutse culturic andiena Sacramentu

guztiz Santuaren urengo; balieta da Curutzearen ezaugarririaz
gaz bere bendecinoe guztietan. Saeramentua e molten dituza-
nean, eta beragaz asi eta amaitutene dituz bere erregu guztiae.

¿Cer ieasi bear dogu, esan danetie? Curutze Santuari oneraz-
pen, zaletasun eta amodio audi bat enquitzen, eroaten dogula
eseguiric gueure bularrean, iminten dogula gueure bicilecam,
gueure oeburuan, sucenduten gareala beragam premia, esetsi,
estutasun, galbide eta arrizeu guztietan.

JAZOEREA.

Arao Curutze Santua, eeñetan il zau gure Salbaguille Jaun-
goicozeoa, escutaua izan zau gentilacgaitie, lurpetu izan obela
Jesusen obi edo sepulturearen ondoan, eta guero, bere gomutea
natzua izan ceiten, zamarrez eta lur-ondarrez bete eben leku a,
eta bertan jaso eta eregui eutsen Eliza bat, Venus erichon
jaungoico guzurrezcoari: andie irureun urtera aurquitu eban
Santa Elenae, Constantino aguintariaren ama zanae, Jesusen
Curutzca lapurren Curutze biyacaz batera, eta ondo ezagutu
eta jaquiteco, iru Curutze aretatic cein zan Jesusena, San Ma-
cario, Jerusalengo Obispoaren aguinduz, imini jaeozan gañean
iru Curutzeae emaenue il bateri, cein bereala bizi zan, Jesu-
sen Curutzeak uentu eutsanean, Seigarren guizaldian jausi zan
Jesusen Curutzea persiarren escuetan, eta andie ama bost ur-
tera beragandu eban Heraclio aguintariae.

Iracatsi 5.^a.—Icasbide cristinauaren zatituera.

Yeusi dogu, cristinaua zareana Jaungoicoaren eta Cristo
gure Jaunaren graciagaz; esan eguidazu bada orain. ¿Combat
gauza jaquin bear dituz cristinaue, adinera edo esagüerara
eldutene duncan? Lau gauza. ¿Ceintzue dira? Cer sinistu, cer
escatu, cer eguin eta cer artu bear daben, jaquitea. ¿Celan ja-
guingo dau cer sinistu bear daben? Jaquinagaz Credoa edo
Articulu fedecoac. ¿Celan jaquingo dau cer escatu bear da-
ben? Jaquinagaz Aita gurea eta Eleizearen beste erregnac.

¿Celan jaquingo dau cer eguin bear daben? Jaquinagaz Jaungoicoaren legueco eta Elizaco agninduae edo mandamentuac, eta erruquizco eguinac edo obra misericordiazconc. ¿Celan jaquingo dau cer artu bear daben? Jaquinagaz Eleiza Ama Santaren Sacramentuac.

AZALDUEREA.

Au onelan dala, badago eguinbearrie, Icasbide Cristinaua jaquiteco? Bai, Jauna: jaquin, aditu eta ezagutu bear dau bacochea bere alizate eta ezauperearen neurrian.

¿Eta nortzuc iracatsi bear dabe? Gurazoa euren scinealabai, arimazainac euren eleitzarrai, maisuac euren icaslai, ugazaba eta echechoandrac euren mendeco eta otseinai; eta alan eguiten ez badabe eguiten dabe pecatu ilcor eta aztuna.

¿Celaco arrizuan iminten dira, Icasbide Cristinaua ez da quienac? Euren arimac betico galdujeko arrizeu andian, ez baldin badaquiez gauza bearbearrecoac; pecatu asco eguiteco eta euren eguiimbearrac ez betetako arrizcu urrecoan, ez baldin badaquiez, aguinduric dagozan gauzac; eta bide charrean bieiteco eta sinistea galdujeko arrizuan, ez badanque ezaupera argui eta bearreco bat erreliginoaren ganean.

¿Cer atera bear dogu emendie? Eguin bear doguzala alequin guztiac icasteko Icasbide cristinaua, egunetic egunera gueiaco eta obetoago ezagututeco, beteko badoguzgueureeguinbearrac, eta biei gura ez bagara bido charrean.

JAZOEREA.

Bein baten aurquitu ciran batera gazte bi, bata zan cristinaua, eta bestea donga eta charra; onec esan eutsan, enqui gura bacituzan beragaz baiyetzac eta ecetzac erreliginoaren ganean; cristinanac erantzun eutsan baiyetz, baña cerceridade batgaz. ¿Ceinda? itandu eutsan donga eta charrac. Gauza batuen ganean baiyetzac eta ecetzac enquiteco, noraezecoa eta bearrecoa da, gauza ori ezagututea, eta alan lenago adierazo beardeutzazu, zuc ezagututen dozula erreliginoa, beintzat daquizula catecismoa edo sinistamenen liburua. Ez dot dempora-

ric galduen, erantzun eutsan donga eta charrac, liburu orreec iracurten.— Guichienez jaquingo dozuz Credoa eta aguinduae.— Nozbait banequizan, baña oñezquero aazturie daucadaz.— Bada ezagututen ez baldin badituzuz erreligioneco gauzaric errazenac bere, gzelan daueazu azarqueria, baiyetzac eta eetzac euquiteco, ez daquizun gauza baten ganean?

Icasbide cristinauren lenengo zatiya.

Iracatsi lenengoa.—Siniste edo fedearen ganean guztieran.

¿Cer da siniste edo fedea? Ieus iez doguna sinistutea. Cergaitic sinistuten dozu? Cergaitic Jaungoicoac alan aguertu dentsan Eleiza Ama Santeari, eta onec alan daracuseun.

AZALDUEREA.

¿Cemba modutacoa da fedea? Jaungoicozcoa eta guizoncorra.

¿Cer da fede guizoneorra? Guizonae dinoena, edo berezko eracayayaegaitic edo cergaititusunagaitic, sinistutea.

¿Cer da fede jaungoicozcoa? Da onoidade edo birtute izatearen gañetico bat, Jaungoicoac aguerturico gauzac, eta Eleizeae guri iraceasten deutzuzanac, sinistutera, gu aurreratu eta mireututene gaituzana.

¿Cergaitic esaten dozu dala «onoidade izatearen gañeticoa?» Cergaitic fedea da ceruco doe bat, Jaungoicoac emoten daben onoidade bat, eta ez errazoiaren ezaupera ciur bat, ascori beguitanduten jaquen leguez.

¿Cein da gure fedearen oñi sendo eta azpiratua ecin izan leitequeana? Jaungoicoaren eguitasuna; cein, azquenbagu jaquituna leguez, ecin engañau leitequean; eta ceinec, azquenbagu ona leguez, ecin engañau guinaiquezan.

¿Errazoczcoa eta eracoa da fedea? Bai; cergaitic, errazoczcoa eta gauza zurra bada, engañau leitequean eta engañau guinai-

ric galduen, erantzun eutsan donga eta charrac, liburu orreec iracurten.— Guichienez jaquingo dozuz Credoa eta aguinduae.— Nozbait banequizan, baña oñezquero aazturie daucadaz.— Bada ezagututen ez baldin badituzuz erreligioneco gauzaric errazenac bere, gzelan daueazu azarqueria, baiyetzac eta eetzac euquiteco, ez daquizun gauza baten ganean?

Icasbide cristinauren lenengo zatiya.

Iracatsi lenengoa.—Siniste edo fedearen ganean guztieran.

¿Cer da siniste edo fedea? Ieus iez doguna sinistutea. Cergaitic sinistuten dozu? Cergaitic Jaungoicoac alan aguertu dentsan Eleiza Ama Santeari, eta onec alan daracuseun.

AZALDUEREA.

¿Cembat modutacoa da fedea? Jaungoicozcoa eta guizoncorra.

¿Cer da fede guizoneorra? Guizonae dinoena, edo berezko eracayayaegaitic edo cergaititusunagaitic, sinistutea.

¿Cer da fede jaungoicozcoa? Da onoidade edo birtute izatearen gañetico bat, Jaungoicoac aguerturico gauzac, eta Eleizeae guri iraceasten deutzuzanac, sinistutera, gu aurreratu eta mireututene gaituzana.

¿Cergaitic esaten dozu dala «onoidade izatearen gañeticoa?» Cergaitic fedea da ceruco doe bat, Jaungoicoac emoten daben onoidade bat, eta ez errazoiaren ezaupera ciur bat, ascori beguitanduten jaquen leguez.

¿Cein da gure fedearen oñi sendo eta azpiratua ecin izan leitequeana? Jaungoicoaren eguitasuna; cein, azquenbagu jaquituna leguez, ecin engañau leitequean; eta ceinec, azquenbagu ona leguez, ecin engañau guinaiquezan.

¿Errazoczcoa eta eracoa da fedea? Bai; cergaitic, errazoczcoa eta gauza zurra bada, engañau leitequean eta engañau guinai-

quezan guizonaren lecucotasunai eta esanai, sinistea emotea; errazoezcoagoa eta gauza zurragoa izango da, engañauecien leitequean eta engañauecien guinaiquezan Jaungoicoaren lecucotasunari eta esanai, sinistea emotea.

¿Egon leiteque jarquieraric edo contrarieraric fedearen eta errazoiaren artian? Ez: dira arguierrañu bi, Jaungoicoa dan arguitasun beticoagandie, datozanac. Errazoe izatezcoa edo berezcoa da Jaungoicoac emoten deuzcun arguitasun bat, sucenera berezcoaren barruan dagozan gauzaz ezagututeco; feda da arguitasun bat, sucenera berezcoaren campotic eta ganetic dagozan gauzaz, aguertuten deuzcuzana.

¿Bada ez dinoe, contraerac aurquiten dirala curaegan? Ditudienac, bai: bafia gueroago eguinico icasaldiac deseguin dituez; beti doazala batera feda eta jaquituria eguiazcoa.

Cer atera bear dogu emendic? Feda ascotan euquiten ceruco doe bat leguez, gueure zoriontasun beticoaren ganeo doe guztictatic lenengoa leguez, bada «fede baga, dino Apostoloac, ecien izan leiteque Jaungoicoaren gogoco »

JAZOEREA.

Feda, dino Gaumec, da arguizuzi bat, Salbaguilleac, bide charrean dabilen guizonaren escuetan iminia, lagundi daguion, ceruco bidea aurquitu eta jarraituten; da lubagan bicoch bat, bicitzaco bidean eginic eta ereguiric dagoana, galerazteco jausi ez daiten, ez ezquierrera ez escumara, bero bidea ain beteric dagoan lezasacon eta ondamentietan. Feda da errazoiarentzat, beguiorde lucea beguiertzat dana leguez, an, nun beguiac icusi ecien daben, beguiorde luceac aguertu eraguiten dau miragarrizco gauzen mundu bat. Alnn bada, errazoiaren contraria izan bearrean, fedea da bero arguia eta laguntasuna.

Iracatsi 2.^a—Fedearen zatiac eta cerceridadeac.

¿Cer dira fedeco articuluac? Dira fedeco sinisgueiric andienac.

AZALDUEREA.

¿Celaco zatiac daucaz tedeac? Ez-aguiria eta aguiria.

¿Cer da fede ez-aguiria? Guztia batera eta berezca bagaric sinistutea, berbaraco, esanagaz: Sinistuten dot, Eleizeac sinistuten daben guztia.

¿Cer da fede aguiria? Fedeco eguiaren bat berezca eta bere berbetan euretan sinistutea; berbaraco, esaten badot: Sinistuten dot, Jesucristogan dagoala persona jaungoicozeo bat, eta dagozala izate bi, bata jaungoicozeoa eta besteak guizoncorra.

¿Celaco zati gueiago daucaz fedeac? Fede bicia eta fede ila.

¿Cer da fede bicia? Caridadea eta eguiet onac lagun dituztana.

¿Cer da fede ila? Pecatu ilcor edo mortalean-dagozanac, dauquena.

¿Asco eta naicoa da salbetako fedea, eguiet bagaric? Umeagian bai; adinera edo ezaguerara eldu diran nagusiaegan, ez; cergaitic, Santiagoe dinoan leguez; «fedea, eguiet bagaric, da ila.»

¿Eta tedeak caridade bagaric edo pecatu ilcor edo mortalean? Ascozaz guichiago: bada dino San Pablo Apostoloak: «Baneunca bere fede ain andia, mendiak alde batetik bestera eroateko bestekoa, ez baneunca caridaderik, ez leuzquet ecer halioko.»

¿Eta celaco cerceridadeac euqui bear dituz fedeac? Iru: izan bear da sensiloa edo tolesbaguea, errimea eta gustiracoa.

¿Celan izango da senciloa edo tolesbaguea? Iminten badogu umiltasunagaz gueure adina nagusitasun jaungoicozeoaren mendeak.

¿Noz izango da errimea? Sinistuten badogu coloca baga eta badaezbada baga, Jaungoicoaren nagusitasunean baquean guratutenean gareala.

¿Noz izango da guztiracoa? Sinistuten badoguz, Jaungoicoaren aguerturiko gauza guztiak.

¿Sinistuten dituzzana fedeco egui batzue eta besteak neatu-

ten dituzanac, badauco federic? Ez: cergaitie sinistuten ez daben Jaungoicoaren nagusitasunagaitic; bada sinistuko baleu Jaungoieoaren nagusitasunagaitic, bardin bardin artuko leuez guztiac.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Beti euquitea, Evangelioac aitatutene dituzan dontzella zurrac leguez, isioturic fedeco arguizuzia, eta eguite onen oriyoagaz prestaunie gueure cruselna, Jesucristoc, datorrenean, aurquitu gaguizan prest eta guertu.

JAZOEREA.

Eleizguizon bat ustebaga aurquituten zan batzar baten, gazte batzuc asi ciran donga eta charren berbeta madaricatua eguiten, eta lotsabaqueriaric andienagaz aitatutene cituezan, Rossenu arimagaldoacoas asmaurico guzur deabruzcoac.—«Jannac, dirautse Eleizguizonac, sinistu bear da; zuec orain ez dozue sinistuten, egunen baten sinistuko dozue, demporean ez bada, beticotasunean; orduan sinistuko dozue demoninoac leguez; eurac sinistuten dabe eta aurquituten dira tormentuan.

Iracatsi 3.^a—Fedearen neurriac.

¿Ce gauza dira cristinaua leguez daucazuzanac, eta sinistuten dituzuzanac? Erronaco Eleiza Ama Santeac daucazuzanac eta sinistuten dituzuzanac. ¿Co gauza dira, zuc eta berau daucazuezanac eta sinistuten dozuezanac? Fedeco articuluac, batzberre Credoan dagozan leguez.

AZALDUEREA.

¿Nun aurquituten dira, Jaungoicoac aguerturico eguiac? Escritura jaungoicozcoetan eta Tradicinoan.

¿Cer dira Escritura jaungoiezcoac? Espiritu Santuaren argitasunaren beian escribidurico liburueta Eleizeac Jaungoicoaren berbatzat ezaguturicoen batuerea.

¿Cer da Tradicinoa? Eguia escribidubagac, Jesucristoc iracatsi eutsezanac Apostoloai, eta onecc Eleizeari berbaz eta

aoz irago eutsezanac, eta Gurazo Santuen liburuetan, Batzar Santuen erabaguietan eta Aita Santu Errromacoen erabaguietan, batezberre aurquituten diranac.

¿Sinistu bear doguzan eguiac, jaquiteco, ¿aseo da iracurtea Biblia, protestanteac dinoen leguez? Ez: gauza bearrecoa da, Eleizearen nagusitasunae aintzacotzat imini daguiguzala eta iracatsi daguiguzala.

¿Cergaitic alan? Cergaitic Eleizea dan gure fedearren errenguela urcoa, aguertuerearen gordelecua Jesucristogandie artu ebana, eta gente guztiai iracatsi eta azalduteco lana, beragandie arturic daucana.

¿Ori orrelan dala, Eleizea da liburu sagradauec baño nagusiago? Da nagusiago eta aurreragoa; aurreragoa, bada oraindie Evangelioric ez egoanean bere, berac badiarduan, Jesucristogandie arturico lana eta aguindua eguin eta betetan, eta egoan jantsiric, iracasteco nagusitasun eta erratuecin alizateagaz; eta da nagusiagoa, bere bitartez etorten garealako liburu sagraduon eguiatzotasunaren, argitasun jaungoicozcoaren eta esangura benetacoaren ezauperara.

¿Celan adierazoten dau Eleizeac bere lana? Bere iminierra jaungoicozcoa adierazoten dabeen sinisgarritasunaren cergaiticotasunaegaitic; eta bera ondo eguiazturic eta sendaturic iminten daben ezaugarri, berac daucazanaegaitic.

¿Ceintzue dira sinisgarritasunaren cergaiticotasunac? Bere iminicra miragarrizcoa, bere zabaldadera miragarria, bere mirariac, bere igarrerac, millaca martiren, iracaslen, santuen eta bere beraren arerioen lecuetasuna; eta azquenez, bere iracatsiaren santutasuna, bere ugaritasun miragarria eta infernuco indar guztien contraco bere sendotasun errutsu eta goituecigarria.

¿Cergaitic izango dira «Errromaco Eleizeac sinistuten dituztanac?» Cergaitic dagoan beragan, Jesueristoc bere Eleizearen oñi sendotzat imini eban San Pedroren ordeco Aita Santuaren jartoquia.

JAZOEREA.

San Agustin, Hiponaean Obispoa, munduan ezagutu dan

guizonic jaquitunnenac, esaten eban: «Ez neuzquo nic sinisterric emongo Evangelioari, Eleizaren nagusitasunac iminico ez baleuzt sinisgarritzat»: bada Eleizea da gure fedearren erre-guela uresa, gure jarraitu bear deutsaguna.

Iracatsi 4.^a — Fedeco eguinbearrac.

¿Noe esan eban Credo? Apostoloac. ¿Cetaraco? Guri Fede Santuco gauzac iraenasteco. ¿Eta zue certaraco esaten dozu? Cristinnuoc daucagun Fede au autortuteco.

AZALDUEREA.

¿Cergaitic dericho Apostoloen Credo edo Sinisgueia? Cergaitic Fedearren lenengo adierazotzalla onecc, bata besteagan-die alderatu bañio lenago, batasun oso bat imini gura izanic berbetan bere, eguin eben iracatsi labur au.

¿Jaquin biar dogu Credo? Bai; eta alaco ciatzetasunagaz ece, ez da gueitu ez quendu ez aldatu bear borba bacar bat bere, cergaitic bertaco guztia da esangura andicon.

¿Noz eguin bear doguz Fedeco eguiteac? Adiñera edo esa-guerara elduten gareanean, eriotzaco orduan aurquituden ga-reanean, Fedaren contraco osetsien bat edo arrizcuren bat daucagunean, eta sarri ascotan bicitzan; eta beteço dogu eguin-bear au, Credo ondo errezaugaz.

¿Badaueagu, Fedea aguirian autortuteco, eguinbearrie? Bai: nuciepalla dagocanac itanduten deuzeuncan, eta Jaungoicaren zorionae edo arimaço onera andi, norberarenac edo lagunur-coarenac, alan escatuten dabeen guztian.

¿Fedea uatu al guinaique nozbait? Uatu iñozbere ez, gneure bicitza galduco baguendu bere, ez ucatuteagaitie; ba-nia nozbait, aurreco itaunean aitaturico aldietan ez izanic, eta gauza astun edo andiren bat dagoanean, escutau edo estaldu leiteque.

¿Nortzue uts eguiten deutse eguinbear oni? Fedeagaitie lo-tsatuten diranac, munduko esamez eta begiraunacgnitie eu-

ren eguinbearrac betetan ez dituezanac, arpegui ona iminten deutsenac donga eta charrai, onecaz aserratu gura ezagaltie, Erreliginoaren contraco berbaldiec gogoz entzuten dituezanac, eta periodico edo liburu char edo horegenac pozic iracurten dituezanae.

¿Cer atera bear dogu iracatsi onetic? Fedeac iminten deuzcuzan eguinbearrac ondo eta ciatz betetea, eta heregeacgandie eta dongacgandie eta euren berbeta charrangandie urrindu eta iguez eguitea, eurac Eleizeagandie iguez eguiten da been bestean.

JAZOEREA.

Apostoloac, Espiritu Santua artu eben unean, asi ciran adierazoten Jaungoicoaren berba santua, eguiten citnezala mirari asco eta andiac, euren lan eta eguiquisuna ciurtu eta sendatuteco; eta celan ciran asco eta asco, Jesusen Erreliginoe santura biurtutenean ciranac, eroanac izan ciran auciteguictara edo tribunaletara, aguinduten jaquela gogortasun guztiagaz, ez eguiela iracatsi alaco icashiderie; baña eurac jarrai u eutsen euren lan santuari, batbere bildurtu baga. Barriro eroanac izanic auciteguietara, esan eutsen: ¿Ez deutzuagu aguindu, ez danguizuela iracatsi icashide ori? Eurac erantzun eben: Jaungoicoari oben egun eta obediu bear jazo, guizonai baño lenago. Lotnac izanic, sartu cituezan presondeguietan, eta azotau cituezan; baña eurac zoriontasun anditzat euquen, Jesucristo gaitic neque gogorrac iragotea, eta azquenean il ciran, sillatutten ebela euren odolagaz, eurac iracatsi eta adierazo eben fedaia.

Iracatsi 5.^a—Jaungoicoa dagoanaren ganean.

¿Cetaraco dira Fedeco articuluac? Gueure Jaun Jaungoicoaren eta Jesucristo gueure Eroslearen barri eta ezagüera argiagoa emoteco.

AZALDUEREA.

¿Cemba Jaungoico dagoz? Bat bacarrie.

¿Eguia da dagoala Jaungoicoa? Bai; ceruac, Iurrae eta gauza guztiac, Bern adierazoten emoten dabe.

¿Emon al daiquedazu errazoen bat orren ganean? Celan erloyo batoc adierazoten daben, egon izan dala erloiyoguilla bat, bera egun izan dabena; celan eche batec adierazoten daben, egon izan dala eguillen bat, bera egun izan dabena; alan mundu onee, ceñetan aurquitutenean gauzen suenbide aia miragarri eta irauncorra, adierazoten dau dagoala Izate Nagusi eta Gorena, bera egun izan dabena.

Bicieren desbardintasunac *jez* dino erbait, Jaungoicoa dagoalakoaren contra? Ez; bada arteztasunbacoatasuna dirudian orretan, icusten da arteztasunie miragarrizcoena, Jaungoicoa dagoala adierazoten dabena.

Azaldu eguidazu iracatsi ori. Baldin guztiac balira aberatzac mundu onetan, ez leuque iñoc bearrie egun gurako languintza nequetsu eta gogorstan; baldin guztiac balira preiniñadunac eta ezeuquiac, ez litzateque aurquituco noe artu dagian, jaquiturieta aurrerapenac egniteco nequea, ez eta bere, mundo oaleartasuna ondo sucenduteco lana; baña egone ezeuquiac eta preiniñadunac, noraezean eta naitanaiezean bearra egun bear dabeenac, eta aberatzac, jaquituriaco lanetan euren demporea emon leiqueenae. Jaungoicoae beguiratuten deutsso ardura andiagaz mundo oaleartasunaren bicitzeari.

Eta donga eta charren ondobiciteac, on eta artzen estutasunac eta preiniñac leguez *jez* dino erbait, Jaungoicoa dagoalakoaren contra? Eztabere: Jaungoico azquenbaga artezac eta onac, sucenduten dau guzia bere autuen eta arima onen mesederaeo. Laquetuten dituz estutasunac eta preiniñac onaegan, garbituac izan daitezan, euren leialtasuna icusia izan daiten, eta alan enqui daguezian irabaci andiae betiko bicitzaraco; donga eta charren ondobiciteac eta mundu onetako zorionac castiguric andiena curentzat izan leitequezan bitartean.

¿Eta nun dago Jaungoicoa? Lecu guztietan; bere iztengaitic, bere edonungo aurrez-aur-egoteagaitic eta bere altasumagaitic.

Bada ez dau iñoc icusi izan Jaungoicoa.—Gorputzeo beguiacaz ez dau iñoc icusi izan, eta egin icusi bere leique, dalapeco siritu utsa; baña adineko beguiacaz icusten da lecu guz-

tietutin; icusten dogun leguez arimea bere eguiqueretan, mirarituten garean leguez jaquituriagaz bere aguertueretan.

JAZOEREA.

Icusi ez ebalaco, Jaungoicoa dagonila ucatutenean eban, erbestera berari jarraitu eutsan general bategaz, berbetan Santa Elenan egoan Napoleon lenengoac, egun eutsan gogoracino au.—¿Zue sinistuten dozu nire jaquituriagan? Duda baga, bada zue zeurorrec miraritu eta goratu dozu bein baño gueiagotan; orregaitie bere ¿icusi dozu nire jaquituria? ¿icusia izan leiteque? ¿bada eelan sinistuten dozu dagoala jaquituria nigan, icusi izan ez badozu? Onetara crantzun ebangeneralae:—Ez dot icusi zure jaquituria, baña icusi izan ditudaz bere eguiquerac, eta oneec eroaten nabe zure jaquituriaren ezauperara; gudalecu eta solduen esetsi eta barruca odoltsuen artian miraritu izan ditudaz zure asmu eta erabagni andi eta zabalae, garaitzara eroaten guinduezan zuré aguindu ondo emonico adjutu eta egoquiac.—Bada nire garaitzac, barriro esan eutsan Napoleon, sinistu eraguiten badeutzue badagoala jaquituria nigan, Guztiadaiqueamaren mirariac, ceintzuen ondoan ez dirau ecer nire asmu eta erabagui guztiac, naroe ni jaquituria azquenbagaoaren, Jaungoicoa dan Izate Gorengoaren ezauperara.

Iracatsi 6.^a—Jaungoicoaren ontasun oso eta beteac.

¿Cein da Jaungoicoa? Da esan eta asman al deitequean iza-terie andi eta miragarriena; Jaun bat amsibagarrie ona, guztidaiyana, jaquituna, sucena, gauza guztien asiera eta azquena.

AZALDUEREA.

¿Cein da Jaungoicoaren izatea? Bere berez izatea, izatez iza-tea, orregaitie da betioa, aldatueeingarrria, asieraric euqui izan ez dabena, eta azquenie euquico ez dabena.

¿Cergaitie dñozu «dala gauza bat andiena eta miragarriena?» Dalaco, esan eta asman al deitequean guztiaren ganetie: dñazalaco ontasun oso eta bete guztiac, eta guztiac, dñi dñanac, mailla azquenbagaoan.

«Cergaitic dinozu «dala Jaun bat?» Cergaitic Bera bacarrir dan guztiz eta osoro dagoan guztiaren Jaube Gorengoa, Berac bere Guztialtasunagaz ecerezetic eguiñ izan daben, izatea daucan guztia, eta bere jaquituria amaibagueagaz iraun eraguiten deutsan guztiari.

«Cer esan gura dau «dala amaibagaric ona esateac?» Dala izatez eta berez ontasuna berbera; gura dabela criatura guztien ona, eta eguiten deutsezala onera eta mesede neurribagae.

«Cer esan gura dau «Guztialdaiqueanac?» Jaungoicoa bere Guztialtasunagaz al dabela, bere borondateac gura daben guztia.

«Celan da «amaibagarie jaquituna?» Cergaitic bere eguita bacarchu baten bitartez guztia daucan bere aurrean, eta guztia suceduten daben jaquituriaz, ceimbatean, astuntasunean eta neurrian.

«Cergaitic dinozu «amaibagarie sucena?» Baochari dagocena emoten deutzalaco, eta ichi ecin leiquezalaco castigau bagaric pecatua eta nasaiqueria guztiac, ez eta bere saritu bagarie onoidadeac eta gauza on guztiac.

«Cergaitie dinozu «gauza guztien asiera eta azquena?» Cergaitie criatura guztiac diran bere escuetaco eguiquerac, eta utsetic eguiñ izan daben guztia bere zorioneraco, ecin dan ecerezetic eguinico guztiaren azquena.

«Cer atera bear dogu iracatsi onetic? Jaungoicoaren aurrean beti ibiltea; maitetutene dogula bere ontasun eta onaidade amaibagacgaitie, eta bildur izaten deutsagula bere sueertasun azquenbagueagaitie.

JAZOEREA.

Zauriz eta leguen atsituz beterico esqueco premiñadun bat aurquitutene zan Eleiza bateco atetan esquean. Bere erruqui andi bat artu eban Arimazain edo Abade batec, agur eguinagaz, esan eutsan:—Jaunac emon daguizuzala egun dontsuagoac eta zorioneagoa.—Onetara esqueco premiñadunac erantzun eutsan—ez ebala iñoz euqui egun charric, dontsua eta zorioneoco nazala erechiten jat, cergaitic guztia jazoten jat, neuc gura do-

dan leguez.—Arimazainac ecin ezagutu eta aditu al izanic, celean izan ceitequean dontsu eta zorionecoa, ala eoz premifia eta estutastunean egoan bat, escatu eutsan, berba eguiola eta emon eguiozala azalduera eta errazoiac. Espiritu Santua arguiturico guizon esqueco arec emon eutsan iracatsi goratu au:—Nic ondo ezagutu dot, guztia mundu onetan datorrela Jaungoicoagandie; Berac maite nau azquenbaga, eta guztia suenduten dau nire oneraco. Gogoracinoe once batu nau errime Jaungoicoagaz, eta batuera edo alcartasun onec eguiten dau nire zoriantasuna. Baldin otsac edo beroac necatutu banau, goratu eta alabetan dot, bialdutu deuztan Jaungoicoa; gachac eta gueisotasunac minduten banabe, edo guizonac nire contra bandabilz, poz pozie nago; cergaitic Jaungoicoac *ondo eguiten dau guztia*, nire oneraco sueenduten dau guztia.

Iracatsi 7.^a—Irubatasun edo Trinidad guztiz Santua.

¿Cein da Irubatasun guztiz Santua? Da Jaungoicoa bera, Aita, Semea eta Espiritu Santua, iru persona distinto edo banac eta Jaungoico eguiazco bacar bat. ¿Aita Jaungoicoa da? Bai, Jauna. ¿Semea Jaungoicoa da? Bai, Jauna. ¿Espiritu Santua Jaungoicoa da? Bai, Jauna. ¿Ira Jaungoico dira? Ez, Jauna, ezpada Jaungoico egniazeo bacar bat. Guztiadaiquean bacar bat, Betico bacar bat eta Jaun bacar bat, dan bere leguez. ¿Aita Semea da? Ez, Jauna. ¿Espiritu Santua Aita edo Semea da? Ez, Jauna. ¿Cergaitic? Cergaitic iru Personac banac direan, izan arren Jaungoico eguiazco bacar bat. Au onelan dala, ¿ceinbat izate, adin eta borondate dagoz Jaungoicoagan? Izate bacar bat, adin bacar bat eta borondate bacar bat. ¿Eta ceinbat Persona? Iru banac, ceintzuc direan: Aitea, Semea eta Espiritu Santua.

AZALDUEREA.

Bat eta iru bateru izateac ¿ez dau sarratuten contraquizuna? Bat eta iru esangura bat baten izateac, egiaz sarratuten dau contraquizuna, esango balitz leguez, bat eta iru Persona, edo

bat eta iru izate; baña bat eta iru izateac esangura desbardi-netan, ez dauco contraquizunic, ez dagoan leguez esatean, gure arimea dala bat eta daueazala iru almen, gomutea, adina eta borondatea: alan Jaungoicoagan izate bacar bat eta iru Persona banac.

Bada baldin Aita ez bada Semea eta Espiritu Santua ez bada Aita edo Semea, *gzelan*, izanic banac, eguiten dabe Jaungoico bacar bat? Cergaitic iru Personac dauquen izate bacar bat bera; celan arbola batec dancazan iru errama banac, eta celan irurac dauquen gorputz bacar bat bera, eguiten daben arbola bacar bat.

Eta iru Personetatic *geein* da lenengoa edo zarrena? Aitac sortu arren Semea, eta Espiritu Santua etorri arren Aitagandie eta Semcagandie, iru Persona danae dira bardinac eta beticoae.

Imini eguidazu irudi bat gauza orren ganean. Eguzquigandie urteten dabe arguitasunac eta berotasunac, eta orregaiticbere irurac dira dempora bat batecoa, bata bestea baño lenagocoa edo gueroagocoa izan baga.

Bafia au da, errazoiac ozagutu eta ulertu ecin leiqueana.— Eta berezco gauzea da, alan izatea; ecin izan leiteque, gure errazoe neurtuac, alde guztietatic bera ingurututenean dabeen escutapen eta gauza miragarriac bere ezagututenean ez dituza-nac, ezagutu eta ulertu dagniala Jaungoicoaren azquenbaco-tasuna.

¿Bafia Jaungoicoac aguindu leique, sinistu daitezala errazoiaren contraco gauzac? Escutapenac ez dira errazoiaren contracoac; dira *errazoiaren gañeticoac*, cein dan gauza guztiz desbardina.

¿Eta ce onera ateraten dogu, ezagutu eta ulertutenean ez do-guna, sinistuagaz? Escutapen guztian dago alde ilun bat, guri, bera jaquiteco, arduraric emon bear ez deuzezuna; eta dago alde arguitsu bat, guri ieusi eta ezagutu eraguiten deuzezuna eguiac, eurac baga gue azaldu eta adierazo ecingo gueun-quezanac. Alan, Irubatasun edo Trinidadeguztiz Santuaren

escutapena baga, ecin azaldu eta adierazo al izango guenquez araguituera eta erostea.

¿Ce iracatsi atera bear dogu esan danetic? Gueure altasun eta ezaupera laburraren gañetic dagozan escutapenac ezagutu eta saconduteco, ez gareala izan bear jaquinayac eta ardura-tsuac, ezpada eurac aguertu denzuzan, bera iñoc engaña ecin leiquean, eta berac iñor engaña ecin leiquean Jaungoi-coaren nagusitasun eta aguintaritasunean gueure uste guztia iminiric, atsedon egun eta baquean gueratu bear gareala.

JAZOEREA.

Civita-Véquiaeo ichasoaren urbasterrean ebillan San Agustin batetic bestera, eta orduco bere gurari eta asmu guztia zan, Irubatasun edo Trinidad guztiz Santuaren escutapena ondo ezagutu, ulertu eta azaldutea; eta orra nun uste baga eta batbatean aguertuten dan bere beguien aurrera ume eder eta zoragarri bat, ichasbasterreco aree artian zulo bat egui-nic, ichasotic mascorra edo chirla baten arturico uragaz, zuloa betetan ebillana. Ieusi ebaneco San Agustinec, irribarro egui-nagaz, itandu outsan samurtasunez;—uste beban botatea zulo atara ichasoco ur guztia.—Eta ¿cergaitic ez? erantzun eutsan umechoac, au errazago izango litzateque, Irubatasun edo Trinidad guztiz Santuaren ichaso edo sacontasun ezaugutuecin-garria zure errazoagan sartutea bafio.—Au esanic, desaguertu zan umea, cein ez zan besteric, ceruco angueru bat ezpada.

Iracatsi 8.^a—Jaungoico Eguillea.

¿Celan da Eguillea? Cergaitic atera cituzan ecerbereezetic gauza guztiac. ¿Cetaraco egun eban Jaungoicoac guizona? Bicitza onetan bera serbidu, eta guero bicitza beticoan bera gozetao.

¿Bardin da ecerezetic eguitea cein da fomai edo eraztutea? Ez; ecerezetic eguitea da cerbait utsetic ateratea, eta ontarre-co bear da escubide edo alizate azquenbagaco bat, eta au da-

goco bacar bacarric Jaungoicoari; formau edo eraztutea da gauza bat beste bategaz eguita, arotz batec suragaz mai bat eguiten daben leguez, eta au da criatural dagocoena.

¿Celan emoten deutse zoriona Jaungoicoari gauza utsetic egninae? Aguertuagaz bere jaquituria azquenbagaoa, bere escubide amaibagaoa, bere providencia neurrribagaoa, eta beste era ascotara, eta au guzti au, jaquin baga eta noraezean, eta beraugaitic ecer irabaci baga

¿Cetan desbardinduten da guizona beste emparau izate eceretzic eguinicoagandic? Euquitcan arima bat Jaungoicoaren antz eta irudikoak; espiritucorra, liberea eta ezilcorra,

¿Celan emoten deutso zoriona guizonac Jaungoicoari? Ezau-pereagaz eta libertadeagaz, eta berangaitic irabaciagaz, cein Jaungoicoak sarituco deutsan, utsetic eguina izan zanean, izentaurico azquena dan zoriontasun beticoan.

¿Noc iraun eraguiten deutse, Jaungoicoac ecerezetic egin eitzuzan gauza guztia? Jaungoicoac berac, bere alizate miragariagaz, jaquituria azquenbagaoagaz, bere ontasun eta providencia amaibagaoacaz.

¿Eta munduan jazoten dan guztia da, Jaungoicone erabaguiric dancana? Munduko jazoera andi eta chiqui guztia dagoz erabagniric edo laqueturic bere providenciagaitic, eta guztia doa suen bere zorion gueiagora.

Bada baldin Jaungoicoac eguiten badituz edo laquetuten badituz gauza guztiae, zelar dagoz ainbeste gach, ainbeste neque eta ainbeste zorichar munduan? Ezagutu daguigun, mundu au dala negarrezzo erbeste eta leku bat, eta cerua da la gure erria eta gure zoriontasun beticoaren leku dontsua.

¿Cer atera bear dogu emendie? Jaungoicoagandie guztia artu dogun ezquero, Beragana guztia suncendutea, billatutzen dogula gauza guztietan bere zoriona eta bere borondatea egin eta betetea.

JAZOEREA.

Jazoeratzat aitatuco dogu ecerezetic eguinico gauzen burriya. Asieran egin eitzuzan Jaungoicoac cerua eta lurra, eta

eguin cituzan sei egnanean. Lenengoan eguin eban argua; bigarrenean izar guoldien leua; irugarrenean batu cituzan ichasoetan, lurraren ganean eguzan ura, eta aguindu eutsan lurrari, ernetu eguzala landarae, zugatzac eta arbolac; langarronean eguzquia, ilargua eta izarrac; bostgarrenean arraiaic eta egaztiac; seigarrenean lurreco abere eta patariac, eta egun atan bertan guizona; eguin eban guizonaren gorputza Iupetzeagaz edo buztinagaz, arimea atera eban ecerezetic, eta deitu eutsan Adan; eta bere zaiyatzagaz eguin eban lenengo emaucumea, Eva deitu entsana. Eguin cituzan errubacotasuneco eta suentasuneco egoera izatezgañeticoan, et imini cituzan atseguinezco ortu haten, aguinduten eutsela ez eguiela jan onaren eta ebarren arbolaie. Ona eta charra ezagutueo ebela, eta Jaungoicoe leguez izango cirala esan eta esquini eutsen demoninoac engañaurie, jan eben fruta galera zoricoa, onelan ansten ebela. Jaunaren aguindua, eta berangaitic botene izan ciran atseguinezeo ortutic, quenduac izan jaquezau gracia eta doe izatezgañeticoac, eta gueratu ciran euren pecaluaren nequearen azpian.

Iracatsi 9.^a—Jesucristo.

¿Iru Persona Jaungoicozcoetatic cein eguin zan guizon? Bigarrena cein dan Semea. ¿Nor da Jesucristo? Da Jaungoico biciaren Semea, guizon eguin zana, gu erostearren eta guri bicitzaco onbidea emotearren. ¿Eta ceinbat izate, borondate eta adin dagoz Jesueristogan? Izate bi, bat jaungoicozcoa eta bestea guizonezcoa; borondate bi, bat jaungoicozcoa eta bestea guizonezcoa; eta adin bi, bat jaungoicozcoa eta bestea guizonezcoa. ¿Eta ceinbat Persona eta gomuta? Persona jaungoicozco bat bacartie, cein dan Irubatasun edo Trinidad guztiz Santuco bigarrena, eta gomuta bacar bat, cergaitic, Jaungoicoa danez, ez daucan gomutarie. ¿Cer esan gura dau Jesussee? Salbaguillea. ¿Cetatic salbau guinduzan? Gueure pecatuetatic eta demoninoaren mendetic. ¿Cer ezan gura dau Cristoc? Ungidua. ¿Cegaz izan zan ungidua? Espiritu Santuaren gracia eta doeza.

AZALDUEREA.

¿Cergaitic esaten da, bere Seme bacarra eta Jaungoicoaren Semea dala? Cergaitic Jesueristo da Jaungoicoaren Seme bacar eta eguiazcoa, Aitac bere beraren izatetic beticotiasunetic sortua, eta beraugaitie Jaungoicoa Jaungoicoagandie, guztian Beragaz bardina.

¿Eta bere da guizon eguiazcoa? Bai: Maria Dontzella guztiz Santearen erraiyetan artu eban izate guzonezcoagaitic.

¿Eta izate bi oneec Persona bat baten batuagaz, ez eiran nasta? Ez ifiolaz bere; ezpada gueratu ciran banac, baocharen egoquitasunacaz. Alan, Janugoico danez, da guztiadaiquena, neurribaguea...; eta guizona danez, da padecieorra, ilcorra, izate guzonezcoaren premisa eta gach guztiacaz, ez izanie petutua.

¿Cein da Jaungoico guizon eguinaren edo Verbo Araguituaren icen egoquia? Jesus, ceinec esan gura daben Salbaguillea.

¿Cergaitic? Cergaitic onec, beste edocciñec baño obeto, aguertutenean bere izatea, cein dan guizatasun guztiaren Salbaguille oso eta betea izatea.

¿Eta Cristoren icenae? Aguertutenean deuztu bere duintasuna, eta legueemontzaldearen, igarlearen eta abadearen lana.

¿Cergaitic? Cergaitic anchinaco demporan izaten ciran orioyagaz orniduae eta ungiduae abadeac, igarlae eta erregueak: alan Jesus izan zan Espiritu Santuaren gracia eta doen betetasunagaz ornidua eta ungidua, izan ceiten abade gorengoa, igarla nagusia eta erreguen erreguea, ecini emon izan jaca escubide guztia ceruan eta lurrean.

¿Celan emon euzcum bicitzaco onbidea? Lendanico aututaco arima on eta artezen ispiltzat gure artian aguertuagaz, iracazten euzcula bere icasbide ceruoa, eta emoten euzeula onoidade eta birtute guztien jarraigarrria.

¿Ce iracatsi atera bear dogu emendic? Jesueristo lendanico aututaco arima on eta artezen ispilla dan ezquiero, berari jarritateko aleguinac egitea, ondo begniratutenean deutsagula bere iracatsi cerneoari, eta gueure gogoan sarri eta sarri erabilten doguzala bere onoidade ederrac.

JAZOEREA.

Celan burdina gorituac, dino San Francisco Sales-ec, daucan burdinearen eta suaren izatea, eta deitu leitequeon burdinea eta sua batera, alan Jesucristo da Jaungoico eguiazcoa bere jaungoicotasanaren suagnitic, eta guizon eguiazcoa bere guizatasunaren burdineagaitic. Eta celan burdineac oz deutzan ichiten burdina gogor eta aztuna izateari, suagaz alceturic eta baturic egon arren bere; eta suac ez deutsan ichiten su arguitsua eta beroa... izateari, burdinan aurquitu arren bere; alan Jesueristoren guizatasunac ez deutso ichiten chiquia, padecicorra... izateari, jaungoicotasanagaz alceturic eta baturic egon arren bere, eta jaungoicotasanac ez deutso ichiten guztiadaiqueana, amaiagaric zorionecot... izateari, gnisatasunagaz alceturic eta baturic egon arren bere.

Iracatsi 10.^a—Araguituerearen escutapena.

Cristo gure Jauma, ¿celan izan zan sortua, eta jaio zan Anna Dontzelleagandic? Jaungoicoaren eguite izatezgañeticoz eta miragarriz. ¿Cergaitic dinozu, izatezgañeticoz eta miragarriz? Cergaitic Jesucristo ez zan izan sortua, eta ez zan bere jaio, beste emparau guizonac leguez. ¿Celan egun zan bere sortueraco escutapena? Maria Dontzellearen erraiyetan egun eban Espiritu Santuac gorputz guztiz oso eta bete bat Andra onen odol guztiz garbiagaz, ecerezetic atera eban arima bat, eta arima an batu eban gorputz aregaz; eta une atan bertan Jaungoicoaren Semea batu zan gorputz eta arima arecraz, eta onelan, Jaungoieo biarrie zama, Jaungoico izateari ichi baga, gueratu zan guizon egunie. ¿Eta celan jaio zan miragarriz? Urtenic Maria guztiz Santearen zabeletic bere dontzellatasunaren calte baga, eguzquiaren errafinac cristaletic urtetzen daben leguez, bera zatitu eta ezaindu edo loitu bagaric. ¿Bere Ama bici izan guero beti Dontzella? Bai, Jauna, beti beti.

AZALDUEREA.

¿Cer esan gura dan araguitutac? Guizonaren araguia artuta, edo guizon eguitea.

¿Eta celan izan leiteque, izate azquenbagaco bat, Jaungoicoa dan leguez, batu leitequeala, gauza ain chiquia dan guiznagaz? *Celan*, ez eguidazu itandu niri; da esentapen bat, nie sinistuten dodana, ezagutu eta ulertutenez badot bere; sinistuten dodan leguez neure izatea bera, ezagutu eta ulertu ez arren, celan nire arima, izate espiritucorra dana, dagoan baturic gorputz lurcorragaz eta aguinduten deutzan beroni.

¿Eein artu eiquean guizon oso eta betearen izatea? Eguiaz eta benetan al ciucan; baña samurrago eta maitetsuago zan ume eguitea, gure antzecoa guztian, iragoric gure izate argal eta erruquigarriaren umiltasunac eta premiñae.

¿Maria Dontzella guztiz Santa deitua izan leiteque eta da benetan Jaungoicoaren Ama? Bai; cergaitic bere beraren odo lagaz sortua izan zan bere erraiyetan, eta arguitara emon ebalako Seme bat, Jaungoicoa dana.

¿Cergaitic dagoco eta ezarten jaco Espiritu Santuari araguituerearen eguitea? Izañ zalaco Jaungoicoaren amodio amaibaguearen eguitea, ceñaren eguiquerac dagocozan eta ezarten jaçozan Espiritu Santuari.

¿Cergaitic araguitu zan Seinea, eta ez Aita edo Espiritu Santua? Cergaitic araguituerearen azquena zan, gu Jaungoicoaren seme-ordeac eguitea, eta egoqui cirudian, au eguin eguiala Jaungoicoaren Seme bacar benetacoac.

¿Ce onera atera bear dogu escutapen onen gogoracinoetic? Umiltasuneco onoidadeari ciatz jarraitutea, icasten dogula otzanae eta umilae izaten, gu zorioneco eguitearren, umiltasun ain andiac eta beeratuae artu cituzan Jaungoicoaren amodioagaitie.

JAZOEREA.

Evangelicoac araguitutearen ganean berba eguiten dau onelan: «Eta Gabriel Anguerua bialdua izan zan Nazaret-era, José erichon guizon bategaz escondurico Dontzella bategana, eta

Dontzella onen icena zan Maria. » Eta sarturie Anguerua, Maria egoan lecura, agur egun eutsan, cirautsala: « Jaungoicoac gorde zaguizala, graciagaz betea; Jauna da zugaz, bedeincatua zu andra guztien artian. » Eta bera icaratu zan, ce agur-eguite izan ceitequean an, gogoratuagaz. Angueruac esan eutsan: « Ez zaitez bildurtu, Maria, cergaitic aurquitu dozu gracia Jaungoicoaren aurrean; ona emen zuc sortueo dozu eta arguitara emongo dozu Seme bat eta deituko deutsazu bere icena Jesus. Au izango da andia eta deitua Guztizgoicoaren Semea. » Eta Mariac esan eutsan Angueruari: « Celan izango da an, ezaguten ez badot guizonic? » Eta Angueruac erantzun eutsan: « Espiritu Santua etorriko da zure gañiera, eta lagundueo deutzu Guztizgoicoaren alizateac, eta beraugaitic, zugandie jaioco dan Santua, deitua izango da Jaungoicoaren Semea. » Eta Mariac esan eban: « Ona emen Jaunaren mendecoa, egun beite nigan zure berbearen erara. » Andie bederatzilabetera jaio zan Belengo abelechean, eta asca baten etzanda egoala, icusia izan zan arzainacgaitic eta errengueacgaitic; andie zortzigarren egunean izan zan araguiepaitua edo circuncidadua, eta guero oguetamar urteran egon zan José eta Mariaren mendean, eroaten ebala bicitza isil eta escutin bat.

Iracatsi II.^a—Erostearen escutapena.

« Cergaitic il gura izan eban Curutzeco eriotzeagaz? Gu pecatutie eta eriotza beticotie libretearren. » Bada celan gueratu guinean gu, eriotza beticoaren mendeco eguinic? Pecatu eguinic Adan gure lenengo gurazoac, ceñegan pecatu egun guenduan guztioe.

AZALDUEREA.

Baldin gure lenengo gurazoac pecatu egun izan beben, « cergaitie irago bear doguz gue pecatu aren ondorengo eta gachac? Cergaitic eurac ez bacarric pecatu egun eben euren leguez, baitabere guizatasun guztiaren buruac leguez. Eurac euren peccatuagaitie galdu cituezan doe doacoac, Jaungoicoac emon eutsezana, eta gracia santueguillea; beraz gauza egoquia eta be-

rezcoa da, euren semealabac istorri daitezala mundura, eurac galdu cituezan doe orreec bagarie, bicitza izntezgañeticora ilic: bada ause da pecatu jatorrizcoa.

Arguitu eta azaldu eguzu au irudi bategaz.—Erregue batec emoten deutsoz bere mendeco guizon bateri duintasun ereguiac eta aberastasun ugariac, bafia izaten baldin bajaco esanecoa eta leiyala; guizon onec urtetan dau esancharrecoac, muquerac eta desleiyalac bere erregueagaz, eta beraugaitic erregueac quenduten dentsoz, berac emonico duintasun ereguiac eta aberastasun ugariac, eta bialdutetan dau erbestera; berezko eta arteztasuneko gauzea da bada, bere semealabac jaio daitezala erbestean, erreguearen amodio eta abegui onagandie urrindurie eta duintasun eta aberastasun areec bagarie.

Eta pecatuaren gacha osatuteco *ȝez* zan izango asco eta nai-coa guizon artez bat edo Angueru bat? Ez: cergaitic, izanic pecatua gach azquenbagaco bat, noraezecoa eta bearrecoa zan, sucintasunac escatutetan eban leguez, quitugarri edo osagarri azquenbagaco bat, Jaungoicoe bacarrie emon eiqueana.

¿Eta ce premiña eucan Jaungoicoe guizon eguiteco, quitugarri edo osagarri ori emoteco? Noraezecoa eta bearbearrecoa zan, cergaitic, Jaungoico zanez, ecin beeratu eta umillau ceitequean, eta ecin irago eiquezan nequeac: eta gañera zan guztiz egoqui, guizon batec eguin eguiala guizatasun guztiaren ordez eta icenean.

¿Celan bateratu cituzan Jesucristoe azquen orreec? Guizona danez, beeratu eta umilletan da bere Aitaren aurrean, eta bere pasinoe eta eriotzeangaz emoten deutsoz quitugarriac, eta Jaungoico danez, quitugarri orrei emoten deutso balio azquen-baguea.

Baldin Jesueristoe emon izan baditz gonburuan quitugarriac, *ȝez* daueagu guecer eguiñ bearric? Bai: artu bear do-guz gue quitugarri orreec, eta guri izan bear jacuz ezarriac, Jasueristoe berac imini dituzan eguiñbidetatic, ceintzue diran bearreco prestneracaz arturico Sacramentuac.

Izanic balio azquenbagacoac Jesueristoren quitugarriac, *ȝez* zan asco eta naicoa izango bere odolaren tantaea bat? Bai; ba-

ña ainbeste neque irago, eta bere odol guztia bota eta izuri gara izan cituzan, guri bere amodioaren azquenbagacotasuna eta pecatuaren aztuntasun amaibaguea aguertu eta erantzearren.

¿Celaco erabagui ateri bear dogu escutapen onetic? Guztia galduzco, edo ilteco, bearrecoa bada, erabagui errime bat artutea, egun baño lenago pecatua, ceñegaitie il zan Jesus.

JAZOEREA.

Izango da Jesucristoren bicitza aguirria eta bere pasinoa. Jesucristo gure Jauna, oguetamar urteco zala, San Juan Bautisteagaitie Jordango erreccan bateatua izan ezquiero, joan zan basamortura, eta bertan irago cituzan berroguei egun penitencia, nequealdi eta erreigüetan, demoninoagandie esetsiac eta tentacionoac eizqui izan cituzalu. Asierea emoteco bere bicitza aguirriari, autu cituzan amabi Apostolu, izan ceitezan bere Eleizearen arri sendoac; adierazo eban iru urtean bere berba ceruza, ciurtau eta eguiaztuten ebala bere iracatsin bere bicitzen santutasunagaz eta mirarien ugaritasunagaz. Escriba eta Fariscoac, euren dongaestalqueria eta euren biotzetako uasai queria aguertu eta chartzat emoten eutszalaco Jesusee, oni eutsen icusiecin edo gorroto andi bat, eta artu eben, bera ilteco asimu deabruzcoa, billatu eta icharoten ebela ataraco era egoquiya. Judas bere Apostoloestatic bata joan zan, Jesus egoan ortura, Jesus bere arerio gogorren esuetan imintera, bada ordurako salduta eucan oguetamar dirugaitie: loturie locarri eta cateda gogorracaz, guizonic donguena eta charrena balitz leguez, eroan eben Anasen eta Caifasen echetara, nun artu cituzan matrallaco eta belarrondoco andiac, burla, barre eta destaña icaragarriac, eta eriotzaco epua. Uurrengo egunean eroan eben Pilatosegana, ceñec, ezaguturie Jesusen errubiacotasuna, bindu eban Herodesegana, ceñec biurtu eban sorojantsirie. Guero azotadua izanie, eta bere burnan arantzazeo coroe gogor bat ebala, eroana izan zan erriaren aurrera, ota erricoac escatutuen eben izan ceitela curutzean josia. Barrabas guizon donga eta lapuraren libertadea escatutuen eben dempora berean. Artu-

rie eriotzaco erabaguia, eta eroanie Curutze aztuna bere zorbaldetan Calvarioco Mendiraño, an izan zan Curutzean josia, ilton zala lapurren erdian, iru ordu egañia larri, estu eta iegaragarrizcoaren estean.

Iracatsi 12.^a—Jesueristoren eriotzeari jarraitu eutsen esutapenac.

¿Cer adietan dōzu, Cristo gure Jauna, il ezquero, jatsi zan infernuaren iceenagaz? Ez condenauen lecua, ezpada arima ona egozan toquiya. ¿Celan jatsi zan? Arima Jaungoicotasunagaz batuagaz. ¿Eta bere gorputza celan gueratu zan? Jaungoicotasunagaz beragaz baturie. ¿Celan biztu zan irugarren egunean? Barriro batuten cirala bere gorputz eta arima zorionecoa, ostera iñoz ez ilteco. ¿Celan igoñ eban ceruetara? Berez eta bere alizatez. ¿Aita Jaungoicoaren esumatic jarrita egoteac, cer osan gura dau? Cristoc, Jaungoicoa danez, Aitac besteco zoriantasuna daneala, eta, Guizona danez, beste edoceiniec baño gueiago.

AZALDUEREA.

¿Jesuerista il zan, Jaungoicoa zanez, edo Guizona zanez? Guizona zanez, alderatutenez arimea gorputzagandie, cergaitie, Jaungoicoa zanez, ecín il ceitequean.

¿Cetaraeo jatsi zan Jesueristo arima onen eta artezen ilunbera edo limbora? Euren poxitutera, Erostearen esutapenac bete cirala eurai adierazo, eta, eurac ceruan sartuteko ordu dontsua, urean egoala eurai aguertu eta esanagaz.

¿Baldin Jaungoicotasuna jatsi bazan arimeagaz, celan gueratu ceitequean gorputzagaz? Cergaitie Jaungoicotasuna dagoan leeu guztietan, eta alau arimea eta gorputza bata bestengandie alderatu ciranean eriotzeagaitie, biyac gueratu ciran baturie Jaungoicotasunagaz. Celan soldadu batec ateraten daben oean espates lecutic, espatea eta lekuca aldecarregandie alderatuta egon arren, biyac gueratutenez diran baturie soldaduagaz.

¿Cer eguin zan bere gorputz ilagaz? Izan zan lurpetua arrizco obi edo sepultura barri baten, eta sepultura an izan zan

arriloza bategaz sarratua eta zillatua, engañuren bat egun ez ceiten, iminten cirala gañera, bera zainduteco gordetzallae.

¿Cer jazo zan guero? Jesucristo biztu zan irugarren egunean zorionez beterie, arritu eta izaratuten cirala soldadu zaintzallac, ceintzuc, iguez egunnic urira, emoten eben Jesucristoren Biztuerearen ezaupera, barri eta lecucotasuna.

¿Cer adierazo eta eguiaztutenean dau Jesucristoren Biztuereae? Da bere Jaungoicotatasunaren ezangarriric arguiena eta eguiazcoena. Berac aurrez eta lenaz esan eban, ilgo zala, eta guero irugarren egunean biztuz zala; eta esan eban leguez, egun eta bete zan; beraz da eguiaz eta benetan Jaungoicoa.

¿Cetaraco igoen eban cerura? Guri ceruco ateac idigui eta zabalduteco, eta bertaco jaubetasuna artuteco; gugan irazartu eta biztuteco, berari jarraituteco gurari andi eta sutsu bat eta cergaitic bere gorputz zoriontsuac eta ozilcorrac euqui bear eban negarrezko leku au baño beste bicileku obago eta ederrago bat.

¿Cergaitic esaten da dagoala jarriric? Cergaitic dagoan ceruan bere atsedenezco eta alseguiñezco lecuan leguez, bertan daroala bicitza betico bat.

¿Ce onera atora bear dogu escutapen onetatic? Onoidadeac eta eguiquera onae eurenez dacardezan nequeac eta gachtasunac azpiratuteco eta goituteco, eta bicitza onetako zorichar, preminac eta estutasunac onean iragoteco, asmu eta erabagui sendoac artutea; cergaitic, colan Jesucristoc irtien eban garaitza dontsuagaz, gue bere urtengo dogu.

JAZOEREA.

Aitatuco doguz jazoeratzat, Jesucristoc lurrean irago cituzan bere bicitzaco nzquenengo egunac. —Jesucristo, bere Biztuerearen ostean, gueratu zan lurrean berroguei egunean, bere icaslai sarri ascotan aguertu izan jaquela, berari ucututenean euren atzac bere zaurictan sartutenean, ichiten eutsela, euren lan eta eguiquizumeau sendatutenean cituzala, escutapen asco-eracutsi eta aguertutenean eutsezala, Sacramentuac iminten cituzala... Iragoric berroguei egunac, eroan cituzan bere icaslai Oriyo-

arboletaco mendira, eta an eurac bedeincatu ezquiero, arguitasunez inguruturie eta anditasunez beterie, igon eban cerueta-ra, bere icasia guztiac, euren Maisu jaungoicozeoaren igoera eta garaitza zorionecoagaz mirariturie, beguira egocozala, arie eta oilei batec euren beguietatic escutau eta estaldu eban artian. Oraindic cerura beguira egozala, angueru hic esan eutsen eurai: «Guizon galileatarrac, ¿cergaitic zagoce cerura begtura? Igoten ieusi dozuen leguez, anditasun beragaz etorrico da mundua juzgutara edo erabaguitera.»

Iracatsi 13.^a — Biltuera eta eraerabagui edo juicio guztien.

¿Noz etorrico da, biciae eta ilae juzgutara? Munduaren azquenean. ¿Eta orduan biltueo dira il guztiac? Bai, Aita, euqui cituezan gorputz eta arima euracaz.

AZALDUEREA.

¿Ceinbat erabagui edo juicio dagoz? Bi: bacocharen eriotza-co orduan egiten dana, eta bacocharena derichona, eta besten, munduaren azquenean egungo dana, eta guztien derichona.

¿Eta erabagni edo juicio guztienean aldatua edo ecereztzat emona izango da, erabagui edo juicio bacocharenean emon izan zan opaiya? Ez, cergaitic orduan emonico epaiya da alda-tueengarria, beti iraunecoa, bada bera emon izan eban aucie-pallea da amaibagaric jaquituna, eta engaña edin leitequeana.

Orduan ¿getaraco da erabagui edo juicio guztien? Jaungoicoaren Providencia argitan imini eta guztiai eracusteco, eta Jesucristo gure Jaunari bere zoriona emoteco; arima on eta artezen onra eta erreguitasuneraco eta donga eta charren lotsagarrirako.

¿Eta egnia da, mundua amaituero dala, eta orduan guztioe biltueo gareala? Bai; alan aguertu dau, engaña edin leitequean eta engaña edin guinaiquezan Jaungoicoac berac.

¿Celan izan leiteque biltutea gorputzae, batzuek autz biurturie egongo diranae, besteak arraiñagaitic eta abereagaitic

janda egongo diranac? Jaungoicoarentzat ez dago ecer, eguna izan egin leitequeanie; utsetic egun izan bagaituz gu, eta ecerezetic atera izan badituz gauza guztiac, obetoago eta errazago barriro egungo gaituz gu, guci len dagozanacaz, oneec danie zabalduen aurquitu arren bere.

¿Eta guizacume eta emeacume guztiac biziuko dira? Bai; guztinec, dandanac, batberen ieki bagaric, alian onac eta celan donga eta charrac, batzue zoriontasuneraco, eta besteac lotsari eta ondamendi beticorueo.

¿Cetaraco da araguiaren biztuera? Arimen batu daiten gorputzagaz, barriro ez alderatuteco eran, cergaitic gauza arteza da, gorputza onean eta charrean arimicaren lagun izan dan leguez, izan daitela bere zoriontasunean edo castiguan.

¿Eta au noz izango da? Ez daqui iñoc, ez eta ceruco Angueruac bere, Jesucristoc esan eban leguez, gu biei gaitezun beti prestaurie, arduraz, bildur santiagaz, ekin dan egua onetatic atera bear dogun onorea.

JAZOEREA.

Evangelioac berba eguiten dau azquenengo erabagiaren ganean onelan: «Anretic icusico dira ezangarri andiac eruan eta lurrean; eguzquia eta ilargua illunduko dira, eta erechico da, ceruco izarrac jausico balira leguez, iehasoac bere orroe bildurgarriacaz iragoco dituz bere muga eta ertsae, icaratuko da lurra, eta suzco erreca batec deseguingo dituz gauza guztiac. Entzumgo da Anguernaren deiya: «Jagui zaiteco, ilac, eta etorriz zaiteee juiciora» eta dei onetara biztuco dira il guztiac, eta batuko dira Josafat-eco ibarrean. Orduan aguertuko da Jesucristo anditasun eta ereguitasun andiagaz. Angueruac aldoratuco dituez onac charmegandic, iminten ditnezala batzuek esumacealdean eta besteacezquerrecoan. Idiguicodira concienciaeo liburuac, eta guztiak emona izango jaquen arguitasun guztiz andiagnaz, icusico da celako sucentasunagaz egun dituzan Jaungoicoac gauza guztiac; aguertuko dira oneen eta artezen eguiquera guztiac, oneec escatuenac izan arren bere; baitabere pecatarien eguite char guztiac, oneec isilenaiz izan badira bere.

Azquenez, succenduric Jesucristo onaegana, esango deutse: «Erdue, neure Aitaren bedeincatuac, zuentzat prestauring da goan erreflua artutera»; eta guero charrai: «Alde eguiizue niggandie, madaricatuac, demoninoarentzat eta bere jarraitzallen-tzat prestauringo su beticora.»

Iracatsi 14.^a—Bicitza beticoa.

Eta munduaren azquena basio lenago *gizango* dira guizonac juzgauac? Bai, Aita, guztiac euren bicitzearen azquenean juz-gau eta erabaguico dituz Jaunac; onac, betico zoriontasunean gozaunteco Jaungoicoa, eta charrac, infernuan betico neque eta tormentuac iragoteco.

AZALDUEREA.

¿Ori danez, bicitza onen ostean, dago beste bat eta bertan eguiñsariac eta castiguac? Alan iracasten dau siniste santuac, aituten emoten dau errazoe berezcoac, eta eguiaztu eta ciur-tetan dau erri guztien eta guizaldi guztietako errechi guztienae.

¿Bada ez dinoc, guztia amaitutenean dala eriotzeagaz? Alan esaten dabe, eta alan izatea gure leuquee donga eta charrac, baña ez da izango alan; espada arinea gorputzagandie alderatu orduan eriotzan, eta gorputza erabagui guztienaren ostean sartuco dira bicitza beticoan, eguiñsaria edo castigna artutera, euren eguiquerai jatorquen leguez.

¿Celan aituten emoten dau errazoe berezcoac? Jaungoico amaiñgarie onac eta succenac noraezean eta naitanaiez saritu bear dau on guztia, eta castigun bear dau char guztia; mundu onetan ez dan eguiten, badu icusten doguz char asco lurreco zorionetan, eta onac eta artezac zorichartean eta neque gogo-rren artian; beraz bearbearrecoa da egotea beste bicitza bat, nun onac artuco dabeen eguiñsari beticoa, eta charrac castigu beticoa.

Bada ez da iñor etorri beste mundutic, an iragoten dama, guri esatera.— Ez dago orren bear ez premiaric: baña etorri da Jesucristo, bicien eta ilen Auciepaldea, an iragoten dama,

guri esatera, eta guri arguiro iracastera, «charrac joango dira-la castigu beticora eta artezae bicitza beticora.»

¿Ce onera atera bear dogu emendic? Santutasunean bicidea, egua orrean ganean ezdabaidaric ez euquiteco; bada bacarric charto biei diranai, etorten jaquez badaezbadac orren ganean.

JAZOEREA.

Jesucristoc berberac iminten deuzeu irudi au: «Egoan guizonek aberats bat, soñeco ederrac eta eun guztiz leunezcoac jantsiten cituzana, eta egun guztietan convit andi eta ugariak euquiten cituzana. Eta esqueco edo premiñadun bat, Lazaro erichona, aurquituten zan zauriz beteric bere atartean, aberatsaren maitie jausten ciran ogni-ondarrac jan gura cituzana, eta iñoc emoten ez eutsazala. Il izan esquecoa, eta Angueruak eroan eben Abrahanen cerura, eta il zan aberatsa, eta izan zan ondatua infernuan. Eta ereguirie gora bere beguiac, tormentuen artian egoala, ieusi eben Lazaro Abrahanen cernau, eta deadar eguinagaz, esan eben: Aita Abrahan, erruquitu zaitez nigaz, eta bialdu eguztu Lazaro, bere atsa uretan buztiric, otsitu daguian nire mina, bada naz necatua eta atormentaua gnr oneetan;—eta Abrahanec erantzun eutsan: Gomutau zaitez, zue artu cenduzala ondasunac bicitzan, eta Lazaroc gachac, bada orain bera da poztua eta zu atormentaua; eta onezaz ostean aurquituten da zuen eta gure artian sacontasun eta bitarte guztiz andi bat, irago ecin leitoqueana. Edolabere erregututen deutzut, bialdu daguizula nire gurazoen echerá, bada daucadaz bost anaiya, adierazo daguioen eurai, emen jazoten dana, eta etorri ez daitezkan tormentuetaco lecu onotara. Badauez Moises eta igarlae, entzun beguioee eurai.—Ez, aita: baña ilen bat joango balichaqueoe, eguingo leuquee penitencia.—Abrahanec esan eutsan: Sinistuten ez badeutse Moiseseri eta igarlae, ez dabe bere sinistuko, ilen bat biztu arren bere.»

Iracatsi 15.^a—Beste bicitzaco egoera desbardinac.

¿Bada badago infernu bat baño gueiago? Bai, Aita; dagoz

lau, eta deriohе: condenaduen infernua, garbiteguia, umen ilunbea, artezen ilunbea edo Abrahаnen senoa. ¿Eta ce gauza dira? Condenaduen infernua da, pecatu eralla edo mortalean ilten diranac, doazan lecua, bertan boti alatuac, necatuac eta atormentauac izateco. Garbiteguia da lecu bat, nora doazan, graciаn ilten diranen arimac, euren pecatuen zorrac guztiz eta osoro pagau bagarie mundu onetan, bertan neque eta tormentu icaragarriacaz guztiz garbituac izateco. Umen ilunbea da lecu bat, nora doazan, adinera edo ezauberara eldu baño lenago, ilten diranen arimac, bateotuac izan bagarie. Eta artezen ihunbea edo Abrahаnen senoa da lecu bat, nora joaten ciran, gure erostea eguna izan baño lenago, Jaungoicoaren graciаn ilten ciranen arimac, guztiz garbituac izan eta guero, eta da araco lecua, ceñetara jatsi zan eguiaz eta benetan Jesucristo bera.

AZALDUEREA.

¿Celaco penac iragoten dituez condenauac infernuan? Bi: pena caltecoa, eta au da Jaungoicoa ez icustea; eta pena sentzunecoa, eta au da almen eta sentzun guztietan su amatauecingarriac edo ichunguiecingarriac emoten dituzan berotasun, neque, ala eta tormentuac iragoten egotea.

¿Pena bi onetatic cein da andiena? Caltecoa, cein, on azquenbagacoa dan Jaungoicoa bagaric ichiten gaituzalaco, dan azquenbagacoa legnez.

¿Eta celaco penac iragoten dira garbiteguian? Infernuan iragoten diranac eurac, eta oneec bacarric dira desbardinac, beticoac diralaco, eta garbiteguicoac demporazcoac diran artian, aric eta guztiz garbituric, guero ecrura joan arterario, irauten dabenac.

¿Eta umen ilunbean celaco penac iragoten dira? Bacarric caltecoa, eta onec bere ez deutse emoten mifnic ez nequerie, ezpada bestera, Gurazo Santu ascoren errechian, euquico dabe zoriontasun berezco bat.

¿Bada celan izan loiteque, izanic pena caltecoa andiena condenaduentzat, umentzat alan ez izatea? Cergaitic, nune ez diranac, danque Jaungoicoa ieusi eta euraeaz euquitoco escubidea,

eta icusi dagnienean, euren erruz galdu izan dabeela on azquenbagaco bat, artueo dabe eta enquico dabe pena azquenbagaco bat leguez. Ez alan uneac, Jaungoicoa galduteco escubideric, ez erruric, enqui ez ebenac.

¿Eta nortzue doaz artezen ilunbera? Iñor bere ez: cergaitic, bein gure erotea eguna izan ezquiero, Jaungoicoaren gracian eta garbitasun oso eta betean ilten diranen arimac, doaz suen cerura.

¿Cer da cerua? Atseguinezco eta zorioncco egoera bat, nun, enquiric Jaungoicoa, aurquituten dirau on guztiac, gach batzenbere neste bagaric.

¿Ceintzue dira arima zorionecoaren doteac? Iru: ieuspema, enquipena eta gozapena; edo bardin dana, Jaungoicoa icustea, cein dan sinistearen sariya; Jaungoicoa euquitea, cein dan icharopenaren sariya; eta Jaungoicoa gozelea, cein dan caridadearen sariya.

¿Ceintzue dira gorputz zorionecoaren doteac? Lau: minezgarritasuna, meetasuna, bizeortasuna, eta arguitasuna.

¿Eta ceruan guztiac datue zoriontasun bardina? Ez; ezpada izango da andigoa edo chiquiagoa, bacocharen irabaci eta merecimentuen neurrian.*

¿Cer da arguingurus? Sari bat edo zoriontasun berarizco bat, emongo jaquena iracaslai, martiriai eta dontzellai.

¿Ce onera atera bear dogu eguna onetatic? Infernuaren ganeo gomuteac irazartu bear dau gugan bildur santu bat, eta ceruaren gomuteac aurreratu eta bizeortu bear gaituz onoidadeari jarraitu eta ceruco bidean ondo ibilteera.

JAZOEREA.

Mutil gazte eta nasai batzue aurquitu ciran beinbatzen ordena guztiz estuico fraile bategaz; icusiric ebilela oñez, ortosic eta ain erruquigarri, asi ciran, berari barre eta burla eguiten, berac eroian bicitza nequetsnagaitic, eta azquenean esan eutsen:—Aita, celaco engaño ain andia eroango daben Berorrec, ez baldin badago cerurie.—Engaño andiagoa eroango dozue zuec, eguna bada dagoala infernua, siniste santuac iracasten deuzeum leguez.

Iracatsi 16.^a — Santuen Alcartasuna.

¿Cer sinistulen dozu, dinozunean: sinistulen dot Santuen Alcartasuna? Fededunac aldea dauquehi besten arimaco onetan, Eleizea dan gorputz bat baten satiyac leguez.

AZALDUEREA.

¿Cer esan gura dau emen Alcartasunaren icenae? Batuera, aldeartzea edo escubidea euquitesa, Cristoren fededunen artian dagozan arimaco ondasunetan, bai dirnla Eleiza goitularieoac, bai garbiteguicoac edo bai mundu onetan bici diranac eguiten dabean Eleizacoac.

¿Cer da Eleiza goitularia? Emen goitulari urten izan eben eta orain certuan dagozan guztien batuera.

¿Cer da Eleiza garbiteguicoa? Garbiteguian guztiz garbitutzen dagozan arimen batuera.

¿Cer da Eleiza gudalaria? Lurrean burruean dabilzan Cristoren fededunen batuera.

¿Ceinbat Eleiza dagoz? Bat bacarrie, gudaco, garbitasuneco eta garaitzaco bere iru egoeretan, ceñaren burua dan Jesueristo gure Jauna.

¿Cergaitie dericho «Santuen Alcartasuna?» Cergaitie berac lagundutzen deuzeun santu eguiten, eta cergaitic, bere onera eta frutu guztietan alde euquiteco, egon bear dan Jaungoicoaren gracian.

¿Celan eguiten da ceruco Santuen eta lurreco fededunen arteco Alcartasuna? Ceruco Santuac lagundutzen deuzene euren erreguacaz eta bitartecotasunagaz, jarichi eta alcanzetan deuzcuezala, azpiratu eta goituteco graciac; lurrean gagozanoe, onretan doguz Santuac, eurai erregutuagaz, euren irudi eta gorputz ileco ondarrac lotsa eta itsal andian euquiagaz, euren onoidade eta eguiquera santuac mirarituagaz, eta euren zoriontasun beticoagaitic gue poza eta atseguina artuagaz.

¿Celaco Alcartasuna eguiten da garbiteguico arimacaz? Celan eurac ecin ecer irabaci edo mereci leiqueen, il ezquiero, gue daucagu euren erruquia, eta euracgaitic esquiniten doguz

rreeta burlaeguiten ebala, arroqueriaz heteric, esan eban; — Bada
zeer? — ¿Uste dau Aita Santuac, bere escumieuac jausi eraguingo
deutsezala nire soldaduai euren escuetaco armac? — Egun ataa-
tic asi zan ilunduten bere izar eder eta argain, bere gueroceo
bicitza guztia izan zan atzecabez, estutiasunet eta zorigachez
betea, eta Rusiaco guda edo guerran ots andiaren indarra eldu
zan, bere soldaduai euren eseua quiquilductatice euren armac
jausi eraguiteraño.

Iracatsi 18.^a — Eleiza eguiazcoaren ezaugarriac.

¿Ceintzue dira Eleiza eguiazcoaren ezaugarrine? Lau: batasuna,
santutasuna, guztieracotasuna eta apostolucortasuna.

AZALDUEREA.

¿Ceinbat Eleiza gudalari eguiazco dagoz? Bai; bacarrie, eta
da Erromacoa; cergaitie berac bacarric daucasan Jesucristoren
Eleiza eguiazcoaren ezaugarriae.

¿Badaueo batasuna? Bai; cergaitie bere zati guztiaec dauquen
siniste santu bat bacarra, artuten dituezan Sacramentu batba-
tzue, eta dagezan baturic eta alcarturic, batasunaren toquia
dan Erromaco Aita Santuagaz.

¿Badaueo santutasana? Bai; cergaitie Jesucristo bere imintza-
ilea dan santua, santuac bere zaticietie asco, santua bere ira-
cetsia, santua bere oituracortasuna, eta santuac, berari jarrai-
tutene dentsen guztiaec.

¿Badaueo guztieracotasuna? Bai; cergaitie iracasten dituzan,
Jesucristoc aguerturico egua guztiaec, batbere ichi bagarie,
eta zahalduten dan guizaldi guztietara eta erreñu guztietatice.

¿Badaueo Apostolucortasuna? Bai; cergaitie Aita Santua
eta Obispoac datozen ordena eguiazco eta gueratubagaco ba-
ten bitarte, Jesucristoc bero Eleizearen esquin arritzat imini
cituzan San Pedrogandie eta Apostoluaegandie.

¿Ceintzue dira araco doteac, ceintzueaz edertu eta jantsi
eban Jesucristoc bere Eleizea? Iru: aguintaritasuna, utsie
eguinecintasuna eta engañoecintasuna, Aita Santu bere bu-
ruagan aurquitutene diranac.

AZALDUEREA.

¿Noc egun eban Eleizea? Jesucristoc, lurrean bere ordecoa izan ceiten munduaren azqueneraño, eta bere bitartez zabalduac izan eeitequeoezan gente guztiai Erostaren onera eta mesedecac.

¿Celan imini eban? Guizon bat leguez, arimea eta gorputza emoten eutsazala.

¿Cec eguiten dau arimea? Gracia Santuognilleac edo enridadeac, ceñaren bitartez onic eta artezac bici diran Jaungoicoagaz baturic eta alcaturic, eta eguiten dituezan bicitza beteocoo onera eta frutua.

¿Nortzuc dira Eleizearen arimeari dagocoezanac? Jaungoicoaren gracian dagozan artez guztiac eta eurac bacarric.

¿Cec eguiten dau gorputza? Siniste santu bat dauquen, eta euren arzain legoquien nagusitasunaren mendean bici diran bateoturico guztien batuereac.

¿Nortzue dagoz bada Eleizearen gorputzetic campora? Batetuan izan ez diranac, siniste santua galdu izan dabeen heregeac, aguindupetic campora dagozan cismaticoac, eta excomulgaduac, egoera orretan aurquituten diran bitartean.

¿Pecatariae dira, Eleizeari dagoqueozanac? Dira bere gorputzecoac, diralaco bere zatiyac; baña ez dira bere arimacoac, ez dagozalako Jaungoicoaren gracian.

¿Cer da escumieu edo excomuninoa? Eleizaco Alcartasunetie campora botatea, eta au da castigu bat, Eleizeac muquerrai, burueoyai eta gogortuai emoten deutsena, eta gue bildur asco izan bear deutsaguna.

¿Cer ieasi bear dogu iracatsi onetan? Jaungoicoagaz ezqueronecoac izan eta amadio andi bat gure Ama Eleizeari euquiten, cuqui izan dogulaco, bere altzoan jaioteko zoriona.

JAZOEREA.

Napoleon, bere arroqueriaren eta andiustearen indarrez itsurtie eta sorabiyaturic, eldu zan, Eleizearen nagusitasuna guichitan euquiteraño, eta beraugaitie izan zan Aita Santuagaitie escumicuatu edo excomulgadua. Napoleonec, escumicuaren ba-

rreeta burlaeguilenebalta, arroqueriaz beteric, esan eban: Bada
¿cer? ¿Uste dau Aita Santuac, bere escumieuac jausi eraguingo
deutzala nire soldaduai euren escuetaco armac? — Egun at-
tic asi zan ilunduten bere izar eder eta argia, bere gueroce
bicitza guztia izan zan atzecabez, estulazumez eta zorigachez
betea, eta Rusiaco guda edo guerran ots andiaren indarra eldu
zan, bere soldaduai euren eseu quiquilduetatic euren armac
jausi eragiterafio.

Iracatsi 18.^a — Eleiza eguiazcoaren ezaugarriac.

¿Ceintzue dira Eleiza eguiazconren ezaugarriae? Lau: batasuna,
santutasuna, guztieracotasuna eta apostolucortasuna.

AZALDUEREA.

¿Ceinbat Eleiza gudalari eguiazco dagoz? Bat bacarric, eta
da Erronkaon; cergaitie berac bacarric dauezan Jesucristoren
Eleiza eguiazcoaren ezaugarriac.

¿Badauko batasuna? Bai; cergaitie bere zati guztiac dauquen
siniste santu bat bacurra, artuten dituezan Sacramentu batba-
tzue, eta dagozan baturie eta alceturie, batasunaren toquia
dan Erronkako Aita Santuagaz.

¿Badauko santutasana? Bai; cergaitie Jesucristo bere imintza-
llen dan santua, santuac bere zatietatic asco, santua bere ira-
catsia, santua bere oituracortasuna, eta santuac, berari jarrai-
tutene dentsen guztiae.

¿Badauko guztieracolasuna? Bai; cergaitie iracasten dituzan,
Jesucristo aguerturico eguiia guztia, batbere ichi bagarie,
eta zabaldutene dan guizaldi guztietara eta erreñu guztietatic.

¿Badauko Apostolucortasuna? Bai; cergaitie Aita Santua
eta Obispoac datozen ordena eguiazco eta gueratubagao bat-
ten bitartez, Jesueristoc bere Eleizearen esquinarritzat imini
cituzan San Pedrogandie eta Apostoluagandie.

¿Ceintzue dira araco doteae, ceintzueaz edertu eta jantsi
eban Jesucristo bere Eleizea? Iru: aguinaritasuna, utsie-
guinecintasuna eta engañauecintasuna, Aita Santu bere bu-
ruagan aurquitutene diranae.

¿Badaueo batasuna protestantismoac? Ez; cergaitic euren artian bacoehae sinistuten dau, gura dabena, eurac eguiatzat dauquen iracatsi onegaitic «azterren librea».

¿Badaueo santutasunic? Azcozaz guichiago; bada bere imintzallac izan ciran charrae, eta dira charrae euren iracatsiac. Euren arteco bat da «sinistu eguizu eta pecatu eguizu» edo «sinisteac bacarric santu eguiten dabela.»

¿Badaueo guztieracotasunic? Ez; cergaitic ez dituz artu gura egui asco, eta ez da zabalduten dempora eta lecu guztietara.

¿Eta badaneo apostolucortasunic? Ez; bala eurac ez datoaz Apostoloacgandie. Guztioe daquigu noz jaio zan, eta amaseigarrren guizaldiaren aurretie ez cituzan iñoc ezagututene eurac.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Heregari bildur eta gorroto andi bat euquitea, eta Eleizearen iracatsi eta aguinduai oben eguin eta jarraitutea otsantasunagaz, cintzotasunagaz eta leiyaltsunagaz.

JAZOEREA.

Isabel lenesa edo princesac, Carlos scigarren erregeagaz escondu baño lenago, bere arimaco baqueagaitic, jaquin guri izan eban, cein izan ceitequean erreliginoerie eguiazcoena eta seguruena. Itandu eutsen protestanteai, ceintzuen artecoa zan bera, eta erantzum eutsen:—«Erromako Eleizabarruan al zala salbetea.»—Orduan berac bere artian esan eban:—«Erromako Eleiza guztieracoac iracasten dau, ecin salbau leitequeala bere campotie dagoaua; protestanteac dinoe, Erromako Eleiza guztieracoan ni salbau neindequeala; beraz gantzari onena, ciurreria eta seguruena da ni Erromako Eleizan sartu eta berari jarraitutea.»—Eta alanche eguin eban.

Iracatsi 19.^a—Aita Santu Erromacoa.

¿Cein da Aita Suntua? Erromako Eleiz-aguaintari gorengoa, maisu engafiauecingarria, lurrean Cristoren ordecoa, ceini guztioe obedin bear dentsagun.

AZALDUEREA.

¿Noc imini eban Aita Santuaren gorengotasuna? Jesueristoc, esan eutsanean San Pedrori:—«Zu zara Pedro, eta arri onen ganean ereduico dot neure Eleizea, eta infernuco ateaac ez dabe al izango bere contra.»

¿Ceintzuc dira araco dotene, ceintzuaz jantsi eta edertu eban Jesucristoc Aita Santuaren gorengotasuna? Bera buru daucan Eleizearenac eurac: aguintaritasuna, utsic-eguinetcintasuna eta engañauecintasuna.

¿Cetan dago aguintaritasuna? Arimac zoriontasun beticora guiyau eta sucenduteco escubide gorengoan.

¿Cetan dago utsic-eguinetcintasuna? San Pedroren escubide onec bere ondorengoa acgan guizaldien azqueneraño beti irautean.

¿Cetan dago engañauecintasuna? *Arzain gorengoa leguez ira-* casten deutsanean Eleiza guztiari, ecin erratu al izatean.

¿Bearbearrecoac dira dote orreec Aita Santuagan eta Eleizeagan? Dira guztiz eta osoro bearbearrecoac eta premiazcoac: eurac bagarric ecin bete al izango leuquee, Jesucristoc guizacume eta emacume guztiac santutasunera eroateco eta guztiai ceruco bidea ciur iracasteco, emon izan eutsen lana edo eguiquisuna.

¿Eta escubide demporazcoa edo aguintaritasun munduko gauzetacoa bearbearrecoa da Aita Santuagan? Da bearbearrocoa guizon jaquitunen eta iracasla andien erechian eta munduko gauzen joapideai eta oiturai beguiratuta, aguindu daguijan auqueratasun guztiagaz, eta batbere eragozpen bagarie iracatsi daguijan ona eta eguiac; bafia ez da beretzat izatecoa eta berrezcoa.

¿Siniste santuaren eta oitura onen ganean ez danean bere iracatsia edo aguindua, ¿oben eguin eta obediu bear deutsagu Aita Santuari? Bai; gueure arimearen calte baga, ecin ichi guinaique eguin eta bete baga, bere nagusitasunac iracatsi eta aguinduten deuzcuna, Eleizearen ontasuneraco eta sucenbideraco dan guztia.

¿Ceintzuc dira Apezpicoac edo Obispoac? Apostoloen ondo-

rengoa, Aita Santu Erromakoaren mendean, eurai icentan izan jaquezan artaldia jaon, gorde eta zainduteco, iminiric dagozana.

¿Dira engañauecingarriac Apezpicoac? Aita Santuagaz Batzarrean alcaturic eta baturic dagozanean, bai; baocha bacarric, ez: baña euren erabagniac beti izan bear dira lotsa eta itsal andian enquiae eta eguiac.

¿Cergaitic izan bear dira lotsa eta itsal andian enquiae eta eguiac euren erabagui guztiae? Cergaitic, euren jaquituria eta zurtazunagaz gañetic, danquen *egoeraco gracia*, ceñiegaz lagunduten deutsen Jaungoicoac, arimac zaindu eta suceduteco.

¿Ge onera atera bear dogu emendie? Obedintea, ez bacarric Aita Santuari, baitahere Obispoai eta Arimazainai, siniste santuari, oiturai eta arimen sucenbideari dagoquen guztian.

JAZOEREA.

Guizon donga eta char batec itanduten eutsan mutil gazte on bateri:—¿Cergaitic sinistuten dozuz zue egua orrec? —Cergaitic alan iracasten ditnzan Arimazainac—erantzun eutsau mutil gazteac.—Baña Arimazain Jauna da guizona, eta erratu leique.—Egua da, baña erratueo baleu, Obispo Jaunac quenduco leisque bere lecutic eta chartzat emongo leisque bere iracatsia; eta alan, Obispo Jaunaren alcertasunean dagoan bitartean, sinistuten dot Arimazainagan Obispo Jaunaren iracatsia.—¿Baña eta Obispo Jaunac bere ecin erratu leique?—Egua da, baña orduan izango litzaque Aita Santungaitic dongatzat emona.—¿Eta, azquenez, ecin erratu leique Aita Santuac? Ez, dalaco engañauecingarria, bada Jesucristoc esquini eta aguindu izan deutso bere laguntasuna guizaldien azquenerafio; alan sinisturic Aita Santuari, sinistuten deutsat, engañauecin leitequean eta enguñau ecin leiquean Jaungoicoari berari.

Iracatsi 20.^a—Eleizearen azquenengo erabaguiac.

¿Credoa eta articulubez gañetic, besteric sinistuten dozu?

Bai, Aita, Escritura Santuetan dagoana, eta Jaungoicoac Eleiza Santuari aguertu dentsan guztia. ¿Ce gauza dira orreee? Ez niri itandu, nazalo jaquituria baga; badaucaz Eieiza Ama Santuac iracashue, erantzuten jaquingo dabena.

AZALDUEREA.

¿Ondo dagocoe fededunai, Eleizenaren azquenengo erabaguiac ezagututea? Bai; batezberre Mariaren Sortuera Orbanbagacoaren eta Aita Santuaren engaño auecincorraren sinismenae.

¿Ori orrelan dala, Eleizeac asmetan dituz fedeco edo sinisteco egua barriac? Ez, edocelan bere: eguiten dabena da, arguitu edo azaldu, Jaungoicoac aguerturico eguien artian aurquitutzen diran egua sinisturicoac, onei emonagaz smismenen leun, cereeridudeac eta demporeac alan escatutzen dabeenean.

¿Cer eguiten deutso fedeco eguiari, sinismena dala erabagui eta adierazoten danean? Ateria, bere gamean ezdabaidac euquiteco lecutie, siniste agirriagaz eta garbiro bera sinistreco, fededun guztiai eguinbear andi eta aztuna iminteu jaquela, Eleizeac, alan eguiten ez dabenai, beragandie alderatuteco eta botatoco, icentetan deutsen castigu gogorraren beian.

¿Ceintzue beste erabagui edo iracatsi ondo dagocoe fededunai, oraingo demporetan ezagulutea? Vaticanoko Batzar Santuaren guztia, racionalismoco, pan-eismoco, ateismoco, deismoco... erracuntzen contra emononac, eta Aita Santu Pio bederatzigarrenaren Sylabus-coac, liberalismoaren eta erracuntza barriyen eta oraingoen contra emonac.

¿Eta celan pecatu eguiten dabe, erracuntza orreee ontzat artu edo euren alde berba eguiten dabeeniac? Eguiten dabe peccatu erralla edo mortala, eta ichiten deutse fededun eguiaz coac izateari; bida ez deutse sinistuten Eleizeari, ceñec iruasten daben, alaco iracatsiac dirala Jesucristoren iracatsi santuuen eta cerucoen contracoac.

¿Egua da, Eleizea dala libertadcaren areriyoa? Eleizeac guizaldi eta dempore guztietan zaindu eta gorde izan dau libertade eguiazcoa heregia guztien eta leguebagaco aguintariatasun guztien contra; baña chartzat emon izan dau eta emoten

dau charreraco escubidea edo libertadea, libertadea ez dana, ezpada nasaiqueria edo libertade guzurrezeoa.

¿Eleizea da mundo gauzen aurrerapen barriyen areriyoa? Eleizea beti izan da languintza guztien eta jaquituria guztien laguntzallea eta zaintzallea; ontzat emoten dituz, gueitutene dituz eta bedeinecatutene dituz aurrerapen guztiac, jaquitiaco eta bearquintzaco gauza guztietan egunico gueitupen sucenac eta artezac; chartzat emoten dabena eta emongo dabena da erracuntzea eta oitura charra, oneec urteten badabe bere, jaquituriaren, aurrerapenaren edo civilizacinoaren icon arguitsnacaz estalduric.

¿Cergaitic sartu bear dau Eleizeac politican edo erreñuetako gauzen sucentasunean? Eleizea sartu leiteque eta sartu bear dau erreñuetako gauzen sucentasunean, siniste santuac, oitura onac, arteztasunac eta arimen salbacinoe beticoac alan escatutene dabeen guztian; bafia ichiten dituz, joanetorri eta gauza demporazcoac eta munduko bacarbarrie diranae, guizonen escuetan, oneec erabagui daguiezan, bacochari ondo erechiten jacon leguez.

¿Cein da, Eleizeac mundo alcartasunen aurrean danean eguiquizuna edo cereguina? Eleizea da alcartasun oso bat, gorrengoa eta iñoren aguindupean ez dagoana, Jaungoicoae berac imini izan dabena mundo alcartasun guztien gañean, ez eurac menderatuteco, ezpada eurai iracasteco egua, Jaungoicoae aguerturicaco, eta eurac succenduteco arteztasuneco eta oitura oneko legue beticoen erara, ceintzuen mendean beti egon bear dabeen mundo alcartasunac eta euren legue guztiac.

Barba guichitan esateko, ¿cointzue dira Eleizeaganaco gure cereguinac eta eguinbearrac? Gauza guztien ganetic, zorion anditzat enqui bear dogu Eleizearen seme leiyalae gu izatea, maitetutene dogula gueure ama leguez, bete eta gordetan doguzala bere agnindua, ontzat emoten dogula, berac ontzat emoten daben guzia, chartzat emoten dogula, berac chartzat emoten daben guzia; gura dogula, eta, gueugan dagozan alequin guztiac, eguiten doguzala, bera izan daiten ezagutua,

onraua eta Iotsa eta itsal andiagaz beguiratua guztiagaitic, cein dan, iracatsi onetic atera bear dogun onerea.

JAZOEREA.

San Vicente de Paul icustera sarri ascotan joaten ciran entzute andico herege arguitsuac, bera euren alde eta iracatsi guzurrezcoetara eroan gura ebnez, euren erracuntzai eguiaren antza emoteco, errazoe asmu dongakoacaz baliyetan cirla; baña San Vicente deseguin eta banatuten cituzan euren asmu deabruzcoac, erantzunagaz:—Berac jaramon eguiten eutsela bacarbacarrie Aita Santuaren eta Obispoen iracatsiai, eta beraugaitic Eleiza eguiatzoarenai; cergaitic bacarrie onei eta Eleizeari agnindu eta esquini eutsen Jaungoicone Espiritu Santuaren laguntasuna, eta berac bacarrie artu eban Jesucristogandie, iracasteko eguiquizuna edo lana; eta bore iracatsiai jarraitutene deutsanac, daucala ciur ciur siniste santu eguiazeoa.

Iracatsi. 21.^a—Eraiscura liberalismoaren ganean.

¿Cer da liberalismoa? Errazocortasuna edo racionalismoa aleartasunaren erondean edo gobernuan; olo bardin dana, iracastibide bat, iracasten dabena, erreñua izan bear dirala guiyauac eta sucenduac Jaungoicoaren eta Eleizearen aguintaritasun eta mendetasun baga.

¿Ceinbat multacoa edo eracoa da liberalismoa? Irucoa: liberalismo radicala edo sustraizeorra, liberalismo moderatu eta liberalismo catolicoa.

¿Cer da liberalismo radicala edo sustraizeorra? Ucaturie izatearen gañetiko ganzac, aguertuera jaungoicozosa, eta beraugaitic Eleizeac Jaungoicoagandic arturie dauean eguiquizuna edo lana, iracasten dabena, erreñua dala aguintaritasun eta escubide guztiaren iturri bacatra eta gorengoa; ez ezaguric Eleizeagan besteric ezpada aleartasun bat, erreñuaren mendeian bici bear dabena. Bero esaerea da: *Eleiza Erreruan*.

¿Cer da liberalismo moderaua? Ez ucaturie eta arturie iza-

tearen gañetico gauzac, eta Jaungoieoa equinico aguertueraren alizatea, iracasten dabetia, erreñunc izan bear dabela guiyauac eta suenduac Eleizaren aguintaritasun eta mendetasun baga. Bere eserrea da: *Eleiza librea Erreñun liberean*.

¿Cer da liberalismo catolicoa? Ez uaturic eta sinisturic, Jaungoieoa imini izan dabela Eleizen, eta beronen aguintaritasun gorengoa eta iforen mendetasunie ez daucana; orregaitic bere iracasten dabena, Eleizeac irago bear dabela, jaramonic egun baga, liberalismoaren iracatsi guzurrezcoetic.

¿Badago liberalismoren bat, chartzat emona izan ez danie? Ez: liberalismoa izan da chartzat emona bere mueta eta era guztietan; dagoana da, persona batzue eta iracazbide bazue danquela liberalen icena, eta bearbada ez dirala eguiaz eta benetan liberalac.

¿Liberalismoa bat egun eta nastau bear da uritarmeneagaz edo democraciagaz eta gobernuaren eracaz? Ez ecelanbere; uritarmenea eta gobernuaren era guztae ontzat emoten dituz Eleizeac; guztae egon leitequez liberalismoa baga, eta beraugaitic izan leitequez catolicoac, celan guztae egon bere leitequezan liberalismoagaz ezaindurie eta loiturie; eta bein baño sarriyago icusten dan gauzea da, gobernuaren era bat bera leku baten catolicoa izatea eta beste leku baten liberala izatea.

¿Ceintzue dira liberalismoaren iracatsinc? Cultuetaco, concienciaco, imprentaco, gogoracinoeco edo pensamentuen... libertadeac, baitabere escola eleizbagae edo erreliginoebagae, escontza uricorra edo matrimonio civila...

¿Cer dirantzazu iracatsi orregaitic? Dirala guzurrezcoac, eta guztiz caltagarrinac; baña erreñuaren izanoreac edo cerceridadeac nozbait escatu leiquee euren ichipena gach edo calte chiquiagotzat leguez, beste gach edo calte andiago batzuc etorriz ez daitezan.

¿Eta noe erabagui bear dau, erreñuaren cerceridadeac escatutzen dabeen edo ez libertade orreen ichipena? Eleiza iracastiac, edo Aita Santuac eta Obispouac; iñozco eraz ez gobernuac eurac eurenez, eta ainbat guichiago guizonac eurenez.

¿Cer egun bear dabe catolicoac, Eleizearen arerria daz go-

Bernuaren mendean eta aguindupean aurquitudun diranean? Badanco baquean bero aguintaritasuna, lotsaz eta iltsalez begiratu bear jaco, San Pabloe dinoan leguez, eta guztiac erre-gutu bear dabe, dempore berean, legueac laquetudun dituzan aleguin guztiac, eguiten dituezala, eguiyae, arteztasunac eta Eleizeae urten daguen aurrera eta ez daitezan egon azpiraturie eta goiturie.

¿Colango pecatua eguiten dabe, Eleizearen arerio diranai lagunduten deutsenac, aguintaritasunen bat artu gura dabee-nean? Eguiten dabe pecatu eralla edo mortala; eta euren laguntasunagaz aguintari urten ebanae, bere baiemonagaz egui-nico legue charren edo erreliginoaren contracoen errudun eguiten dira.

¿Cer da masoneria? Ez da partidu politico bat, ainbat guichiago alcartasun onguille bat, eurac diñoen leguez, zurtasun eta jaquituria guichicoac eta leloac engafietarren, ezpada da alcartasun char bat, donga bat eta deabruzco bat, erreligina eta Eleizea amaitu eta deseguiteco asmua dancana, al baleu.

¿Celaco penea daueo euren artecoa danac? Alcartasun deabruzco orrei icena emonagaz bacarric, jausten da escuminoan, eta ecin izan leiteque parcatua, euracgandic alde eguiten ez dan bitartean.

¿Cer dirauztazu socialismoaren, comunismoaren, anarquismoaren... ganean? Dirala iracatsi guzurrezcoac, siniste santuaren, arteztasunaren, eta bacocharren gauzen ganeko escubidearen contracoac; eta Eleizeac charzat emonic daucaz, alacoa diralaco.


¿Ez dago ezaugarririk igarteko, ceintzue diran gobernu eta persona eguiaz eta benetan catolicorak? Bai: «Eleizearen iracatsiacganako mendetasun errime eta lotsa andicoa, esaten eban Aita Santu Pio bederatzigarrenak, da ezaugarri ciur bat, eza-gututeko Elcizearen seme eguiazkoak.» Eta Eleizeaganako mendetasun errime eta lotsa andicoa izan bear da, gue iracatsi onetic atera bear dogun onerea.

JAZOEREA.

Guztiz eregui Jaun On Antonio Maria Casenjares, Calaho-

rraco Apezpicoa izanac, eta gaur Valladolid-ko Len Apezpicoa danae, Valvaneraeo Maria Dontzella gure Amagana erromeritza eguitoco asinua arlu zanean, emon eban argitara carta ar-zaincor bat, ceñetan esaten eban: — «Gure Valvaneraco joaquerriac izan beur dau urteiyeraco leku bat leguez. Jaungoikoaren eta Cristoren, gure Ama Eleizearen eta beronen Aguintari nagusi Erromako Aita Santuaren, guztioen arerioaren contra-ko Cruzada Santuari asiyerea omoteko . . . Itanduten baldin badeuztazue nor dan arerio ori, eta escatuten baldin badeuztazue, icentau eta iracutsi dagnizuedala mun dauean iminiaric bere jar-lecua, erantzungs deutzuet: Gure Aifa guztiz Santuac ondo arguiro esaten deuzeu bere encielita eregui eta eder *Libertas* derichonean, ceñetan, icentauric gure demporetako arerio guztioena eta bildurgarriena, dirauzcun: — «Or dancazue.» — Berori da, bidaezbada baga, Espanako gure erreñuuri Batasun Catolicoa quendu eutsana, Aita Santuaren aguintaritasun demporazcoaren lapurreta sacrilegiotsua Erroman egun ebana, satanasen amorrut deabruzeoagaz azquenengo irainac, charqueriac eta dongaqueriac Jaungoikoari eta bere Cristori egun izan deutziana, Jordan Bruno sinistegalducoa Erromako urian bertan ainbestean erəguingaz eta goratnagaz, eta bere irudi lotsagarrizeoa bertako lecurie aguirienean iminiagaz, alde guztietara sartutenean duna, guztiari esesten dentsana, eta era guztiatarra, batzuetan isilian eta beste batzuetan aguirian, eriotzaco guda eta burruea gogorra, santua, ona eta arteza dan guztiari, eguiten dentsana; Liberalismoa, guztia berba baten esateco . . . Dempora egoitian ezagutu eragin guentzuen Aita Santuaren enciclica *Libertas* derichona, ceñetan Leon amairugarrenak alako jaquituria mirigarriagaz berba eguiten daben, bere aurreko Pio bederatzigarrenak, gomuta guztiz gozo eta ezilcorrecoa beti izango danae, bere esebide altsuagaz ain aguirriyan Sylabus derichon erabaguitegian chartzat emoten daben *Liberalismoaren* ganean. Buña celan, izan arren guztiz arguia eta ondo azaldua Aita Santu guztiz jaquituaren ango berbetea, bearbada zuectatic ascori escatu izango eutzen norbaitzue, azaldu eta adierazo laguizuela argutasun gueiagogaz, bertan

aitatuten diran gauza guztiac eta bacoche, iracurri equizue, Cartagenaiko Apezpiko Jannac *Liberalismoaren* gañean argitara omon eban bere carta arzaincor benetan jaquintsua eta goratu... Iracurri equizue arduraz, bada daucagu uste sendo bat, borondate artezagaz eta zuzuma bagarie iracurten daben guztiai, jautsico jaquela euren beguietatic, euren calterako beguiac estalduten deutsezan ostalguiya, gauzac, eurac direan leguez, icusten galerazen deutsena; eta beraugaitic naztetan dituezala, *Liberalismoaren* gancan berba eguiten dancan, alcarregaz eta bata besteagaz cericusiric ez dauquen gauzac, eta euquiten dituezala erechi eta ezañpera guzurrezcoac gobernuaaren era politicoen, erreguetasun onen edo bestearen ganean... Iracurri equizue gogo onagaz Pastoral edo Arzaincor guztiz argitsu ori, Leon amairugarrenaren euciclica *Libertas* derichonean bere oïña ondo iminiric daucana, eta eeuec ceuroporec gueratuco zare eguiaren jaube eguinie, eta nrguitasun guztiagaz icusico dozue, *Liberalismoa* dala beste gauza guztiz desbardin bat, eta orregaitic izan dala chartzat omona Eleiza eguiazcoaren eta Aita Santuaren iracatsi erratuecingarriagaitic.»





BIGARREN ZATIYA.

SARRERA.

Iracatsi I.^a — Icharopena.

¿Cer da icharopena? Da onoidade izatezgañetico bat, Jaungoicoac emoten deuzcuna, ceñaren bitartez icharoten doguzan, berac esquini eta aguindu deuzcuzan on guztiac, Jesucristoren irabaci edo merecimentuaegaitic eta gueure eguite onacgaitic.

¿Ceintzue dira, berac esquini edo aguindu deuzcuzan onac, edo ceren ganecoa da icharopena? Zoriontasun beticoa, eta au jarichiteco edo alcantzetaco bear diran gauzac, direan leguez gracia ceruhoa eta pecatuen parcaetinoa.

¿On demporazcoac edo mundukoac dira icharopengarriac? Ez; bañu izan leitequez, zoriontasun beticorao egoquiac, oneragarriac eta mesedegarriac diranean.

¿Cein da icharopenaren oin sendoa? Jaungoicoaren ontasun azquenbaguea, on guztiac emon gura deuzcuzana eta esquini deuzcuzana, eta berac aguindu dabena betetako, dauçan leiyaltasuna.

¿Cergaitic dinozu «Jesucristoren irabaciaegaitic edo merecimentuaegaitic? Eurac diralaco, Jaungoicoac emoten deuzcuzan gracia guztien irabacitzallac.

¿Bearrecoa eta noraezezcoa da icharopena? Adinera edo esau berara eldu diranentzat da osoro bearrecoa salbetaco.

¿Noz eguin bear doguz icharopeneko eguiteac? Adinera edo ezauberara eldutenean gareanean, eriotzaco orduan, esetsiyan bat

edo tentacíoen bat daucagunean, graciaren baten bear edo premisián gagozanean, eta sarri gueure bieitzan.

¿Ce pecatu doaz icharopenaren contra? Antustea eta ezicharopena.

¿Cer da antustea? Da salbacinoa icharotea Jaungoicoaren laguntasunac baga, berac iminirico egunibideac baga, edo eguite onen bear eta premiña baga.

¿Cer da ezicharopena? Da salbacinoe beticoa jarichi eta alantzetaco icharopenic ez euquitea, edo Jaungoicoac gueure pecatuac euren aztuntasunagaitie ez deuzeuzala pareatneo us-tez bicitea eta egotea.

¿Celan batezberre indartuten dogu icharopena? Erreguaren bitartez, ceinegaz escatutzen deutsaguzan Jaungoicoari, berac esquini deutzuzan graciæc, eta gueure salbacinoe beticorako bear doguzanac.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Jaungoicoaren ontasunean eta leiyaltasunean errime icharotea; baña dempura berean ~~pearra~~ egin bear dogu bildur santuagaz, icusiric gueure argaltastina eta erquintasuna.

JAZOEREA.

San Bernardoc indartu eta bizcortutzen eban bere icharopena, esanagaz:—«Ni ez naz Jaungoicoaren graciaren duin; baña Jesucristoc irabaci euztan bere pasinoe eta eriotzeagaz, eta berac esan euzcum: —escatu egaizue eta artuco dozue, eta nire icenean escatu daguizuen guztia, emongo jatzue;—nie, bada, beguiratu neinqueo ceruetaco erreñuari, neuri jatorecatan gauza bateri leguez, Jesucristoc beraganaco emon euztan escubideagnitic.»

Iracatsi 2.^a—Erreguaren izatea.

¿Noc esan eban Aita gurea? Jesucristoc. ¿Cetaraco? Iuri escatutzen iracasteco. ¿Cer da escatutea edo erregututea? Da Jaungoicoagana biotza jaso eta mesedear escatutea.

AZALDUEREA.

¿Cergaitie dinozu «Jaungoicoagana biotza jaso?» Cergaitie erregua da arimearen Jaungoicoaganaco cirquin bat, ceñegan billatuten dituzan, bear dituzan ouac, eta bera ingurututu da been gach guztiengos osagarria.

¿Ce mesede escatu bear deutsaguz Jaungoicoari erreguan? Bear doguzan gracia guztiac, eta gach eta premiña arimacoen eta gorputzecoen, norberarenen eta beste emparaueen osagarria.

¿Celan escatu bear dira gracia orreee? Arimacoac eta salbacione beticoraco diranac, guztiz eta osoro; gorputzecoac eta demporazcoac, cerceridadeagaz, au da, gueure arimearen one-raco badira.

¿Jaungoicone egin emon leiqueguz bere graciak, berari escatu baga? Emon al dituz eta eguiatz emoten dituz graciaren batzuk; baña berac esquini izan dau ez deuzeuzala emongo beste batzue, escatutu deutsazanari ezpada.

¿Cer dator emendie? Bearrecoa eta preminazoa dala guretzat erregua; bada berau baga, egin jarichi eta alcantzau guinaiquez, onoidade eta birtuteai jarraituteco bear diran laguntasun cerukoac, egin azpiratu eta goitu guinaiquez gachtasun eta arrizcuak, eta egin iraun guinaique eriotzaraño Jaungoicoaren adisquidetasunen.

¿Noz erregutu bear dogu? Sarri; batezbere premiña edo estutasun andi bacocharanean edo bestenean icusten garean guztian.

¿Geinhat dira erreguaren eregitasunak eta anditasunak? Asoko; batezberekoak eta lenenak dira: 1.^a da erroliginoeko eguitabat, ceñiegaz onretan dogun gueure Jaungoicoa, ezaguntzat emoten dogula bere aguinaritasun gorena eta ontasun azquenbaguen, autortu eta adierazoten doguzala gueure mendotasuna eta premiña andia; 2.^a da guizonaren eguitarie goratuena eta andiena, ceñiegaz sartutu garean berba eguiten Jaungoicoagaz, eguiten garean aingueruen irudiko eta antzeco; 3.^a da osagarri guztirakoak, on guztiak jarichi eta alcantzetako, eta gach guztietatik gu libretako edo gordetako.

¿Ce onera atera bear dogu esan danetie? Erregua gauza anditzat enquitea, escatu eta erregututea gure premiña guztietan, eta ifoz ez ichitea, cristinu on baten goiseco eta gabeo lan onac eta escabideac eguiteari.

JAZOEREA.

Jesucristo gure Salbaguillea ez bacarric izan gura izan eban gure erreguaren iracasla, baitabero ispitua. Bere bicitza isileco eta esentueo oguetamar urteac izan ciran erreguaren equinera gueratubagako bat; bere bicitza aguirriari asiera emon baño lenago, aldendu eta joan zan eremura edo basamortura, bertan berroguei eguneko erregua eguitera; bere bicitza aguirrian iragoten cituzan gaubae erregüetan, eta bere eriotzeurren aurreko gabean erregutu ohan, bero arimea prestau, indartu eta sendatuteco. Berac ez euan erreguaren premiñaric, baña iracatsi gura izan euzeun bere ejempluagaz, queguin bear doguna arriztu eta esetsietan.

Iracatsi 3.^a—Erregu-mueta desbardinac.

¿Ceinbat eracoa da erregua? Bitacoa, adinezcoa eta aozeoa. ¿Cer da erregu adinezcoa? Eguiten dana arimearen almenacaz, gauza onen bat gomutanagaz, bere ganean adinagaz gogoratu eta ezagutuagaz bera, borondateagaz equinie eguiteren batzue, diran leguez pecatuen daimua, edo beste crabaguien batzue, ondo confesetaco edo bicitza charrari ichi eta bicitza on bat artutecoa. ¿Cer da erregu aozeoa? Da berbacaz eguiten dana: esateraco, eguiten doguna, Aita gurea errezeptan dogunean.

AZALDUEREA.

¿Bearrecoa eta noraezeccoa da gogoartea salbacinoe beticoraco? Begiratuten bajaco esangura estuan edo neurri guztiacaz equina izaten dan leguez, ez, cergaitic guztiac egin equin al leiqueen, baña esangura zabalean, au da, begiratuten bajaco gauza jaungoicozcoen gogoraciñoari leguez, bai; badu Espiritu Santuac icontetan dau gogoartea, pecaturic ez eguiteco osagarria leguez.

¿Ceinbat alde daucaz gogortea? Iru: prestaera, gorputza eta azquena.

¿Ceinbat egnite daucaz prestaereac? Iru: 1.^a sinisteco egui-tea Jaungoicoaren aurrean; 2.^a umiltasuneko eta damutasuneko beste egui-te bat; eta 3.^a escabidea, escaturie gracia ondo eguitaco.

¿Ceinbat egui-te daucaz gorputzae? Arimaco iru almenae: 1.^a gomutearena, gomutetan dogula edo iracurten dogulagauza onen bat; 2.^a adinarena, gauza on ori gogoari ondo emoten den-tsagula, aztertuteneñ dogula, celan bete dogun, iracatsi on orree aguinduten deuzeuna, cer eguin bear dogun aurrerantzean, celeao onera eta mésedeac ecarrico deuzcuzan bera ondo bete eta gordeteac...; eta 3.^a borondatearena, bizitzen doguzala gueugan ontasunerako gnrari sutsuac, eta eguiten doguzala asmu eta erabagui on eta santuac.

¿Celan amaitu bear da gogoartea? 1.^a ezquerrae omonic Jaungoicoari; 2.^a berari esquiniric asmu eta erabagui egui-nione; eta 3.^a escaturie gracia bearrecoac, eurac betetaco.

¿Ceinbat eracoa izan leitoque erregu aozcoa? Irniacoa: aguri-riya, batabesteagazcoa eta bacarrecoa.

¿Cer da erregu aguirriya? Erreliginoe santuco otscinac, arimazainac eta eleizguizonac Jesueristoron icanean eta Eleizearen ordez eguiten dabena; eta ausse da erreguiena eta goratuena.

¿Cer da erregu batabesteagazcoa? Bic edo gueiagoe baturie eta alearturie eguiten dabena; eta da indar andicoa.

¿Cer da erregu bacarrecoa? Baochac bere bacarrean eguiten dabena; eta ausse da errazena, badi eguin guinaique ordu guztietan eta leeu guztietan.

¿Ce onera atera bear dogu irnentsi onetic? Egun guztietan edolabere ordu laureneko gogoartea enuitea, eta Erreliginoe santuko eleizquizun eta egui-te on guztietara cintzo eta leiyal joaten.

JAZOEREA.

Aita Suarez adin arguionee eta guztiz jaquitunac esaten eban, berac emongo leuquezala bere liburu guztiac ordu lau-

ren bateco gogoarteagaitic:—«Santa Teresa Jesusenac esaten eban, gogoarteari ichiten eutsan arimeac, ez ebala bear demoninoric condenetaco:» eta beste leeu baten dino:—«Esquini eguidazue, ordu lauren bateco gogoartea egunoro eguingo dozuela, eta nie Jesucristoren icenean esquiniten deutzuet cerua.»—Gersonec ciñoan—«Gogoarten egun baga, ecin iñor bici leiteque cristinaua leguez, mirariz ezpada.»—Eta orregaitic Santu guztiac, prale eta monja guztiac, euren arimen ardura andia dauquen guztiac, egun izan dabo eta eguiten dabe gogoarte ain oneragarri eta mesedegarri au.

Iracatsi 4.^a—Erreguaren cerceridadeac.

¿Celan erregutu bear da? Gogoz, umiltasunagaz, ieharopenagaz eta iraupenagaz. Aita gurea esaten dozunean, ¿nogaz berba eguiten dozu? Gure Jaun Jaungoicoagaz. ¿Nun dago gure Jaun Jaungoicoa? Leeu guzietan, batezbera ceruan eta altaraco Sacramentu guztiz Santuan.

AZALDUEREA.

¿Celan erregutuco da gogoz? Siniste biciyagaz gogoraturic goazala berba eguitera, aurrean daucagun Jaungoicoagaz, eta eguinie aleguina, gure biotza eta adina joan daitezan gure minagaz eta berbacaz batera.

¿Celan erregutuco da umiltasunagaz? Ezaguturic ez gareala gu, gueure pecatuengaitic, gracia bat bere jarichi eta ulcan-tzetaco duin, eta iminiric gueure uste guztia Jesucristoren irabaci eta merecimentuetan, ceñaren icenean escatu bear dogun.

¿Celan erregutuco da ieharopenagaz? Enquiric siniste andia Jaungoicoaren ontasun azquenbagan, bera altasunean eta bere leiyaltasunean.

¿Celan erregutuco da iraupenagaz? Jarraituric erreguac eguiteari bein eta beste bein, egin batzen eta bestean, iñoz necatu eta gogait egnin baga, iminiric gueure aldetik dagoan guztia.

¿Utsic-eguin-ecingarria da erreguaren indarra? Eguiten bida cereridade esanicoacaz, escaturie norberarentzat eta ari-mearen salbacinoeraco bear diran gauzae, da fedeco egua, dila utsic-ecingarria.

¿Cetan dano bere utsic-eguin-ecintasuna? Jesucristoren eguititasunean, ceñec leku ascotan eta berba sarri esanicoacaz esquini deuzcum «Bere icenean sinisteagáz escatuten dogun guztia, emona izango jaculu.»

¿Eta besto batzuentzat escatuten dogunean, da bardin utsic-eguin-ecingarria erreguaren indarra? Onera eta indar andioa izan arrin bere, ez da utsic-eguin-ecingarria: 1.^o Jesucristoc alan esquini ez obalaco; 2.^o cergaitic araco arec, ceñegaitic escatuten dogun, galerazo leiquean erreguaren oncrea bere borondateagaz.

¿Ce onera atora bear dogu emendie? Onerazpen andiagaz eta esanico cereceridadeacaz gueure erreguac eguiteco asmu eta erabagui errime eta sendua, izan daitezan Jaungoikoaren gogocon, eta guretzat oneragarriac eta misedegarriac.

JAZOEREA.

San Mateoc, bere Evangelioeo amabostgarren capituluan, dirauzeu: «Emneume cananeatar bat joiala Jesusen ondorie, deadar andiacaz cirautsala:—Jesus, David-en semea, erruquitu zaitez nigaz; nire alabea da dongaro necatua eta mindua demonioaegaitic.—Eta Jesusec ez entsan erantzuten, berac barriz jarraituten cutsan deadar eguiteari, eta eldurie bere ielas-lac beragana, erregutu eutsen, cirautsela:—«Entzum eguizu bere erregua, bada deudarea dator gure ondoric», eta Jesusec erantzun eban:—«Ez naz izan bialdua, Israelgo echecho ardiagana ezpada.» Bafia emactime cananeatarra ez zan deslaitu, ezpada, aurreraturie Jesusegana eta bera adoraurie, esan eutsan:—«Jauna, baliyau zaqidaz;» eta erantzun cutsan Jesusec:—«Ez da ondo semealaben ogniya artutea, eta chacurrui botatea.»—Eta emactimeac esan eutsan: «Alan da, Jauna; bafia chacurrue jaten dituez, euren ugazaben maitic jausten diran ogui-ondarrae.» Sinistez eta umiltasunez beterico berba

oneec, aurreratu eta cirquindu eben Jesus gure Jauna, berac escatutenean ebana emotera, eta erregui eta alabetan ebala bere sinistea, esan eutsan: «¡O emacumea, andia da zure sinistea; egun beite, zue gura dozun leguez!» —Eta ordu atatic osatu zen bere alabea

Iracatsi 5.^a — Aita-gurearen iru escabide lenengoac.

¿Cein da erregietatik onena? Aita-gurea. ¿Cergaitic? Jesucristo, Apostoluen escabidez, bere aoz esan ebalo. ¿Cergaitic gueiyago? Caridate edo maitetasun guztian sarturiko zazpi escabide daueazalako.

AZALDUEREA.

¿Cergaitic diñozu, daueazala zazpi escabide maitetasun edo caridate guztian sarturikoak? Cergaitic erregu once sarratuten dituzan, ez bacarric escatu eta gura izan bear diran gauzak, baitabere araco era arteza, ceñegaz escatu bear diran maitetasun edo caridadean.

¿Cein da, maitetasunak edo caridadeak aguinduten daben era arteza? Gue billatu daguigula lenengo gauzak-ecerezetic-eguitearen azquien; bigarren lecuan guizonaren azquen bietza onetan eta bestean; eta azquenez azquen orreec jarichi eta alcantzetako eguinbideak.

¿Cein da, guztiaz-ganetic eta lenengo lecuan billatu bear dan gauzak-ecerezetic eguitearen azquen? Jaungoicoaren zoriona, gauzak-ecerezetic-eguitearen azquen guztirakoak eta izatezkoak; eta nusse da, lenengo escabidean escatutene doguna.

«¿Cein da lenengoa? Santificadua izan bedi zure icena. ¿Cer escatutenean dozu escabide orretan? Jaungoicoaren icena izan daitela ezagutua eta onrauba mundu guztian.»

¿Cein da, bigarren lecuan escatu bear dogun guizonaren azquen? Salbacinoe beticoa edo Jaungoicoaren erreñuan alde euquitea; eta alde-euquite asirico bat leguez, erreñu orretarako escubidea emoten deuzeun gracia: cein dan, bigarren escabidean escatutene doguna.

«*¿Cein da bigarrena? Betor gugana zure erreñna. ¿Cer escatuten dozu escabide orretan? Jaungoicoac againtau daguiala gure ariman emen lurrean graciagaz, eta guero emon daignula zoriona.*»

«Cein da eguinbide bearrecoa eta izatezcoa jarichi eta aleantzetako, bicitza onetan gura izan bear dogun azquena? Jaungoicoaren borondatea eguita, beteric eintzo eta leiyal bere agnindu guztiae; eta ausso da, irugarren escabidean escatutzen doguna.

«*¿Cein da irugarrena? Eguin bedi zure horondated celan cerrian alan lurrean. ¿Cer escatuten dozu escabide orretan? Eguin dagnigula Jaungoicoaren borondatea, lurrean gagozanoe, zorionearcoa cernian eguiten dabeen leguez.*»

«Cer iracasten deuzen Aita-gurearen lenengo zati onee? Maitetu bear doguzala eta guztiaz-gañetic billatu bear doguzala Jaungoicoaren zoriona eta bere sucentasunaren erreñua lurrean, Jesueristoe diñoan leguez: —«Billatu eguizuez lenengo Jaungoicoaren erreñua eta bere sucentasuna, eta beste emparau guzia emongo jatzue craiscumatztat.»

JAZOEREA.

Itandu eutsan San Ignacio Aita Lainez-eri: «Cer autuko leuquean berac, ceruan bereala sartutea, ala lurrean gueratntea, Jaungoicoaren zorionagaitie bearra eguiteco, eta Aitac erantzun eutsan:—«Berac autuko leuqueala cerura bereala joatea.» —«Bada nio, esan eutsan San Ignacio, gurago dot emen gueratntea, Jaungoicoaren borondatea betetako eta bere zorionagaitie bearra eguiteco; eta nire salbacinoe betikoaren gañean barriz daucat uste oso bat, Jaungoicoac enquiico leuquela nire ardurea, eta ez leuquela ichico galduen, bere amorecarren borondatez ceruan sartutea atseratu eta luzatu ebana.»

Iracatsi 6.^a—Aita-gurearen beste emparau escabideac.

«Cein da laugarrena? Egunean eguneango gueure oguiya gaur emon eguiguzu. ¿Cer escatutien dozu escabide orretan?»

Jatungoicoac emon daigula gorputzeraco janari egoquiya, eta arimearentzat gracia eta Sacramentuac.

AZALDUEREA.

Esan dozu, azquenac eseatn ezquiero, escatu bear dirala, areec jarichi eta alcantzetaco eguinbideac. ¿Ceintzue dira oncec? Batzue dagoz, suen lagundutene deuzcuenac, eta beste batzue bacarric cearca lagundutene deuzcuenac, quendurie, azquenetie alde eraguiten deuzcuenen eragozpenac eta gachtasunac.

¿Ceintzue dira eguinbide laguntari sucenac? Gorputzaren janari egoquiya, ceñetan dagoan sarturie, bicitzaraco bear dan guztia; eta arimearentzat gracia eta Sacramentuac: eta au escatuten dogu laugarren escabidean.

¿Ce eragozpenec alde eraguiten deuzcuen azquenetie? Irue: 1.^o pecatuac; 2.^o pecatura eiricatutene gaituezan esetsiyac; eta 3.^o pecatuaren castigua diran gachac: eta gach onetatic librau gaitezala, escatuten dogu beste emparan escabidetan.

«¿Cein da bostgarrena? Parcatu eguiuzu gueure zorrac, gue gueure zordunai parcatutene deutseguzan leguez. ¿Cer escatuten dozu escabide orretan? Jaungoicoac parcatu dagnizala gueure pecatuac, guene, gu iraindu gaituezanai edo gach eguin deuzcuenai, parcatutene deutsegun leguez.»

¿Cergaitic imini dau Jaungoicoac cereridadetzat edo bañatzat, gue parcatu daguigula, Berac guri pareatuteco? Batezberre errazoe bigaitic: 1.^a gure artean iraun eraguitoco alcarganaco maitetasunari; 2.^a gure argaltasuna eta erquintasuna indartu eta sendatuteco, icusiric cein erraz jarichi eta irtutene dogun gueure pecatuen pareacinoa.

«¿Cein da seiagarrena? Ez eguiuzu ichi esetsiyan edo tentacionan jausten. ¿Cer escatuten dozu escabide orretan? Jaungoicoac ichi ez daguigula, deabruac, pecatuak guri jausi eraguitoco, ducarguzan gogoracinoe charretan eta esetsiyelan jausten, eta ez locuric eurai emoten.»

Escatu bearrean, ichi ez daguigula jausten ¿ez litzateko obeto izango escatutea, librau gaguzala esetsictatic? Ez; cergaitic esetsiyac edo tentacinoac eurenenez dira guztiz oneragin-

rriac eta mesedegarriac; bada iracasten deuzcue, irauti eraguiten deuzcue umiltasunean, sendatuten gaituez ontasunean, eta aberastuten gaituez bicitza beticoco irabaciyaacaz eta merecimientoacaz.

«*¿Cein da zuzpigarrena? Baña librau gaguizuz gachetic. ¿Cer escatuten dozu escabide orretan? Librau gaguizala Jaungoicoac gach guztietatic, eta arimaco eta gorputzeco arrizcuetatik.*»

Bada gachae, diran leguez gueisotasunac, ondasunac galdu-tea eta beste onelango zorigach asco, gocin izan leitequeguz irabaci eta onera andicoac, onian eta eroapenagaz eurac irago ezquero? Bai: orregaitic escabide oncee succendu bear dau, gueurre salbacinoe beticoa arrizcuan iminteu dabeen gachetara, diran leguez eriotza ustebagacoa eta batbatecoa, irago ecin dogun zorigachen bat...

¿Celaco asmuac atera bear doguz iracatsi onetik? Jesucristo berac egunmico erregu nu ascotan euqui eta itsal andi bat berari izatea, esaten dogula sarri eta onerazpon andiagaz.

JAZOEREA.

San Bernardoe, erreguac eguiten ciarduala, icusi eben, fraileac coruan erreguetan egozan bitartean, angueruac inscribiduten egozala, eta batzueguiten ebela urezco letracuz, beste laizue uragaz, eta besteae tinta baltzagaz. Gure Jaumac agertu eta adierazo cutsan icusquizun onen esangurea, cirautsala: —Angueruac urezco letracuz inscribiduten cituezanac, cirala, berotasunagaz erregututenean eben fraileac; uragaz inscribiduteen cituezanac, cirala, ardurabacotasunen bategaz erregututenean ebenac; eta tinta baltzagaz inscribiduten cituezanac, cirala, borondatezeo ardurabacotasunagaz erregututenean ebenac; alan lenengoaic irabasten eben eguiusari andi bat, bigarrenac ecerberez edo ozta ecerberez, eta irugarrenac ciran castiguaren duin.

Iracatsi 7.^a— Celan erregutu bear deutsagun Jaungoicoari eta celan Santuai.

«Bada cergaitic dinozu asieran «Aita gurea ceruetan zagozana?» Jasoteko biotza Jaungoicoagana, eta escatuteco mese-

deac umiltasunagaz eta uste beteagaz. ¿Angueruai eta santuai bere erregutu bear deutsegu? Bai, aita; gueure bitartekoai leguez.

AZALDUEREA.

¿Dicitu guinaiqueo Jaungoicoari, Aita? Bai; eguiaz eta benetan dhalaco; 1.^o utsetic-eguintasunagaitic, bada Berac emon onzun izatea eta bicitzea; 2.^o, gure erosteagaitic, bada Berac erosia eta atera guinduzan demoninoaren mendetic; eta 3.^o umetzat gu artuteagaitic, bada Berac artu guinduzan bere semetzat Bateoan.

¿Eta cergaitic esaten dogu Aita gurea, eta ez Aita neurera? Gomuta gitezan, guztioe gareala anayac eta Aita baten semiac, eta daucagula guztiaegaitic escatuteco eguinbearra, iminiric onelan anaetasun guztioen eguiazco bat.

Egonic Jaungoicoa lecu guztietan, «cergaitic esaten dogu «ceruetan zagozana?» Cergaitic an gueiago argui eguiten daben bere zorionac, angueruen eta santuon ganean aguintauagaz; eta beti euqui daguigun gogoan, gueure azquena dan eraua, nun aguinetan daben gure Aitac.

¿Celaco gurariae biztu bear dituz gugan sarrera guztiz samur orrec? Pozlasun eta icharopen andicoac, icusiric, escatutera goazan gure Aita, dala ceruetako Erreguea, eta bear do guzan on guztiu jaubea.

¿Escatu bear deutsagu Jaungoicoari, santuai leguez? Ezetara bere ez; Jaungoicoagana sucenduten gara artez eta osoro, gracia guztien asiera eta emollea dan leguez; alian esaten dogu «emon eguiuzu, entzun eguiuzu, parcatu eguiuzu...»

¿Celan bada escatuten deutsegu santuai? Bacarric gueure bitartekoai leguez, eroan daguiezan gure erreguac Jaungoicoaren aurrera, eta imini dagnien euren bitartecotasuna gugaicitic; alian esaten dogu: «erregutu eguzue, gure bitarteko izan zuitece.»

¿Cer adierazoten emon gura dogu, «alian izan dedilla» esan gura daben «amen» berba agaz? Jaungoicoac guri entzun daguigun, gue daucagun gurari beroa eta sutsua, eta gue escatuten doguna, Jesucristoren irabaci azquenbngaeagaitie jarichiko dogula daucagun uste edo icharópena.

¿Co onera atera bear dogu emendic? Jaungoicoa semearen uste beteagaz maitetutea Aita leguez, eta santuac gueure bitartekoac leguez.

JAZOEREA.

Escatuten deutsagunean Erregue bateri edo beste andiqui bateri, gue mereci ez dogun meseden bat, iminten deutsagu bitartecotzat, beragaz lagun edo adisquide danen bat, onec aguertu daguion gure gurari edo naizatea, eta egui daguian aleguina; eta alan jarichi eta alcantzetan dogu, gue gura dogun eta mereci ez dogun gauzea. Alan aguertutenean doguzanean gueure erreguac Jaungoicoaren aurrera gue erruquigarri eta pecatarioc, eta beraugaitic ecer mereci ez dogunoc, iminten doguz bitartecotzat Marin guztiz Santea eta santuac, euren erreguacaz eta mereci mentuacaz indarra emon daguioen gure escabideari, eta alan euren bitartecotasunagaitic jarichi eta alcantzetan dogu, gueure duinbacotasunagaitic ecin icharon guinaiqueana. Gañera, icharopeneco eta onerazpeneco eguite onegaz, onretan doguz Jaungoicoaren adisquideac diran santuac.

Iracatsi 8.^a—Dontzellearen erregua.

¿Celango erreguac eguiten deutsaznuz balezbere Andra Mariari? Ave-Maria edo Agur-Maria eta Salvea edo Agur-Erreaguina. ¿Noc esan eban Agur-Maria? San Gabriel gar-angueruac, Andra Mariari agur eguitera istorri zanean. ¿Noc esan eban Salvea edo Agur-Erreaguina? Eleiza Ama Santeac dauco borotuta. ¿Cetaraco? Andra Mariari mesedeac escatuteco.

AZALDUEREA.

¿Cergaitic gaeiyenean ertezstan dogu Agur-Maria Aitaguaren urengo? Maria gure Amaren bitartecotasunagaz obeto jarichi eta alcantzetaco, Jaungoico gure Aitari escatutene deutsaguna.

¿Ceinbat alde daucaz Agur-Mariae? Iru: 1.^a angueruac esan cituzan berba oneec; «Jaungoicoac gorde zaguizala, graciaz be-

tea, Jauna da zugaz, bedeincatus andra guztien artian; » 2.^a Santa Isabelec esanico berba oneec: «Bedeincatua zure zabeleco frutua;» eta 3.^a beste emparau berbac «Santa Maria...», sinistea da izan cirala gueituac Efesoko Batzar Santuagaitic bostgarren guizaldian.

¿Ceintzue beste orregu eguiten deutsaguz Dontzella guztiz Santeari? Dagoz aseo, bere onerazpeneo santuac imini dituzanac, Eleizeac ontzat emon dituzanac eta parcamenacaz aberastu dituzanac; basia lenenac dira Salvea, Letaniac eta Errosario Santua.

¿Cer da Errosario Santua? Da, Jaungoicoaren erruquitasunari escatuteco era bat, esanic amabost bidar Aita-gurea, onenurrengo beste ainbeste bidar Ave-Mariaren ainarrecoac, gogoratuten dala amarreco bacochean gure siniste santuco escutapenetic lenenen bat.

¿Noc egnin eban Errosario Santua? Dontzella guztiz Santeac berac, eta omon eutsan Santo Domingo Guzman-goari, premiña guztien osagarria leguez; eta Aita Santu Errromacoac guztiz usco aberastu izan dabe Errosario Santua euren parcamen cenbatu ccingarriacaz, dempora berean adierazo izan dabeela, cein oneragarria eta mesedegartia dan beragunaco zaletasun edo onerazpenn.

¿Ce ouera atera bear dogu iracatsi onetic? Dontzella guztiz garbi gure Amari sarri erragututea, batezbere erloyoac joten dabenean, goiseco, eguberdico eta iluntzeo Ave-Mariyetacoeitan, gogoratuten dogula gueuro Erostaren esculapena, eta berari emotea beraganiko gure maitetasunaren ezangarria, errezanrie egunean egunean edolabere Errosario Santuaren iru zatiyetic bat.

JAZOERA.

San Francisco Javier, Jesusen Alcartasuneko goraldia eta edertasuna, izan zan Errosario Santuaren zabaltzalle berotasun andicoa. Ez bere arazu eta cereguin andiaegaitic, bere neque gogorraegaitic, eta ecergaitie bere, ichi eban egunoro errozau baga bere bicitzaiko egun guztietan. Beti croaten eban es-

queguiric bere zematic, mundu guztiac iousi eguijan eta jaquin eguijan, Errosario Santua zala locarriya, bere biotza Mariaren Biotzagaz batu eta lotuten ebana. Gueiso ascogana joateco, izanic dempora bat batean deitua, eta ecin iousi eta lagundu al izanic gueiso guztiac egun baten ez eta sarritan aste guztian bere, lecu urrinetaraco ciralako eguiten jacazan deiyac, bialdutene eutsen gueisoai Errosarioa, cirautsela, al beben errezauguiela, eta ecin beben, imini eguiela zematic, eta berba emoten eutsela, batzuc obaria artuco ebela euren gueisotasunean, besteac osatuco cirala, eta beintzat ez cirala ilgo Sacramentuac baga. Milla eta milla bidar izan zan eguiatzua eta ciurtauamirari ascogaz San Francisco Javier-en esquintsari au.

Iracatsi 9.^a--Maria Dontzella guztiz Santearen ereguitasunac.

¿Nor da gure Andra Maria Dontzellea? Da Andra bat jatorrizco pecatua baga sortua, onoidadez betea, Jaungoicoaren Ama dana eta cornan dagoana.

AZALDUEREA.

¿Ceintzue dira, Maria Dontzella guztiz Santeagan miraritu bear doguzan ereguitasunac edo doeric lenenenac? Bost: 1.^a bere Sortuera Orbanbaguea; 2.^a bere Santutasun goratna; 3.^a bere Amatasun jaungoicozcoa; 4.^a gorputz eta arima ceruan artua-izate zorionecoa; eta 5.^a bere Bitartecotasun guztiracoa.

¿Cetan dagó bere Sortuera Orbanbaguearen ereguitasuna? Bera bacarric, bere Seme Jesucristoren irabaci edo merecimientu lenaz icusiagaitic, pecatu jatorrizcon bagaiza izatean, eta bere Sortuerako lenengo unetic Espiritu Santuaren gracia eta doiakaz aberastua eta edertua izatean, beti izanic ederra, garbia eta zoragarria Juangoicoaren beguien aurrean.

¿Celacoa da bere Santutasunaren ereguitasuna? Goratuena eta andiena, eguiten dabela berac bacarric ereguitasun berarizco bat, angueru guztiai eta santu guztiai batera aurrea eroanagaz.

¿Celacoa da bere Amatasun jaungoicozeoaren anditasuna? Andiena guztien artian, bada jaño eta gorafuten dan duintasun azquenbagaco batera leguez, eguiten dabela Jaungoicoaren Ama, bere garbitasun dontzellacorraren calte baga.

¿Cer miraritu bear dogu bere cernetara Igoera dontzuaren ganean? Bere sarrera zorioneara gorputz eta arima ceruan, mun aurquituten dan angueruen eta guizonen Erreguina egunie, eta ceruen eta lurraren Aguintari Nagusia dala.

¿Cetan dago bero Bitartecotasun guztiena? Guizon guztien Ama, pecatari guztien bitarteko eta gracia guztien zabaltzalle eta emontzalle egunie egotean.

¿Eta cer dirauzlazu bere Biotz guztiz maitegarriaren ganean? Jaungoicoae egun ebalaberariz escutapen andi orretaraco, emoten eutsazala zoragarriko edertasun miragarri bat, guizonen biotzac beragana eroaten dituzana, samurtasun eta erruqnitasun ain andiac ece, guztiacaz orruquitu eraguiten deutsena, eta esenbide eta aguintaritasun azquenbagac legucz, izan daiten premisa guztietaraco osagarri eta laguntasun sendoa.

¿Ce uste edo crechi euqui bear dogu Andra Mariaren escapularioen ganean? Mariaren onerazpen eta adisquidetasunean biei diranen ezaugarriac eta igargarriac dirala; dala onerazpen bat Dontzella guztiz Garbiaren guztiz gogocoa, eta Eleizean ontzat emona.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Dontzella guztiz santua egun guztietan onretea, batezbere zapataetan eta bere jaiegunetan, beti eroaten dogula bularrean bere escapulario santua.

JAZOEREA.

San Alfonso Maria Ligorioc, «Mariaren Zoriontasunac» derichon bere liburuan, dino:—«Celan guizonie dauquen gauza onragarritzat, besteac eroan daguila euren soñeco ezangarria, alan Maria guztiz Santeac pozie eta ezquer onagaz icusten dau, bere onerazpenekoac eta adisquideac eroan daguila bere escapularioa, alan eracusteco, dirala bere mendean bicitoco esquiniric dagozanac, eta dagozala sarturie Jaungoicoaren Amaren otseinen eta serbitzarien artian. Gaurco eguneko herege barri-

yac, ecanduz leguez, burla eta barre eguiten deutse onerazpen oneri; baña Eleizeac ontzat emon izan dau bere nagusitasunagaz eta pareamen ugariacaz. Carmengo escapularioari, Maria samintasunencoari, Merced-coarenari, eta batezbere Sortuera-renari, emonic dagozan pareamenac bai partearrae eta baiosoac, bicitzan eta eriotzan irabaci leitequezanae, dira eonbatu ecin leitequezan beste. Niri dagocanez, eguiu dot, escapulario guztiaue artuteco aleguina.*

Iracatsi I O.^a—Irudiyen cultua edo gurtea.

Eta altaran dagoana ¿nor da? Da ceruan dagoanaren antz edo irudiya. ¿Eta ceturako dago an? Bere bitartez gomutau daigun, ceruan dagoana, eta bere irudiya dalaco, beguirunea izan daguiogun.

AZALDUEREA.

¿Ce gurte edo cultu emon bear deutsagu Dontzella guztiz Santeari? Onorezco eta itsalezco gurte edo cultu berarizco bat, Jaungoicoaren Ama dan leguez.

¿Eta santuai? Onorezco eta itsalezco gurte edo cultu chi-quiago bat, Jaungoicoaren serbitzallae diran leguez.

¿Bat eguiu ela nistau leiteque, Jaungoicoari emoten deutsagun gurte edo cultua, Maria guztiz Santeari eta santuai emoten deutsegunagaz? Inoz bere ez; Jaungoicoari emoten deutsagu beguirenaueco eta mendetasuneco cultu osoa, bere beraren ereguitasunagaitic, dalaco Jaungoieoa; santusi emoten deutsegu onorezco cultu bat Jaungoiconganaco beguirenauegaitic, izan ciralaco Jaungoicoaren serbitzallae.

¿Izan bear deutseguz beguirenaue eta itsala Andra Mariaren eta santuen ondar edo erreliquiya eta irudiya? Emon bear deutsegu onorezco cultua bera, ez eurac euracgan daquen gauza gaeicorragaitic, ezpada eurac adierazo eta esun gura dabeenagaitic.

¿Irudiyni emoten jaquen gurteac edo cultuac, badauko cerbait ondo ez dana eta guzurrezcoa dana? Ez: ergaitic eurai emo-

ten deutsegun cultua, ez da gue sinistuten dogulaco, euragan aurquituten dala virtuten bat edo erekutasunen bat, ezpada sucenduten da, ceruan dagozan Andra Mariagana eta santumegana, ceintzue ecin onrau al izanie gue, emen lurrean ez dagozalaco, onretan doguzan euren antz eta irudiaren bittaratz.

¿Aguertu eta azaldu daiquedazu au bardincuntza bategaz?— Ama bat-e daucaz maitegarritzat eta guztiz bere gogocotzat, bere seme ilaren edo urrin bici danaren irudiya eta beste gauzac; maitetasun eta gogo on au ez deutse, gauza areec euragan dauquen gueicorragaitic, ezpada sucenduten dira, irudi eta gauza areec gogoratu eraguiten deutsen bere semeagana.

¿Cer dirauztazu, Andra Mariari emoten jacazun icen gañeracoacgaitic? Eurac gueure gomutara ecarten deuzcuezala - escutapen bat, jazoeren bat, mirarien bat, edo Mariaren irudiaren jatorrien bat; baña guztiac sucenduten dira Jaungoicoaren Amagana.

¿Cer dirauztazu Andra Mariaren eta santuen aguertueren ganean? Sinistu leitequezala eta sinistu bear dirala biotzberaro, izan badira Eleizeac eguiazcotzat eta ontzat emonac.

¿Ce onera atera bear dogu esan danetic? Andra Mariari eta santuai euren irudi, antz, erreliquiya eta icen gañeracoetan onretea eta itsal andia enquitea.

JAZOEREA.

Guztiz entzute andicoa eta ospetsua da, Andra Mariac Lourdes-en egun eban aguertuera; aguertuera an izan da ainbeste ezdabaiden eta errazoen ostean eguiazcotzat ezagutua eta ciurtaua, mirari ugari eta ascogaz sendatua, bertan eguinieko pecataien biurrera santuacgnitic eguiaztua, eta Eleizeac ontzat emona. Bertara joaten dira urte guztietan, ecin cenbatu al beste erromes penitenciaguillac, aguertuera onen azquena zan peccatarien euren Jaungoicoaganaco biurrera santuagaitic, escatu eta erregututeco. Ez dogu bere aztu bear espatiarroc, Andra Mariac, aragui ilcorrean bici zala oraindie, Zaragoza-co urian Santiagori eta bere icaslai egun eutsen aguertuera, emoten

eutsela irudi bat pilar ganean, bere bitartecotasunaren eta Es-
pañan siniste santuac utsic eguingo ez daben ezaugarrí ciurtzat.

Iracatsi II.^a—Angueruac.

¿Ce gauza dira Angueruac? Ceruan Jaungoicoagazco atse-
guinetan dagozan espiritu uts zorionekoak dira. ¿Cetaraco ece-
rezetic egun cituzan gure Jaun Jaungoicoak? Beti beti bera
alabau eta bedeineatu daguen. ¿Eta cetaraco gueiago? Bere ser-
bitzariac leguez Eleizea sucendu eta guizonac zainduteco. ¿Be-
raz zue bere badozu Angueru-jaolea? Bai, badaueat; eta gui-
zon bacochac dauco berea.

AZALDUEREA.

¿Cein da Angueruen izatea? Dira espiritu osoro utsac, bat-
bere gorputzic ez dauquenae.

¿Celaco egoeran ecerezetic egun cituzan Jaungoicoak? Gra-
cianko egoeran: eta alan iraun ebenac, dira Angueru onak; ba-
nia Jaungoicoaren contra jarqui eta urten ebenac, izan ciran
infernuan ondatuak, eta oneec dira demoninoak.

¿Ceinbat dira Angueru onak eta celan berecituten dira edo
desbardinduten dira euren artian? Dira cenbatu ecin leiteque-
zan beste, eta ezagututenean dira iru batin-chequia edo jerarquia
eta bederatsi corutan: lenengo batinchequian: Serafinak edo
Angueru Jaungoicoaren amodioz sutuac, Querubinak edo An-
gueru jaquin-beteak eta Tronoak edo Angueru jargoyak; bi-
garren batinchequian: Dominacinoak edo Angueru menpe-
tzalleak, Virtuteak edo Angueru indartsuak eta Potestadeak
edo Angueru cerueo mendeak, eta irugarren batinchequian:
Principaduak edo Angueru lenendaitzak, Arcangeluak edo Go-
yangueruak eta Angueruak; azquenengo oneec dauque guizo-
nak zainduteco ardurea.

¿Ce onera eta mesede ecarten deuzcuz Angueru-jaoleak?
Guztiz asco; lenenak dira; beti lagun eguiten deuztu, iracasten
deuztu bere arguitasunacak, libretan gaituz arrizeu ascotatic,

jarichi eta alcantzetan deuzeuz gracia eta laguntasun certezae, esetsiac eta tentacinoac azpiratu eta goituteco eta gure erregu eta escabideno eroan eta aguerturie Jaungoicoari.

«Celao cultua emon bear deutsegu Angueru? Santuai emoten deutseguna bera, bada, euren ereguitasuna izan arrēn andia, dira criatura utsac.

«Celacoac dira, euraeganaco daucaguzan eginibearrac? Lotsa eta itsala izan bear deutsegu euren gure aurrean egoteari, jarraitu bear deutsegu erraz eta umiltasunagaz euren arguitasunai; erregitu bear deutsegu uste osoagaz gueure arrizeu eta premisietai, eta onrui bear doguz egun guztietan.

«Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Egun guztietan gueure Angueru-jaolengana sucendutea, eguiten deutsagula erregu au:—«Angueru santua, Jaungoicoac bere ontasun amaibagueagaitic nire zaizkizale zu imini zaituzana, arguitu naguiztu, zaindu naguiztu, sucendu naguiztu eta erondu naguiztu.»

JAZOEREA.

Eremu eta basamortuco Aita bateri itandu ousen baten, cer eguiten eban beti pozie eta baque dontzu bardin baten egoteo, berac erantzun eban:—«Gogoratuten naz, beti dagoala neure ondoan neure Angueru-jaolea, neure premiña guztietan lagunduten deutztana, une eta aldi guztietan cer egin bear dodan eta cer esan bear dodan iracasten deutztana, eta gaero nire eguiquerac inscribiduten dituzana, nic eguiten ditudazan leguez. Gogoracinoe onec lotsa eta itsal onez betetan nau, eta galerazoten deutz eguitea, bere gogoco ez dan guztia.»





IRUGARREN ZATIYA.

SARRERA.

Iracatsi I.ⁿ—Maitetasuna edo Caridadea.

¿Cer da maitetasuna? Da izatearen gañeco onoidade bat, cein bitartez mailetutzen dogun Jaungoieoa bere erreguitasun amaibagueagaitic, eta maite dogun lagun ureoa, gueure burua leguez, Jaungoicoari deutsagun amodioagaitic.

Ori orrelan dala ¿eeinbat aguindu daucaz maitetasunac? Bi: 1.^a da Jaungoicoa maite izatea ganza guztien gañetic; 2.^a da lagun ureoa maite izatea gueure burua leguez; eta aguindu bi onetan dago sarraturie legue guztia.

¿Celan betetan dogu, Jaungoicoa maite izateeo lenengo aguindua? Lenengo: poztuten gareala bere zoriontasun eta erreguitasun amaibagueoacaz; bete eta gordetan doguzala, bere onoreraco succendu eta diran lenengo iru aguinduac; eta 3.^a pectoric batbere eguiten ez dogula, edo beste emparau aguinduac austen ez doguzala.

¿Ceinbat eratara maite izan guinaique Jaungoicoa? Gueuretzat ona dan leguez, edo amodio maitagarriagaz, eta Bera Beragan ona dan leguez, edo amodio ondoguracoagaz; eta ausse da onena eta betena.

¿Eta cergaitic maite izan bear dogu gauza guztien gañetic? 1.^a Daucazalaco onoidade eta erreguitasun guztiac, eta guztiaic era amaibagacoan; 2.^a Dalaco gueure Aita, ceñiegandic artu

izan dogun guztia; eta 3.^o Dalaco gueure azquena, caineandic icharon bear dogun guztia.

¿Andia da onoidade onen ereguitasuna? Da Ionen goa eta onoidade guztien arimea. Onoidade bat, maitetasun baga, da ila, eta bicitza beticorako ezertarako ez dana.

¿Celan beteko dogu, lagun urcoa maite izateko bigarren aguindua? Berari ondo gura izanagaz, bere gachacgaite min eta atsecabea artuagaz, beragana suenduten diran aguinduae bete eta gordeagaz, eta erruquizco eguinac beteagaz.

¿Nor da lagun ureoa? Zoriontasun beticoa jarichi edo alcanzau al leiquean guizacume edo emacume guztia, bai dala gueure senidea edo senide ez dana, bai dala adisquidea edo arerioa.

¿Guizacume eta emacume donga eta charrac maite izan bear doguz bere? Gorrotau guinaiquez euren ecandu charrac eta dongaqueriac, baña beti maite izan bear dogu guizona.

¿Maite izan bear doguz gueure arerioac? Bai; badada Jesueristoren aguindu bat eurac maitelutea; eta alan parcatu bear doguz eurac guri egunico iraina eta charqueriac, lagundu bear deutsegu euren premiñaldietan, eta emon bear deutseguz gueure amodioaren ezaugarri gueiyenetaoac eta oituricoac.

¿Parcatu bear deutseguz, eurac guri egui deutztezan calteac eta gachac? Beti parcatu bear doguz eurac guri egunico irainac eta charqueriac; baña ez, gueure ondasumetan, gueure entzute onean, gueure bicitzan, eurac egunico calteac eta gachac, oneec osotu eta biurtutenez diran artian.

¿Cer egui bear dogu, maitetasun oni gueure biotzean boti iraun eragniteco? Oitu bear gara biti ieusten guizonagan Jaungoicoaren antz edo irudiya, eta Jesueristoren odolagaz erosirico arima bat, eta maite izan bear dogu guizonagan Jaungoicoaren eguiquera bat eta Jaungoiconaren amodioagnitie, cein dan iracatsi onetie atera bear dogun onorea.

JAZOEREA.

San Vicente Paulec, maitetasunaren apostoluac, esaten ebani:—«Nic ecin emon neique neure erechia eta erabaguitu guizon basaerritar baten ganean, ez eta emacume premiñadun

batan ganean bere, eurac campotic eta azaletic dirudiarenari bacarrir beguiratuta; euretic batzue dira ain ganora bagacoae eta aciera charrecoac ece, nequez eta gach ezagututenean dira euragan criatura errazoedunaren antz, irudi eta izatea; baña beguiratuten badeutsegua siniste santuaren beguiacaz, aurquitutenean dituguz ain incauric eta josiric Jaungoicoaren Semearen biotzean ece, bero odola oñraegaitic isuriteco, eta bere bicitza euracgaitic emoteco, badaczbadarie eta atserapenik eunqui izan ez daben. ¡O! ce oueragarria eta mesedegarria dan icustea lagun urcoagan Jaungoicoa bera, berari euquiteco, Jesucristoc eutsan amodia.»

Iracatsi 2.^a — Jaungoicoaren aguinduac.

Esan eguzuz Jaungoicoaren legueco aguinduac. — Jaungoicoaren legueco aguinduac dira amar, lenengo irurac dagocaz Jaungoicoaren onriari, eta beste zazpirac lagun urcoaren onereari.

AZALDUEREA.

¿Cergaitic derichoe Jaungoicoaren legueco aguinduac? Diralako, Jaungoicoac iminiyac, guizonaren biotzean asieratic Berac incan eta ezarriyac, Simaico mendiyan gueroago Berac adierazo eta aguertuac, inscribiduric arrizco ol bitan emoten eutsazala Moiseseri.

¿Jaqin bear doguz aguindu orreec? Adinera edo ezauberara eldu dan cristinau guztiae jaquin eta ezagutu bear dituz, beintzat euren esangura bearbearrecoaren aldetik.

¿Cergaitic? Diralao neurriya, noraczecoa eta bearrecon dana, gu ondo biciteco eta cerura gu croateco; eta au ecin izan leiteque, eurac jaquin eta ezagututenean ez badoguz.

Eta eruan sartuteco ¿bete eta gorde bear dira aguindu guztia? Bai; cergaitic guztiae datozen Jaungoicoagandie, eta aguindu bat guichitan eunqui eta ansten dabena, guichitan dauco Jaungoicoaren aguinaritzaz nagusia, eguiten dala pecatuaren eta zorigach betikoaren errudun eta duin.

¿Bete eta gorde leitequez aguindu guztiac? Jaungoicoae bere graciagaz lagunduten dabeln, bai, ergaitic Jaungoicoae aguinduten ez dabent, egin egun leitequean gauzarie; eta bestera uste izatea da sinisbaguetasuna eta ernegua edo Jaungoicoaren contraco irain andiyn.

¿Celan gorde bear dira? Al dan ososatasun guztiagaz, iguez egunieez bacarric pecatu ilgarri edo mortalagandie, baitabere pecatu arin, chiqui eta parcarraegandie, eta pecaturaeo arrizeu, galbide eta bide guztietatic.

¿Ceinbat eratara ausi leitequez? Bitara: ezeguinagaitic, eurac aguinduten dabena egun ezagaz, eta eguinagaitic, eurac galerazen dabena, eguinagaz.

¿Celaco egunsariac esquiniten deutsez Jaungoicoae, bere aguinduac ondo gordetan dituezanai? Bicitza onetan bere gracia eta bedeincacinoe ugariae, euquiten dituzala bere adisquinde onac leguez; eta beste bicitzan Jaungoicoa bera izango da euren egunsari beticona.

¿Ce iracatsi atera bear dogu emendie? Jatungoicoaren leguea ondo ezagututeco gurari bero eta bici bat, eta berac aguinduten deuzeun leguez, gueure bicitzaco gauza guztiac eguiteco asmu eta erabagui errime eta sendo bat.

JAZOEREA.

Evangelio Santuac dino, mutil gazte bat urreratu zala Jesucristogana, eta itandu eutsala:—«Maisua, ¿er egin bear dot nic salbetaco?» eta Jesucristoc erantzun eutsan:—«Bicitza beticoan sartu gura badozu, gorde eguiuz aguinduac.»—Gazteac barriro itandu eutsan:—«Ceintzuc dira aguindu orreec?»—Jesucristoc iracatsi eutsazan Jaungoicoaren legueco amar aguindu santuac.

Iracatsi 3.^a — Lenengo aguinduan aguinduten diran gauzac.

¿Cein da Jaungoicoaren legueco lenengo aguindua? Jaungoicoa maite izatea gauza guztien gaiean. ¿Noe maite dau

Jaungoicoa? Bere aguindu santuac gordetan dituzanac. ¿Cer da Jaungoicoa maite izatea gauza guztien ganean? Gauza guztiae galdu gurago izatea, bera iraindu baño. ¿Cetara gueiyago bear-tutene gaituz aguindu onec? Gorputzeco eta arimaco macurtasunagaz bera bacarric adoretara, siniste biciyagaz Beragan si-nistu eta icharoten dogula.

AZALDUEREA.

¿Cer da gurtutene edo adoretea? Jaungoicoari, dagoan guztiaren Eguilles eta Jaube Gorengoa dan leguez, cultu goren-goa emotea.

¿Cergaitic adorau bear dogu «gorputzeco eta arimaco ma-curtasunagaz?» Cergaitic, artu izanic Jaungoicoagandie gorputza eta arimca, gauza arteza da, batne eta besteac aguertu daguiela euren macurtasuna.

¿Cergaitic gueituten dozu «siniste biciyagaz Beragan sinis-tu eta icharoten dogula?» Cergaitic adorau bear dogun Bera, jarraiturie ciatz eta leiyal, Jaungoicoagana succenduten diran onoidadeai, ceintzuc diran sinistea, icharopena, maitetasuna, eta erreliginoa.

¿Celan adoretan dogu sinisteagaz? Ezaguturie eta sinisturie Bera dagoala lecu guztietan eta dala izatez eguitiya, eta esquiniric Berari gueure adinareu macurtasuna.

¿Celan adoretan dogu icharopenagaz? Esquiniric Berari gueure biotzaren macurtasuna, iminten dogula gueure uste guztia bere ontasunean, bere guztialtasunean eta bere leiyal-tasunean.

¿Celan adoretan dogu mailetasunagaz? Esquiniric Berati gueure borondatea, maitetuten dogula gauza guztiae baño gueiyago bere ontasun azquenbagueagaitic.

¿Celan adoretan dogu erreliginoagaz? Bere anditasun eta erekuitasun amaibaconai sor jaquen mendetasuneo eta macur-tasuneo cultu barruhoa eta campocoa Berari emionagaz; eta au eguiten da batezbere Mesao Esquintsari Santuan.

Jesucristori eta Sacramentu guztiz Santuari bere gosor deu-tsegu gurtuerea edo adoracinoa? Bai. Jaungoicoari berari

emon bear deutsaguna bera; Jesucristo dalaco Jaungoicoa, eta dagoalao eguiaz eta benetan Sacramentu guztiz Santuan.

¿Eta Jesucristoren Guizatasun donetiyari? Jaungoicoaren Semeari sor jaca adoraciona bera, bada dago Beragaz izapero alcarturic eta baturic, eta ceñegan amaitutenean, berari emoten deutsagun cultua edo gurtea.

Eta Jesusen Biotz Donetiyaren gadorau edo gurtu bear dogu? Bai, dalaco Jaungoicoaren Semeari Biotza, bere Guizatasun guztiz Santuaren alderic lenena; eta dalaco Jesucristoren amodiyo azquenbaguearen ezaugarrria.

¿Celaeo cultua emon bear deutsegu Curutze Santuari eta Pasinoeco beste emparan gauzai? Adoracioneoa cultua, amaitutenean Jaungoicoaren Seme Guizon eguinagan, ceini ucutu izan eutsen gauza orreec.

¿Sor bere deutsegu cultua Andra Mariari eta santuari eta euren irudi eta erreliquia edo ondarrai? Bai; baña onoreco eta beguirenaueco cultu chiquiago bat, Jaungoicoagan amaitutenean; erreguea onretan dan leguez, bere otseinac eta bere bialdunc onretan diranean.

¿Ez dago bada galerazota aguindu onetan irudiyen cultua? Dago galerazota jaungoico guzurrezcoen irudiyac eguitoa, eta euretan uste eta icharopena imintea, gentilac eguiten eben leguez.

¿Cer gueiyago aguinduten deuzeu aguindu onec? Jaungoicoari esquiniric dagozan personac, lekuac eta gauzac onretea; baitabere Eleizearen bendecinoai, ceremoniyai eta eleizquizunai lotsa eta itsal andi bategaz beguiratutea. (1)

JAZOEREA.

Jesucristo gure Jauna iruasten egoila templuan, legueco iracasla batec itandu euskan—«Maisua ¿cein da legueco aguindu andiya?—eta Jesusec erantzun eutsan:—Maitetuco doza ceure Jaun Jaungoicoa ceure biotz guztiagaz, ceure arima guz-

(1) Aguinduen guilexo iracatsietatik atera bear dan onorean da, eurac aguinduten da-been guztia, elatz eta osoro eguitoa, eta eurac galerazoten dabeen, ez eguitoa eta orreguitoa ez da iminten iraetzki burrocharen azquenean.

tiagaz eta ceure adin guztingaz. Ausse da aguinduetatic lenengoa eta andiena.»

Iracatsi 4.^a — Lenengo aguinduaren contraco pecatuac.

Aguindu onen contra ¿nec pecatu eguiten dau? Jaungoico guzurrezoac adorau eta sinistuten dituzanac; sinistearen contraco gauzaren bat sinistuten dabennac, nai bere escutapen edo misteriyuac ezbaiyan daucazanac, nai bearrecoac ez daquizanac; sinistearen, icharopenaren eta maitetasunaren eguiteac, egun bear diranean, eguiten ez dituzanac; Jaungoicoaren erruquitasuna aintzat artuten ez dabenuac, eta Sacramentu Santuren bat dongaro eta charto artutten dabenac. ¿Nec gueiago? Sorguinqueria eta aztuen barri emote, etorquizun amesezcuai, eta onelako bidebagaco gauzai sinistea emoten deutsenac.

AZALDUEREA.

Au onelan dala, ¿ce pecatu dira, lenengo aguindu onen contra doazanac? Sinisteco, icharopeneco, maitetasuneco eta erreliginoeco onoidaden contracoac diran guztiac.

¿Nortzue pecatu eguiten dabe sinistearen contra? Jaungoicoa dagoala ucatutzen dabenuac; Jaungoicoaren Providencia ucatutzen dabeenac; aguertuera jaungoicozcon ucatutzen dabeen errazoe utsaren zaleac; siniste santuaren galtzalleac eta heregeac, siniste santuco egua guztiac edo eurolatik bat edo beste ucatutzen dabennac, edo ezbaiyan iminten dituezanac.

¿Nortzac gueiago? Siniste santuaren ezaugarriac, eracutsi bear izan da, eracusten ez dituezanac; erreliginoe guzurrezcoetaiko iracatsi charretara eta batzar deabruzcoetara joaten diranac; donga eta charrai lagundutzen deutsenac; liburu chartzat emonac saldu, iracurri edo euracgan dauqueznanac; siniste santuaren contra berba eguiten dabeenac, edo berba eguiten dabeenai pozie entzun deutsenac; baitabere siniste santueo egua bearrecoac ez daquieznanac.

¿Nortzac pecatu eguiten dabe icharopenaren contra? Jaungoicoaren erruquitasuna aintzat ez dauquenac; graciaren la

guntasuna baga, edo eguiite onac baga, euren arimac salbetea uste dabeenac; Jaungoicoaganaco euren biurrerea eriotzaraño Iuzatuten dabeenac; icentaurico eguinbideac guichitan euquic, azquen zorionecoa mirarien bategaz, edo laguntasun guztiz andi eta oituracor-ezagaz, jarichi eta alcantzau gura dabeenac.

¿Nortzue pecatu eguiten dabe maitetasunaren contra? Pecatu ilgarria edo mortala eguiten dabeenac, batezbere bada Jaungoicoaren onore eta zorionaren contra; Jaungoicoaren borondateagaz euren borondatea bat eguiten ez dabeenac, edo euren estutasunetan Jaungoicoaren contra jaguiteu diranae.

¿Nortzuc dira, orreliginoaren contra pecatu eguiten dabeenac? Jaungoicoari, sor jacon gurte edo cultua, ucatutene deutsenac, donga eta charrac leguez; Jaungoicoari sor jacon gurte edo cultua, criyaturai emoten deutsenac, jaungoico guzurrezcoen adoratzallac leguez; demoninoari deituten deutsenac, edo bear ez diran gauzacaz baliyetan diranae, gauza isilecoac edo etorteco dagozanac jaquiteco, aztuac leguez, edo gauza onen bat jarichi edo alcantzotaco, edo gachen batetic libretaco, sor guinqueriazco gauzen zaleac leguez.

¿Nortzue gueiago? Persona onai, Eleizaco ceremoniyai eta gauza santuai barre eta burla eguiten deutsenac; Jaungoicoari esquinita dagozan gauzac, lecuac edo personac dongaro eta charto erabilten dituezan sacrilegioguillac, edo Sacramenturen bat charto artuten dabeenac; eta arimaco gauzac gorputzecoagaitic saldutene dituezan simoniacotarrac.

¿Eta cer dirauztazu magnetismoaren, espiritismoaren, eta hipnotismoaren ganean? Eleizeac chartzat emonda daucaz enren eguitade izatearen campotieotan; cergaitie oein azaldu eta aitu leitequezan demoninoaren bitartecotasun baga, eta beran gaitic dira sinisteareu, orreliginoaren eta oitura onen contrako pecatu guztiz andi eta aztunac.

¿Nortzue gueiago pecatu eguiten dabe onoidade onen contra? Sinisteco, ieharopeneo, maitetasuneco eta orreliginoco eguiiteac eguiten ez dituezanac, egun bear dituezan aldi eta demporan.

JAZOEREA.

Nabucodonosor erregueac aguindu eban, egui eguiela urezco irudi bat, eta bere mendeco guztiac adorau eguiela; eta alan eguiten ez eben guztiac, izan ceitezala suzco laba batera botaiyac. Iru mutil gaztechuc, Ananias, Misael eta Azarias-ec, ez eben bete gura izan alaco aguindua, eta beraugaitic salatuac eta eroanac izan ciran erreguearen aurrera; once esan eutsen:—
¿Eguia da, zuec ez dozuezala adoretan nire jaungoicoac, eta ez zarela belaunbicotutu, nic egniteco aguindu dodan irudiaren aurrean? Eguin eta betetan ez badozue nire aguindua, bota eraguingo zaituedaz labara; eta ¿ecin izango da, nire aserre gorretie zuec zaindu eta gordetako Jaungoicoa? — Erreguea, erantzun eutsen mutil gaztechuac, gue adoretan doguna, asco eta naico altsua eta indartsua da, gu suaren gar isiotu eta galduetatic zaindu eta gordetako; bafia, alan eguingo ez baleu bere gugaz, jaquin egui, gue ez dogula adorauco zure irudiya, gure Jaungoicoa dalaco Jaungoicoa bacarric, eta bera bacarric adoretan dogulaco. — Erregueac, aserre eta gorroto sutsuan sarturic alaco erantzuoreoa entzunagaz, aguindu eban egui eguiela su bat zazpi bidar andiagoa eta indartsuagoa, eta bota eguietzala labara iru mutil gaztechuac euren onac loturic; bafia Jaunaren anguerua jatsi zan labara, egui eban urten eguiala bertan aise guztiz ots batet, eta alan suac ez eutsen bathere gachic egui, eta suaren erdian cantetan cituezan angueruagaz batera Jaungoicoaren alabantzac. Nabucodonosor erregueac berac, mirari andi au ieusiric, aguindu eban atera eguietzala labatic iru until gaztechuac, eta galerazio eban eriotzearen beian, aurrerantzean euren Jaungoicoaren contra dongaro berba eguitea.

Iracatsi 5.^a—Bigarren aguindua.

¿Cein da bigarrena? Jaungoicoaren icen santuagan juramenturic ez eguietxea alperric. Gauza onen bat egniteco ezquinia

edo aguinctea juramentuz eguiten dabenac, «nai ta nai ez aguindu ori bete bear dau? Bai, Aita; eta ez betetea eta erraz igarteko eran atseratutes, pecatu ilgarria edo mortala izaten da, gauza aztunean izan ezquiero.

AZALDUEREA.

¿Cer aguinduten jacu bigarren aguinduan? Jaungoicoaren icen santua berbacaz onretea.

¿Celan onretan dogu? 1.^o onerazpenagaz eta macurtasunagaz berari deituagaz; 2.^o bera alabau eta bedeineatuagaz; 3.^o cerceridale bearrecoacaz juramentu eguinagaz; 4.^o esquintsari edo votoacaz.

¿Cer da juramentua? Jaungoicoaren icena aotan artutea eguna baten lecuetasuntzat.

¿Ceinbat eraoa izan leiteque juramentua? Bitacoa; bayezcoa, juramentu eguiten bada iragorico egnia edo jazoeren; aguindezeoa, juramentu eguiten bada edo esquiniten bada, etorteco dagoan gauza.

¿Gauza bearrecoa da juramentu eguiteco, Jaungoicoaren icena aotan artutea? Ez; juramentu bere eguiten da, aotan artuagaz araco gauzac, ceintzueta era berariz argui eguiten da been Jaungoicoaren dagoquerac; alan juramentu eguiten da Curutzeagaitic, Evangelioagaitic, eta beste era ascotara.

¿Ona da juramentua? Eguiac, arteztasunac eta preminieac lagunduten badeutse, onretan dau Jaungoicoa; cergaitic dan, bere eguiari, arteztasunari eta anditasun azquenbagacoi emonico macurtasuna.

¿Cer da esquintsaria edo votoa? Jaungoicoari egunico gauza on, eguingarri eta bere arerioa baño obeagoa dan baten esquintsari borondatezcoa eta erabgui osocoa.

¿Celan bete bear dira esquintsariac edo votoac? Eguin izan diran leguez; norberac beartu gura izan eban demporan, eran eta cerceridadencaz, bitartean aguertuten ez bada cerbait, edo ez badago gauzaren bat, alan ez eguiteco escubidea emoten dabenic.

¿Gauza ona da esquintsariac edo votoac egunten? Ona eta

santua; baña celan euracaz d'carren eguinbear andi eta aztun bat, ondo izango da, arrapataca eta lazarregui ez eguitea, beti euquiric ardurea, lenaz jaquiteco confesorearen erechiya.

¿Izan leitequez ecereztuac eta indurbaguetuac esquintsariae edo votoac? Gurazoac eta aguintariae ecereztu eta indurbaguetu leiquecz euren somealaben eta mendecoen esquintsari edo votoen batzuc; Aita Santuac eta Apozpicoac edo Obispoac quendu leique esquintsarien eguinbearra, ataraco gauza egoquia egon ezquero; confesoreac aldatu leiquez esquintsarien batzuc, Cruzada Santuco Bulearen bitartez.

¿Celaco onera eta mesedeac esquinten dituez esquintsariae edo votoac? Batezbere iru: 1.^o beartutene dabe eguiten dituzana, Jaungoicoari lotza eta itsala euquitera, beraganaco maitetasun eta amodiyoa biztu eta gueitungaz; 2.^o indartu eta sendatuten dabe bacocharren borondatea, gauzac eguiteco aurquitarren diran gachtasun, ezdabaida eta algartasunetan; eta 3.^o emoten deutse sendotasuna munduko alcertasunaren cimentua diran guizonen arteco baituerai, siniste onari eta leiyaltasunari.

JAZOEREA.

Bein baten euqui eban Isaias igarleac icusquizun bat, noz icusi eban Jaungoicon angueruz inguruturic, eta angueruac cantetan cituezala gueratu baga Jaungoicoaren ereguitasunac eta alabantzac, eta bedeincatuten ebela bere icen santua, esanaguz:—«Santua, Santua, Santua da martizdiyen Jaun Jaungoicoa», eta Jaungoicoaren icen santua aitatuten eben bitartean, estaldutene cituezala euren arpeguiac lotza eta itsal andiaren ezaugarritzat.

Iracatsi 6.^a—Bigarren aguinduaren contraco pecatuac.

¿Noc, esaten da, alperric juramentu eguiten dabela? Eguiya baga, arteztasuna baga eta premisa baga, juramentu eguiten dabenac. ¿Cer da eguiya baga juramentu eguitea? Norberaren usteen contra, edo guzurragaz, juramentu eguitea. ¿Eta celaco

pecatua eguiten dau, eguiya baga, edo juramentu eguitora doian gauzea badaezbadan daucala, juramentu eguiten dabenac? Pecatu ilgarria edo mortala, gauza arin eta chiquiaren ganean juramentua izan arren bere. ¿Cer da arteztasun baga juramentu eguitea? Gauza bidebagaco eta charraren ganean, berbaraco lagunai calteren bat eguitecoaren ganean, juramentu eguiten dabenac. ¿Eta celaco pecatu eguiten dau, arteztasuna baga, juramentu eguiten dabenac? Pecatu ilgarria edo mortala, gauza bidebagacoa eta charra bada andia eta aztuna, eta gauza bidebagacoa eta charra bada arina eta chiquia, eguingo dau pecatu arina eta chiquia. ¿Cer da, premiña baga, juramentu eguitea? Bear-ordu andi baga, edo gauza baliyo guichicoagaitic, juramentu eguitea. ¿Co pecatu da au? Arina edo chiquia, eguiyari eta artertasunari utsic eguin ez ezquero, juramentu eguiten danean. ¿Eta pecatu da criyaturacan juramentu eguitea? Bai, Jauna; euraegan euren. Eguilleagaitic juramentu eguiten dalaco. ¿Celan juramentu eguiten da criyaturacan? Esanic, berbaraco, neure arimeagaitic, ceruagaitic, lurragaitic... au alan da. ¿Alperrie juraumentu ez eguiteco bideric etc dago? Bai odo ez, Cristoc daracuzcun leguez, esaten oitutea. ¿Eta beste gauzaren bat gueiago eragozten da aguindu onetan? Bai, Jauna; eragozten da ernegua, edo Jaungoiconren eta bere santuen contraco berba iraingarriac esatea; eta au da pecatu ilgarria edo mortala.

AZALDUEREA.

¿Celan pecatu eguiten da aguindu onen contra? Jaungoicoaren icena desonrauagaz: 1.^o aotan arturic lotsa eta itsal baga, destafiaz eta burlaz; 2.^o erneguagaz eta biraubagaz; 3.^o juramentu guzurrezeoagaz; eta 4.^o esquinirieo gauzac ez egui nagaz, edo esquintsariac edo votoac ez beteagaz.

¿Ceinbat eratara egui leitoque erneguzeo pecatua? Lautara: 1.^o Jaungoicoari, Andra Mariari edo santuai, eurai dagoquen cerbait, quenduagaz, berbaraco, esanic: «Jaungoicoa ez dala arteza,» «Andra Maria ez zala izan garbiya:» 2.^o eurai ezarriyagaz, eurai ez jatorquena, berbaraco, «Jaungoicoa dala go-

rrotoduna:» 3.^o criyaturali ezarringaz, Jaungoicoari dagocona, berbaraco, esanic, «urliyac daucala Jaungoicoae baño jaquituria gueiago,» «berendiyar dala Jaungoicoa baño artezago:» 4.^o Jaungoicoaren eta santuen icenac madaricatuagaz, edo aotan deztañaz artuagaz, cein dan pecatu onen eraric ezainena eta lotsagarriena.

¿Cer da biraunba? Jaungoicoaren icena aotan artutea, gachen bat norberarentzat edo bestentzat escatnagaz.

¿Pecaturic egun baga gueratu leiteque, erneguac edo biraubac ecanduz edo oituraz botaten dituzana? Baldin, garbaturic eta damuturic ondo, badauco asmu eta erabagui sendo eta errimea, ecandu edo oitura char ori quenduteco, oiturearen indarrez erneguren bat edo birauen bat urteten badeutso bere, ez da izango pecatu, ez daucalaco bearbesteko ezauperarie; baña ecanda edo oitura char ori euquiric, bera sustraitic atera eta quenduteco, aleguinac eguiten ez badituz, eguiten da errudunago eta charrago.

¿Cer dinozu, juramentuen icena gueiyenean emoten jaquen berba lotsagarrizco orreen ganean? Badoaz Jaungoicoaren edo sautuen icenagaz alcaturic eta baturic, dira ernegu eguiazcoac, eta beti dira charrac eta arrizcugarriac, bada egunoroko iusviyac iracasten dau, euretara oituten dana, elduten dala erneguguilla izatera.

¿Cer egun bear dogu, erneguren bat entzuten dogunean? Bedeincatu bear dogu, beintzat gueure barruan, Jaungoicoaren icena eta erregutu bear dogu erneguguilleagaitic.

¿Cer da juramentu guzurrezcoa? Jaungoicoa guzurraren iusletzat ecartea, edo eguiya baga, arteztasun baga eta premisa buga juramentu eguitea.

¿Ge pecatu da juramentu guzurrezcoa? Eguiyari uts eguiten badeutso, beti izango da pecatu ilgarria; arteztasunari uts eguiten badeutso gauza andiyan, izango da pecatu andiya edo ilgarria, chiquian bada, pecatu chiquia edo arina; eta bacarric uts eguiten badeutso premieari, izango da pecatu chiquia edo arina.

Gauza charren bat eguiteco juramentu egun dabena, ¿bete

bear dau eguinico juramentua? Ezcelanbere ez; pecatu eguin eban, juramentu eguinagaz, eta pecatu eguingo dau, eguinico juramentua beteagaz.

¿Ce pecatu da, eguinico esquintsariac edo votoac ez betetea edo austea? Igarria edo andiya, gauza andiyan izan badira, eta chiquiyan izan badira, pecatu chiquiya edo arina.

JAZOEREA.

Amar urtetik amabi urteco mutil bat, escolatic urten ezquiero, biurtu zan bere echera, bearbada cerbait beranduago beste egunetan baño; eta beraugaitic bere aita guztiz aserratu zanac, aguiraca gogorrac eguin cutsazan, eta dempora berean eguiten eitzan Jaungoicoaren icen santuaren contraco erneguac eta biraubac. Estuturic bere semechua alako berbeta zantar eta deabruzcoacaz, etzuten da bere aitaren oñetan, eta, bolanbico dagoala bere aurrean, dirautso: «Noure aita, castigau nagizu neu, baña arren ez eguziz atera ceure aotie Jaungoicoaren icen santuaren contraco orrelaco ernegueta biraubac.» — Arrituric aita, bere erneguac eta biraubac ainbestean bildurta eta icaratuten ebela bere semea, icusiyagaz, bere semearen iracatsi ona izan zan asco eta naicoa, aurriantzean erneguric eta birauric gueiago ez eguiteco.

Iracatsi 7.^a—Irugarren Aguindua.

¿Cein da irugarrena? Domècac eta jaiyac gordetea. ¿Noc gordetan dituz jaiyac? Meza oso bat entzun, eta premiña baga biarric eguiten ez dabenac.

AZALDUEREA.

¿Noc imini izan dituz jaiyac? Jaungoicoak munduaren asieran imini izan eban zazpigarren eguneco atsedena; eta gero, mesederen bat eguiten ebanean, aguinduten eban eguin ceitela urte guztietan mesedearen go-nutea, eta beraganako esquer-ontasuna eracusteko, gordo ceitela jai bat.

¿Ez da bada Eleizea, jaiyac imini eta quenduten dituzana? Egiaz, Eleizeac, Jaungoicoaren aguintaritasuna daucanae, Es-

piritu Santuagandie arguitasunac eta sucenbidene artuten dituzanac, imini izan dituz jaiyac, Jesueristoren, Andra Mariaren eta santuen escutapenac ouretaco; eta aguintaritasun berberagaz quendu leiquez, cerceridadoac alan escatuten dahenean.

¿Celaco onera eta mesedea daardez jaiyac? Eleizearen googoagaz garde ezquiero, 1.^o onretan dabe Jaungoicoa; 2.^o gomuta eraguiten deuzeue gueure azquena; 3.^o aurreratu eta cirkinduten gaituez, gauza ouac eginitara; eta 4.^o emoten dentse demporea biarguinai eta languillai, euren gorputzeco indarrac barriztetaco eta gueituteco.

¿Bada celan gordetan dira jaiyac? Eguite onacaz eta santucaz, diran leguez: limosnac, erregeuac, Sacramentuac, eta onelango gauzac; eta batez bere Meza Santua entzunagaz, cein dan, pecatu ilgarriaren beian aguinduten jacun eguitea.

¿Cer da Meza Santua? Jesucristo gure Jaunaren gorputzaren eta odolaren oparia, Jaungoicoari esquiniten jacona bere nagusitasun gorengoaren ezangarrizat, beragandie arturiko mesedeaegaitic ezquerrac emoteco, gucuro pecatuen quitugarri eta orderaco, eta bicitza on eta santua iragoteco, bear diran gracia eta laguntzimena jarichi eta alcantzetaco.

¿Celan entzun bear da? Itsalagaz, gogo onagaz, onerazpenagaz eta osotasuuagaz.

¿Celan entzungo dogu itsalagaz? Egonie taiyu eta ganora onean eleizan, soñeco eta jasteco antz-onecoacaz bertara joanik, berbetan, barreca, albuetara beguira, ceresuna eta pecaturaco bidea emon leiquean guztia, egun ezagaz.

¿Celan entzungo dogu gogo onagaz? Mezatan egonagaz, eta gogo ona galdu leiquean guztia, egun ezagaz; baña ez da gauza bearrecoa eta noraezecea aguindu au betetaco, abade meza-emotzallea icusi eta bere berbac entzutea; asco eta naicoa da alcanturic eta baturic egotea beste emparau meza-entzulleacaz alako eran ece, beste emparauac aguertutene dituezan ezagariyetatic, ezagutu al deitequeala cetero doian Meza santua.

¿Celan entzungo dogu onerazpenagaz? Jesucristoren pasinoe santua ondo gogoratuagaz, edo beste escabide eta orregu batzue eguinagaz; eta onclaraco lagunduten dan onerazpeneo liburuac.

¿Celan entzungo dogu osotasunagaz? Asieratic azqueneraño Meza osoa entzunagaz; orregaiticbere, bat elduco balitz, evangelion edo credoa amaitu baño lenago, betecon lenque aguindu au.

¿Nortzuc dira, Mezea entzuteco eguinbearrie ez danquenac? Ecintasunean aurquitulen diranae, diran leguez gueisoac, osatubitartedunac, eta alan beste asco.

Eta gogo bagaric euren guraz dagozanac, berbetan, lo dagozanac... Meza suntuaren zati andiyan, edo ez entzuteco arrizcuan iminten diranae, ¿celaco pecatu eguiten dabe? Pecatu ilgarriya; baña zati aríñean eta consagracionetic campora bada, eguingo dabe pecatu arisia.

JAZOEREA.

Jaungoieoac berac aguertu eta adierazo eban aguindu au berba onecaz:—«Gomutau zaitez, zapatuco eguna santututeagaz: sei egunean biarra eguingo dozu eta eguingo dozuz ceure lan guztiac, baña zazpigarrena da cenre Jaungoico Jaumaren eguna. Egun onetan ez dozu eguingo lan serbigarriric batberre, ez ceuc, ez ceure semeac, ez ceure alabeac, ez ceure otseianac, ez ceure abercac, eta ez ceure echean aurquiturico urrotzaz; bada Jaunac egun cituzan sei egunean cerua, lurra eta ichasoa, eta enretan dagoan guztia, eta atseden egun eban zazpigarren egunean. Orregaitic Jaunac bedeineatu eta santutu eban zapatuco eguna.»

Iracatsi 8.^a—Irugarren Aguinduaren contraco pecatuac.

¿Eta celaco pecatu eguiten dabe, premiña bagaric jai egunetan biarra edo lana eguiten dabenac? Ilgarria, ordu bi baño luzeago lanean jardun ezquiero, eta ordu bitic beera jardun ezquiero, gueiyenean pecatu urina eguiten dabe.

AZALDUEREA.

¿Celaco lanac dagoz laqueturic jai egunean? Gorputzeco neque andiric ez dacarden, jaunai dagoquezanac, diran leguez iracurtea, iscribidutea, ibilteu, eta onelaco beste asco.

¿Ceintzue dira, galerazota dagozanac? Gorputzeco nequea dacardenac eta languillai dagoquezanac, diran leguez, lurra landutea, josten eguitea, echequintzan ibiltea, eta onclaco beste biar eta lan gogorrac eguitea.

¿Noz egnin leitequez lan oneec jai-egunean, pecatuan jausi bagaric? Oitura oneeo aldiyetan, diran leguez, jatecoa guerlu eta prest imintea, echea garbitutea; premiña eguiazcoco demporan, diran leguez, menazteac urtuteco aldiyetan; guztioen onac edo lagun urcoaren premiña andiyac alan escatutzen dabenean, berbaraco, echeren bat erretan dagoanean, premiña-dunari lagundu bear jaconean; eta Eleizaco nagusiac escubidea emoten dabenean.

¿Bada ce gach edo calte eguiten da, jai-egunean biarra edo lana eguinagaz? Jaungoicoaren contra pecatu eguinagaz ganera, ausiric bere aguindu santua, calte eguiten deutse arimeari, gorputzari, munduko alcartasunari eta lurreco ondasunai eurai.

¿Ce calte eguiten deutso arimeari? Jai-egunean biarra edo lana eguiteco ecandu charrac, pecatu ilgarriagaz ganera, daearz arinara fede eta erreliginoe santuen guichitueria eta galduerea, eguneroko icusiyac eta jazoereac iracasten dabeen leguez.

¿Ce calte eguiten deutso gorputzari? Osasunaren ganeko jaituriai iracasten dan, gueratubagaco lanac laburtutentz dabela bicitza, guichituten ditnzala gorputzeco indarrac eta gach eta calte andiae ecarten deutsazala osasunari.

¿Ce calte ecarten dentsoz munduko alcartasunari? Jai-egunetan biarra eta lana eguinac, emoten daben pecaturaco bideac, eguiten dau: 1.^o galdu daitela Jaungoicoaren bildurra; 2.^o guichitan euqui daitezala aguindu guztiae, cergaitie, baldin bat guichitan euqui al baleiteque, baitabero beste emparauac; eta 3.^o nintzat euqui ez daitela nagusitasun guztia, cergaitie ez dago nagusita unic, lotsa eta itsalagaz beguiratutentz jaconic, Jaungoicoaren mugusitasunari lotsa eta itsalagaz beguiratutentz ez jacon lecuan.

¿Ce calte eguiten deutse lurreco ondasunai? Gorputzari egui-

nico gachetic datozañ calteacaz gañera, gauza ciurra da, Jaungoicoac ucatu edo laburtu leiqueoela bere bendecinoa campoai, biıldu leiquezala legortasuna, sicutea, arriya, gorriñeа, langillearen neque eta izerdiyac utsera bota eta ecereztaico dituzanac; edo gueisotasunen bat edo zorigachen bat, ondatu eraguingo deutsana, daucan eta irabaci izan daben guztia, Jaungoicoaren jai-egunac ondo gordetan ez dituzanari.

¿Beti da pecatu ilgarria, ordu bi baño luzeago biarra eguita? Baldin biarra edo lana bada serbigarri arina edo pecaturaco bideric emon baga, jazo leiteque pecatu ilgarria ez izaten, ordu bi baño luzeago egin arren bere; baña bada serbigarri andia edo emoten bada pecaturaco bidea, izango da pecatu ilgarria, ordu bira eldu ez arren bere.

¿Beste ceintzue lan dagoz galerazota jai-egunean? Pecatuac, dantza nastnac, joco larreguiac, ordiqueriac, eta batzue jai-egun santuetan egin daroezan nasaiqueria eta nabarmenqueriac.

JAZOEREA.

Israeltarrac eremuau bici cirala, artu eben jai-egun baten, egur-sendor bat batutenebillan guizon bat. Eroana izanie guizone au Moises-en, Aaron-en eta guizou zar guztien aurrrera, oneee aguindu eben sartu eguiela presondeguian, ez equielaco cer egin beragaz, urie eta Jannagaz itundu artian. Eta Jaungoicoac esan eutsan Moises-eri: «Eguizu ila izan daitela berreala echaguntzatic campora, eta erri guziae arrica egin da-guioela.» Eta alanche egin zan, erri guzine arrica ilten ebela.

Iracatsi 9.^a—Laugarren Aguindua. Semealaben edo mendekoen eginbearrak.

¿Cein da laugarrena? Gurazoi lotsea gordetea. ¿Noe gordetan deutse lotsea gurazoi? Euren esana egin, eurai lagundu eta eurai lotsa ona deutsenac. ¿Nortzue eguiten dabe onen contraco pecatu ilgarria? Echeeo joanetorriai eta oitura onsi dagoqueezan gauzetan, euren gurazoi menderatutei, ez ja-

quezan semealabac; euren bear-orduetan eta premiñaldietan lagunduten ez deutsenac; eurac madaricatu edo eurai irri eta barre egun edo eurai escua ezarten deutsenac; eta euren ben-decinoe eta onerechia baga, esconduteco asmuian dabilzanac. ¿Beste ceintzuc dira, gurazoen lecuan ezagututenean diranac? Adinean edo urtetan, duintasunean edo aguinpidean eta ardu-rapenean nagusiac diranac.

AZALDUEREA.

¿Celaco eguinbearrac sarratutenean dira luugarren aguinduan? Semealaben eta mendekoen euren gurazoaganacoac eta nagusiaganacoac: gurazoen eta nagusien euren semealabaeganacoac eta mendekoaganacoac; eta bacocharen bicierari dagocazanac.

¿Ceintzuc dira semealaben euren gurazoaganacoac? Sor deutsez maitetasuna, esanecotasuna, lotsea eta laguntasuna.

¿Celan maitetu bear dira gurazoac? Maitetasun eguiazcoagaz eta beticoagaz, euracgandie artu izan diran oneguin eta mesede andiaegnaitic; eta onen contrako pecatua eguiten dabe, eurai gorroto deutsenac, eurai escua ezarten deutsenac, eurac madaricatutenean dituezanac, euren gachagaz poztutenean diranac, eta beste onelaco lotsabagaqueriac euracaz eguiten dituezanac.

¿Celaco esanecotasuna euqui bear da gurazoacaz? Arin, laztter eta pozic egun bear dira euren esanac, Jaungoikoaren aguinduac leguez, ceñaren ordekoacoac diran lurrean; pecatu eguiten dabe, euren esanac eguiten ez dituezanac, berandu eta go-go charragaz eguiten dituezanac, onelan eurai aserratu era-guiten deutsela.

¿Celaco lotsa eta itsala euqui bear jaque? Lotsa, iltsal, begiraune eta moduonecotasun guztiz andia; pecatu eguiten dabe, eurac guichitan dauquezanac, eurai barro eta burla eguiten deutsenac, eurai euren utseguiteac eta argaltasunac arpeguian emoten deutsezanac, curac aintzacotzat ez artu eta euracaz lotsatutenean diranac, eta beste onelaco gauza charrac eguiten dituezanac eureu gurazoacaz.

¿Noz izan bear dira lagunduac? Arimaco eta gorputzeco

premiñetan; pecatu eguiten dabe, eurai euren premiñaldietan eta ezonquietan beardabena emoten ez deutsenac, euren zartzaroan lagunduten ez deutsenac, euren gueisotasunetan jaramonic eguiten ez deutsenac, Sacramento Santuac demporaz artu daguztan, arduraric artuten ez dabeenac, edo eurac il eta guero, Jaungoicoari euracgaitie erregututenez deutsenac.

¿Celaco aldiyetan ez dogu eguin bear gurazoen eta nagusien esana? Ez dogu eguin bear euren esana, aguinduten da-beenean edo galorazoten dabenean cerbait, Jaungoicoaren borondatearen contracoa dana: «ergnitie lenago eguin bear da Jaungoicoaren borondatea guizonena baño.»

¿Celaco eguinsariac esquineten deutsez Jaungoicoac, euren gurazoacaz omac eta erruquiorrac diran semealabai? Mundu onetan bieitza dontsu eta zorionecoa, eta bestean eguinsari beticoa.

¿Cer izango da, euren gurazoacaz donga eta charrae diran semealabacaz? Izango dira Jaungoicoaren eta guizoneu madaricatuac, euquico dituez zorigach eta castigu asco eta andiac bicitza onetan eta bestean.

¿Nortzue besterie adietan dira gurazoen icenagaz? Nagusine alan arimacoce ceinda gorputzecoac.

¿Ceintzue dira arimaco nagusiac? Aita Santu Erromacoa, Apezpicoac edo Obispoac, Arimazainac, Abadeac eta aitapontekoac.

¿Ceintzue dira gorputzeco nagusiac? Erregneac, ardura-pentzallae, aguintariac, ugazaba eta echecoandrac, maisuac eta zarrac.

¿Cer sor deutsegu nagusia? Maitetasuna, esanecotasuna eta lotsa oma.

JAZOEREA.

Euren gurazoacaz charrac eta dongae izaten diran semealbabac, gueiyenem enquiten dabeen castigua, da eurac bere euren semealbabagandik gogortasunue eta lotsabaqueriac artutea. Ondo jaquina eta czagutua da, Aristóteles-ec dinoana seme-

batan ganean. Seme galdu au, sarturic aserre guztiz andian, azartuton da bere aita zarrari esnac ezartera, eta oraturic bere buruco uletatic, eroaten dau tatarraz goico escallera-burutic bere echecho atarteraño. Echeco ateburuan aurquitudun zala, deadar egun eban aita zar erruquigarria; esaten cituzala berba oneec: «Gueratn adi, semea, bada castigu asco eta naicoa artu juat onezquero; cergaitic neuc bere beste dempora baten lecu onetaraño scarri nijuan tatarraz neuro aita zurra, ic ni leguez.»

Iracatsi 10.^a—Nagusien eguinbearrac.

¿Aguindu onctan, semealaben euren gurazoacaganaco eguinbearren ostean, sarratuta badagoz besten batzue? Bai, aita; ugazabac eta nagusiac euren mendekoaz, eta gurazoac euren semealabacaz danquezanac. ¿Ceintzue dira orreec? Eurac janaritutea, eurai iracatsiac emotea, eurai aguiraca eguitea, eurai eguiquera edo eracusmen onac emoten eta erazco bicibidea bear dan demporan emotea. ¿Celaco pecatua eguiten dabe, eguinbear onoe betetan ez dituezanac? Gueiyenean ilgarria edo mortala.

AZALDUEREA.

¿Celan beteco dabe, eurac janarituteco dauquen lenengo eguinbearra? Euren bicitzearen eta premiña gorputzecoen ardurea euquiric, succenduten deutsezala bicigarriac eta jastekoac, euren biciereari dagocazanac; euren gueisotasunetan eurai lagunduric eta galbide eta arrizuetatic eurai alde craguinic.

¿Celan beteco dabe, eurai iracatsiac emoteco, dauquen eguinbearra? Arguibideac eurai emonie, succenduten deutsezala mai-suac edo iracaslac, iracatsi daguioenac, eurac oz daquien, eta bear dana, arimac salbetaco, eta echadiarenzat eta munduko alcartsunarentzat oneragarriac eta mesedegarriac izateco.

¿Celan beteco dabe, eurai aguiraca eguiteco dauquen eguinbearra? Ondo zainduric euren bicierea, euren oiturac eta adis-

quidetasunac; beti sucenduten dituezala bido onetic eta castiguetan dituezala errime eta zurtazunagaz bearreco demporan.

¿Ce gauzatan emon bear deutse eguiquera edo eracusmen ona? Gauza guztietan; Jaungoicoaren maitetasun eta bildur santnan, erreliginocce eguinbearren betetasunean, moduontasunean, lancan; beti eguiten dabeela euracaz, ondoena dala erechiten jaquena.

¿Celan betero dabe, eurai bicierea emoteco dauquen eguinbearra? Lencengo, iracatsiric languintzen bat edo biarguintzen bat, ceñiegaz irabaci al daguien, biciteco bear dabena; eta bigarrengo, emonic eurai erechiona, batberc bildur baga, bicibidea autu eta artu bear dabeelean, bacarbacarric beguiratutene deutsela Jaungoicoaren zorionari eta euren semen ariunaco onari.

¿Cein da sementzat languintzaric edo biarguintzaric onena? Guiciyenean, euren gurazoac dauquena, ceñietan aurquituten dabeen semeac erraztasun gueiyago, gastu eta arriztu guichiyago.

¿Nori dagoco bicibidearen autuerea? Seineai, cergaitic eurac irago eta croan bear dituezan, autuera onetic edo charretic datozañ calteac edo onerac; baña gauza ona eta egoquiya da, semealabac euren gurazoen onorechia eta borondatea aurrez entzun eta jaquitea.

¿Ceintzue gurazo dira guztiz donga eta charrac? Jaungoicoaren eguiquerea cragotzi eta deseguiten dabeenac, edo ilten dituezanac euren semealabac, jaiyo baño lenago, edo deslai ichiten ditnezanac, jaiyo eta guero; euren semealaben aciera erreliginocce santucoaren arduraric artuten ez dabeenac, aciten dituezala, arimariez balenque leguez, edo iminten dituezala maisu, iracasla eta ugazaba charren eta donguen ardurara; eta euren semealabai pecaturaco bidea emoten deutsenac, gaitaqueriaren eta pecatuaren lupatzan sartu eta ondatutene dituezala.

¿Ceintzue dira ugazaben eta nagusien eguinbearrac? Gurazoac euren semealabacaz dauquezanacaz ozta bardiañac.

¿Beste ceintzuc eguinbear sarratutene dira agnindu onetan?

Baocharen biciereari dagocazanac, diran leguez osaguillearenac, maisuarenac edo iracaslearenac, senarrarenac, emaztearenac, eta beste onelango asco.

¿Badago cerceridado berarizeoren bat eguinbear onectan? Nai ta naiez jaquin eta ezagutu bear dituez, eta pecatu eguiten dabe, eurai uts eguiten deutsen guztian naguitasunez, ardurabacotasunez edo ez jaquinez.

JAZOEREA.

San Francisco Sales-ec dino, San Bernardoren amak eucala, bere semeac, jaiyo orduco, bere besoetan bat banan artu eta Jaungoicoari esquiniteco oitura on eta santua; eta ordu atatic beguiratuten ensela iltsal andiyagaz, Jaungoicoari esquinirieo gauza bateri leguez, eta Jaungoicoac bere escuetan iminirico ondasun andi bateri leguez, ondo aci eta gordetaco. Eta ain dantsua eta zorionecoa izan zan oitura au ece, bere zazpi seme guztia eizan eiran santuae.

Iracatsi 11.^a—Bostgarren Aguindua.

¿Cein da bostgarrena? Iñor ez iltea ¿Cer aguinduten da aguindu onetan? Iñori, ez eguiquernz, ez berbaz, ez gogoz, calteric ez eguitea. ¿Eta aguindu onen contruco pecatu ilgarria noc eguiten dau? Norberaren buruari edo besteren bati eriotzea nai beste calte andiren bat opa deutsanac, baita gorroto deutsanae; iñor il, edo zauritu, edo jo daianac; ordiyac; osasuna galdu eraguiteco janarine artuten dabezanac; norberaren burua il edo ilteco arrizenan iminten dabena; eta norbera nai besteren bat gachtzetsi edo madaricatutenean. ¿Cer da madaricatutea edo birao eguitea? Batec norberaren tzatzedo beste batentzat gachen bat escatutea, berbaraco, esanaz: or jausico alaz ilic. ¿Eta celaco peatua da birao eguitea? Gach andiaren gurarizcoa bada, ilgarria. ¿Eta ainbagaoa danean? Arina, beti ezarren. ¿Nortzue bada eguiten dabe pecatu ilgarria, onelango gurari baga birao eguiten dabenean? Gueiye-nean mendekoen aurraan birao eguiten dabean gurazoac eta

nagusiak; baita onetaraco ecandua enqui eta quenduteco ale-
guinic eguiten ez dabenac bere. ¿Eta cergaitic alan? Euren
herbacaz eta eracusmen charracaz ciricatuten dituezan bes-
teac, Jaungoicoa gauza astunean iraindutera, eta oni dericho
pecaturaco-bidea-emotet edo escandalua.

AZALDUEREA.

¿Cer galerazoten da aguindu onetan? Norberari edo besten
bateri gach eguitea bicitza arimacoan edo bicitza gorputze-
coan.

¿Celan gach eguin al leiteque bicitza gorputzecoan? Egni-
tez, berbaz edo gurariz.

¿Nortzuc gach eguiten dabe egnitez? Besten bat il, zauritu
edo joten dabennac; norberac bere burua ilten dabenac, bere bi-
citza arrizcuan iminten dabenac, edo celanbait bere osasunari
calte eguiten deutsanac.

¿Nozhait izan leiteque laqueta eta bidezcoa, besten bateri
gach eguitea edo bicitza quendutea? Bai: 1.^º norbera zaindu
eta gordetako, gauza bearrecoa eta premiñazcoa danean; 2.^º
guda edo guerra artezean; eta 3.^º Auciepalieac ataraco ernba-
guia emoten dabenean guztiyen onagnaitic.

¿Norberac bere burua il al leique, edo imini al leiteque, be-
re bicitza galdujeko arrizcuan? Ataraco asmua artez daucala,
inozbere ez: baña orrelango asimuric ez daucala, imini leite-
que, bere bicitza galdujeko arrizcuan, alan escatuten dabee-
nean Jaungoicoaren zorionac, guztiyen on andi arimacoac,
norberarenac edo bestenac; berbaraco, penitencia eguiteagaitic,
gueiso char gueisotasun erascorracaz edo colerengaz dagozanai
lagunduteagaitic, Eleizacoac ilaguinean dagozanai emoteagai-
tic, eta beste onelango gauzac eguiteagaitic..

¿Nortzuc eguiten dabe pecatu, euren osasunari calte egui-
teagaitic? Tema edo apostoa gogorrac eguiten dituezanac, ja-
nari caltegarriac artuten dituezanac, ordituten diranac; eta
ordiqueria da pecatu ilgarria, adiñeco arguitasuna edo ezau-
perea galdu eruguiten dabenean, aserrecuntzai, burrucai eta
pecaturaco bideari oña emoten deutsenean.

¿Cer da bicuda edo desafioa? Biyen arteco burruquea; atactic bereala izaten bada, deituten jaco aserrerea; demporea, leua, icuslac eta beste onelango gauzac icentauta danean, deituten jaco dueloa edo burruca cerceridadeacaz eguna, pecatu guztiz andia dana.

¿Celan pecatu eguiten da berbaz aguindu onen contra? Bur-la eta barreacaz, iraingarriacaz, birao eta madaricacinoacaz, besteai aserratu eraguiteco, edo atsecaberen bat emoteco, diran berba guztiacaz.

¿Celan pecatu eguiten da gurariz? Gorrotoagaz, ondaimuagaz, icusiecinagaz: besteni gachac eta calteac opa izanic, jazotan bajquez, poza arturic, euren onacaz atsecabea eta min arturic, eurac gorrotauric, eta maitetasunaren ezangarriac eurrai neaturic.

¿Nortzue gueiyago dira, onetan uts eguiten dabeenae? Euren barriquetacaz, berbeta dongacaz eta ausuetaco barri-emoteacaz, areriyotasunac, aserracuntzac eta bengantzac iminten dituezanac.

¿Celan gach eguiten da bicitza arimaconn? Pecaturaco-bidea-emoteagaz edo escandaluagaz, cein dan berba edo eguiquera guztia, osoro ona eta arteza ez dana, besteai pecatu eraguiteco ofia emoten deutseña.

¿Ceinbat erataracoa izan leiteque pecaturaco-bidea emotea edo escandalua? Bitacoa: ataraco asmoa artez daroana, eta onelango asmobaguea.

¿Cer da pecaturaco-bido-emote edo scandaluraco asmoa artez daroana? Pecatuan jausi eraguin gura dabena, berbaraco, dongaro eguitea escaturic, aguinduric, ederturic, eta beste onelango cirigarriac charreraco emonic, eta au da demoninoen pecatua, cergaitic alau eguiten dabena, biurtutenea demoninoaren lagun eta biarguilla izatera, Jesucristoren odolagaz erosirico arimac betico galduiteco.

¿Cer da orrelango asmoric ez daroana? Besteak pecatura eroateko asmo baga, eguiten danean edo esaten danean cerbait arimen galdugarria dana.

¿Nortzue dira pecaturaco-bidea-emotearen errudun andiyae?

Liburu eta paper charrae esribidu edo zabalduten dituezanac; euren berbeta eta esacune dongacaz arimac nasaitu eta chartutzen dituezanac, nasaiqueria eta nabarmenqueria orreec la-quetu eta ontzat iragoten dituezan ugazaba eta gurazo Jaun-goiaren bildurbagacoac; guizon arimabagacoai eta erreligi-noebagacoai laguntasuna emoten deutsenac.

¿Eta besteai, esan diran eraren baten, gach edo calte egui-ten deutsenac, badauque eguinbearren bat? Gueratuten dira, eguinico gachac eta calteac osotuteco eguinbear estu eta go-gorrear.

JAZOEREA.

Bein baten Jesucristoc artu eban multichu gaste bat, eta, iminirie guztien aurrean, esan eban:—«Nigan sinistuten da-been umechu oneetatic bateri, pecaturaco-bidea emoten deut-sanari, obeto izango litzaqueo, errota-arri bat bere zamatic lotu eta botaco balebe ichasoco ondarrera. ¡Ay munduarena pe-caturaco-bidea emoteagaitic! Cergaitie gauza bearrecoa da pe-caturaco-bidea-emotea etortea; baña ¡ay! araco guizonarena, ceñegandic datorren pecaturaco-bidea.»

Iracatsi 12.^a—Seigarren Aguindua.

¿Cein da seigarrena? Araguizco pecaturic ez eguitea. ¿Cer aguinduten da aguindu onetan? Izañ gaitezala garbiyac gogo, berba, eguite eta gurariyetan. ¿Nortzuc dira, aguindu onen contraco pecatu ilgarria eguiten dabeenac? Gogoracinoe loi-yac, eracutsi ez arren, edo eracutsi gura ez arren eguiquere-tan, bururatuagaz, jaquinoro poztutene diranac; gauza ciquinac esan eta cantetan dituezanac, edo gogoz entzuten dituezanac; baita norberagaz edo bestegaz escuqueta, ucutute, eguite ezmianac eta zantarqueriac eguiten dituezanac edo eguin gura dituezanac.

AZALDUEREA.

¿Co pecatu galerezoten dira aguindu onetan? Garbitasuna-

ren contraco berbac, gurariyac, gogoracinoac, edo norberagazco nai besteagnzco eguiquera loiyac eta czainac.

¿Badago aguindu onetan cerbait, berarizeoa eta aparteoa danic? Bai: eta da, ez dagoala gauza arinie edo chiqniric, da esatea, guztia dala pecatu ilgarria, aguindu onen contra doiana; eta bacarric izango da pecatu arina, aldinaren aldetie bearreco ezauperea edo borondatearen bearreco crabaguia ez da goanean.

¿Cer gueiyago galerazoten da aguindu onetan? Pecatu onen jatorriya edo sustraiya izan leitequean guztia; diran leguez, iraçurte nasai eta czainac, beguiracune zantarrac, berbeta eta adisquidetasun arrizeu andicoae, dantzeta eta icusgarri pecaturako-bide-emongarrinc, eta artuemon eta joanetorri maitetsu lazaroocoe.

¿Nortzuc dira guztizco errudunac aguindu onetan? Dantzeta eta icusgarri nasaieguiyac euren echetan asimau eta euquiten dituezanac; adisquidetasun luzeguiyac eta bacarreguiyac laquetu eta ontzat emoten dituezan gurazoac; pecaturako bidea emon edo pecatu eguiten iracasten dabenac; euren berbaldinacaz, Lillostasunacaz, eta edergarri eta apaingarriacaz, pecaturako aurrerabidea emoten dabeenac; gauza czainac eta ciquinac escribiduten dituezanac, edo euren antz eta irudiayac egun edo eracusten dituezanac.

¿Ce calte eguiten dau pecatu onec? Pecatu ilgarri guztiac beragaz dacarzan calteacaz gañera, calte andiya eguiten deutse gorputzari, entzute onari, ondasunai, eta arimeari.

¿Ce calte eguiten deutso gorputzari? Guichituten deutsoz indarrac eta sendotasuna, eta sarri ascotan eldutene da osasuna galdu eta bicitzea laburtu eraguitera.

¿Cergaitic calte eguiten deutso entzute onari? Dalaco pecatu ezaina eta itsusiya, bera eguiten dabena, lotsariz eta igüingarriz betetan dabena.

¿Celan calte eguiten deutse ondasunai? Loquieriazco ecan du cital onec beragaz dacarz naguitasuna, alperreria, biarraganaco gorrotoa, gauzac dongaro gastetea, eta onec guzti onec eroaten dabe biciera erruquigarri, estu eta larria.

¿Celaco calteac eguiteu deutsoz arimeari? Illunduten deutso adineco arguitasuna, errazoa bera galduera bein baño guei-yagotan eldutene dala; beragaz dacarz sinisbagatasuna, Sacramentu Santuac dongaro artutea, uinechuen ilguintzae, gogait eguin eta icharopena galduetea; eta ez deutso ichiten, infernuco ondarrera bota artian.

¿Gauzaren bat, garbitasunaren contraco pecatu dan ala ez, ezbaiyan dagoanac, cer eguin bear dau? Itundu bear da bere confesoreagaz, eta bitartean ichi bear dau eguin baga, badaoz badan daucan gauzea.

¿Ceintzue gauza dira, garbitasuna zaindu eta gordetan lagunduten dabeenac? Naguitasunetic eta arrizuetatic iguez eguin eta urrindutea, Sacramentu Santuac sarri artutea, erre-gu eta escabideac eguitea, Andra Mariaganaco onerazpen eta maitetasuna, Jaungoicoaren aurrean beti ibiltea.

JAZOEREA.

Enrique zortzigarrena, Inglaterrako erreguea, bere lenengo urtetan izan zan Eleizearen seme otsana, mena eta esanecoa, eta beraugaitic irabaci eban «Eleizearen zaintzallearen» icen erregui eta arguitsua; baña loiqueriazco griña citalaren mendeko eta azpiko egunie gueratu zanean, aztu cituzan bere eguinbearrac, galdu eban siniste santua, alderatu zan Eleiza egniazcoagandie, eguin zan Anglicismoaren, au da, herege arimagalduen buru eta aguintari, Jesusen erreliginoari gorrotoz beguiratu eta milla charqueria eguiten entsazan, erbestutenei cituzan Apezpicoac edo Obispoac eta Fraileac, oneen aberastasunac eta ondasunac beragandu cituzan, eta asco eta ascoi emon eutsen martiriyoa. Bere griña zantar, eceri bere jaramonic eguiten ez eutsanac, ainbestean itsutu eban eco, eguin cituzan, gogoratu eta iruditu al leitequezan nasaiqueria eta charqueria guztae, eta azquenean il zan, penitenciarie eguin baga, Jaungoicoac bere aguindupian iminirico errefusa, Erromako Eleiza Santutic ateria ezquero.

Iracatsi 13.^a—Zazpigarren Aguindua.

¿Cein da zazpigarrena? Ez ostutea. ¿Cer aguinduten da aguindu onetan? Ez daguigula iñoren gauzarie quendu, ez euqui, ez gura izan, jaubeac gura ez dabela.

AZALDUEREA.

¿Ceinbat eratara pecatu egun leiteque aguindu onen contra? Ascotara, lenenac dira: lapurretea, iñorena bide charrez euquitea, calte eguitea, engañua, irabazgoiya, gurariya.

¿Nortzuc pecatu eguiten dabe lapurretaz? Iñorena artuten dabeeenac, jaubeac gura ez dabela; eta au eguiten bada isilean eta escutuan, deituten jaco ostutea, eta jaubearen aurrean eta indarrez egun ezquero, dericho arrapaqueria.

¿Nortzuc pecatu eguiten dabe engañuz? Euren gauzac charrazaz nastauric, edo pisu eta neurri laburracaz, salduten dituezanac; salduerosietan engañosuren bat sartutu dabeeenac besten caltean.

¿Nortzuc pecatu eguiten dabe, iñorena bide charrez euquiric? Besten ondasun eta gauzac, euren jaubeac gura ez dabela, danquezanac; euren zorrac paguetan ez dituezanac, eta biarguinai eta aloguerecoai bearreco eguiñsari eta aloguerac demporaz emoten ez deutsezanac.

¿Nortzuc dira calte eguitearen errudunac? Besteai gachen bat edo calten bat celanbait eguiten deutseenac, su emonic echeai, soloai, basoai, eta beste onelaco charqueriac eguiñic; edo galdu eraguinic dongaqueriaz ondasunen bat, ceñeganaco escubidea euquen besteac.

¿Nortzuc eguiten dabe irabazgoiya? Emonico diruagaitic edo beste gauza deseguingarriac epean emoteagaitic, irabaci larrugiac edo euneco gueiyeguiac croaten dituezanac, ataraco escubide sucenic euqui baga.

¿Nortzuc pecatu eguiten dabe gurari charrez? Iñoren ondasun eta gauzac cicozqueriaz gura dituezanac, icusiric onda-muagaz besten zoriontasuna, eta euren ondasunen jaube izateco gogoa euquiric.

¿Nortzue gueiyago pecatu eguiten dabe aguindu onen contra? Lapurretea, edo calten bat, eguiteco, laguntasuna emoten dabeenac, aguindurie, atarnao aurrebidea emonic, lagundurie eta beste onelaco gauzac eguinic; osturico gauzeten alde artuten dabeenac, edo erosten dituezanac, jaquinic osturicoac dirala.

¿Eta esconduen artian eta gurazoen eta semealaben artian aurquitu leiteque lapurretaric? Bai: cergaitie bacochac daucaz bere ondasun eta gauzac, eta ez da gauza bidezcoa eta arteza, euretan calte eguiten.

JAZOEREA.

Fraile-eche bat eguiteco lurra artu izanie San Eloyc erre-gue bategandic, echea amaitua izan zanean, icaratu zan ieusiric, emon izan jacon lurra baño oin bat gueiyago artu ebala. Estutastinez eta atsecabez beterie joan zan erregueagana, eta bere aurrean belaubnicoturie, eta bero begui biyetatic negarmaleu ugariyac eriozala, parea escatu eutsan, gaistaqueria andi bat eguin izan baleu leguez. Erregueac, alaco eguite on eta samuraren saritzat emon eutsan beste ainbeste lur, eta San Eloy bere aurretic joan zanean, esan eutsen beragaz egozanai: — «Beguirea celacoac diran Jesucristoren jarraillac eta icaslac: nire mendeko aguintariae eta sucentzallae quenduten denzte, al dabeen guztia, eta Eloy ainbostean estutu eta larritutene da ontza bat lurregaitic:»

Iracatsi 14.^a—Zazpigarren Aguinduaren jarraipena.

¿Nortzue eguiten dabe onen contraco pecatu ilgarria? Esanicoedocein gauza orrec eguiten dituzanac, edo besteari ce-lanbait calte eguiten deutsenac bere ondasunetan, gauza andian izan ezquiero. ¿Eta besteari,edocein eratara dala, calte eguiten deutsenac, gueratutene dira eguinbearren bategaz? Gueratutene dira, osturico gauza guztiac eta eguinico calte guztiac ainbat lazterren biurtu eta osotu edo ordaindunteco, eguinbear gogor eta aztunean.

AZALDUEREA.

¿Ce pecatu da lapurretea? Berez da pecatu ilgarria, bada San Pablo dino: «Ez dabeela euquico Jaungoicoaren erreñua la purrac ez cicoizqueriazaleac.»

¿Beti da pecatu ilgarria? Ez: izan leiteque pecatu arina, bearreco ezauperea edo erabaguia euqui ezagaitic, eta gauza chiquian danean.

¿Ceinbateco gauzea da asco eta naicoa, pecatu ilgarria iza-teco? Onen ganean ecin emon leiteque neurri edo erabaguiric, cergaitic beguiratu bear jaque, jaquiteco eta erabaguia cino-teco, pecatu ilgarria dan ala ez, lapurretea edo calteguiten jaquenen biciereari eta bere cerceridadeai, eta baitabere etorten jaquezan calteai, eta beste onelaco gauzai; neurri edo erabagi guztiracotzat iracasten dabe jaquitun eta eracusla batzue, «besteari egun hateko bieigarri edo janari bearrecoa, eta berari jatorcana, ostutea dala pecatu ilgarria.»

¿Lapurreta chiquiac egun leiquee pecatu ilgarria? Bai: 1.^a gauza andi eta aztuna eguitera elduten diranean lapurreta chiquiac; dendariac eta saltzalleac pisu eta neurri labur eta chiquiyacaz salduerosiyac eguiten dituezanean, jazoten dan leguez; eta 2.^a batec ostutenean dabenean gauza chiquia, lapurreta andira elduteco gogoagaz; berbaraco, nezeatilla serbitzalla batec, gauzac erostra doianean, bacochean centimo batzue ostutenean badituz, soñeco bat eguiteco bear dabeneraño ostuteco gogongaz.

¿Pecatu au da gorrotogarria? Bai, ecingueiyagoan: 1.^a beragaz daroalaco ezaintasun lotsagarrizcoa; 2.^a legue guztiac gogortasun andiagaz castignetan dabeelaco; 3.^a beragaz daroalaco, osturicoa biurtu eta calte egunicoa ordaindu edo osotuteco eguinbear estua, arimea betico galdu gura ez bada.

¿Premiñazcoa eta naita naiezcoa da osturicoa biartutea edo calte egunicoa ordaindu edo osotutea? Al izan ezquero, da osoro premiñazcoa eta naita naiezcoa, eta ez da gueratutenean beste iguezlecuric ezpada biurtu osturicoa edo betico galdu arimea; bada dino San Agustinec «ez dala pareatutenean pecatua, ez bada eguiten biurtuera, al danean.»

Eta biurtuera eguitoco ecinean aurquituten danac, *¿cer eguin bear dau?* Euqui bear dau eguitoco asmu errime eta erabagui sendoa, al dabonean; eta bitartean eguin bear dau, al dabentz gantz, betetako bere eguinbear axtuna.

¿Eta nor dago biurtuera eguitoco egninbearrean? Ostu izan dabena edo calte eguin izan dabena, lapurretan eguiten eleanbait lagundu izan dabeenac, lapurrac berae eguiten ez badau biurtuera, eta artezetasunaren bitartez lapurretan galernzo al leiquezanne eta galernzo bear dituezanac, zaintzallac leguez, eta alan eguiten ez dabenac.

¿Eta nori biurtu bear jaco? Janbeari edo bere jaubegucia; eta ecin zabaldu leiteque esquecoen eta premiadunen artian biurtu bear dana, bere jaubea czagutua danean.

¿Eta jaubea aguertuten ez bada, gueratu leiteque beragaz? Ezcelanbere ez, cergaitic ecin aberastu leiteque ifor osturicoagaz; aldi onetan emon bear jaque esquecoai eta premiadunai, biurtu bear dana.

¿Ceinbat biurtu bear da? Janbeari calte eguin izan jacon beste.

¿Eta gauzaren bat tapau edo aurquitu izan dabenac, cer eguin bear dau? Aleguin guztiac eguin bear dituz jaquiteco edo aurquituteco bere jaubea, eta aguertuten bada jauben, berari biurtu bear deutso; eta alan eguiten ez badau, izango da lapurra.

Eta baldin, aleguinac eguin ezquero, aguertuten ez bada jaubea, *¿cer eguin bearco dau?* Gueratu beragaz edo emon esquecoai.

JAZOEREA.

Bide charretie ondasun eta aberastasun andi eta ugariyac eguin cituzan guizon bat, gueisotu zan araguiaren ustelera derichon gueisotasunagaz, eta ozagaturik urrean eucala eriotzea, orregatik bere ecinartu eban, biurtu bear ebana, biurtuteco asmua, bere iru semeac premiadun eta ezequiyak ichite ezaurren. Au jaquinie Arimazain on batoc, eguiten dituz, gueisoa icusteko, aleguin guztiac, eta esanik bere echecoai, berae equiala, alako gueisotasuna osatuteco osagarria, sartutene da guei-

soaren guelan, eta bere anurrean dagoala, dirautso:— Nic daquidau osagarria, da utsic emongo ez dabena, guztiz erraza, eta batbere minic eguiten ez dabena; baña da, diru guztiz asco costetan dana.— Costau beite, gura dana, erantzun eutsan gueisoac, berreun, bimilla oguerleco: ¿cein da osagarri ori? Arimazainac esan eutsan: ez da egun bear beste ganzarie ezpada isuri eta bota zure aragui ustelaren gañera guizon bici eta osasun onecoaren coipe-tantaca batzue; gachtasun guztia dago aurquitutean guizon bat, bimilla oguerlecogaitic ordu lauren baten bere escua erretan ichi gura daguiyana—; Nire erruquigarria! deadar egun eban gueisoac, ¿nun aurquitu orrelango guizonic?—Gozatu eta baquetu zaitez, esan eutsan Arimazainac; zue daucazuz iru seme, eta ez daqui iñoc cer egun leiquean seme batec bere aitaren osasunagaitic; zue irago dituzuz esturac, larritasunac eta neque gogorrac, ceure semenc aberatz ichite arren, deitu eguziozu seme nagusienari, gogoratu era-guiozu deutsazun maitetasuna, esan eguziozu ichico dozula ceure ondasunen eta aberastasunen jaube, bere aitaren bici-tzeagaitic erretan ichiten badau bere escua; ez daucat badaczbadaric, gurago dabela eta baiyetz erantzunto dabela; ezpada deitu eguziozu bigarrenari, irugarrenari, eta egun eguzioezuz esquintsari eta aguintsari bardilñac. Alan deitu eutsen iru semeai; baña guztiac ao batez ucatu eben eguitea, aitac gura ebana, ciñuela: ¡Soraturic dago gure aita! Ez dot aituten, esan eban orduan Arimazainac, gueisoari beguiratuten eutsala; baña bai dinot, zu izango ciñatequezala ero eta soro andi bat, ceure gorputz eta arimea galduetco eta betico infernuan erre-taco arrizeuan iminiaz ceure burua, lurreco suban ordu lauren bateco mina irago gura ez dabeen semiac aberatz ichiteagaitic.—Ondo diñozu, esan eban gueisoac, jazoera onec edegui eta zabalduten deutzaz beguiyac, joan daitezala bereala escribau baten esque, eta bitartean zue confesau nagizu.— Guero sucendu cituzan bere arimaco gauza guztiac, bere semeen zoriontasun lurreco eta guerocoari batbero jaramonic egun baga.

Iracatsi 15.^a—Zortzigarren Aguindua.

¿Cein da zortzigarrena? Iñori, egun ez dabenic, ez ezartea eta guzurric ez esatea. ¿Cer aguinduten da aguindu onetan? Lagunagaitic arin, irazean edo gueiagoco bagaric, charric uste ez izatea, eta bere utseguinic ez esan ez entzutea. ¿Noc austen dau aguindu au? Bide oquerrez erechia eracusten dabena, au da, bear dan arguitasun baga, iñori icen ona galdu, bere gauza isillecoa aguertu eta guzurrez iraina eguiten deutsanac. Eta iñori guzurrezco pecatua leporatuaz, nai eguiazco erruac baña isillecoac edo ezjaquinac aguertuaz, icen ona galduen deutsana, ¿ecer egunbenurrean gueldituten da? Quendurieo onera eta icen ona biurtu bearrean gueldituten da.

AZALDUEREA.

¿Ceintzue pecatu dira, aguindu onetan galerazoten diranac? Lagunaren icen onaren edo eguiyaren contra celanbait doaznac; diran leguez uste edo erechi largoaya, lecucotasun guzurrezcoa, murmuretea, guzurra, dongaestalqneria, eta besto oneen antzezoac.

¿Cer da uste edo erechi largoaya? Lagunagaitic charto uste izatea, ataraco cergaitico asco edo naicoric euqui baga. Baldin, uste izatea dan dempora berean, gueratutene bada contraco ezdabaidarie, deituten jaco suzpitza.

¿Cer da murmureta? Da lagunaren contraco berbeta bidebagocoa; eguiten bida, pecatu eguiazcoa aguertuagaz, da bacarric murmuretca; baña bida, pecatu guzurrezcoa aguertuagaz, deituten jaco salgaitza edo lecucotasun guzurrezcoa.

¿Ceinbat eratara egun leiteque pecatu au? Lagunari pecatu edo charqueria guzurrezcoa ezarriagaz, eguiazcoa gueituagaz, isileco edo ezjaquina aguertuagaz, eguite onari antz charra emonagaz, lagunaren ontasuna ueatuagaz, guichituagaz edo ots-otsean alabau eta goratuagaz.

¿Esan al leitequez pecantu edo gaitzqueria aguiriyac edo jaquinecoac? Badira, aguirriyan egun izan diranac, edo badira

aguiriyac, aunciepalloac euren gañean erabaguia emon izan da belaco, bai; bacarric badira aguiriyac, jenten artian isillean zabaldu izan diralaco, uts eguiten jaco guichienez maitetasunari.

¿Cer eguin bear dau, murmuretea entzuten dabenac? Bera bada nagusia, isilldu eraguin bear dau; bada bardilla edo mendecoa, alde eguin bear dau leku atatic, berbaldiya aldatu edo beste gauza batznetara eroan bear dau, edo bere becoqni aztunagaz eta arpegui ilunagaz adierazo bear dau ez dala bere gogoko alaco murmuretea; eta onetan jaquin bear da, pecatu an-diagoa eguiten dabela batzuelan, murmuretea entzuten dabenac, murmuratzalleac baño. ¿Gordo bear doguz isilleco gauzac? Bai, pecatuaren azpian eta beiaan; naiz dala alan aguindu izan dogulaco, eta naiz dala jaquin dogulaco uste ustebaga edo gue jaquiteco aleguinac eguinagaz.

¿Gauza bidezcoa eta ona da nozbait, gauza isillecoa aguertu eta esatea? Bai; erreliginoaren edo munduko alcartasunaren ongutzirakoak alian escatutzen dabenean, edo norberaren nai lagunaren onera andirako dancan bere bai.

¿Eguiten dau pecatu, inoren cartae iracurri edo zabaldutzen dituzzanac? Bai, austen dituztalaco, isilleco gauzea ez aguertuteco dauean eguinbearra eta jenten arteko escubide berezcoa.

¿Cer da guzurra? Norberaren erechicoa ez dana, esatea, bestear engafietako gogoagaz; eta deituten jaco barregarria, barre eragueiteko esaten dauean; langarrizcoa, onera edo mesedereu bategaitic esaten dauean; eta caltegarria, beragaz calte eguiten dauean.

¿Ona izan leiteque nozbait guzurra? Ifozbere ez, munduko alcartasunak bere iraupenerako bear dituzan tolezbacotasunaren, leiyaltasunaren eta siniste onaren contra doialaco; baña nozbait, cergaiticotak artezagnz, escutau leiteque eguiya, guzurrie esan baga.

¿Cer da dongaestalqueria? Norbera bero barruan donga eta charra izanic, campotic eta azaletik ontzat aguertutea, euganeitako gogoagaz.

¿Celan biurtu eta osotuco da, salgaitzaz edo lectucotasun

guzurrezcoagaz quendu izan dan icen edo entzute ona? Dese-
sanic eta ucaturic, lenago guzurraz esan dana, eta juramen-
tuagaz eta norberaren caltean izan arren bere.

¿Eta icen edo entzute ona quendu izan danean, pecatu edo
gaiztaqueria egniazcoa, baña isillecoa, aguertu ota zabaldua-
gaz? Guztiz gach da biurru edo osotutea; aldi onetan ondo da
confesoreagaz itundu eta aitutea, edo parca escatutea, iraina
eta caltea egun izan jaconari.

JAZOEREA.

San Agustinec, janorductan ain ugariya eta gueiyenetako
izaten dan murmuretea galerazo eta quenduteco, imini eraguin
cituzan bere echecho jantozian latinezko berso bi, esaten ebe-
nac au:

«Murmura gura dabena,
Izan daitela emetic joana.»

Eta adisquide batzue lagunagaitic charto esaca eta berbetan
asi ciran egun baten, aguiraca egun eutsen, cirautsela:
«Isillduten ez baciran, egun beareo zana zala, edo quendu ber-
so areec lecu atatic, edo jagui mailic.» Onelaco gogortasuna
eta sendotasuna euqui eta orneutsi bear litzatequez, ainbeste
gach eta calte ecarten dituzan murmuretea galerazo eta era-
gotziteco. (1)

Iracatsi 16.^a—Eleizearen Aguinduac.

Esan eguzuz Eleiza Ama Santearen aguinduac,—Eleiza
Ama Santearen aguinduac dira bost: 1.^a Meza osoa entzutea
jay eta domequetan; 2.^a Edolabere urtean bein confesotea, edo
lenago eriotzaco arrizuan badago, edo comulgau bear badau;
3.^a Pasco garizumacoetan comulgautea bere parroquian;
4.^a Barau eguitea, Eleiza Ama Santeac aguinduten dabeu guz-
tiyan; eta 5.^a Amarrenac eta primiciyac edo lenengo ecarriac,
edo orren ordez aguinduten dana emotea. ¿Cetaraco dira aguin-
du onecc? Jaungoicoarenac obeto gordetaco.

(1) Bederatzigaren eta amargarren aguinduac doaz azaldurie zaspigarren eta zor-
zigarren aguinduetan.

AZALDUEREA.

Arimea salbetaco edo cerura joateco, gaseo eta naicoa da Jaungoicoaren legueco aguinduac bete eta gordetea? Ez: bete eta gorde bear dira bere Eleizearenac, Jaungoicoac aguinduten dabelaco, obediu daguiogula Eleizeari, berari leguez; eta ecin euqui leique Jaungoicoa aitatzat, Elciza amatzat ez daucanac.

¿Badaueo Eleizeac, legueac iminteco escubideric? Bai; artu izan dabelaco Jesucristogandic, eta baitabère dauco, eurac ausi eta gordetan ez dituezanac, castiguetaco escubidea; eta au lurreco edo munduco aguintariac beragaz cer-icusiric ez daudela.

¿Cetara succendu eta zabalduten da escubide au? Siniste santuari, oitura onai, Eleizearen ardura eta sucenereari eta arimen zoriontasun betioai dagocozan gauzetara.

Baldin Aita Santua eta Apezpicoac edo Obispoac badira guizonac, ¿ergaitic obediu bear jaque eurai? Jaungoicoagandic artu izan dabeelaco, gure arimac zaindu eta jagoteco ardurea, eta beraugaitic gue daueagu, eurai obediuteco eguinbear andi eta aztuna; dancagun leguez, gueure gurazoai, aguintariai eta nagusiai obediuteco, eurac guizonac izan arren.

¿Eleizearen aguindu oneec izan leitequez aldatuac edo barriztauac? Bai, badaezbada baga; demporeac, lecuac eta besto onelaco cereeridadeac alan escatutene dabeen guztian; jazo izan dan leguez, Eleizearen bostgarren aguinduagaz, bada len amarranac eta primiciyac edo lenengo etorriiyac emoten baciran, orain diruta eguiten da euren pagna, Eleizeac erabagui dabelaco.

¿Aguindu oneetic gaftera badagoz besten batzue? Dagozasco, bate eta gorde bear doguzanac, diran leguez Aita Santuaren eta Apezpico edo Obispoen aguindu guztiak, eta eurac betetea edo gordetea da iracatsi onen onerea.

JAZOEREA.

Oquelaric edo araguiric ecin jan ceitequean egun baten, imini eutsen oquelea bere mayan Franciako erregue Luis amalau-garrenari, eta jan gura ez izanic, bere mendeko soldadu-aguindu-

tari zar batec eguin cituzan aleguin guztiac, jan leitequecalal sinistu eraguiteco, cirautsala: Jesucristoc esaten ebala Evangelio Santuan, «aoan sartuten danac, ez ebala ezaindutenez loituten arimea.» Ez, Jauna, erantzun eutsan erregueac bere nagusitasun guztiagaz, oquelea jateac ez dau loituten arimea, ezpada esanic ez eguiteac, aguintaritasun eguiazcoari jarquiteac, eta aguindua ez gordeteac. Guztia dago jaquitean, Jaungoicoac emon ete deutsan Eleizeari, bere semeai aguinduteco escubidea, eta bere semeac artu ete dabeen, Eleizearen esanac eta aguinduac betetaco eguinbear andi eta aztuna: alan daraeuzeu ieqasbide cristinauenac; baña zue iracurten dozun ezquerro Evangelio Santua, bertan iesusico cenduan, Jesucristoc arguilo difioala: «Eleizeari obediuten ez deutsan edoccin, izan daitela gentilzat cuquiya.»—Erantzuera eder au zan erregue guztiz cristinau onaren duñiecoa.

Iracatsi 17.^a—Barauba eta janari debecauac ez jatea. (1)

Eta laugarrena, cein dan barau eguita, gñortzui jagoque? Oguetabat urte danquezanai. ¿Eta celan barau eguin bear da? Janari debecauac ichi eta eguberdian bacarric janagaz. ¿Eta onetan utsic eguin baga, goisean ecer artu al izango ete da? Cergaititasunagaz, au andia izan ez arren bere, ontza bat inguru artu leiteque. ¿Eta ganbean? Apari arintzat, oitura onecoen artean oi dana, artu lciteque, abade edo confesore zur bati onen gañeco ezbayac eracusten deutsaguzala. Eta cergaititasun eguiazcoa baga, barau eguiten ez dabeenac, ¿celango pecatum eguiten dabe? Ilgarria. Eta baruegunetan eta oqularic-ez-jateco egunetan oqularic ez jateco aguindua; egun oneetan jatordu baten oquelea eta arraña ez nastetaco aguindua, eta garizuman arrrauzac eta esnejuarine, Bula baga, ez jateco aguindua, gñortzui dagocoez? Adinera edo ezauberara oldu diran guztini. ¿Celango pecatum eguiten dabe, betetan ez dituezanac? Ilgarria, egunean uts eguiten deutseen baochein.

(1) Eleizearen leuengo aguindua azaldna izanik Jamgoioaren legueco irugarren aguinduan; eta celan Eleizearen bigarren eta iragarren aguinduan azaldn bear diran Penitenciaro eta Comuninoeko Sacramentuetan, emen bacarric azalduko da langarrena.

AZALDUEREA.

¿Ceinbat aguindu dagoz sarturie baranbau? Bi: 1.^a eguberdian bein bacarric jatecoa; 2.^a janari batzuc ez jatecoa.

¿Ceintzuc dira barau-egunac? Garizumaco egun guztiac, ez izanie domecac; lau demporetaco egubaztenac, baricuac eta zapatuac; advenduko baricu eta zapatuac; Jesusen jaiotzearen, Espiritu Santuaren etorrerearen, Andra Mariaren igoerearen, San Pedro Apostoloaren, Santiagoren eta Santu Guztien jai-aurreco egun baochae.

¿Nortzuc ez dagoz, barau eguiteco eguinbearrean? Oguetabat urte ez datuenac eta iruoguei urte irago dituezanac, lan eta biarguintza gogor eta nequetsuetan egunoroco ogniya irabasten dabeenac, gueizoac eta guztiz osatu-bitartean dagozanac, seindun diran edo seina aciten aurquitutenean diran emacumeac, eta premiadun ateric ate esquean dabilzanac.

Barau eguiteco aguindua ausi baga, ¿ichi al izango da gueorriko, bein asi izan dan eguberdiko Bazcariya? Cergaititasunen bategaitie ichi leiteque ordulauren edo orduerdi batean; eta cergaititasun eguiazcoagaitic egui leiteque bazcariya gau-bean, eguinie apari arina eguberdian.

¿Celaco janariyac artu leitequez apari arinean? Lurretik datozenac, ez badago beste oituren bat edo escubide aguintariac emonicoren bat, beste janari batzuc bere artuteco.

¿Edariyac ausi eta galdu eraguiten dabe baraubia? Euren izatez edariyac bacarric diranac, ardaon, cafea eta beste onelangoac leguez, ez; eurenez janaritzat ezagutuac diranac, chocolatea, saldea, esnea eta beste onelangoac leguez, bai.

¿Ceintzuc dira janari debecaubac eta eragotziac? Oquelea eta oquelatik datozenac; arrautzac, esnea, gaztaia leguez, eta onei deitutenean jaque esnejaquiac.

¿Ceintzuc dira, janari debecaubac ez jateco egunac? Baru-egunetako egun guztiac eta urteko baricu guztiac, ceintzuetan guztietan ecin jan leiteque oquclaric; eta garizumako egunetan eta domequetan bere, ecin jan leitequez arrautzac eta esnejaquiac bere, euqui ezic cergaititasunie edo Bula Santuak emondako escubideric.

¿Nortzue dagoz, janari debecauac jateco alizatean? Adinera edo ezauberara eldu ez diranae edo adineco arguitazunie ez danquen senbacoac; gueisoac eta guztiz osatubitardean dagozanac, eta osaguissearen erechian oquelajaquiac bear dituezanac; esquean bici diranae, jan leiquee emoten jaquena; euren echetatic urten eta, euron cereguinac eta arazuac eguiiteco, bidetan dabilzanac, arrainjaquiric, edo beste janari egun aretan debecauta eta eragotzita ez dagoan, erauz ez badauque edo ecin aurquitu al badabe.

JAZOEREA.

Barauba eguiiteco aguinduari, lotsa eta itsal guiehignaz begiratu eta gorroto deutsenae, eguiten dituezan urteiyeretatic gueiyenecoena da au; esan oi dabe: «*Cei deutse Jaungoicoari gure baraubac?*» Urteiyera oni erantzuteco, esango deutzu, Aita Francoe bere «Erantzura erricorretan», ain ezagutuac eta entzunac diranetan, dacarrena. Ondo adierazo ezquero orri guztien erechiagaz, liburu santuen iracatsiacaz, igarlen onbideagaz eta beste onelango nagusitasunacaz, barauba dala ona eta egoquia Jaungoicoaren aserrea bigunduteco, eta erruquitasun jaungoicozcoa eta ceruco laguntasuna jurichi eta alcantzotako, iminten dau lecuetasun barriya, diñoala: «Jesucristoe ondo arguiro iracasten deuzeu *dagozala demonioe batzue, bota ecin leitequezanac, erreaguaren eta baraubaren bitartez espada;* bera joan ceitenean, bere Apostoloac barauba eguingo ebela; iracatsi eutsen celan eguingo eben barauba, eta au asco eta naicoa ez balitz leguez, Berberae emon gura izan euzcun, barauba eguiiteco onbidea, joanic eremura edo basamortura, nun eguin eban berroguei egun eta gabeko barau gogorra. Baldin, onen ostean, norbaitetik itanduten badeutzue *zeer deutsen Jesucristori baraubac?* erantzun cinaiqueoe: *Ainbeste deutse,* ceinbat deutsan iracasla bateri, bere icasle eguin daguiela, berae irnati izan deutsena. Evangelioco jaquituria eta iracatsi guztin dago, gure azpiratu eta eci daguigula guenre araguia, eta enqui daguigula arimearen mendean; eta celan barauba dan eguniberic onena eta egoquien, araguia eci eta goituteco, guretziz asco deutsa Jesuseri, gure barau eguin daguigula. *Ainbat deu-*

tso, ceinbat deutsan osaguilla on bateri, bero gueisoac artu daguietzala ardura guztiagaz, berac aguindu izan deutsezan osagarriac edo osasungueiac. Gure gueisotasunic andienac dira araguiaren gozamena, lurreco gauzacaganaco zaletasun larrregua, eta pecaturaco etsiguitasun eta etzuntasuna; eta barrauba da gach eta gueisotasun orreen contraco osagarriric indartsuena eta eraguillena. *Ainbat deutso*, ceinbat deutsan soldadu-aguintariari, bere gudariac edo soldaduac gogor egun daguiela burruca eta esetsiyetan. Barauba da arma bat, esaten eban San Antonioe: demonino guztiai iguez craguiten deutseña; cergaitie, celan janedanetaco ascbeteac sortu eta ecarten dituzan milla griña eta gurari aberecorranc eta lotsagarrizcoac, baraubac, bestera, gueituten dituz gogoracinoe garbiac, eregui eta goratutene dau arimea Jaungoicoagana, eta sendatutene dau, gaistaqueria guztiac lazter eta bereala deseguin eta goituteco. *Ainbat deutso*, ceinbat deutsan legue-imintzalla bateri, bere aguinduac izan daitezala gorde eta beteac, eta aguinduten daben Jaungoicoari, bere mendekoac izan daitezala esanecoac. *Eta ainbeste deutso*, ecingueiagoan eta eguiaz gura dituzalako gure arimen ona, gure esetsialdiac eta burrucac, gure garaitzac, berba baten, gure zoriontasun beticoa; eta, celan au jarichi eta alcantzetaeo, dan barrauba eguinbideric sendoena eta eraguille-na, orregaitic *asco deutso gue barau eguitea.*»

Iracatsi 18.^a—Bula Santuaren gañeco eraiscuna.

¿Cer da Bula Santua? Da Aita Santuaren erabaguia, ceñaren bitartez emoten jaquezan gracia eta escubide batzue, Elcizeren gurte edo culturaco limosna eguiten dabenai.

¿Celaco escubideac emoten dituz Cruzadaco Bula Santuac baraubaren ganean? Lenengo emoten dau, garizumaco egun guztietan arrautzac eta esnejaquiac jateco escubidea (ez sarturic escubide onetan abadeac): 2.^o baru-eguneco egun guztietan oquelea jan al izatecoa, arima eta gorputzecco osaguille biyen erechiagaz; eta 3.^o escubide au zabalago eguiten daben Oquela-Bulea artu al izatecoa.

¿Celaco escubideac emoten dituz Oquela-Buleac? Garizumako eta barneguneco egun guztietan oquelea jan al izatecoa, ez izanie autz-eguneko egubaztena, garizumako baricuac, Aste Santuco azquenengo lau egunac, eta Jesusen jaiotzearen, Espiritu Santuaren etorrerearen, Andra Mariaren igoerearen eta San Pedro Apostoloaren jai-aurreco egun guztiac, ceintzuetan ecin jan leitequean oquelarie, Oquela-Bulea euqui arren bere.

¿Eta Bulea dauquenac, nastau leiqueez oquelea eta arraina jatordu baten, janari debecauac eta eragotziac jateco alizatenn dagozan egunetan? Nastau leiqueez urteco baricuetan; baña ocin nastau leiqueez baruegunetan, ez eta garizumako domequetan bere.

¿Beste ceintzue escubide emoten dituz Cruzada Santuco Buleac? Lenengo emoten dituz, ceinbatu ecin leitequezan beste parcamen osoak eta aldecorrac, Bulan bertan icusi leitequezan leguez; 2.^o emoten dau, pecatu loturico eta gorderico, bi ez emparau guztiac, paratuteco escubidea; 3.^o esquintsarie edo votoac aldatuac al izateco escubidea; 4.^o osan-arteko demporaraco emoten dituz beste escubide batzue; eta 5.^o beste emparau Bulac, ilena, oquelacoa eta composinoecoa, artutecoa eta euren graciac euquiteco escubiden.

¿Cer emoten dau ilen Buleac? Parcamen oso bat, arima icentau bateri laguntasungarritzat ezarri loitequeona.

¿Cer emoten dau composinoeco Buleac? Compondu al izatea, bide charretic eguinico ondasunen ganean, euren janbea eza-gututen ez danean.

¿Ceintzue dira bear diran cerceridadeac, Bula onegaz compondu al izateco? Bi dira: 1.^a ondasunac ez daitezala izan bide charretic eguinac, Bula onegaz componduteco nsto eta gogoga; 2.^a eguinie bearreco aleguinac, ecin aurquitu eta jaquin al izan daitela euren janbea, ez batera ez bestera eguinico aleguin guztiacaz bere.

¿Cer euqui bear dogu gueure gogoan Bula Santuen ganean? Dirala escubidezcoac, eta beraugaitic ez dago, eurac artutecoa eguinbearrie; baña Bulac artuten ez dituzana, guelditnten da Eleizeac guztiai imiñirico leguearen azpiyan, eta ecin baliyan

leiteque, pecatu egun baga, Bulac emoten dituezan gracia eta mesedeacaz; eta ez deutsala ecer baliyoco, limosnea emoten dabenari, Bulea aintzat artutenez badau.

—¿Cetaraco izaten dira, Bulea artutenez dabeenac, emoten dituezan limosnac? Cruzada Santuaren Bulaco limosnac dira eleiza ezeuquiayai eta premiñatsuai lagunduteco, eta Oquela-Bulearen limosnac izaten dira gueisoteguiataraco, mesedezco-echetaraco eta umezurtzen toquietaraco.

—Cor gueiago da ondo, onen ganean jaquitea? Biarguin aloguerecoac diranac, ez dauquela Oquela-Bulea artuteco premiñaric, eta artu ez arren bere, baliyau leitequezala bere gracia eta mesedeacaz, errezauric Aita-gurea bat, euracaz baliyetan diran bacochean.

JAZOEREA.

Oquelaric edo araguiric ecin jan ceitequean egun baten, egozan jaten mai baten guizacume on eta Jaungoicoaren bildur andico bat eta mutil gazte soro eta burnerechi batzue, eurac guizon andiac eta jaquitunac cirala uste ebenac, eta agura zarrari barre eta burla eguiten eutsenac, jaten ez ebalaco oquelaric, eurac leguz, ezpada arraifiac eta debecauric ez egozan janariac. Guizon onac, amaitu ebanean bere bascariya, urrera tu eta eroan eban beragana, araguiz edo oquelaz beteric egoan erretilua, eta orra nun sinistuten dabeen mutil gazte soro eta donga areec, euren berbeta eta esanac entzunagaz, azpiraturic eta goituric guelditu zala agura zarra, eta oquelea jatera joiala; baña ez zan alan jazo, ezpada arturic bere estuetan bertaco oquela-zati andi bat, bota eutsan, an egoan chaeur bateri, cirauntsala:—«Eutso, bada chacurrentzat ez dozac izan eguinac Eleizearen legueac.»—Eta onegaz artu eben mutil nasai areec iracatsi guztiz eder bat.

Iracatsi 19.^a—Erruquizco eguiquerac.

Esan eguiuz erruquizco eguiquerac.—Erruquizco eguiquerac dira amalan, zazpi arimacoac eta zazpi gorputzecoac. Ari-

macoac dira oneec: lenengoa, ez daquianari iracustea: bigarrena, beardabenari conseju edo zentzun ona emotea: irugarrena, uts eguiten dabena sucendutea: laugarrena, gach eguna partutua: bostgarrena, triste dagoana poztutea: seigarrena, lagunaren falta eta argaltasunac pacienciagaz iragotea: zazpi-garrena, bieiac eta ilae gaitic Jaungoicoari erregututea. Gorputzecoac dira oneec: lenengoa, gueisoac icustea: bigarrena, gose danari jaten emotea: irugarrena, egarri danari edaten emotea: laugarrena, catiguac ascatu eraguitea: bostgarrena, bilosac jastea: seigarrena, erromesai ostatua emotea: zazpigarrrena, illai lurra emotea. ¿Cergaitic deriche erruquizeoac? Naita naiezecoac ez diralaco. ¿Noz izaten dira aguindupecoac? Guizon aituen erechian aztunac eta estuac direan bear-orduetan. ¿Eta erruquizco eguiquera onecaz, eta cristinauac bai eguiquizunez eta bai gura-izate utsez eguiten dituzan beste eguiquera onecaz, cer jarichi eta alcantzetan dau? Jaungoicoaren gracian badago, irabasten dau, ceruko laguntasuna eta zoriontasuna gueitutea, bere pecatuen zorra quitututea, eta Jaungoicoagan-dic arimaco ondasunac eta, bearizan ezquero, gorputzecoac jarichi eta alcantzeta. ¿Cergaitic dinzu, Jaungoicoaren gracian badago? Cergaitic pecatu ilgarrian dagozanac eguinieko gauza onac, ez zorric quitutu ez ezer mereci al dabeelaco; bacar bacarric dira jarichigarriac, au da, euren bitartez Jaungoicoagan-dic meseden batzuc celanbait jarichi eta alcantzun al leitequez

AZALDUEREA.

Lagunari dagocazan aguinduac beto ezquero, ¿bete izan doguz, beraganaco daucaguzan eguinbear guztine? Ez: lagundi bear deutsagu here bero arimaco eta gorputzeco premiñaldietan, erruquizeo eguiqueraac betetan dognzala; eguinie beragaz, besteac gugaz eguitea gurako gueunquena, aurquituco baguintzez, berea laco bear-orduan.

¿Nortzue dagoz batzobere, erruquizeo eguiquera arimacoac eguiteco premiña eta naita naiezean? Nagusi guztiak: Apezpi-coac edo Obispoac, Arimazainac, Abadeac, aguintariae, gurazoac, iracaslac, maisuac eta beste onelango guztiak, izanie gueiyago

edo guichiago aztuna eta estua euren eguinbearra, andia gona
edo chiquiagona dan leguez premiña.

¿Nortzui batezbere dagocoez erruquizco eguiquera gorputze-
coac? Aberatsai; bada eurac, euren bicieraco bearbearrecoac ez
dituezan ondasun emparaudiooacaz, lagundu bear deutse, pre-
miña dagozanai.

¿Ceintzuc dira premiña estuac eta andiac, ceintzuetan la-
gundu bear dan, norberaren calteren bategaz edo nequealdire-
n bategaz izan arren bere? Gorputzari dagocazan aldetic, dira
gueisotasunac eta bicitza galduzeco arrizcua; eta arimeari da-
gocazanez, dira bearreco gauzen ganco ezjaquite andia, ari-
mea betico galduzeco arrizcua edo pecatuan biciteco ecandu
charra.

¿Cec aurreratu bear gaituz, erruquizco eguiquerac eguitera?
Jaquiteac, Jesucristoc esquini eta aguinduta daucala, Berari
eguina leguez artueo dabela, premiñadunagaz gueguiten do-
guna, eta emongo deuzenula batetako eun eta guero zoriontasun
beticoa.

¿Ceintzuc dira eguiquera onen onera eta ecarriyac? Lau:
irabacigarria, quitugarria, jarichigarria eta erruqui-eraguin-
garria.

¿Cein da irabacigarria? Eguiquera on guztiagaitic irabasten
dan graciaren eta zoriontasunaren gueitutea; baña onera au
artuteco, naita naiez egon bear da Jaungoicoaren adisquideta-
sunean; da, ondo eguiten dabenari, dagocona, eta besteari eza-
rri ecin leitequeona.

¿Cein da quitugarria? Pecatu pareaturicoaegaitic zor dan
pena demporazeoaren pagua, Jaungoicoaren sucentasunari
eguiten deutsana; au besteari ezarri leitequeoe, baña oneraga-
rria eta mesedegarria izango bajeque, naita naiez egon bear
dabe Jaungoicoaren adisquidetasunean.

¿Cein da onera jarichigarria? Eguiquera on guztiac daucan
indarra, Jaungoicoagandie jarichi eta alcantzetaco, beragana
eguiaz biurtu eta bere adisquidetasunean irauteko graciak.


¿Cein da onera erruqui-erangarria? Eguiquera on guztiac,
Jaungoicoaren aserrea ligundu eta samurtuteco, daucan inda-

rra, castigau ez gaguizan, eta onera bi onoec eazarri leitequeoez guztiai, pecatuan egon arren bere.

JAZOEREA.

San Martinec, soldadua zala, eguiten eban bicitza guztiz on eta miragarri bat: egunean egunean emoten eutsen esqueconi eta premiñadunai, bere alogueretic emparetan jacona, bere biceraco premiñac bete ezquero. Egin baten, ez euquirie cer emon, aurquitu eban esqueco osoro bilosic egoan bat, izan arren bere guztiz andi eta icaragarrizeoa, orduan eguiten eban otsa; atera eban ezpatea bere lecatic, zati bi eguiten dan bere capea, eta emoten deutso esquecoari bere capa-erdiya. Urrengo gaubean aguertu jacon Jesucristo, esquecoari emon eutsan capa-erdiyagaz jantsiric. Soldautzeari ichiric, guztiz eta osoro esquinji jacon Jaungoicoari, eldu zan Tours-go Apezpico edo Obispo izatera, eta bere bicitza guztian izan zan guztiz arguitsua eta entzuna bere onoidade cerucoacgaitic, arimaganaco bere zaletasun eta maitetasunagaitic, eta bere santutasun miragarrizcoagaitic.





LAUGARREN ZATIYA.

Iracatsi lenengoa.—Sacramentuac guztieran.

Esan eguziz Sacramentuac. Eleiza Ama Santearen Sacramentuac dira zazpi: lenengo bostac dira naita naizecoac, izatez edo borondatez, ceintzuc baga salbau ecin leite iñor, isten batituz naguitasunez edo ecetan ez euquiz: beste biyac dira borondatezcoac. Lenengoa Bateoa, bigarrena Confirmaciona, irugarrena Confesinoa, laugatrena Comuninoa, bostgarrena Oliacinoa, seigarrena Ordea, zazpigarrena Escontza.

AZALDUEREA.

¿Nor da Sacramentuen imintzallea? Guztiyena da Jesueristo guré Jauria.

¿Celan bada deituten jaque «Eleizenaren Sacramentuac?» Eleizea dalaco euren enquitzallea, eurac egun edo emoten dituzana bere eleizguizonen bitartez.

¿Cergaitic dinozu «lenengo bostac dira naita naizecoac, izatez edo borondatez?» Artu bear diralaco egiaz eta benetan, edo beintzat gurariz eta borondatez; edo bardin dana, pecatu ilgarria eguiten da, eurac ez arturic naguitasunez edo ecetan ez euquiz.

¿Cergaitic bere dinozu «azquenengo biyac dira borondatezcoac?» Cergaitic, munduero alcartsun guztiagaz berba eguiten ez dala, ez diralaco bearbearrecoac eta naita naizecoac, cerura joateco; orregaitic bere badagoz aldiyac, ceintzutan egon leitequean, eurac artuteco eguinbearra.

«Ce eratacoac dira? Bicien Sacramentuac eta ilen Sacramentuac.

¿Ceintzuc dira ilenac? Bateoa eta Confesinoa.

¿Cergaitie deriche ilenac? Dagozalaco iminiric emoteco graciaeo bicitzea, pecatuagaistic ilic dagozanai; eta orregaitic esaten da, emoten dabeela lenengo gracia.

¿Ceintzue dira biciyenac? Confirmacinoa, Comuninoa, Olacinoa, Ordea eta Escontzea.

¿Cergaitie deriche biciyenac? Eurac artuten dituezanac, graciaeo bicitzeagaz bici diralacotzat euquiyac izan bear diralaco, eta gracia gueituteco iminiyac izan diralaco; orregaitic esaten da, emoten dabeela bigarren gracia.

¿Cein da Sacramenta guztietatic ereguiena eta goratuena? Comuninoa, beragan sarratuten dabelaco Cristo gure Jauna, Sacramenta guztien imintzallea.

¿Ceintzuc dira bearrecoenac? Bateoa guztientzat, Confesinoa pecatu ilgarria eguin izan dabentzat, eta Ordea eta Escontzea munduko alcetasunarentzat.

¿Celaco onerea atera bear dogu iracatsi onetic? Jesucristoc gure zoruntasun beticoraco imini izan dituzan eguinbide oneec ascotan euqui eta eurai itzal andiagaz beguiratutea.

JAZOEREA.

Guizonac enquiero badau gorputzeco bicitza, bear dituz zazpi gauza: 1.^a jaiotea; 2.^a aci eta indartutea; 3.^a janariac artutea; 4.^a bere gach eta gueisotasunetatic osatutea; 5.^a bere indar argalduac barritzetea; 6.^a barriro ernetea; eta 7.^a irauperako neurriac betetea. Alan arinako bicitza Bateoaren bitartez jaioten gara, Confirmacinoan indartutzen gara, Comuninoan janaria artutzen dogu, Confesinoan osatutzen gara, Olacinoan indar barriyac artutzen doguz, Escontzeak iraun eraguiten deutse fededunai, eta Ordia eraguiten deutso batinchequiari edo jerarqueari.

Iratsi 2.^a—Sacramentuaren argipetzea.

¿Cor gauza dira Sacramentuac? Dira Jesucristoe ichirico

ezaugarri aguiri batzue, curen bitartez emoteco guri gracia eta onoidadeac.

AZALDUEREA.

«Cergaitic dinozu «ezaugarri aguiriac?» Sacramentu guztia dalaco eguniera edo ezaugarri campoticoa, ariman eguiten daben eguiquera icusiecingarriaren antza edo irudiya emoten dabena.

«Azaldu eta adituten emon cinaique ori cerbaitegaz? Batean, gorputza garbituten daben ura isuri edo boteagaz, aditu eragun eta adierazoten da, ariman eguiten daben eguiquera, icusten ez dana, cein dan arimea pecatuaren loitasunetako garbirik imintea.

«Cergaitic dinozu «Jesueristoe ichiricoac?» Bacarrie Jaungoicoac egun leiquealako, gauza lurreco batec egun daguiala ariman eguiquera izatearen gañecoa.

«Cer esan gura dau esateac «euren bitartez emoteco guri gracia eta onoidadeac?» Sacramentu guztia, egundariaren ontasun eta santutasunac cer-icusiric ez dauqua, emoten da-beela eurenez gracia icentaua eta soñatua, preztaera onacaz eta bearrecoacaz eurac artuten dituezanai.

«Cein da Sacramentuen gauza irabacigarria? Jesueristo gure Jauna, bada berae bere pasinoe eta eriotzeagaz irabaci euzenzan gracia guztia, eta gracia oneec jatorcuz, odiya batzuetako leguez, Sacramentuen bitartez.

«Cer da, Sacramentu guztien ganean gogoratu bear doguna? Euren gueiya, berbaerea, artutzallea, eguitadeac, eta premiña.

«Cein da gueiya? Gauza sentigarria, ceñegaz eguiten dan Sacramentua, berbaraco, ura, oriyo santua eta beste onelangoa.

«Cer da berbaerea? Dira araco berbac, ceintzueaz eregui eta goratutenean gueiya, eguitade sacramentucorra eguiteko.

«Nor da artutzallea? Sacramentua artuten dabena.

«Celaco eguitadeac eguiten dituez Sacramentuak? Lenengo, emoten dabe gracia santueguintzallea, Sacramentu guztiai dagoena; 2.^o gracia sacramentucorra, Sacramentu bacochean

desbardina dana; eta 3.^o ezaugarri arimacoa, Bateoco, Confirmacionco eta Ordiaco sacramentuai baearririk eta berariz dagoenak.

¿Cer da ezaugarri arimacoa? Da ariman ezarriric guelditutenean ezaugarri quenduecingarria, ceinen bitartez desbarditutenean bat beste emparauagandie, emoten deutsala, artuten dabenari, arimaco altasun edo escubide bat.

¿Ce onera atera bear dogu emendie? Sacramentuac, bear doguzan guztian, artuteco erabaguia, gure euren onerae euqui al izateco.

JAZOEREA.

Legue zarrean egoan urezco osin edo pozu bat, nun garbidutenean ciran, oparian esquinini bear ciran bieidun iltecoa, eta deitutenean jacon *Piscina* edo urtoquia. Urte guztietako eguna batzen jatsiten zan cerutie Jaungoicoaren angueru bat, eta urtoqui ataco urrai, bieidun iltecoen odolagaz nastaurie egozanai, batera eta bestera erain eguiten outsen; eta ur aretan lenengo sartutenean edocein gueiso, guelditutenean guztiz eta mirariz osaturie, danie andiena izan arren bere, berac iragoten eban edo eucan gueisotasuna. Legue barriyan bere daucagut *Piscina* edo urtoquia bat, Jesucristoren odolagaz eguna, eta bertara joaten diran, arimaco gueisotasunae iragoten dituezan guztiac, guelditu leitequez guztiz eta osoro osaturie, eguna guztietan eta ordu guztietan, urreraturie Sacramentuac artutera, ceintznen bitartez guri ezarten jacuzan Odol Jaungoieozco orren irabaci edo merecimentuac.

Iracatsi 3.^o—Gracia.

¿Cer da gracia? Da izate jaungoicozco bat, ceinec eguiten daben guizonaren Jaungoicoaren seme eta ceruco jaubeguei. ¿Celan dericho gracia oni? Santueguinguillea. ¿Gracia onen ostean badagoz besten batzue? Badagoz, eguitaldioa derichenak, eta arguitasun arimacoak, ceintzue baga ecin asi, ez jarraitu, ez amaitu daiquegun, betiko bicitzara eroan gaiquezan gauzarie. ¿Eta ceintzue dira oneec? Jaungoicoak emoten deuzcuzan la-

guntasun batzue, charra ichi eta ona eguiteco, diran leguez, Eleizaco iracatsiac eta berbaldi jaungoicozcoac, eguinbide onac, uste uste baga eriotzac; Jaungoicoac gure bururaco emoten deuzeuzan arguitasunac, eta gure borondateac gauza onetara poztu eta bizcortuteco gurari santuac. ¿Celango onoidadeac emoten dituez Sacramentuac graciagaz batera? Batezbere iru, Jaungoicoaganacoac eta Jaungoicozcoac. ¿Ceintzue dira? Sinizmena, Icharopena eta Maitetasuna.

AZALDUEREA.

¿Ceinbat eracoac dira graciac? Irutacoac: santueguinguillea, lagungarria, eta sacramentucorra.

¿Cer da gracia santueguinguillea? Doe guztien gañeco doe bat, arguitasun jaungoicozco bat leguez, Jaungoicoaren gogoco eta bere seme eguiten gaituzana, zoriontasun beticoraco escuhideagaz.

¿Celango eguitadene eguiten dituz ariman? Iru: Lenengo, eguiten gaituz artezac eta Jaungoicoaren gogocoac; 2.^a emoten deuzeu izate edo bicitza izatez gañeticoa; eta 3.^a gure eguite onac eguiten dituz irabacigarri edo merecigarri bicitza beticoraco.

¿Nundic galduen da gracia au? Pecatu ilgarriagaz.

¿Nundic edo celan barriro artuten da? Ilen Sacramentuacaz, eta baitabere amodiozco damuagaz edo maitetasunagaz, eurac artuteco gogo edo asmua cuquiric.

¿Celan iraun eraguin edo gueituten da gracia gugan? Bieyen Sacramentuacaz eta eguite on era guztietacoacaz.

¿Cer da gracia lagungarria? Juangoicoac emoten deuzeuzan, laguntasun batzue, gueure adina argnituric, gueure boronda-tea cirquinduric, charrari ichi eta onari jarraitu dagniogun, betico bicitza euquiteco.

¿Bearrecoac dira gracia oneeec, ondo eguiteco gauzac? Ain bearrecoac eta naita naiezecoac dira eee, eurac baga ecin asi, ez jarraitu, ez amaitu guinaique, betico bicitzara eroan gaiquezan gauzaric.

¿Guztiai emoten dentsez Jaungoicoac gracia orreeec? Bai:

Jaungoicoac gura dau salbau daitezala guizacume eta omacume guzti guztiac, eta berangaitic ez deutsoz iñori ueatuten, eguiaren ezauperara eldu eta salbetaco bearrecoac eta naicoac diran graciac.

¿Eta cer eguin bear dogu, enrae mereci edo irabasteco? On do erantzun bear deutsegu leen arturicoai, eta euren laguntasunagaz eguin bear doguz erreguac eta eguite onac.

¿Cer da gracia sacramentucorra? Laguntasun jaungoicozeo bat, Sacramentuaren azquena jarichi eta alcantzetaco dana.

¿Emoten jacu gracia au, Sacramentuac artutен doguzan une atan beratan? Sinizgarriago da ezetz, ezpada bera dempore egoquian artuteco escubidea emoten deuzeu.

¿Oe onera atera bear dogu iracatsi onetie? Gracia santu eguinguillea euqui bear dogu ondasunic aberatsenentzat eta gauza guztae baño gueiyagotan, eta sarritan artu bear doguz Sacramentuac, gracia ori sendatuteco eta gracia lagungarri barriyac mereci eta irabasteco, alan iraum daguigun beti bide onean.

JAZOEREA.

San Ignacio Loyolacoa, Jaungoicoagana biurtu baño lenago zan munduko atsegunien eta anditasunen zale eta maitetzalla; erreguac eguitea, nequealdiac bere gorputzari emotea, Jaungoicoaren mendean egotea, ciran beretzat atsecabegarriac, gorrotogarriac, eta bere gogoan sartuten ez ciran gauzac. Baña Jaungoicoac bere graciagaz arguitu eutsanean bere adina, eracutsiric bere arimearen egoera charra eta munduko gauzen utzqueria eta ecereztasun, eta cirquindu eta bizeortu eutsanean bere borondatea, gauza guzti orreec gorrotetara eta begui charracaz beguiratutera, artuten dan San Ignacio Loyolacoac, erregu beroac eguin eta Jaungoicoaren serbitzalla eguiaztea izateco asun sendoa: eta ondo erantzurie ceruco gracia lenengoi erreguaren eta eguite onen bitartez, artuten dituz Jaungoicoagandie gracia barri eta ugariac, eta eldu zan izatera santi guztiz andi bat, Jesusen Compañia edo Lagunquida ain ospetsna eta icen andicoa, Jaungoicoari ainbeste goraldi eta

Eleizeari eeingueiagoco onera eta mesedeac ecarri izan deutsozan, eta ecarten deutsezana, imini izan ebana.

Iracatsi 4.^a—Bateoco Sacramentua.

¿Cataraco izan zan iminia Bateoco Sacramentua? Quenduteco pecatu jatorrizcoa, eta, bateatuten danagan, aurquitutzen dan beste edocein pecatu.

¿Cer da pecatu jatorrizcoa? Da jaiotzan dacarguna, cein jatoreun gueure lenengo gurazoacgandic. Eta estura-orduetan ¿noe bateatu leique? Adieradun edocein guizonezcoc nai andrazcoc.

¿Eta celan egun bear da? Berezko ura umearen burura isuri edo bota, eta bateatuteco uste osoa daueala, berba oneec esanagaz: «Nic bateatuten zaitut Aitearen, eta Semearen eta Espiritu Santuaren icenean.»

AZALDUEREA.

¿Cer dirauztazu Sacramentu onen ganean? Dala guztietatic lenengoa eta bearrecoena.

¿Cergaitic diñozu dala lenengoa? Dalaco beste emparauen atea legnez, eta Bateon baga ecin eguiaz eta benetan artu leitequean beste Sacramentu bat bere.

¿Cergaitic diñozu dala bearrecoena? Bera baga ecin salbau leitequealaco iñorbere. Bacarric ecin artu leitequean aldian, gurarizcoa eta odolezcoa derichen bateoac izan leitequez bere ordecoac.

¿Cer da gurarizco bateon? Da maitetasuneco eguite edo amodiozco damua, Jaungoicoac, gu salbetaco, imini dituztan gauza guztiak eguiteco gura eta asmuagaz.

¿Cer da odolezco bateoa? Da Jesucristogaitic edo siniste santuagaitic iragorico martiriyoa.

¿Beraz badagoz bateo bat baño gueiago? Ez dago bat baño gueiago, eta au da urezcoa; beste biyai deriche bateoac alan ez-egoquiro, artu ecin danean urezco bateoa, onen ordecoac diralaco.

¿Noz imini eban Jesucristoc? Jordango erreccaco uretan, Bo-ra San Juan Bautisteagaitic bateatua izan zanean.

¿Nor da bateoaren eguindaria? Eguindari berezcoa eta escu-bide osocoa da Arimazaina edo beronen baiemona daucan bes-teedocein Abade; eta ordu estuetan izan leiteque, adinera el-duric dagoan besteedocein adieradun.

¿Cein da bateoaren gueiya? Berezco ura, bai euritic arturi-coa, bai erreccachuetacoa, bai iturrietacoa, bai pozuetacoa eta beste onelango ur garbiac.

¿Cer da berbaerea? Da au: «Nic bateatuten zaitut Aitearen, eta Semearen eta Espiritu Santuaren icenean.

¿Cer euqui bear da gogoan emen? Ura isuri bear dala bateatuten danaren buru gañera, al bada, edo gorputzeco beste alde baten gafiera, berbaerea esaten dan une atan beratan.

¿Celaco eguitadeac eguiten dituz? Lenengo quenduten dau pecatu jatorrizeoa, eta, bateatuten danagan, aurquituten diran pecatu guztiac, euren zor beticoa eta demporazcoagaz batera; 2.^º emoten dau gracia santueguinguilea, barriro juio eragui-ten deutso bateatuten danari bicitza izatearen gañecora, eta isuriten dituz bere ariman Espiritu Santuaren onoidade eta doiac; 3.^º emoten deutso arimaco ezaugarria, ceinen bitartez desbardinduten dan beste emparauaegandie, eta eguiten dau, beste Sacramentuacartuteco duin eta escubidedun; eta 4.^º emoten dau gracia sacramentucorra, cristinauaren eguinbearrac on-do betetaco.

¿Cer dirauztazu aitapontecoen gañean? Dirala bigarren gurazo batzuc edo fiatzaile batzuc leguez, bateatuagaitie eran-tzun bear dabeenac, gueldituten dirala, bera siniste santuco eta oitura onetaco gauzetan arguituteco, eguinbearrean, eta artuten dabeela senitasun arimacoa bateatuagaz eta bere gura-zoacaz.

¿Colaco irincatsi mesedegarria aterar bear dogu emendie? Iza-nic Sacramentu au ain bearrecoa eta naita naiezecoa, cer-eran-tzun andia daunqua, euren semealabachuai bateatuttea lutzatu edo bateo baga ilten ichiten deutsen gurazoac; eta izanic ain-bestet, bateoaren bitartez emoten jacuzan onera eta mesedeac,

izan bear gareala ezquer onekoae, barritzaurie sarritan, bateoan egun quenduzan esquintzariac.

JAZOEREA.

San Francisco Sales-koak, izanic oraindie guztiz umea, aurerratuten cituzan, beragaz jolasean eta olguetan ibilten ciran umeak, beragaz batera Eleizara joatera. An urreratuten ciran pontara, eta Santuak esaten eutsen: «Emenche izan guinean Jaungoikoaren seme eguinac. Ezquerrae einon daguioguz Jaungoikoari, dinogula: Goraldia Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari.» Guero belaunbicotoric guztiac mun eguiten eutsen bateoco ponteari.

Iracatsi 5.^a—Confirmacioneko Sacramentua.

¿Cetaraco da Confirmacioneko Sacramentua? Bateoan artu guenduan sinistea sendatuteco. ¿Eta Sacramentu au pecatu ilgarriagaz artuten daben ezauperara eldurico adieradunak, eguiten dau pecatu? Ilgarria. ¿Cer egun bear dau bada, bera artuagaz, pecaturic ez eguiteco? Prestau bear da, confesioe on bat lenaz eguinie.

AZALDUEREA.

¿Celan dericho Sacramenta oni? Osotasuneko Sacramentua, bai emona izaten dalako Apezpico edo Obispoaegaitic, ceintzuegan aurquitutendan escubidearen osotasuna; eta bai dalako bateoaren osotasuna leguez, etorriric indartu eta sendatutera, gure bateoan artu guenduan siniste edo bicitza arimacon.

¿Cein da Sacramentu onen gueiaya? Crisma Santua, oriyo eta balsamua naztauta eguiten dana, eguben santu egunean Apezpicoak edo Obispoak donequidatu edo consegetan dabena.

¿Cein da berbaerea? Nic sillatuten zaitut Curutzearen ezaugarriagaz, nic sendatuten zaitut osasuneko Crismeagaz Aitearen, Semearen eta Espiritu Santuaren icenean.

¿Celan emoten da Sacramentu au? Iminiric escuac, Confirmaciona artu bear dabenen gañean, Espiritu Santuari deituten deutsan bitartean; igortzi edo gantzututenean deutsala bere be-

coquiya Crisma Santuagaz, berbac esaten dituzan dempora berean; eta guero emoten deutsala zaplaco bat bere matrallan.

¿Cergaitic eguiten deutso becoquiyan Curutzearen ezaugarrria? Becoquiya dalaco alderic arguiena eta ieusgarriena; eta adierazoten emoteco, cristinauac autortu bear dabela Jesucristo eta gauza andi eta onragarritzat euqui bear dabela Curutzearen ezaugarrriagaz icentauric égotea.

¿Cergaitic emoten jaco zaplacoa matrallan? Ezagututen emoteco, ordutisec egon bear dabela guertu eta prest iragoteko Jesucristogaitic lotsariac, barre eta burlac, esetsiac, neque garriac, areriotasunac eta eriotzea bere bai, alan bear izan ezquero.

¿Celaco eguitadeac eguiten dituz Sacramentu onec? Lenengo, emoten dau bigarren gracia, au da, gueituten dau, Confirmaciona artu bear dabenac, aurrez euqui bear daben lenengo gracia; 2.^o artuton dau Espiritu Santua, eta Beragaz batera arimaco sendotasuna, siniste santua autortuteco; 3.^o emoten deutso arimaco ezangarria, ceinen bitartez icentetan dan Je sueristoren soldautzan.

¿Celaco preztaerac bear dira, Sacramentu au ondo artuteco? Artu bear dabona bada ume ezaupera bagaona, egon bear dau bateaturic; ezauperara eldurico adieraduna bada, euqui bear dituz gañera artuteco gogo cta ezauperea, eta egon bear dau Jaungoicoaren adisquidetasunean.

¿Cer jaquin bear da aitabichien eta amabichien ganean? Aitabichi bat egon oi dala guizonezcoentzat, eta amabichi bat andrazcoentzat; oneec, aita eta amu ponteocoetatic desbardinac izan bear dabenac, artuton dituezala eguinbearrac eurac eta senitasuna.

¿Ce onera atera bear dogu esan danetic? Dempora oneetan ain bearrecoa dan Sacramentu andi au artuteco eta, gueure mendean dagozanai, artu eraguiteco aleguinac eguitea,

JAZOEREA.

San Francisco Sales coa, bearreco iracatsiac artu ezquero, prestau zan guztiz ondo, Confirmacioneko Sacramentua artu-

teco; eta artutera joan zanean, aguertu eban onerazpena, ainbestecoa izan zan ece, guztiauegueratu ciran mirarituri, eta. Apezpicoac edo Obispoac esan eban, ume a izango zala bere guizaldico miragarria. Ordutisec icusi zan, Espiritu Santuaren osotasuna sartu zala bere biotzean, eta egun ebala (arimearen aldetik) guizon eldu bat; bada au adierazoten emon eben bere gueroco bieiera santuac, bere onerazpenac, bere sondotasunac, arimaeganaco bere maitetasunac eta bere bicitza guztiaue.

Iracatsi 6.^a — Confesinoeco Sacramentua.

¿Cetaraco da Confesinocco Sacramentua? Bateatu ezquero eguinico pecatuac parcatuteco. ¿Ce pecatu dira orreec? Ilgarriac eta ez-ilgarriac edo arinac.

AZALDUEREA.

¿Noz imini edo egun eban Jesucristoc Sacramentu au? Bera ilen artetic biztua izan eta guero, esan eutsonean Apostoloai: «Eutsiye Espiritu Santua; noren pecatuac parcatu daiquezuzan, parcatuac izango jacob; eta norenac gueratu daiquezuezan edo parcatu bagarie ichi daiquezuezan, gueratuco jacob, edo parcatu bagarie ichico jacob.»

¿Bacarric Apostoloai emon eutsen Jesucristoc escubide au? Ez, ezpala emon eutsen bere, abadetasunean eurai jarraituoc eutsen guztiai; orregaitic abade guztiaue bacarric eurac dira Sacramentu onen emontzallac.

¿Ce pecatu dira, parcatuac izan laitequezanac? Guztiaue, dandanae: ceinbat bidar edo aldiz izango diran parcatuac, begiratu baga, ceinbat pecatu dirau, jaramon egun baga, eta celako anditasuna danquen, gogoratu baga, cuquiten baldin badira bearbearreco eta naita naiezeco prestaera guztiaue.

¿Cein da Sacramentu onen gueiya? Bateatu ezquero eguinico pecatu guztiaue; eta guei au izan leiteque naita naiezecoa eta borondatezcoa, baña asco eta naicoa dana.

¿Cein da guei naita naiezecoa? Pecatu ilgarri autortu bagaue edo charto autorturiko guztiaue.

¿Cein da guei borondatezcoa baña asco eta naicoa dana? Pecatu arinac eta pecatu ilgarri parcaturicoac.

Pecaturic batbere ez daucanae, ¿artu al izango leuque Sacramentu au? Ez; ez dagoalaco beragan gueiric, ceinen ganean jausi leitequezan penitentearen eguiteac eta confesorearen parcacinoa. Alan Andra Mariac ez eban artu eta ecin artu leiquean bere Sacramentu au.

¿Cer egui bear dau bada, azquenengo confesinoetic guerooco pecaturic ez daucanac? Imini bear dau pecatu arinen bat, edo obeto izango da bicitza iragorico pecatu ilgarrien bat barriro autortutea, euren damu eguiazcoa daucala.

¿Celan imini zan Sacramentu au? Erabaguia leguez, ceñetan penitentea dan erruduna eta salatzallea; ause da, aunciepallicae daucan eguiybide bacarra, ondo jaquiteco cer egui bear daben, parcatu bear daben edo ez; eta emetic dator bearrecoa eta naita naiezecoa izatea pecatuac autortea edo confesinoa.

¿Ceintzue dira Confesinoeco Sacramentu onen eguitadeac? Lenengo parcatuten dituz pecatu guztiac, errua eta castigu beticoa danquezan aldetic; 2.^o ostera biurtutene dauz graciazeo bicitzea, zoriuntasun beticorako escubideagaz, eta egui onen irabaci guztiac; 3.^o artuten baldin bada graciazeo egoeran, gueituten dituz lengo gracia eta indarrac, pecatuan ez jausteco.

¿Parcatu leitequez pecatu ilgarri batzuc, beste batzuc parcatuac izan baga? Ez; cergaitic ecin izan leitequean gauzea da, pecatua eta gracia alcarregaz une baten bere egon eta bicitzea: alan bada, edo parcatuten dira pecatu ilgarri guztiac edo ez da parcatuten batbere.

¿Ce onera atera bear dogu emendic? Jaungoico gure Jaunari ezquer andiac emotea, Sacramentu onen bitartez emon deuzculako eguiybide ain erraz bat, gracia galduricoa barriro gueuganduteco eta bere adisquidetasunera biurtuteco.

JAZOEREA.

«San Juan Climacoc dino: bicitza guztiz char bat eroan eban pecatari andi bat, biurtu zanean Jaungoicoagana, artu cituzala conventu baten sartuteco asmu santuac, eta bertaco

nagusiac escazu eutsala, autortu eta esan eguztala guztien aurrean bere pecatu guztiac, eche santu atan artua izango bazan. Damutasunez beterie egoan guizon onec, aguertutene dituz, bere begui biyac negarrezco iturri bi eguztak daucazala, bere charqueria eta dongaqueria guztiac Jaungoicoaren eta Fraile guzti areen aurrean. Eta onetatic batec icusi eban guizon arpegui bildurgarrizeno bat, bere escuetan liburu bat eucana, eta liburu atatic pecatuac quenduten cituzana, guizon arec bere pecatuac autorten cituzan leguez.» Ause berau jazoten da, Confesinoco Sacramentua bearreco eta eguzkio prestaeracaz artuten dan guztian.

Iracatsi 7.^a— Pecatuac.

¿Cer da pecatu ilgarria? Da esatea, eguitea, gogoratutea edo gura izatea cerbait Jaungoicoaren leguearen contra gauza andi edo astunean. ¿Cergaitic dericho ilgarria? Ilten dabelaco, eguiten dabenuaren arimea.

AZALDUEREA.

¿Celacoa izan leiteque pecatua? Era bitacoa, jatorrizcoa eta norberarena.

¿Cein da pecatu jatorrizcoa? Gueure lenengo gurazoagandie guztioi datorcuna.

¿Cein da pecatu norberarena? Gue gueure borondateagaz eguiten doguna.

¿Ceinbat eratacoa izan leiteque pecatu norberarena? Gogozcoa, berbazcoa eta egitezcoa; gogozcoa izango da, arimoaren almen barrukoacaz eguiten danean, gorrotoa leguez, berbazcoa, aogatz eguiten danean, birauba leguez, eta egitezcoa, eguiqueracaz eguiten danean, lapurrutea leguez.

¿Ceinbat era gueiagotacoa izan leiteque? Eguin bear dana, eguin ezagaitic, eguiten dan pecatua, eta eguin bear ez dana, eguiteagaitic, eguiten dan pecatua.

¿Cein da, eguin bear dana, eguin ezagaitic, eguiten dan pecatua? Aguinduric dagoana, eguin baga ichitea, berbaraco, Mezea ez entzutea, bear dan demporan ez confesetea.

¿Cein da, egun bear ez dana, eguiteagaitic, eguiten dan pecatua? Eragotziric eta galerazoric dagoan cerbaiti eguitea, la purretea leguez.

¿Ceinbat eracoa da batezberre pecatua? Bicoa, ilgarria eta arina; izango da ilgarria, aguindua austen danean gauza astunean, eta arina, gauza arinean danean.

¿Ceintzue gauza bear dira, pecatum izateco ilgarria? Iru: 1.^a eguitera doiana, charra dala guztiz eta osoro ezagutuen; 2.^a eguiteco borondate osoa euquitea; eta 3.^a egun bear ez dana, edo egun bear dana, gauza astuna eta andia leguez eragotziric edo aguindurio ogotea.

¿Gauza charra da pecatu ilgarria? Da gach bacar oson, eta bere ondoan ez dira ecer munduco gach guztiac bere.

¿Ez litzateque gach andiagon izango, norberaren entzute on eta icen garbiya baga gueratutea, ondasun eta aberastasunae guztiz galdueta? Ez; orrec quenduten deuzcuz munduco on demporazcoac, eta zorigach orreec, eruapeu onagaz eroan ezquero, lagundi leiqueguecerua irabasten; baña pecatu ilgarriac quenduten deuzcuz ondasun eta aberastasun beticoac, eta eguiten gaituz zorigach beticoen duin eta merecitzalla.

¿Ez litzateque charrago izango gueisotasun andi bat? Ezta bere; gueisotasunae, gueiyen dala, bacarric quendu leiquegu gorputzeo bicitza; bafia pecatu ilgarriac quenduten deuzen arimaco bicitza, eta bota al guinaiquez infernuco ondarrera.

Bada baldin arimea ilten bada pecatuagaz, ¿celan bici dira pecatariac? Pecatu ilgarriac quenduten oz dabelaco gorputzeo bicitza, ezpada arimaco bicitza izatearen gañecoa, cein dagoan, arimea Jaungoicoagaz graciaren bitartez alearturic ego-tean.

¿Celaco gachac eguiten dituz arimanu pecatu ilgarriac? Guztiz eta osoro loituric eta ezainduric eta graciaren edertasuna baga ichiten dau; quenduten deutsoz, ecrura joateco escubideac, eta eguite onacaz lenago irabaci izan eban guztia; eta eguiten dau demoninoaren menpeko eta azpiko eta infernuco sugar beticoetara joateco duin eta merecitzalla.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Pecatum gach ba-

ear osoa dan ezquiero, gueure biotz guztitie bera gorrotetea eta berangandie iguez eguita, sugue bildurgarrizco bategandie leguez.

JAZOEREA.

Franciacor erregue San Luis-eren ama Blanca erreguinac, bere seme au gaztechua zanean, sarri esaten cutsazan, ama on bat duiñecoa ciran berba oneec:—«Zuc badaquizu, neure semea, ceinbat maite zaitudazan; orregaitic bere, guichiago estutu eta larrituco nintzateque zu ilda icusiric, pecatu ilgarri bacar bat zuc egun dozula jaquinie baño.»—Berba oneec ain incauric eta josiric gueratu jacozan Luiseri bere biotzean ece, ez jacozan aztu iñozbere, eta eldu zan santu andi bat eta erre-gue guztiz on bat izatera, bere erreñuco ainbeste arrizcu, esetsi eta galbiden artian.

Iracatsi 8.^a—Arimaco azterrena.

¿Noz artuten dogu Confesinoeco Sacramentua? Ondo autor-tu eta parcacinoa artuten dogunean. ¿Ceinbat gauza bear dira Confesinoeco Sacramentua artuteco edo ondo aurtortuteco? Bost, eta dira oncec: arimaco azterrena, biotzeco damua, on-duteco asmua, aozeo autormena eta eguiquerazco ordainpena edo quitugarria. ¿Cer da arimaco azterrena? Jaungoicoari, uts-eguite guztiac ezagututeco, arguiya escatu ezquiero, aurtortu bagaco pecatuac gomuta al izateco aleguinac eguita, Jaun-goicoaren eta Eleizearen aguindua et norberaren ibiltoquia et arazoac bein banan aratuagaz.

AZALDUEREA.

¿Beti bear dira bost gauzac, Confesinoeco Sacramentua on-do artuteco? Bai, estu-orduetan ez izanic.

Imini eguidazu aldiren bat, ceinetan ez dagoan, bost gau-zetatic bat edo beste eguitaco eguinbearrie.—Guztiz charto dagoan gueiso batec, ecin egun leique arimaco azterrena; mu-tu batec edo aldi charren bategaitic berbea joan jacon batec, ecin egun leiquee aozeo autormena edo ecin aurtortu leiqueez

euren pecatuac; eta orregaitie bere, artu al leiquee eta artutendabe Confesinoeco Sacramentua.

¿Cein da bost gauzetatic bearrecoena, cein baga ecin iñoz artu leitequean Sacramentu au? Pecatuaren damua edo gorrotoa.

¿Colaco cerceridadeac enqui bear dituz arimaco azterrenne? Bi; izan bear dau arduratsuac eta gogorac.

¿Cer esan gura dau arduratsua izateac? Ardura andiagaz egun bear dogula gueure arimaco azterrena, balio andio gauza bat balitz leguez.

¿Cer esan gura dau gogorra izateac? Gogortasunagaz emon bear dogula gueure gañeco erabaguia, beste edoceinegaz gueuc eguingo guenquegun leguez.

¿Celan eguiten da azterrena? Lenengo escatuten jacozi Jaungoicoari bearreco arguiyac, Andra Maria, gueure anguern zaintzalica eta gueure onerazpeneco santuac bitarteko iminten deutsaguzala, eta guero bein banan aratu eta aztertu bear dira aguinduac, jaquiteco ceinbat pecatu egun dogun aguindu bacochean, edo guichi-gora-bera ceinbat izan diran, egun doguzan utseguiteac egnanean edo astoan, beste gauzaric ecin gomutau al bada.

¿Bearrecoa eta naita naiezcoa da azterrena? Bai; cergaitie bera baga ecin arguilo autortu al izango gueintequez, ez eta bere enqui damu eguiazco eta bearrecoa.

¿Cergaitie ecin autortu guinaitequez arguilo? Cergaitie gueure barruan gu sartu baga, eta gueure bicitzearen ganean demporaren baten gue gogoratu baga, ecin gomuta gueintequez pecatu guztiacaz, eurac bear dan eran autortuteco.

¿Cergaitie enqui ecin guinaique damu eguiazcoa eta bearrecoa? Cergaitie ecin izan leiteque, ezagututenez dan gauzeagaitie negar eguitea; eta bestera, pecatuac ceinbat eta celacoac diran, ondo ezagututenean, guztiz erraz cirquindu eta nurreratutenean da bat, euren damu eguiazcoa eta bearrecoa enquitera.

¿Ceinbat demporear bear da, azterrena ondo eguitetako? Ecin icentau leiteque; bada orretarako gogoan enqui bear da, cein-

bat dempora dan azquenengo autormena egun zan, celaco bicitzea eroan dan, celaco jaquituriacoa dan, azterrena egun bear dabena eta beste onelango gauzac; baña neurri guztiracotzat icentau leiteque ordu lauren bat, il bateco azterrena eguiteco.

¿Nortzue ez dauque, azterrena eguiteco eguinbearric? Ezaupera guichicoac edo ezjaquinac, eta, azterrena eguiten, necatu ecin leitequezan gueiso charto dagozanac; eta onelangoentzat asco eta naico izango da, confesoreac eguiten deutsézan itau-nai soiltasunagaz eta arguiro erantzutea.

¿Cein da bideric onena, azterrena ondo egniteco? Egun guztietan gaubean oera etzin baño lenago eguiteco oitura ona eu-quitea, cristinau on guztiac egun oi dabeen leguez; eta ause da, iracatsi onetic atera bear dogun onerea.

JAZOEREA.

San Efrence dino: «celan mercatari arduratsu batec eguno-ro eguiten daben alegrina jaquiteco celan doian bere saldue rosietan, eta nozic nozera euqui daroan ardurea icusteco galdu ete daben edo irabaci ete daben bere arazu eta artuemonetan; alañ cristinuac egunoro aratu eta aztertu bear dau bere barrua, eta contu artu bear deutso bere arimeari, eta nozic nozo-ra egun bear dau azterren arduratsoago eta gueldirago bat, ondo autortuteco bere pecatnac.»

Iracatsi 9.^a—Damua.

¿Ceinbatericoa da biotzeco damua? Bitaricoa: bata osoa eta bestea ez-ain-osoa, eta oni deituten deutsagu bildurrezcoa. ¿Cein da damu osoa? Jaungoicoa, on utsa izanie, iraindu dogulaco daucagun garbai edo biotzmina, pecatuac autortuteco, eta onduteco eta penitencia betetako asmoagaz. ¿Cein da damu bildurrezcoa? Jaungoicoa iraindu dogulaco daucagun garbai edo biotzmina, pecatuuen ezaintasunagaitic, infernuaren bildurragaitic, ceruco atseguita galduengaitic, pecatuac autortuteco, eta onduteco eta penitencia betetako asmoagaz. Eta damu bi onetatic onena ¿cein da? Damu osoa. ¿Eta cergaitic? Damu

osoa Aitaganaeo maitetasunetic, ez-ain-osoa edo bildurrezcoa barriz bildurretic sortua dalaco; gafiera, damu osoagaz, autor tu orduco, parcatuten jacaz bati bere pecatu ilgarriac eta ondo gueldituten da Jaungoicoagaz; baña damu ez-ain-osoa edo bildurrezcoagaz ez da orrelangoric eguiten. ¿Eta confesinoe on bat eguiteco, asco eta naicoa da damu ez-ain-osoa edo bildurrezcoa, ala damu osoa bear izaten da? Damu bildurrezeoa naicoa dala uste dabe gueiyenac; baña obeto eta ziurrago da, damu osoa edo maitetasunecoa eroatea; eta ausse euquiteco aleguina eguiñ bear dau, ondo autortu gura dabenac. ¿Eta noz euqui bear da damua? Confesoreac parcacinoa emon baño lenago.

AZALDUEREA.

Ori alan dala, ¿cetan desbardinduten dira damu osoa eta damu ez-ain-osoa edo bildurrezcoa? Euren eragaintzalletan eta eguitadetan.

¿Celan desbardinduten dira euren eragaintzalletan? Maitetasuna edo amidioa dalaco damu osoaren eragaintzallen, eta damu ez-ain-osoarena edo bildurrezcoarena dalaco bildurra.

¿Azaldu eta argitu al cinaique ori irudi edo jazoera batogaz? Bai: aita batec bialdutene dituz bere seme bi ardiyac zaindutene; eurac ardura guichigaz dagozan une baten, otsoac eroaten dituz ardi batzue; anaiya biyac emoten deutse negarrari; batac dino: «¡nire errucarria, celango castigu gogorra emongo deuzeun gure aitac!» onec eucan damu bildurrezcoa edo oz-ain-osoa, castiguaren bildurretic sortu eta jaiotene zalaco; besteac esan eban: «ni ez nau minutene aitarén castiguac, ezpada gue gueure aitari emongo deutsagun atsecabeac:» onec eucan damu osoa edo maitetasunecoa, bere aitari eutsan amodiotic sortu eta jaiotene zalaco.

¿Celan desbardinduten dira euren eguitadetan? Damu osone pareatuten dituzalaco pecatuac, autortu baño lenago, eta damu bildurrezcoae barriz oz dituz pareatuten, Confesinoeco Sacramentuagaz alecurric eta baturic ez badoa.

¿Celango cerceiridadeac euqui bear dituz dainuac? Lau: izan bear da barruhoa, izatez-gafiecoa, andiena eta guztiracoa.

¿Cer esan gura dau barrueoa izateac? Izan bear dala barrueoa edo arimacoa, arimeagaz iraindu dogulaco Jaungoicoa, eta arimeagaz garbatu eta damutu bear garealaco.

¿Cer esan gura dau izatez-gañecoa izateac? Artu bear dogula damua, eraguintzalle izatearen gañecongaitic edo siniste santuaren bitartez ezagutuagaitic.

¿Cer esan gura dau ḣandiena izateac? Pecatua gorrotau bear dala gach guztiac baño gueingo.

¿Cer esan gura dñu guztiracon izateac? Damua zabaldu bear dala pecatu ilgarri guztiategana.

¿Celan artuten da damua? Lenengo, escaturie Jaungoicoari eta Andra Mariari, eguiaz eta benetan garbatu eta damututeco laguntasun ceruhoa; eta guero, ondo gogoraturie ceinbat diran eguinico pecatuac eta euren anditasuna, ceintzucaz iraindu izan dogun Jaungoico bat ain oma, eguin bear da arimaco berotasun sutsuagaz damu osoco edo maitetasuneco eguinera.

¿Eta damuac izan bear dau senticorrac edo icusgarriac, da esatea, aguertu bear da cizpurnacaz eta negarracaz? Ez, ezpada izan bear dau adinecoac eta arimacoac; izan bear dau, pecatu en ezaintasunetic eta ondorengo charretic jaioten dan gorroto edo icusiecina.

¿Nozbait aurquitu leiteque bat, damurie ez euquiteco aldiyan? Iñozbere ez; ain bearrecoa eta naita naiezecoa da damua ece, berau baga, danie estuena izan arren bere premiñea, ecin artu leiteque Confesinoeco Sacramentua, eta ecin bere parcatu leitequez pecatuac.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Ondo damutu baga, Confesinoeco Sacramentura ifioz ez urreratutea, eta damu osoa edo amodiozcoa eroateco aleguinac beti eguitea.

JAZOEREA.

San Carlos Borromeo, Apezpicoac, damu eguiazeo bat artuteco, bere gogoagaz eguiten cituzan iru gueraldi: 1.^a jatsiten zan infernura, eta icusiric celango castiguac irabaci cituzan bere pecatuagaitic, cirquindu eta aurreratuten zan, pecatuari gorroto andi bat euquitera; 2.^a igoten eban cerura, eta bere

gogoan ondo arturie, Jaungoicoac arima artez eta onentzat prestaurie daucazan sari beticoen anditasuna, eta bere pecatuagaitic galdu cituzala, gueiago eta gueiago damutu eta garbatuten zan; 3.^a joaten zan bere gogoagaz Calvario-co mendira, eta ieusiric an Jaungoico-Guizonea zauriz eta odolez beteric pecatuagaitic, gueiago eta gueiago ezagututenean eban pecatuaren ezaintasuna, eta gorrotetan eban bere biotz guziagaz.

Iracatsi 10.^a—Aozco autormena.

¿Cer da aozco autormena? Engañurie baga eta guzurric esan baga, pecatu ilgarri guztiacon confesoreari arguiro eta garbiro aguertutea, penitencia betetako gogoagaz. Eta lotsaz pecatu ilgarrien bat esentau, nai egun bagaco pecatu ilgarrien bat aguertu, nai damuric eta erabaguiric ez daucala, nai penitencia betetako uste bagaric autortutenean dana, ¿ondoko autortutenean da? Ez, Jauna; eguiten dau donauste edo sacrilegio andi bat, eta autorturico eta autoritu bagaco pecatuak eta donaustea berria autortuteko bear izanean guelditutenean da.

AZALDUEREA.

¿Cergaitic autoritu bear dira pecatuak? Gure Jaungoico Jau-nac alan aguindu izan dabelaco; eta Bateo ostean pocatu ilgarria egun izan dabarentzat ez dago beste osaguriric, al dala, *pecatuak autortutea edo betico galdutea*.

¿Ceinbat demporacoac izan bear dau autormenak? Azque-nengo autormen ondo eguinicotie asi eta barriro autoritu bear dan arterañocoac.

¿Eta urte asco badira dongaro eta charto autortu izan dala bat? Autoritu bear dira, dongaro eta charto autortutenean asi zanetic gueroco pecatu ilgarri guztiacon.

¿Bearreco eta naita naiezecoa da nozbait bicitza guztico pecatuak autormena, edo confesinoe generala esaten jacona? Dongaro eta charto autortu izan dala, batec daquian aldi guztietan, da bearrecoa eta noraezecoa.

¿Erazcoa da pecatu guztien autormena edo confesinoe gene-rala? Aldi ascotan bai, eta andiac dira, berac ecarten dituztan

onera eta mesedea; bafia onetan beti itundu eta aitu bear gara confesore zur eta jaquitun bategaz, berari aguertuten deutsagula arguiro eta garbiro gure arimaco barrua, berac ondo ezagutu daguinn gure bicierea.

¿Ceinbat gauza euqui bear dituz aozco autormenac? Bost; izan bear dau osoac, eguiazcoac, norberarenac, umilac eta damutsuac.

¿Celan izango da osoa? Pecatu ilgarri guztiac, batbere ichi baga, autorturic eta aguerturie.

Eta baldin aldi charren bategaitic edo beste gauzen bategaitic ecin autortu al baleiquez batec bere pecatuac, ¿cer egun bear dau? Aldi onetan asco eta naicoa izango da damuaren ezaugarriac emotea eta autortuteco daucan guraria aguertutea, parcatua al izateco; eta osatu daitenean, autortu bear dituz, len autortu ecin cituzan pecatu guztiac.

Baldin norbaitee lotsaz edo dongaqueriaz ichiten badau pecatu bat autortu baga, ¿parcatuco jaco, autortu izan dituzan pecatuac? Ez jaco parcatutene batbere, eta eguiten dau donausste edo sacrilegio guztiz andi bat.

¿Eta aztuta ichi izan badau? Orduan da ona autormena, eta parcatutene jaco pecatuac; bafia gueldituten da, lenengo eguiten dabent autormenan, aztuta ichi eban pecatua, autortuteco eguinbearrean.

¿Noz izango da eguiazcoa? Confesoreac itanduten deuzcun guztira, esaten badogu eguiya, ciurra dana ciurra leguez, badezbadaiza badezbadaiza leguez; aguertuten deutsaguzala pecatuaaren cerceridate andigarriac, lengo pecatuetan barriro jausteac, arrizeu edo galbideurrecoa, eta confesoreac itanduten dabent guztia.

¿Noz izango da norberarena? Gueuro pecatuac, eta ez bestenac, autortutene doguzanean.

¿Noz izango da umila? Tolesbaga eta lotsaz autortutene gareanean, achaquiaric batbere iminten ez dogula, gueure buruac garbituteco, ezpada gueu errudun eta pecatari eguiton gareala.

¿Noz izango da damutsua? Aguertutene dancan azaleco ezaugarriacaz, gure biotzac daucan damu eguiazcoa.

¿Aguertu edo esan al leique confesoreac, autormenan edo confesinoan entzun izan dabena? Iñozbere ez, bere bicitzen galdueteko arrizuenan iminten bada bere, confesinoan entzun izan dabena aguertu edo esan gura ezagaitic.

¿Ce onera atera bear dogu esan danetic? Beti argiro, garbirro, tolesbaga eta laburquiro autorteco asmu sendoa; guere goigoan ondo euquiten dogula, iñozbere aztu baga, gu autorluten edo confesetan gareala, gue engasau ecin guíñaiquean Jaungoi coagaz berberagaz. (1)

JAZOEREA.

San Juan Nepomuceno Wenceslao aguintariaren emaztearen confesorea zanac, guichitan euqui cituzan, aguintariac egutien eutsazan esquintsariac, emongura eutsazan doc. nberastasun eta ondasun andiac, aguertu edo esaten baldin beutsazan, bere emazteac autormenan edo confesinoan aguerturico gauzac; eta azquenez, cematu eban, cirautsala, ilgo ebala, aguertutenez beutsazan, eta Santuac erantzun eutsan: «Berorren Anditasunac egun leique ni iltea; baña ez deuzt esan eraguingo confesinoan entzun izan ditudazan berbetatik batchu bere.» Bere oñ etas escuac lotu eguioezala, aguindu eban aguintariac, eta

(1) Beti egun bear da aleguina, autormena edo confesinoa izan daiten al dan tolesbagoceta eta laburrena; ez joan norberaren ondaskinak agueriu eta antortutera, espada norberaren dongoñeriac eta peccatuec, ichi alde batera, peccatuec, egun haditulaz esnugaz, autortuteari, berbarno, esaten dala, *mailetu ez hadal Jaungoiko bear dan leguz*. Mezan eta Eleizan egon ez bonas bearreco merruzpenagaz, bada onelan autortutea, da gauza usia eta ecertarako ex dana, celan bere ex daben ecer bali, guztioro autortueac, esanlo, autorten dot, amar aguindua contra egun dodana, peccatu australsoetan egun izen dodana; bada au ez da beste gauzariec espada demporen galdu eta arimaco onic batzera ex artatea. Baliu alin andicos dan autormena edo confesinoa erabait errastuleo, iminten deutzut, peccataria, autortutero era au. Eguina izanik azterrena, enkuiz izanik damus eta esanik Ni peccataria, joaten da confesonarioa eta esalen da Agur Maria guztiz garbia. Jaungoiko neure Juanari eta berriko jatorriko zagozian zu neure arimaco aitari autortutenten dentzurdaz neure peccatuak. Da *toste bete, illa bete, urte bete, ceinbal demporen dana*, autorten nintzala, egun nebar emon jatan penitencia, iragoriko autormenetan ex naben ichi peccatuec, loteaz ex aktuta autortu baga (*ichi beban, erazcoa da emea esaten, eta haitzukide jauzilakoa irakastea dabe, asti bear dada autortutetan, loten gauien emosten deusun peccatutik*). Autortutenten dot lenengo aguinduan, bein jagut nintzala Jaungoikoaren contra, berac bialdu euztan neques, onean ez eroanagaz irugurrenean, Meza bat galdu doldala, eta beste baten gogo bagariec egon nazala demporen ascoan, eta alian joaten da peccatu guztiaec autortuagaz (*ez da gauza bearrecoa aguindua guztietan joutea, espada auxi dituztenei*). Amaitutenten da autormena, peccatu guztiaec esanagaz; eta guztien paracainoa esnatutenten dentzat Jaungoikoari eta xuri nire arimaco alia zarean orri penitencia eta asentuera edo absolueiñon. Eta azkenenengo confesinoetik ordura arteko peccatu andiric ez badianco, autortuko dan hieltxa iragorikoeko peccaturen bat, esaten dabela: «Ganera autortutenten ditudaz bicitza iragorikoeko peccatuar, batez bere umiltasunaren, garbitasunaren contra eguninicoac, eta guztien paracainoa esnatutenten deusiat Jaungoikoari eta xuri neure arimaco alia penitencia.»

alanche bota eben erreccara, eta il zan confesinoeco isiltasuna-ren martiri eguinie.

Iracatsi 11.^a—Erabaguia.

¿Cer da erabaguia? Jaungoicoa gauza andian iñozbere ez irainduteco asinu sendoa. ¿Eta nortzue uste izan leique ez dabeela cuqui damuric ez erabaguiric euren confesinoetan? Galbide eta arriztu urecoetatic iguez eguiten ez dabeenac, eta confesinoe batetic bestera pecatu batzuetan euretan jausten dirauac.

AZALDUEREA.

¿Oelaco cerceridadeac euqui bear dituz erabaguia? Iru: izan bear da errimea, eraguillea eta guztiracoa.

¿Cer esan gura dau errimea izateac? Ez dala aseo eta nai-coa, onduteco gurariya enquitea, czpada cuqui bear dala, pecatu ilgarric ez eguiteco borondate edo asinu sendo eta errime bat.

¿Cer esan gura dau eraguillea izateac? Euqui bear dogula, pecatuan barriro ez jausteco iminiric dagozan eguinbideac artuteco, gogo eguiazco eta benetaco bat.

¿Cer esan gura dau guztiracoa izateac? Erabaguia zabaldu bear dala, damua leguez, pecatu ilgarri guztiacgana.

¿Celan ezagutuero dogu, gure erabaguia izan dala eguiazcoa eta benetacoa? Iguez eguiten badogu pecaturaco arrizuetatic; artuten badoguz, pecatuan barriro ez jausteco, zurtasunac edo confesoreac iracasten deuzcuezan eguinbideac; sucendu eta osotuten badoguz, pecatuagaz eguin izan doguzan gach eta calteac.

¿Cer da pecaturaco arriztu urecoa? Pecatura arrastaca leguez eroaten gaituzan araco itua, gauzoa edo personea, eta cefietan iminten gareanean, pecatuan jausten garean beti edo ozta beti.

¿Cergaitic artu bear dira, pecatuan ez jausteco eguinbideac? Cergaitic, celan eguiaz eta benetan osatu gura daben gueisobatee, artuten dituzan, bere osaguilleac aguinduten deutsazan

osagarriac; alan pecatariac artu bear dituz, zurtasunac edo confesoreac aguinduten deutsazan osagarriac, eguiaz eta benetan osatu gura badau.

¿Celaco gach, pecatuagaz eguiac, sucendu eta osotu bear doguz? Lagunari edo besteari bere ondasunetan, bere entzute onean, bere icen arguitsuan, bere bicitzan eta arimaco gauzetañ eguinico calteac.

Eta eguinico calteac sucendu eta osotuteco, osturicoa biur tuteco, pecaturaco arrizcu urrecotic iguez eguiteco, eciuean aurquituten danae, ¿cer eguin bear dau? Confesore zur eta jaquitun bategaz itundu eta aitu bear dau; eta eguiazcoa bada ecintasuna, herae esan eta aguinduko deutso cer eguin bear daben aldi atan.

¿Celan sucendu eta osotu da, pecaturaco bidea emonagaz eta biciera eta jarraigarri char eta dongacaz eguin izan dan gacha? Al dau eran, confesoreagaz lenago itundu eta aituri; eta batezbere onbideac eta jarraigarri onac emonagaz aurrerantzeo bicitza guztian.

¿Cer esan leiteque, pecaturaco arrizcu urrecoetatic iguez eguin gura ez dabeenacgaitic, pecatuau barriro ez jausteco diran bideac artu gura ez dituezanaacgaitic, eguinico gach eta calteac sucendu eta osotu gura ez dituezanaacgaitic, eta parcatu gura ez dabeenacgaitic? Ez dauqua da mu eguiazcoric ez erabagui benetacoric; eta beraugaitic euren autormenac edo confesinoac dira donga eta chairac.

Pecatu batzuetan euretan barriro jaustea ¿da beti confesio noe charraren ezaugarria? Baldin bidaueo onduteco borondate benetacoa, artuten baldin baditz, pecatuau ez jausteco diran eguinbideac, eta eguiten baldin baditz indar eta aleguinac pecaturic ez eguiteco, ez da confesioe charraren ezaugarria, ezpada argaltasunaren eta erquintasunaren igargarria.

¿Co onera atera bear dogu esan danetic? Gueure pecatuacaz eguinico gach eta calteac sucendutea eta osotutea, bicitza on bat aurrerantzean eroanagaz.

JAZOERREA.

San Ambrosioe dino; mutil gazte bat izan zala guztiz donga

eta charra, bicitza nasai eta nabarmena eguiten ebana, eta bere uritic lecu urrin batera joan zan aldi baten, ucutu eutsala bere biotzean Jaungoicoaren graciae, ondu zala eta guztiz aldatu ebala bere bicitzea. Bere urira eta echera biurto zanean, aurquitu eban aurrez aur bere pecatuco lagun anchinacoa, eta iragoric bere aurretic, berari jaramonic eguin baga, arritutena bere pecatuco laguna, eta uste izanic ez ebala ezagutu, urreratutena da beragana, eta dirantso:—«Ni naz a».—Mutil gazteac erantzun eutsan:—«Bada ni ez naz a». Cergaitic etorren eguiaz eta benetan garbaturic eta damuturic eta aldaturic; zan beste bat. Ausse berau eguin bear dau gugan erabagui eguiazeo eta benetacoac.

Iracatsi 12.^a—Egquierazco ordaindutea edo quitugarria.

¿Cer da egquierazco ordaindutea? Pecatuacgaitic zor diran castigu demporazcoac Jaungoicoari ordaindutea edo quitututea, confesoreac emoten daben penitencia beteric? ¿Eta celango pecatua eguiten dau, penitencia betetan ez dabenac edo luzaro atzeratuten dabenac? Iigarria, penitencia aztuna edo andia izan ezquero. ¿Eta ordaindu edo quitutu al guinaiqueoz Jaungoicoari castigu demporazcoac, confesoreac emoten deuzcun penitenciagaz gañera? Bai, Jauna, Jaungoicoagaz ondo gagozala, eguiten doguzan eguiquera on mueta guzticoacaz, eta parcamenae irabaciagaz.

AZALDUREA.

¿Cer da ordaindutea edo quitututea? Eguin izan dana deseguitea, edo eguinico gacha suendutea edo osotutea.

¿Ordaindu edo quitutu guinaiqueo gue Jaungoicoari, pecatuagaz eguinico gach guztia? Ori ecin eguin al guinaique gue gueurez; cergaitic pecatua da gach azquenbaguea, eta guizoznaren quitugarriac beti dira neurtuac eta azquendunac.

¿Bada cein osagarri gueldituten jacu? Bateoco eta Confesioeco Sacramentuen bitartez batezberre ezarten jacuzan Jesucristoren quitugarri azquenbagacgana suendutea.

¿Celan ezartzen jacuz Bateoan eta celan Confesinoan? Bateoan curen osotasun guztiagaz, osoro quenduten jacula pecatu guztia eta castigu guztia; Confesinoan barriz pareatutene da pecatua, eta bere castigua, beticoa zanetic, guelditutene da castigu demporazcoan edo amaicorreatean.

¿Cergaitic da desbardintasun ori? Cergaitic Jaungoicoaren arteztasunagaz ondo datorren gauzea da, guisa batera castiganae izan daitezala, ezjaquinez eta Bateoa artu baga pecatu eguniz izan ebenac; eta beste guisa batera, pecatuaren mendetie ateriac izan eta Espiritu Santuaren doiac artu ezquiero, ezaupera eta gaiztaqueria gueiagogogaz pecatuan jausten diranac.

Eta guelditutene dan castigu demporazeo au ¿celan ordaindu edo quitutu guinaique? Jaungoicoagazeo baque eta adisquidetastunean gagozala, eguiten doguzan eguite on mueta guzticoatz, parcamenac irabaciagaz, eta confesoreac iminten deuzeun penitencia bete eta eguinagaz.

¿Ceinbat eracoa izan leiteque, confesoreac iminten daben penitencia? Bitacoa: osagarrizcoa eta quitugarrizcoa.

¿Cein da osagarrizcoa? Pecatutie guri alde eraguitera eta gure bicitza ondutera, batezbere eta berariz sucenduten dana.

¿Cein da quitugarrizcoa? Pecatu autorturicoagaitic zor dan castigu demporazcoa eta amaicorra ordaindu eta quitututera, batezbere eta berariz sucenduten dana.

¿Penitencia betetan ez dabena, ondo autortu edo confesetan da? Baldin, autortu edo confesau zan unean, enqui beban, penitencia ez betetako, gogoa, ez, bearreco prestaeraric eroan ez ebalako; baña enqui beban, penitencia betetako, gogo ona, eta guero ez beban ala egun, izan zan ona eta eguiazcoa bere autormena edo confesinoa; baña penitencia bazan aztuna, egun eban pecatu ilgarria edo aztunia, eta bazan arina, egun eban pecatu arina.

¿Noz bete bear da penitencia? Icentau beban demporea, orduan; icentau ez beban, ainbat lazterren, eta, al dala, Jaungoicoaren baquean eta gracian.

¿Ceonera atera bear dogu iracatsi onetic? Confesoreac imini-

rico penitencia betetea confesau eta beroala, gueure pecatuacgaitic zor dogun castigu demporazcoa ordaindu eta quitututeco; eta baitabere onetaraco ezartea, arima garbiagaz eguinico eguite on guztiac.

JAZOEREA.

David erregeueac autortu ebanean umiloro bere pecatua Natan igarlearen aurrean, onec esan eutsan Jaungoicoaren ice-nean:— «Jaunac parcatu dau zure pecatua, ez zara ilgo eriotza beticoagaz: baña iraindu eragin dozulaco Jaungoicoaren icena, zure semea ilgo da», gañera aurrez adierazoten eutsazala beste castigu demporazco batzuc. Emen icusten dogu pecatua parcaturic eta dempora beraean castigauric castigu demporazco batzucaz; alan parcaturic Confesinoeco Sacramentuan pecatua eta bere castigu beticoa, ozta beti gueratuten da castigu demporazcoren bat, bicitza onetan edo bestean ordaindu edo quitutu bear dana.

Iracatsi 13.^a—Parcamenac.

¿Eta ce gauza dira parcamenac? Mundu onetan edo bestean pecatuacgaitic pagau bear dan castigu demporazcoa, parcatutten dabeen gracia batzuc. ¿Eta celan irabaci bear dira? Jaungoicoagazco baquean eta gracian eguinie, ataraco aguinduten dana. ¿Eta mundu onetan bearreco ordaindutea edo quitugarrria eguin bagaric, Garbiteguira doazani, gue lagundu guinaiqueoegu? Bai, Jauna, gue gueure pecatu-zorrac ordaindu edo quitutu al guinaiquezan eguite onacaz euracaz.

AZALDUEREA.

¿Celaco eguiac euqui bear doguz gueure gogoan parcamenen iracatsiaren ganean? Oneec: 1.^a Confesinoeco Sacramentuagaz parcatutten dala pecatua, eta castigu beticoa gueratuten dala castigu demporazcoan; 2.^a confesoreac iminten daben penitenciak, gueienean bacarric parcatutten dabela castigu demporazco orren alde bat; 3.^a Eleizan dagoala ondasuntegui amaibagaco bat, Jesucristoren irabaci eta quitugarri azquenbagacoacaz, eta

baitabere Andra Mariarenacaz eta santuenacaz eguna eta beterie dagoana; 4.^a Eleizeac lagundi al leiquegula, emonic ondasunegui orretic, berac icentaurico eguito on batzuc eguiten dituezanai.

¿Celangoae izan leitequez parcainenac? Osoac eta aldecorrac.

¿Ceintzuc dira parcamen osoac? Pecatu parcaturicoagaitic zor dan castigu demporazco guzia pareatuten dabeenac.

¿Ceintzuc dira parcamen aldecorrac? Muga icentauagaz emoten diranac, berbararo, berroguei eguneacoac, eun eguneacoac, zazpi urtecoac.

¿Cer esan gura dau, berroguei eguneacoac, eun eguneacoac, zazpi urtecoac, izateac? Emoten jacuzala, berroguei egunean, eun egunean, zazpi urtean gueuc eguinico penitenciagaz, irabacico gueunqüezan ordainpenac edo quitugarriac.

¿Parcatuten dira pecatuac parcamenaz? Ez da pareatuten pecatu ilgariric, ez arinie, batbere; ezpada pecatu parcaturicoagaitic zor dan castigu demporazcoa bacarric pareatuten da.

¿Noc emon leiquez parcamenac? Aita Santuac batbere muga baga, eta muga icentaugaz Apezpicoac edo Obispoac euren barrutiyetan edo euren aguindupean dagozan lecuetan.

¿Celaco cerceridadeac bear dira, parcamenac irabasteco? Iru: 1.^o Jaungoicoagazco baquean edo gracian egotea; 2.^o eurac irabasteco aguinduten dana, eguitea; 3.^o emoten dituzanaren mondecua izatea.

¿Bearrecoac eta naita naiezecoac dira confesinoa eta comunioa, parcamenac irabasteco? Parcamen osoac gueiyenean alan escatuten dabe; baina gogoan euqui bear da, zortzi egunetic zortzi egunera confesetaco oitura ona dauquenac, irabaci al leiqueezala, astebarruan dagozan parcamen guztiac.

¿Oneragarria eta mesedegarria da parcamenacaz baliyetea? Da oneragarria eta mesedegarria ecingueiagoan; bada eurac aurerratu eta poztuten dabe bat, Jaungoicoaren baquean irautera, Sacramentu Santuac sari artutera, eguite onac eguitera; eta ordainduric eta quituturic euracaz, pecatuagaitic zor dan castigu demporazcoa, alan urrinduten doguz gueugandic, Jaungoicoac mundu onetan bialdu leiqueguzan beste nequegarri

batzue, edo guichituten doguz beste munduan Garbiteguico neque eta minac.

¿Cer da Jubileoa edo Parcadoaiña? Dempora icentaurico batzuetan emoten dan parcamen osoa, beste doe eta gracia berarizco eta aparteco batzucaz batera.

¿Garbiteguico arimai ezarri al guinaiqueoeguz parcamenac? Bai; baña orretaraco izan bear dira emonac, curai ezarri al iza-teco escubideagaz.

¿Celaco onerea aterna bear dogu emendic? Celan diruzale bat-en egarrin ez dan ase eta betetan, aberastasun andiac berac euqui arren bere; alañ gue bere euqui bear dogula egarri sutsu bat, arimaco ondasun eguiazkoac diran parcamonac irabasteo.

JAZOEREA.

Sarritaco icusiac iracasten dau, Jubileoco edo Parcadoaiñe-co demporea izaten dala guztiz ugaria, cerutic artu oi diran gracia eta Jaungoicoagana eguiaz eguinico biurrera berarizco- etan. Milla zazpireun eta irupogueta amaseigarren urtean ain-bestetako aia ugariak izan ciran, egui ciran pecatarien Jaungoicoaganako biurrera santuac ecc, D'Alambert eta Voltaire gaitzaqueriaren eta nabarmenqueriaren iracasla eta zabaltzallac ciranac, ezagututenean emon eben orduan, celaco atsecabea eta misia emon eutsen eurai alaco jazoereac. D'Alambert-ek esan eban: «berac charrerako eguinico lana atzeratu zala oguei urte.» Voltairec barriz berba egui eban onelan:—«Etorten baldin bada beste Jubileo edo Parcadoaiñ bat, utsean eta alperriko egui dogu charrerako gueure bear guztia.»

Iracatsi 14.^a—Sarri confesetea eta bere mesedeac.

¿Eta bear dau batetako, pecatu ilgarrian jausi ezquero, bereala confesau? Ondo izango litzateque, baña ez da premifiazkoa. ¿Cer egui bear dau bada? Artu biotzeco damu osoa, pecatu egui dabelaco, euqui onduteko gogo sendo bat, eta confesau, Eleiza Ama Santeac aguinduten dabenean.

AZALDUEREA.

¿Celan urten guinaique pecatutic? Era bitara: biotzeco damu osoagaz eta confesinoagaz: eta celan an dan errazena eta ciurrena, pecatuan jausi ezquero, ainbat lazterren confesau bear gara.

¿Noz baliyau bear gara biotzeco damu osoagaz? Estu-orduetan, pecatutic urteteco premisan aurquituten gareanean, eta gachtasun eta eragozpen andi baga confesau ocin gareanean.

¿Eta autortu edo confesau gura ez dabenac, artu leique bere pecatuen paracainoa biotzeco damu osoagaz bacarric? Ez, cergaitie biotzeco damu osoa ez da eguiazcoa, ez badaroa confesetaco gogo sendoa, edo Jaungoicoac pecatuac parcatuteco aguindurie daucana eguiteco asmo benetacoa.

Bada batec eguiten dau biotzeco damu osoa, confesetaco gogo sendoagaz, baña guero bere ardurasbacosunez edo nagusitasunez confesetan ez bada, ¿cer jazoten da? Biotzeco damu osoac eguiaz eta benetan parcatu eutsazan bere pecatuac; baña barriro jausten da pecatu ilgarrian, guichitan euqui izan dabelaco, Jaungoicoac pecatuen parcacinoeraco iminiric daucan Confesinoeco Sacramentua.

¿Eta biotzeco damu osoagaz parcatuac izan diran pecatuac, autortu eta confesau bear dira? Bai, cergaitic Jaungoicoac aguindu izan dau, pacatu guztiac izan daitezala Confesinoeco Sacramentuan autortuac.

¿Noz confesau bear gara? Edolabere urtean bein; eriotzaco orduan edo bicitza galduzeco arriztu andiyan; bicien Sacramentua eta batezberre Comuninoa artu bear doguzan aldi guztietan, pecatu ilgarrian egon ezquero.

¿Ceinbateric ceinbatera ondo izango da confesetea? Pecatu ilgarrian jausi eta ainbat lazterren, arimea betico galduzeco dagoan arriztu andiagaitic, eriotzeac batbatean artutenean bagaituz; eta arimako aita jaquitunac iracasten dabe, egun daitela Confesina aste guztietan, beintzat edo guichienez il guztietan.

¿Celaco onera eta mesedeac ecarten dituz sarri confeseteac? Asco, batezbererecoenac dira: 1.^a nequezago eta gachago jausten

da pecatuau, Confesinooco Sacramentuac emoten dituzalaco indarrac ez jausteco; 2.^a jausten bada bat, errazago jaguiten da pecatutic, sarri alan egniteco oitura onagaitic; 3.^a norbera obeto ezagututen da, gueiago eta gueiago beeratu eta umilau-gaz Confesinooco Sacramentuan, santutasunean aurrerapen gueiago eguiten dau, eta on eta artezac arimaco gauzetan eu-qui daroen ardura eta cintzotasun estua, artuten dituz batec; 4.^a eguiten dira gauza on asco, eguiten dira eguiquera irabaci-garri eta merecigarriac, quitututen dira pecatu-zorrac, goraldiac emoten jacob Jaungoicoari eta onretan da Jesucristo gure Jauna.

¿Ce onera atera bear dogu esan danetic? Sarri confesetea dala eguinbideric eraguillena eta ciurrena, zoriontasun beticoa irabasteco; bernugaitic oneratzat atera bear dogu alan eguiteco gogo sendoa.

JAZOEREA.

Evangelio Santuac dirauzeu: Lazaro il zanean, Jesucristoc biztu gura izan ebala; joan izanic badu Jesus, bera lurpeturic egoan lecura, aguindu ebala, jaso eta eregui egutielo, obiya edo zuloa estaldutenean arrilozea, eta usaina botaten ebala gorputz ilac, bada orduraco baciran lau egun, Lazaro il zala; baña Jesucristoc ereguiric bere beguiac ceruruntz, esan eutsan:—«Lazaro, jagui zaitez».—eta Lazaro biztu zan; baña bere oñiac eta escuac loturic, (bada anchinaco dempora atan oituten zan, gorputz ilac estalgia-gaz loturic lupertutea) eta Jesusen bertan egozanai esan eutsen: «Ascatu eguihue eta ichi eguiozue joaten.»—Ascatu izan ez balebe, cirquinic eguien ecin algaitic, ilgo zan barriro. Alan jazoten da biotzeco damu osoagaz eta Confesinooco Sacramentuagaz. Biotzeco damu osoagaz barriro artuten dau arimeac Jaungoicoaren gracia, biztuten da; baña oraindie dago pecatuaren locarriacaz loturic, eta joan bear dau confesoreagana, onec ascatu daguian, bada bestelan barriro ilgo da pecatuagaz.

Iracatsi 15.^a—Pecatu ariña.

¿Ce gauza da pecatu ariña? Pecatu ilgarrirako prestaera bat.

¿Cergaitic dericho ariña? Cergaitic guizona ariñi, au da, erraz jausten dan pecatu ariñean, eta erraz parcatutene jacon. ¿Ceinbat gauzacaz parcatutene jaco? Bederatzigaz. ¿Ceintzue dira? Lenengoa, Meza entzunagaz; bigarrena, comulguateagaz; irugarrena, Ni peccatariya esanagaz; laugarrena, Obispoaren bendecinoagaz; bostgarrena, ur bedeinecatua artuagaz; seigarrena, ogui bedeinecatua janagaz; zazpigarrena, Aita gurea esanagaz; zortzigarrena, sermoia entzunagaz; bederatzigarrena, Jaungoicoari parca esque daocala, bularra juangaz. ¿Cergaitic dinozu, Jaungoicoari parca esque daocala? Gauza onecaz pecatu ariñen parcamena artuteco, celanbaiteco euren damu izatezgafieticoa euqui bear dala, adierazoten emoteco. ¿Eta pecatu ariñiac autortu bear doguz? Ez, Jauna; bafia ondo eta mesodetsua da. Eta azquenengo confesinoa ezquiero, pecatu ariñiac baño ez daucazanac, ¿cor eguita ondo izango jaco, pecatuen damua eta erabagvia ciurrago enquiteco? Pecatu ariñen gañera, bicitza iragorico pecatu ilgarrien bat autortu eta agnertutea.

AZALDUEREA.

¿Ceinbat aldetie izan leiteque ariñia pecatu bat? Lautatic: 1.^a bero izatez, berez guei ariña edo chiquia dalaco, berbaraco, guzurra, calteric egun baga, biarguin batec esatea; 2.^a gueiaren chiquitasunagaitic, berbaraco, baruegunetan gaubeco aparichuan apur bat gueiago jatea; 3.^a ezjaquintasun quenduecin-garriagaitic, uste izanic, aguindu andi bat bacarric bete bear dala pecatu ariñaren beian; eta 4.^a bearreco ezauiperea edo auqueratasuna euqui ezagaitic, berbaraco, bat bere burutic ondo ez dabilenean.

¿Bici gueintequez, pecatu ariñiac egun baga? Siniste santu-
eo eguiya da, pecatu baga ecin bici gueintequezala, gracia berizcoren bat guecerutic euqui ezic; baña gauza ciurra da be-
re, ez dagoala pecaturic, Jaungoicoaren graciagaz goitu eta
egun baga ichi ecin leitequeanic.

¿Celaco pecatu ariñiac ezagututene dira? Batzue dira argal-
tasunez eguiten diranae, gogoa beste gauza batuetan euquita
edo gauzac ariñ eguinda, edo beste onelango eran, egniten di-

ranac; beste batzue dira, dongaqueriagaz eguinicoac, bearreco ezaupera eta jaquituriagaz eguiten diranac; onecegaitic dino Aita Astetec, dirala «pecatu ilgarriraco prestaera bat.»

¿Celango calteac eguiten dituz ariman pecatu ariñac? Pecatu guztiai dagocoen castigu demporazcoaren gañera, guichituten dau maitetasunaren berotasuna, otsituten dau Jaungoicoagazco gure adisquidetasuna, galdu eraguiten deuzeuz, peccatuan ez jausteco bearrecoa diran ceruco gracia asco, eta esangura onetan esaten da, eurac prestetan dabeela bat, pecatu ilgarria eguiteco.

¿Celan pareatuten da pecatu ariña? Sacramentu guztiacaz, eta Sacramentucorrac derichoenañac, eta dira, Aita Astetec dacarzau bederatziz gauzac.

¿Parcatu al leitequez pecatu ariñ batzue, besteac pareatu baga? Bai; cergaitic izanic pecatu ariña, Jaungoicoaren graciagaz batera aurquitu al leitequeana, pecatu ariñ batzuen damua euqui guinaique eta oneen pareamena artu guinaique, beste emparau pecatu ariñac guri parcatuac izan baga.

Baldin norbaitec autortutene baditz bacarric pecatu ariñac eta euren damuric ez badaroa, ¿pareatuten jaco? Ez; cergaitic damuric baga ez dira pareatuten peccatuac; gañera da utsa eta alperricoa bere confesinoa, eta ezaupereagaz alan eguin izan badau, eguiten dau donauste edo sacrilegio bat.

¿Gach andia da pecatu ariña? Ain andia ece, mundu onetako ecergaitic bere ecin eguin leiteque, bada da, Jaungoico azquenbagueari eguiten jacon irain bat; eta dericho ariña, peccatu ilgarriagaz daucan desbardintasunagaitic bacarrie.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Pecatu ariñac, batezbere dongaqueriazcoac diranac, iñoz ez eguiteco asmo edo gogo sendoa.

JAZOEREA.

Aita Claret beneragarriac, bere «San Ignacioren arimaco Egitaldietan» pecatu ariñaren ganean berba eguiten dabela, diño: «Pecatu ariñean dagoan arimea dala, bere gorputzeco alde guztiac minduric daucazan gueiso bat leguez, gogo baga

jaten dabena leguez, oera etzin eta batbere loric eguiten ez dabena leguez, atseguin baga barre eguiten dabena leguez, gauza guztietan necatuten dana leguez eta guztiac gogait era-guiten deutsana leguez, gueiago dabilela arraztaca eta tatin-rraz bere oiniagaz baño. Pecatu arinagaz gueldica gueldica doa arimea argalduagaz, ceruko gracia eta laguntasunac iguez eguinagaz doaz, eta azquenez dator pecatu ilgarrian jaustera.»

**Iracatsi 16.^a—Comuninoeco Sacramentua:
Sacramentu onen izatea, egunaizantasuna eta eguitadeac.**

¿Cetaraco da Comuninoeco Sacramentua? Ondo prestauta arturio, izan daiten gure arimen janaria eta gueitu daguigun gracia.

AZALDUEREA.

¿Cer esan gura dau emen Comuninoac? Sacramentu adoragarri onetan emoten jacuzan Jesueristoren gorputz eta odola artutea.

¿Noz eguin eta imini eban Jesueristoc Sacramentu au? Bere Pasinoe Santuaren aurreco gaubean, au da. Eguben Santuco gaubean, bere Apostoloai euren oiniae garbitu ezquero, artu ebanean ogua bere escuetan, bedeineatu eta emon eutsenean, cirautsela: «Eutziye, eta jan eguihue, ausse da nire gorputza;» eta bardin edanontzia edo calizea, cirautsela: «Ausse da nire odolaren calizea, zuegaitic eta ascogaitic isuria izango dana pecatuen parcacinoeraco.»

¿Eta celan eguin eta imini eban? Convit baten antzera, cefietan emoten deuzeun janaritzat bere beraren gorputza, eta edaritzat bere beraren odola.

¿Cetaraco eguin eta imini eban? Iru gauzataraco; 1.^o izan ceiten gure arimen janaria; 2.^o legue barriro oparia iminteco; eta 3.^o bere Pasinoe Santuaren gomutagarria eta bere amodio edo maitetasun azquenbagacoaren ezaugarri beticoa izan ceiten.

¿Cein da Sacramentu onen gueiya? Garizeo ogua eta matzezo ardaoa.

¿Cergaitie emon gura izan jacun oguiaren eta ardaoren antz eta irudiaren beian? Iru errazoegaitic; 1.^a gu bere maitic atzeratu eta urrindu ez guenguan, cergaitic bere gorputza jan eta bere odola edateco igüeña eta atzerapena euquico guenduan, emon izan baleuzcuz, gorputzac eta odolac eurenaz danguen antz eta irudiyen; 2.^a ondo aguertu guenguan gueure sinistea, eta siniste onegaitic gue euqui guenguan betico bicitzaraco irabaci andiac; 3.^a eta hatzberecoena da, guri adierazoteco, Sacramentu au dala arimearen janaria, oguiac gorputzari eguiten deutsana berbera, arimeari eguiten deutsana.

¿Cer eguiten dau Sacramentu once, ondo prestauta edo dui-noro bera artuten dabaren ariman? Lenengo, iraun eraguin eta indarrac emoten deutsoz graciazeo bicitzeari, oguiac gorputzeco bicitzeari leguez; 2.^o aleartu eta batuton gaituz Jesucristogaz, ogua gneugaz alcantu eta batuton dan leguez; 3.^o barriztetan dituz indar galduac, parenturic pecatu ariñac, argal-durie grifinac eta charreraco echuntasunac eta macurtasunac; eta 4.^o da betico bicitzaco ahi eta ezaugarri ciurra.

¿Nortzue dira Sacramentu onen eguindariac? Abade guztianc eta eurac bacarric, ceintzuei emon eutsen escubide ori Apostoloen personan, esan eutsenean: «Eguizue au nire go-mutan.»

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Gose-egarri sutsuagaz Sacramentu onetara urreratutea, aurrez ondo prestau-ta, izan daiten guretzat mesedegarria eta betico bicitzaco ezaugarrria.

JAZOEREA.

San Francisco Sales-coac diño: —«Bere gorputza eta odala egniaz eta benetan dagozan Sacramentu au, egin eta imini ebala gure Jaunac, bera artu eta jan daguiana, betico biei daiten; eta orregaitic, sarri eta ondo prestauta bera artuten dabenac, alaco eran ciurtau eta indartutenean bere arimako osasuna eta bicitzen ece, ozta ecingarria da, izan daitela macurtasun eta zaletasun bacar bategaz bere ezaindua eta loitua eta pozotua. Bada baldin ustelcorrae diran frutaric samurrenac, erraz irnuten badabe dempore luzean, azucareagaz edo estiyagaz go-

zoturie dagozanean, ez da mirari izateco, gure biotz ain argal eta erquinac euqui ez daguiela pecatuaren usteltasunia, Jaungoicoaren Semearen aragni eta odolagaz gozoturie dagozanean.*

Iracatsi 17.^a—Comuninoa: bera artubearra eta prestaerac.

¿Cergaitic diñozu, ondo prestauta? Adierazoteco, Sacramen-
tu au ez dala izango gure arimen janaria, artuten badogu,
arimearen eta gorputzaren aldetic bear diran prestaerac, euqui-
ten ez badoguz. ¿Bada celaco prestaerea bear da arimearen al-
detic? Jaungoicoaren gracian egotea. Eta pecatu ilgarrian jau-
si izan dana, ¿celan prestanco da comulguetaco? Ondo' confe-
saungaz. ¿Eta esanico prestaerac euqui baga, comulguetara
doianac, ¿artuten dau bere Jesucristo? Bai, Jauna; baña onera
eta mesede baga, sacrilegio edo donauste guztiz andi bat egui-
ten dabelaco. Eta comulguetear mesede eguiten deutsenac,
¿cer eguin bear dabe, leu esanicoen ganera, mesede gueiago
artuteco? Comulgau baño lenago, euracgana ditorrena nor dan
gogoratu, sinizmen, icharopen eta maitetasuneco eguiñaldie-
tan jardun, eta ulmitasun eta lotsa andiagaz artu, eta guero
ondasun ain andiagaitic ezquerrac emon.

AZALDUEREA.

Comulgutan diran guztiac, artuten dabe Jesucristo, ¿beraz
guztiac artuten dabe gracia bat bera? Ez; ezpada artuten dabe
gracia gueiago edo guichiago, euren prestacrea andiagoa edo
chiquiagoa dan leguez.

Azaldu eta adierazo egiztu ori irudi bategaz:—Iturrira doia-
zan guztiac, eroaten dabe ura; baña eroango dabe ur gueiago
edo guichiago, euren ontsia edo picharra andiagoa edo chi-
quiagoa dan leguez.

¿Bada celaco prestaerac bear dira arimearen aldetic? Bat da
bearrecoa eta naita naiezcoa, ondo prestauta edo diunoro ar-
tuteco, eta besteac dira onera eta mesede gueiagogaz artuteco.

¿Cein da bearrecoa, diunoro artuteeo? Jaungoicoaren gra-
cian eta baquean egotea.

¿Cer da Jaungoicoaren gracian eta baquean egotea? Pecatuerie baga egotea; orregaitic, bat aurquituco balitz pecatu ilgarrian, ondo confesau bear dau, comulguetara joan baño lenago.

Eta Jaungoicoaren gracian ez dagoala, comulguetara doinac, ¿artuten dau Jesucristo? Bai, baña eguiten dau donauste edo sacrilegio guztiz andi bat, eta Apostoloae diñoan leguez, «eguiten da Jesucristoren gorputzaren eta odolaren errudun.»

¿Eta celnco prestaerae dira bearrecoac, mesede gueiagogaz artuteco? Umiltasunagaz, icharopenagaz eta guraringaz artutea.

¿Cer eguingo dogu, umiltasunagaz, icharopenagaz eta gurariagaz artutera urreratuteco? Corbait demporan ondo gogoratu nor dan datorrena, norgana datorren eta cetara datorren.

¿Nor dator? Jaungoicoaren Seme Beticoa, Andra Mariagan die jaio zana bera, gure amodioagaitic Curutzean il zana, bere Aitaren escumatic jarriric dagoana, eta gure Auciepaldea izango dana; eta emetic ateraco doguz, beeratu eta umiletaco bideac.

¿Norgana dator? Gu pecatari erruquigarri, guisasso, premianaz eta pecatuz beteric gagozanocgana; eta emetic artuko dogu, icharopena enquiteco gueia.

¿Cetara dator? Osaguilla bat leguez, gure arimetaco gueisotasunac osatutera; iracasla bat leguez, guri bide ona iracastera; aita bat leguez, berac deuzcun amodioa, guri aguertu eta eracustera; senar bat leguez, bera dan guztia, eta berac duncan guztia, guri emotera; eta emetic ateraco doguz, bera artuteco gurari sutsuac.

¿Celan urreratu bear da comulguetara? Onerazpen, itsal eta modu onagaz, pecatuen daimu bici bat artuten dala, esanic «Ni pecataria» eta guero iru bidar: «Neure Jesucristo Jauna, ni ez naz duin, Zu nire bicilebuan sartuteco; baña esan eguizu berba bacar bat, eta nire arimea gueratuco da osaturic eta salbauric.»

¿Cer eguin bear da, Ostiya Sagradua artuten danean? Itsal eta lotsa andiagaz irago bear da ainbat lazterren estarritic barrura, dempora atan beratan esaten dala: «Nire Jaun Jesu-

eristoren gorputzac zaindu daguiala nire arimea eta eroan daguiala betico bicitzara. Alan izan dedilla.»

Eta comulgau ezquero, geler egun bear da? Ordu laurenear edo ordu erdiyan egon bear da itsal eta norberaganaco batueengaz, emoten jacoza Jaungoicoari ezquer andiac, eta eguiten dirala Iau eguiquera onecc: adoracincocoa, ezquerrac emotecoa, esquintsaricoa, eta escabidecoa.

JAZOEREA.

San Francisco Sales-coae dino:—«Comuninoe batetic bestera illa batetic bestoracoae izan bear dabela, Jaungoicoa ondo serbidu eta maitetu gura dabenen artian... Mundutarrac itanduten baldin badeutzue ergaitic comulguetan zareen ain sari, erantzum eguioezue, Jaungoicoa maitetuten icasteco, ceuen ezaintasun eta loitasunchuac guztiz garbituteco, ceuen argaltasunac sendatuteco eta ceuen estutasunetan eta larritasunetan poztuteco... Era bitacoac dira, sari comulgau bear da beenac: ontasun osoan bici diranac, ondo prestaure dagozalako... eta ontasun osoan ez dagozanae, ontasun osora eldu daitezan; indartsuac, argaldurie gueratu ez daitezan, eta argalac, indartu daitezan; gueisoac, osatu daitezan eta osasuntsuac, gueisotu ez daitezan; arazu eta cereguin guichi dauquenac... demporea emparetan jaquelaco, eta lan eta buruauste andiac dauquezanac, alan egun bear dabeelaco... bada biar eta lan asco eguiten dabenac, eta atsceabez eta estutasunez beteric dagoanac, sari artu bear dituz janariric indartsuenac eta onenac. Comulgau zaiteee bada sari, al dozuen sariyen, jarraituric beti ceuen arimaco aitaren erehi eta esanai.»

Iracatsi 18.^a—Gorputzaren aldetic bear diran prestaerac, eta Sacramentu au artuteco dagoan eguinbearra.

Eta gorputzaren aldetic, geler prestaera bear da? Barauric eldu bear da comulguetara, gauerdiko amabietatic orlu arteraño ecer jan ez edan bagaric egonagaz, gure Jauna, eriotza-aurreko gueisoaldian, artu bear danean izan ecic.

AZALDUEREA.

¿Celaco prestaerac eroan bear dira gorputzaren aldetik? Barau osoa da bearbearrecoa dana; eta ondo eta egoqui dan gauzea da, norbera, bere gorputzean, soñean, oñetan, garbiric eta antz onean, eta arpeguiera umil, beceratu eta moduonecotasunagaz, gure Jauna artutera eldntea.

¿Eta cer da barau osoa? Gauzarie batbere ez artutea, nai dala janaria, nai dala edaria eta nai dala osagarria, aurreco gauerdico amabietatic guero.

Eta batec, jaquin baga, uste baga eta erru baga, gauza chiquiren bat artu izan dabenae, ¿artu leique gure Jauna? Ez; ausi izan dabelaco barau osoa; eta alan comulgau bear dauurrengo egunean, barriro confesau baga, pecatu ilgarriren bat eguin izan ez badau bitartean; bada eguin izan badau, ostera confesau bear da, comulgau baño lenago.

Eta izango balitz oyetaco odol apurren bat,edo aguimen arrian aurreco gaubeco ondarren bat gueratu izan dana, ¿artu leique gure Jauna? Bai; cergaitic bacarric austen dau barau osoa, nai janaritzat, nai edaritzat, nai osugarritzat, campotic artu eta zabel barrura iragoten danac.

¿Nozbait artu leiteque gure Jauna, barauric ez dagoala? Bai, eriotza-aurreco gueiso-aldian.

¿Eta eriotza-aurreco gueiso-aldian gure Jauna artuteco, icharon bear da, eriotzaco ordu ureco eta azquenengoa eldu arte-raño? Ez, asco eta naicoa da ilteco arrizcu ustecorra egotea; eta arrizeu au dagoanean, ondo da ainbat lazterren artutea.

¿Cergaitie alan? Errazoe bigaitic: 1.^a cergaitic obeto eta ezaupera gueingogaz prestau leitequealaco, gure Jauna artuteco; 2.^a uste eta sinistu ez daiten, gure Jauna gueisoaldian artutea dala eriotzearen ezaugnarri ciurra eta utsic emon ecin leiqueana, eta gueisoni esan al deitequeoen, prestau daitezala gure Jauna artuteco, eurac icaratu eta surtuco diran batbere bildur baga.

¿Eta dempora lucean gueisorie dagozanac, ilteco arrizcu urecoric euqui baga, artu leiquee gure Jauna? Bai; baña artu

bear dabe, baraurie dagozala, gauerditic ordu batzue gueroago gure Jauna eurai eroan bear bajaque bere.

¿Eta osasun onean dagozanac, nozie nozera artu bear dabe gure Jauna? Daucagun aguindu andiagaitic, edolabere edo guichienez urtean bein; eta jaquitunac dirauzcuenet, ainbat sarrrien, il guztietan, aste guztietan, eta egun guztietan bere, santuac eguiten eben leguez, ola Eleiza Ama Santeac gura daben leguez.

JAZOEREA.

Sarda eta Salvany, Jaun jaquituria eta entzute andicoac, bore liburuchu baten dinoana, guztiz egoqui eta ondo dator emen. «¡Icaratuco da gueisoa, aitatuton bajaco Eleizacoen icena!—Ondo, guztiz ederto: betico galdu daitela zure gueisoa, icaratu baga, ondo badereichazu.—¡Jesus! ¡Jaungoicoac zaindu gaguzala onelango gauza bategandic!—Ondo bada, deitu bear deutso Arimazainari eta suendu bear dituz bere arimaco gauzac beragaz, arrizeu orretan bere burua imini gura ez badau.—Baña, ¡eta icaratuten bada!—Baña ¡eta betico galdu ten bada!—Esan eguidazu, ¿ez da gauza icaragarrizcoa, iltera doiala, gueisoari arguiro czagutu eraguingo deutsan, bildurgarrizco borba orreec esanbearra?—Esan eguidazu ceuc bere, ¿ez da gauza icaragarrizcoa iensten celan gueisoa, bere beguiac estaldurie daucazala, doian sacontasun bildurgarriruntz, ceñietan gurata guraz ondatu eta galdu bear daben betiraun bateraco?—Ezagututen dot; baña ¿nec, nic bera maite dodan leguez, maite dabenac, biotza euquico dau, alaco barri edo albizta bildurgarrizcoa berari emoteco?—Eguia da; baña ¿nec, zue bera maite dozun leguez, maite dabenac, biotza euquico dau, batbere prestaera baga betico sacontasun bildurgarrizco batera auvpaz jausten doiala, odol otsagaz onean eroan eta icusteco?—¿Badaquizu zue, bearbada, pecatu ilgarrian ete dagoan?—Ez, ecelanbere, baña ¿badaquizu zue, bearbada, Jaungoicoagazeo bapque eta gracian ete dagoan?—Eta ¿nec esan deutz zuri, Eleizacoen icena bere belarrian aitatu daguiodanean, ez dala gueitueo bere gueisotasuna, eriotzea bercala ecarri daiqueona?

Mundu onetaco ecergaitic ez neunque euqui gura alaco quezcarie.—Eta *ξnoe* esan deutzu zuri, zure isiltasun ori eta zure bildur uts eta alperrico ori ez dituzala ondo pagauco dempora guichi barruan gueisoac, bere arimea betico galduagaz? *ξ*Guichi eta utsa dala uste dozu, ceure arimearen gañera jausico dan quezca eta mina, zu isilic egonagaz?... Baña esan eguidazu: *ξ*Eguia da, gueisoae ainbestean bildurtutene dirala, Eleizacoen icena aitatutene jaquenean? Niri derichat, ori gueiago dala osasundunen uste eta bildur charto aitu bat; aurquitu izan naz orrelango aldi ascotan, eta ozta beti icusi izan dot, echeacoa eta senideac gueiago icaratu eta bildurtutene dirala gueisoa bera baño. Icusi izan dot, euren osasun betean ain onac eta Jaungoicoaren bildurrecoac izan ez ciranac, Eleizacoac artu bear dituezala esan jaquenean ez dirala icaratu ez bildurtu, ezpada pozic eta atseguinez beteric gueratu izan dirala. Desengañau gaitezan, eta ez daguigun aztu, gueisotasun arrizeu andicoan bat aurquitutene danean, ez dala izaten eta ez dituza la gauzac icusten, osasun on eta betean dagoanean leguez.»

Iracatsi 19.^a—**Celan Jesucristo dagoan eguiaz eta benetan Comuninoeco Sacramentuan.**

*ξ*Cer artuten dozu Comuninoeco Sacramentuan? Jesucristo Jaungoico eta Guizon eguianzcoa, Altaraco Sacramentu guztiz Santuan eguiaz eta benetan dagoana. Onetara ezquiero, *ξ*nor dago ostiyan, donequida edo consagracion ostean? Jesucristoren gorputza, bere odol, arima eta jaungoicotatasunagaz batera. *ξ*Eta edanontzi edo calizan? Jesucristoren odola, bere gorputz, arima eta jaungoicotatasunagaz batera. Onetara ezquiero, *ξ*Jesucristo guzti guzia dago ostiyan eta calizan? Jesucristo guzti guzia dago ostiyu guztian, eta guzti guzia bere alde edo zati bacochein, eta bardin calizan. *ξ*Eta donequida edo consagracion ostean badago oguiric ostiyan edo ardaoric calizan? Ez, Jauna, ezpada oguiaren eta ardaoren ganerantzecoac eta irudiak, diran leguez usaina, colorea edo margoa, dasta edo sabo-

rea eta emparauac. ¿Eta ostiyea satitu nai banatuten bada, edo calizan dagoana, zatitu edo banatuten da Jesucristo? Ez, Jaunak guztiguztiagueratuten da zati guzietan eta euretatic bacochean,

AZALDUEREA.

¿Beraz ogua biurtutene da Jesucristoren gorputz eta ardaoa bere odol izatera? Bai; oguiaren izate guztia biurtutene da Jesucristoren gorputz izatera, eta ardaoren izate guztia bere odol izatera; eta ausse da, gue *Transustanciaciona* edo *Izate-bat-bestez-izate-batera-biurtutea*.

¿Celan izan leiteque ori? Jaungoicoac bere guztialtasunagaz eguiten babelaco, Canango esteguetan ura ardaio biurtu eban leguez, Niloco urac odol biurtu cituzan leguez, eta gauza guztiac ecerezetic eguin cituzan leguez.

¿Ceinbat demporan irauten dau Jesucristoe Sacramentu onetan? Sacramentuko berordeac, galdu bagaric edo usteldu bagaric, irauten dabeen dempora guztian.

¿Celan izan leiteque, gauza ain chiquia dan ostiya baten ego-tea Jesucristo? Baitabere, ain chiquia dan beguico icusleku-chuan, eguiten da oso osorio gauza guztiz andiaren antz edo irudia; eta aci chiquichu batec beragan dauco sarturio acioro zugatz edo arbola guztia.

Izanik Jesucristo bat bacarra, ¿celan egon leiteque ostiya ascotan, eta emon leiteque guzti guztia ostiya guzietan? Baitabere, gure arimea izanik bat bacarra, dempora bat baten dago guzti guztia gorputzeco alde edo zati guzietan; eta gure berbea, bat bacarra izan arren, entzun eta artutene dabe guzti guztia, gueure aurrean dagozan guztiae.

¿Eta celan egon leiteque Jesucristo, leku bata besteagandie ain urriñetako Sacramentuetan, bere izatea gueitua eta ascotua izan baga? Baitabere eguzquia dago guzti guztia leku ascotan, guztiac arguitutene dituzala, bere berotasunagaz landara, zugatz, bedar eta beste emparau guztiai indarra emoten deut-sela, bere izatea gueitua eta ascotua izan baga, eta bat bacarra izateari ichi baga.

Baldin Jesucristo badago ostiya consagrduan, ¿celan izan

leiteque, ostiyea zatituten danean, Jesucristo zatitua ez izatea? Zatituten dira berordecoac, antzac eta irudiac, zaticorras diralaco; baña Jesucristo ez, zaticorra ez dalaco bere egoera zoriontsuan: celan ispilla bateko irudiya ez dan zatituten, apurtua eta zatitua izan arren ispilla, ezpada gueratuten da oso osorio atal edo zati guztieta.

¿Baña Sacramentuan ez dira icusten berordecoac, antzac eta irudiyac ezpada? Eta alan izan bear dau, cergaitic berordecoac antz eta irudiyac gueratuten dira, eta bacarric izatea aldatu eta beste izate batera biurtutene da: gueratuten dala orregaitic antz-irudiya, eta beronen barruan Jesucristo.

Azaldu eta adierazo eguidazu ori irudi bategaz.—Lot-en emaztea, gatz-arri biurtua: gatz-arri a icusten ebanac, icusten eban Lot-en emaztearen irudiya, eta orregaitic bere, ez zan Lot-en emaztea, ezpda gatza Lot-en emaztearen irudiyaren barruan; bada celan biurtuera atan aldatu eta biurtu zan barruko izatea beste izate batera eta gueratu zan campotico eta azaletico irudiya, alan Sacramentu onetan aldatu eta biurtutene da oguiaren barruko izatea Jesucristoren gorputzean, baña gueratutene da, len eucazan berordecoen eta antzen irudiya.

Bafia orrec guzti orrec ez dau azaldutenez aguertutenez escutapena.—Ez dogu bere gura izan bear. Amodioa berez da escutapencorra; Jaungoicoaren amodio azquenbagueac izan bear dau azquenbaga escutapencorrac; eta beraugaitic, Jaungoicoaren amodioaren Sacramentua dan Sacramentu au da *Gure Siniestearen Escutapena*.

¿Ce onera atera bear dogu esan danetic? Siniste bici eta andi bategaz Sacramentu oni lotsa eta itsal eeingueiagoco bat eunquea, amodio jaungoicozoaren escutapen au celan izan leitequean jaquiteco bathere aleguinie egun baga, eta gueure arazu, cereguin eta lanac ichi eta laquetutene deuzcuezan egun guztieta, icusaldiac berari eguiten deutsaguzala bere Altara santuan.

JAZOEREA.

Bein baten dei egninie San Luis, Franciako Erregueari, esan

eutsen, bereala joan ceitela Eleizara icustera Jesus, bere bera-ren izate ostiya consagraduan mirariz aguertu eta icusten zana; eta Erregue andi arec erantzun eban:—«Joan bear dabe, Jesus Altaraco Sacramentuan eguiaz eta benetan dagoan edo ez dagoanaren gañeco ezdabaidea dauquenac; nic sinistuten dot dagoala, neure beguiacaz icusico baneu baño errimeago eta sendoago.»—Eta ez eban joan gura izan, bere siniste andiaren irabaci eta meroccimentua ez galdupearren.

Iracatsi 20.^a—Oleacinoco Sacramentua.

¿Cetarao da Oleacinoco Sacramentua? Iru gauzataraco. ¿Ceintzue dira? Lenengoa, iragorico biciera charraren sustarrac eta ondaquinæ quenduteco; bigarrena, sendotuteco ari-meia diabruaren asmo eta esetsien contra; irugarrena, gorputzari, ondo etorri ezquero, osasuna emoteco. ¿Adinera edo ezauberara eldu izan diranac eta gueisoric oso dagozanac, artu bear izaten dabe Sacramentu au? Bai, Jauna; eta eguiten dabe pecatu ilgarria, artu al izanic, artuten ez dabeenae, edo pecatu ilgarrian dagozala, artuten dabeenac. ¿Cer eguin bear dau bida, pecatu ilgarrian dagozanac, Sacramentu au ondo artuteco? Lenaz confesau bear da, eta au egün ecin al baleique, eguin bear dau damu osoco eguinerea.

AZALDUEREA.

¿Cergaitic dericho Sacramentu oni Azquenuncino? Ez, bicitzearen azqueneraño icharon bear dalaco, bera artuco bada; ezpada cristinauac bere bicitzan artuten dituzan oriyo-igortzi edo uncinoetatic dalaco azquenengoa.

¿Celan emoten da? Abadeac, Obispoac consagraurico oriyoagaz, igortziten dituzala, curutzea eguinagaz, bost sentzunac, eta Jaungoicoari escatutzen deutsala, sentzun bacochagaz egui-nico pecatuen parcacinoa.

¿Noc artu leique? Adinera edo ezaubera eldu izan dan cristinau guztiac, eta oso gueisoric dagozanac. Ez, osasun onean dagozanac, ilteco arrizeuan aurquitu arren bere.

¿Ceinbat bidar artu leiteque? Gueisoa eriotzaco arrizeuan aurquituten dan beste bidar, gueisotasun bat baten izan arren bere, baldin erdi osaturic egon eta barriro jausten bada arrizu bardiniean.

¿Celaco prestaerae euqui bear dituz, artu bear dabenac? Jaungoicoaren baquean eta gracian egotea, dalaco bicien Sacramentua; alan bada confesau bear dau, pecatu ilgarrian aurquituten bada; bestelan eguingo leuque doneauste edo sacrilegio bat.

¿Eta confesau ecin bada? Prestau bear da damu osoco edo guichienez damu bildurrezco eguinereagaz, eta orduan eguiten dituz Confesinoeco Sacramentuaren eguitadeac, parcaturic pecatu ilgarriac.

¿Eta Sacramentu onec eguin daguizan bere onera eta mese-de guztiac, cer eguin bear dogu? Ainbat lazterren artu bear da ezaupera osoagaz, umiltasun guztiagaz, eguiten dirala siniesto, icharopeneco, maitetasuneco eta pecatuen damuzeo eguineraeac.

¿Eta celango eguitadeac eguiten dituz, esanico prestaeracaz artutene danean? Graciaren gueitupena, edo lenengo gracia emoten dau, pecatu ilgarrian aurquitu izan bada, cein dan Sacramentu guztiai dagocoena; eta gañera Aita Astetec icentaurico iru eguitadeac.

¿Cein da Sacramentu oni berariz dagocan lenengo eguitadea? «Iragorico bicitza charruren susterrac eta ondaquinac quendutea», diran leguez pecatu arriac, castigu demporazeo zor diranac, eta pecatuaren ostean ariman gueratuten dan argaltasuna.

¿Cein da bigarrena? «Diabruaren asmo eta esetsien contra arimea sendotutea,» ceñiec ordu atan, icasiric dempora guichi gueratuten jacola, eguingo dituzan indarrie andienac, pecatu jausi eraguiteco; eta baitabere onean eta eroapen santuagaz eta irabaci andiagaz irago daguiguzan gueisotasuneco nequeac, miñac, eta estutasunac.

¿Cein da irugarrena? «Gorputzari, ondo etorri ezquero, osasuna emotea,» eta eguitade au eguiten dau, mirariz ez, ezpada

indar izatearen-gañeco baten bitartez, gueisoaren indar berez, coai lagunduaz.

¿Cer ateraten da emetic? Burubagao eta sentzun bagaco gauza eguiten dabeela, Sacramentu au artuteco, azquenengo ordura arterano, au da, bieio diran usto guztia galdu arterano, luzatu eta icharoten dabeenac, noz osatu al izango egin litzatequezan mirarien baten bitartez ezpada.

¿Cergaitic dinozu «gorputzari, ondo etorri ezquiero?» Cergaitic Sacramentua batezbere eguinac eta iminiac izan diran arimearen osasuneraco, eta egin emon leiqueen gorputzeco osasuna, arimearen caltean izaten bada.

¿Andia da Sacramentua onen balioa? Da guztiz andia; sarri ascotan bera ondo artutetic dator arimen zorientasun beticoa; bada Jaungoico beti erruquiorra danac, icusiric araco premiña estu eta larria, arimac azquenengo orduan euqui daroena, pres-taera guichiago escatuten dituz, eta laguntasun eta gracia guciago emoten dituz.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Gueure aguindu-pecoac eta gueuc bere Sacramentu au ainbat lazarren artute-co aleguin guztiac eguitea, eta, al bada, gure Jauna artu eta bereala.

JAZOEREA.

Aita Wolfgang Frayle santuac eucan oitura guztiz on eta eder bat, eta zan, gau guztietan oera etzin baño lenago, ilteco aurrean eta Oleacinoceco Sacramentua artuten egoala, beguitandu eta iruditutea. Artuten eban Santo Cristo bat, eta beragaz ucituten eutsen beguini, belarriai, zurrari, aoari, escuai eta oiñai, esaten ebala: «Curutze Santu onec eta bere erruquitasun guztiz samurrae parcatu daguidezala, icusteagaz, entzunngaz, usain eguinagaz, berba eguinagaz, escuacaz eta oiñacaz, nic eguin ditudazan pecatuac.»

Iracatsi 21.^a—Ordiaco Sacramentua.

¿Cetaraco da Ordiaco Sacramentua? Eleizguizonae donequi-datu edo consegetako, diran leguez Apaizac edo Abadeac, Dia-

conoac edo Otseindarrac eta Subdiaconoac edo Otseindarpecoac. ¿Eleizguizonac, batezberro Abadeac, lotsaz eta berarizeo guizaonez beguiratuac izan bear dabe? Bai, Aita.

AZALDUEREA.

¿Noz eguin eta imini eban Jesucristoc Sacramentu au? Bere gorputza eta odola donequidatu edo consagrotaco escubide lenena dan aldetik, bere azquenengo aparico gaubean, Berac consagrau eta bere apostoloac comulgau eta bereala, esan eutsenean: «Eguizue au nire gomutan.»

¿Noz emon eutsen, Jaungoicoaren berbea adierazo eta Sacramentuac eguin eta emoteco escubidea? Bera ilen artetik biztua izan eta esan eutsenean: «Escubide guztia emon izan jat ceruan eta lurrean... zoace, iracatsi eguiocezue gente guztiai, bateatu eguiuez Aitearen, eta Semearen eta Espiritu Santuaren icenean.»

¿Cetaraco eguin eta imini eban Sacramentu au? Abadetasunari edo Eleizguizontasunari iraun eraguiteco eta iragoa izan ceiten guizaldi guztietara, eta bere bitartez guizaldi guztietako guizonezcoac eta andrazcoae artu eguztan, Jesucristoc, guerosiagaz, ecarri euzcuzan onera eta mesede guztiz aberatsac eta ugariac.

¿Ceintzue dira Abadearen coreguin eta eguiquizunac? Izatea bitartecoa, oparitzallea, emontzallea, iracaslea, berba baten esateco, Jesueristoren ordecoa, jarraitu eraguingo deutsana, Jesusec bere Aitagandic artu izan eban lanari, apostoloai esan eutsen leguez: «Ni neure Aitac bialdu ninduan leguez, alan Nic bialduten zaituedaz zuec.»

¿Cer esan gura dau bitartecoa izateac? Eleizguizona izan da la iminia, ceruaren eta lurraren artean bitarteko izateco, eta sinistedun guztiacgaitic eta premiña guztiacgaitic escatutecoa.

¿Ez dauque indar bardina, edocein guizonec nai emacumec eguiten dituezan erreguac eta escariac? Ezelanbere ez; Abade edo Eleizguizon ez danac, escatu eta erregututenean bere icelean, agirian alan eguiteco cereguinic ez escubiderie euqui baga; Abadeac barriz erregututenean eguiquizunez, Jesu-

eristoc iminirico Eleizcaren otseina leguez, Aita Beticoac beti entzuten deutsan Jesucristoren beraren ordecoa leguez.

¿Celan da oparitzallea? Bera bacarric izan dalaco deitua, Mezaco Opari Santuan esquiniteco, Opari garbia, santua eta orbanbagacoa dan Jesucristo.

¿Celan da emontzallea? Artu izan dabelaco, Sacramentuac egun eta emoteco escubidea, eta euren bitartez lagunduteco Jesucristori, arimac betico zorioneco eguitoco lan eta cereguin santuan.

¿Celan da iracaslea? Dalaco, ceruco bidetic guizon guztia et guiyau eta suendu bear dituzan argui-suciya; iracasten deutsela, egun bear dabeen ona eta egun bear ez dan charra, zoriantasun beticoa irabaci eta jarichiteco.

¿Celan da Jesucristoren ordecoa? Jesucristoren ordez eta bere icenean eguiten dabelaco guztia. Bateatuten badau, ez da bera, ezpada Jesucristo, bateatuten dabena; parcatuten badituz pecatuac, eguiten dan Jesucristoren icenean; eguiac adierazo eta iracasten badituz, ez dira bereac, ezpada Jesucristogandie artu izan dituzanac, esan al leiqueala: «Nic iracasten dodana, ez da neurea, ni bialdu izan naben Jesucristoren ezpada.»

¿Da orregaitic andia Abadearen duintasuna? Da, guizonari lurrean emon izan jaconic arrigarriena eta miragarrizcoena.

¿Beguiratu bear deutsegu lotsaz eta guizaonez Abadeai? Bai, lotsa eta itsal andi bat euqui bear deutsegu, eurac dirala-co Jesusen ordecoac, eta euren bitartez Jaungoicoac emoten deuzcuzan mesede eta onera guztiz andiacgaitie.

¿Celango pecatua eguiten dabe, Abadeai zor jaquezan lotsa, itsal eta guizaonari, utseguiten deutsenac? Igarria; ez bacarric guichitan euquiten dabeelaco. Eleizearen otseina eta Jesucristoren ordecoa dana, baitabere arimetako aita gurea dana.

Eta Abadea edo Eleizguizona bada donga eta charra, ¿cer egun bear dogu? Erruquitu bear gara, guizona danez, eta lotsa eta itsal andi bat izan bear deutsegu bere duintasun eta Abadetasunari; alderatu bear doguz gueure beguiac bere argaltasunetic eta onrau bear dogu bere eguinquizun eregui eta goratua; ause da, iracatsi onetic atera bear dogun onerea.

JAZOEREA.

Constantino Aguintari andiac, Apezpicoai edo Obispoai eta Abade eta Eleizguizonai enquiton eutsezan lotsa, itsal eta guizaona, ainbesterañocoac ciran ece, bein baten Batzar Santu batera joan zanean, ez eban jarri gura izan, bertan egozan Apezpico eta Eleizaco gurazo santuen aurrean, aric eta jarri ceitela aguindu eutsen artian; eta bere bicitzan bein baño sarrago esan oi eban:—«Gaitztaquerien bat eguiten eban Abadea, estaldu eta gorde gura leuqueala bere soñeco aguintaria-renaren beian, munduaren beguireunetatic zaindutecó.»

Iracatsi 22.^a—Escontzaco Sacramentua. Bere izatea.

¿Cetaraco da Escontzaco Sacramentua? Esconduteco eta esconduai gracia emoteco, alcarren artian baquean bici daitezan eta seifiac ceruraco aci daguiezan.

AZALDUEREA.

¿Noc eguin eta imini eban Escontzea? Jaungoicoae munduaren asieran baituera bat leguez, eta Jesucristoc eregui eta goratu eban baituera au Sacramentu izatera, emoten eutsala Eleizeari, Escontzea eguiteco escubidea.

¿Cer dator esan danetic? Balio andieco etorri bi: 1.^a da, bacarric Eleizeari, Sacramentu onen eta beste emparauen emontzallea danari, dagocola, Escontzearen gañeco gauzac ezagututea, eta beraugaitic escongaien cerceridadeac eta prestaerac icentetea; 2.^a cristinauen artian ecin alderatu leitequeala baituera Sacramentuagandic; alan bada, badago baituera eguiaz-coa, badago bere Sacramentua; eta ez badago Sacramenturie, ez dago ecer, neste edo alcartasun loi bat ezpada.

¿Errefluco escubideac aguindu leique cerbait Escontzearen gañean? Ecin ecer eguin leique, Sacramentua dan aldetic, Escontzeari dagocazan gauza sagraduen gañean; bacarric eguin leique munduco gauzen joanetorrien gañean, diran leguez, escongaiac escontzara eroaten dabeen ondasuna, ondasun onen jaubeguei nor izango dan, eta beste onelango gauza sagraduac oz dirauac.

¿Eta cer egun bear dabe cristinauac, charto deiturico matrimonio civila iminita dagoan lecuetan? Escondu bear dira, Jaungoicoae aguinduten daben leguez, arturic Sacramentua; eta guero bete leiquee, erreñuco legueac aguinduten dabena, etorri leitequezan burucomiña et calteac ez euquiteco.

Eta batu izan diranac, erreñuco leguearen orara, edo escondu izan diranac eragozpen escontza-deseguilleagaz (au isilecoa izan arren bere) egon leitequez baquean eta arimaco queza bagarie? Ezelanbore ez: Jaungoicoaren aurrean ez dagoz escondurie, eta bai aurquitutenean dira pecatu ilgarrian.

¿Cer egun bear da Escontzearen aurretic? Iru gauza; 1.^a egun bicierearen autuera eta artu gurazoen erechiona; 2.^a icashide cristinaucorraren azterrena; eta 3.^a deionae iracurtea.

¿Balio andicoa da biciera aututea? Ain andicoa da eeo, biciera ondo eta denporaz aututetic ozta beti dator bicitza onetako zoriontasuna eta gure arimen salbacinoe beticoa.

¿Cer egun bear dogu, biciera ondo aututeco? Erregu eta escari beroacaz succendu bear gara gueure Jaungoicoagana, eta gurazoai eta confesoreai escaatu bear jaque euren erechiona, norberaren griña charrai eta mundu onetako onera eta irabaini batbere jaramonic eguiten ez jaquela, eta bai obeto begiratutenean jaquela escongaien ontasunari, onoidadenei, erreliginoaganaco eta siniste santuagnaco inacurtasun eta zaletasunari.

¿Cetarao da, deionae edo eleizdeyac iracurtea? Jaquiteco ete dogoan senitasunen bat edo eragozpenen bat, Escontzen galerazo leiqueana.

¿Eta badagoz, eragozpenac aguertu eta esateco egunbearean, eurac jaquin ezquiero? Bai, pecatu ilgarriaren beian; eta ala ez eguitea da, esconduai curai calte andi bat eguitea.

¿Cergaitic egun bear da icashide cristinaucorrarenazterrena, escondu baño lenago? Celan escondea artuten dabeen euren gañean, euren semealabac ondo aei eta erreliginoeco gauzetan arguituteco eguinbear edo cereguin estua, jaquin bear dabe, ataraco jaquin bear dana.

¿Celango onerea atera bear dogu iracatsi onetic? Bicieraren autuereari beguiratutea balio guztiz andico gauza bateri le-

guez, gueure gogoan euquiten dogula erdaldunen esaera au
«Escondu baño lenago, beguiratu cer eguiten dozun.»

JAZOEREA.

Gurazo on eta Jaungoicoaren bildurrecoac ciranen alaba bateri emonic eutsan esconduteco berbea osaguille gazte batec. Estegüetaco eguna eldu basio amar egun lenago, osaguille gazteac bere escongaiaren amari erregutu eutsan, ichi egniola bacarrean berba eguiten bere alabeagaz. Amac ucatu eutsan, escatu eutsana, cirautsala: bere alabeac ez ebala bacarrean berba eguingo iñoz guizon hategaz bere.— «Orregaitic bere, barriro esan eutsan osaguille gazteac: ni lazter izango naz bere senarra, eta daucat isileco gauza bat, berari esan bear deutsadana.»— «Bere senarra zareanean, izango da ceurea, erantzun eutsan amac: bitartean nie zaindu bear dot neuro alabea.»— Orduan osaguille gaztea icusi zan, bere barruko gauza isilecoa aguertuteco premiñan, eta esan eutsan amari: berac ez ebala gura besterie ezpada aitatu eta esan bere alabeari, celan zan bere borondaten, biyac eguin eguien confesinoe pecatu guztiona, ondo prestau ceitezan, Escontzaco Sacramentu artuteco. Amac, au entzunic, pozez beteric laztanduten dau bere suina izango zana, edo suinguein, eta ichiten deutso bere alabeagaz bacarrean berba eguiten, eta biyne ain ondo prestau ceitecen. Amac aguindu eban, zortzi egunean esan ceitela Meza Santua, Jaungoicoac bedeineatu eguiar Escontzea; eta estegüetaco egunean biyac batera joan ciran gure Janna artutera, pecatuen confesinoe guztilaracou eguin izan eta guero. — Ceinbat dontsua goac eta zoriontsuagoac izango litzatequezan Escontzae eta mundueo alcartasunac, esconguei guztiac alan prestauro baliar, Escontzaco Sacramentu au artuteco.

Iracatsi 23.^a—Escontzearen azquenac eta eguinbearrac.

¿Andia da Sacramentu au? Alan iracasten dan San Pablo, dñoananean: «Sacramentu au da andia Cristogán eta Eleizegan.»

¿Cer esan gura dau orrec? Escontzea dala batuera santu bat, Jesucristoren eta Eleizearen artecoa leguez, eta beraugaitic, esconduac alcar maitetu bear dirala, Cristoc Eleizea maite daben leguez; eta celan Jesucristoc bacarric Eleizea ezagututon daben bere emaztetzat, eta Eleizea beti dan Jesucristorena, alan esconduac osoro eta beti izan bear dira bata bestearrenac; eta celan Jesucristoc ez daben ifoz deslaj ichiten Elcizea, eta Eleizea bere ez dan aldenduten Jesucristogandie, alan senarra eta emaztea beti alcarregaz bici bear dira eriotzara arteraino, bata besteagandie ifnozbere aldendu baga.

¿Ceintzue dira Escontzearen azquenac? Lenencac eta berarizcoenac dira bi: 1.^a bata besteari lagundutea, ez bicarrir luurreco gauzatan, baitabere eta batezberre arimacoetan, Jaungoicoa maitetu eta arimac betico zorionecko eguitoco aleguinac, alcarren artian eguiten dituezala; 2.^a semealabae cerurako ondo acitea, eta egninbear au ez dabe ondo beteco, bacarrir beguiratuten badentse lurreco premiñai, eta ez badauque, Jaungoicoaren bildurrean eta cerurako bidean aciteco ardurario.

¿Celango cerceridadeac euqui beardira, Sacramentu au eguiaz eta benetan artuteco? Escongaiac ezagutu bear dabe cer eguiten daozan, euqui bear dituez icentaurico urteac, borondate eguiazcoa, eta escondu bear dira Arimazainaren eta ieuslen aurtean.

¿Eta Sacramentu au, duinoro, au da, pecaturic egin baga, artuteco, cer gueiago bear da? Esan danaz gañetic: 1.^o Jaungoicoaren baquean eta gracian egotea, dalaco bicien Sacramentua, eta orregaitic confesau eta comulgau bear da, artu bafio lenago; eta 2.^o euqui bear da asmo artez eta suen bat, ondo gogoraturie, Tobiasec bere emazte Sarari osaten eutsanu: «Gu gara santuen semaia: ecin escondu gneintequez, Jaungoicoa ezagututon ez dabeen gentilaac leguez.»

¿Celango eguitadeac eguiten dituz Sacramentu onec? Lenengo, gueitnten dau gracia santuegintzallea; 2.^o, eguiten dau alcetasun urratuecingarri bat esconduen artian, Jaungoicoac berac ezpada bestee ascatu eta urratu ecin leiqueana; eta

3.^o, emoten dituz, esconduen cereguinac eta eguinbearrac ondo betetaco laguntasun eta graciac.

¿Cer esan gura dau, escontzan eguiten dan elestunen bendecinoac? Esconduac alcarri cuqui bear deutsen leiyaltasuna.


¿Cetaraco dira, escontzea eguin eta bereala esaten dan Meza Santuac eta eguiten diran bendecinoe escontzacoac? Jaungoicoari escatuteco ugaritasun santu bat eta beste gracia batzuc esconduentzat.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Escontzeari begiratutea biciera santu bateri leguez, ceñetan esconduac santutu bear dabeen, ondo eta ciatz beteric euren eguinbear eta cereguinac, eta euren biciera santu eta onagaz euren semealabai onbidea emonic.

JAZOEREA.

Eche bateco escondu batzuc bici ciran, euren artian guztiz icaragarrizcoac ciran aserre eta burruca gueratubagacoetan. Eche atan bici zan guizon butec, jaquinic ondo cer jazoten zan euracaz, egun baten urten eban bere guelatic eche ondoko lecu batera, senar eta emazte areec iñoz baño aserretuago ebilzanean, eta bere indar guztiagaz asi zan dearca esaten: «Suba, suba.» Escondu areec, bereala ichiric alde batera, erabilen atralacada, aserre eta burruqueari, urtetan dabe euren bicilectic, nun zan suba jaquiteco gogo eta asmuagaz. Euren ausoco guizon arec erantzun eutsen, cirautsela:—«Infernuan dago isioturie suba, betico aserre, burruca eta gorrotoan bici diran esconduentzat.»





BOSTGAREN ZATIYA.

Char-oidadeac eta On-oidadeac.

Iracatsi lenengoa.—Char-oidadea guztieran. Char-oidade sustraizcoac.

Esan equizuz sustraizeo pecatuæ.—Dira zazpi: 1.^a andiqueria; 2.^a cicozqueria; 3.^a loiqueria; 4.^a aserraqueria; 5.^a guleria edo jatumqueria; 6.^a ondamua edo bacaizqueria; eta 7.^a naguiqueria. Pecatu oncec, gueienean ilgarriac izanic, ¿celan deituten jaque sustraizcoac? Sustraizeonc deituten jaque, eurotatic ernerico beste pecatu batzen buruac, iturriac eta sustraiac leguez diralaco; ez jatorque barriz ain ondo pecatu ilgarrien icena, bada ascotan arriñac baño ez dira. ¿Noz dira ilgarriac? Jaungoicoari eta lagunari euqui bear jaquen maitetasunaren ausialdietan. ¿Noz austen dabe maitetasuna? Eurocgaitic Jaungoicoaren aguinduaæ eta Eleizacoæ gauza andian austen diranean. ¿Cer da andiqueria? Inor baño gueiago izateco gurari bidebagacoa. ¿Cer da cicozqueria? Da ondasunen gurari gueiyegui bat. ¿Cer da loiqueria? Da araguizco zantarquerien eta ntseguin loiyen gurari erabagaco bat. ¿Cer da aserraqueria? Benguetako gurari oquer bat. ¿Cer da guleria edo jatumqueria? Jateco eta edateco gurari gueiyegui bat. ¿Cer da ondamua edo bacaizqueria? Besten ona icusiecin. ¿Cer da naguiqueria? Gauza onac eguitoco jausitasuna edo atzerapena.

AZALDUEREA.

¿Cer da char-oidadea? Da charreraco oiturea, ecandua, macurtasuna edo zaletasuna, edo Jaungoicoaren leguearen contraco eguiquerac eguitea.

¿Ceinbat eratacoa izan leiteque? Berezcoa eta norberae arturicoa.

¿Cer da char-oidade berezcoa? Gure izate argal eta zaurituac charreraco enqui daroan macurtasuna, eta onegaitic minduten zan Apostoloa, esaten ebanean: «Jaungoicoaren legueac atseginduten nau, baxia icusten dot beste legue bat neure gorputzeo aldetan, nire borondatearen contracoa dana, eta pecatura naroana.»

¿Char-oidade berezcoa pecatu da? Ez; pecatu ez dan leguez, pecatu egun al izatea; eta bai lenago irabasten dira ceruraco garaitza eta merocimentuac, char-oidadeari jarqui eta gogor egun ezquiero aleguin guztiagaz.

¿Cer da norberae arturico char-oidadea? Pecatu mueta batzuetan sarri jausiagaz, eguiten dana, berbaraco, ordituteco ecandua edo zaletasuna, sortu eta eguiten da edan larreguiian eta gueieguian sarri jausiagaz.

¿Char-oidadea beti da pecatu ilgarria? Jaungoicoaren leguea gauza andian austera eroaten bagaituz, eta aleguinac eguiten ez badoguz, bera azpiratu eta goituteco, gueituten dau peccatuaren anditasuna; berari jarqui eta gogor egun arren bere, nozbait bagara goituac eta jansten bagara peccuan, guichitu eta arinduten dau peccatuaren aztuntasuna; pecatu eguiten bida bearreco ezaupera baga, azpiratu eta goitu gura dogun ecandu char edo char-oidadearen indarrez, izan leiteque, peccatu ez izaten; Jaungoicoaren leguea bacarric gauza chiquian edo urriean austera eroaten bagaituz, izango da peccatu ariña.

¿Bardin da norberae arturico char-oidadea cein da peccatua? Ez; peccatua da, leguea austen daben eguiquera guztia, eta onetaraco asco eta naicoa da eguiquera bacar bat; ecandu charra edo char-oidadea da peccaturako erraztasuna edo macurtasuna, mueta bateko peccatuac sarri eguinagaz sortu eta eguiten dana.

¿Badago beste desbardintasunie ecandu charraren edo char-oidadearen eta pecatu ilgarriaren artian? Bai: pecatu ilgarria da, Jaungoicoagazco baquean eta gracian batera egon ecin leitequena, eta beraugaitic, pecatu ilgarrian dagoana, ecin sartu leiteque ceruan; ecandu charra edo char-oidadea barriz egon leiteque Jaungoicongazeo baquean eta gracian batera, eta berangaitic, ecandu charrugaz dagoana, joan leiteque cerura, pecatu ilgarirrie enqui ezie.

Azaldu eta adierazo eguizu ori irudi bateganz.—Guizon batetee gorrotau eta autortuten dau, bear dan leguez, herac daucan ecandu char edo char-oidadea, barriro pecaturic ez eguitoco gogo eta nsmo sendoagaz; prestaora on onetan dagoan artian, eta beste pecaturic ez daucan artian, egongo da Jaungoicoagazco baquean eta gracian, pecaturaco macurtasuna, ecandu charra eguiten dabena, galdu ez arren bere.

¿Celango ecandu char edo char-oidadetatic iguez eguiñ bear dogu arduraric berarizeoenagaz eta andienagaz? Aita Astetec aitatu eta azaldutene dituzan, eta beste ecandu char ascoren sustraiac eta buruac leguez diran zazpi sustraizcoagandie.

¿Cer eguiñ bear dogu, ecandu char orrengandic iguez eguiñ? Eguiñ bear dogu alegtiñ guztia, euren contracoac diran on-oidadeac artu eta guenganduteco, gracia cerucon lagun dogula, eta ontasuneko eguiquera asco eguiten doguzala; eta ausse da, iracatsi onetic atera bear dogun onerea.

JAZOEREA.

Guizon batetee, bere soloan edo campoan ebillela, aurquitu eta artu eban, ciraunez beteric egoan abiya bat eroaten dituz bere echera ciraun ain arrizeugarrizcoac, eta jaten emoten deutse arduraric andienagaz. Andie iru astera joan zan eche atara bere adisquide bat, bera icustera:—¿Cer eguiten dozu? esan eutsan adisquideac guztia arrituric eta icaraturic; ciraunac, chiquiac eta gaztechuac dirala, itoten ez badituzuz, eta eurai jaton emoten jarraituten badozu, lazior eta bereala acico dira, aguinca eguingo deutzue, eta galduco zara, zurtasun guichi daucenzulaco. Ichi eguiñezu orrelango leloqueriai, erantzun

eutsan guizonac bere adisquideari, oraïndic chiquiae dira, eta bestetic artuten ditudaz euracaz bearreco ardurac; andiac eta arrizcugarrizcoac diranean, eguingo dot aleguina, eurac ito eta neure beguien surretic quenduteco.—Uste larregua eta gauza charra da ori, artuco zaituez, uste baga zagozala...—Eein ezagutu eraguin al izanic adisquideac guizon ari alaco arrizeuaren anditasuna, alde egun eban eche atatic, baña bere barruan quezca andi bat eroiala. Andic amabost egunera joan zan adisquidea guizon a barriro icustera, eta orra nun aurquiteten daben guztizeo min andiacaz; ciraunae aci ciran eta aguinca egun eutsen guizonari; adisquidea bereala usiten da osagarriaren billa, baña belu zan; pozoiac edo benenoac indar andiac artu cituzan orduraco, sartu zan biotzeraño, eta guizon ardura guichicoa il zan bere adisquidearen besoetan.—Ausse da ascogaz jazoten dana: guztioe darabilguz gueñe barruan grīña eta pecatu guztien sustraiac; ez badaueagu eurac itoteko ardurea, chiquiac diranean, eta eurai atseguiñ emon eta janrituten badoguz, acico dira, eta azqnenean ilgo dabe arimea, pecatu ilgarrian jausi eraguinagaz.

Iracatsi 2.^a—On-oidadeac guztieran.

Esan eguidazuz zazpi char-oidaden contracoen zazpi on-oidadeac. Bai, aita, eta dira: andiqueraren contra, umiltasuna; ci-cozqueriaren contra, prestutasuna edo emongurea; loquieraren contra, garbitasuna; aserraqueriaren contra, onez iragotea edo eropena; guleriaren edo jatunqueriaren contra, jan-edanean beguiratun izatea; ondaluaren edo becaizqueriaren contra, amodioa edo maitetasuna; eta naguiqueriaren contra, prestutasuna. ¿Ceinbat dira Jaungoicoaganaco on-oidadeac? Iru, eta dira oneec: Sinismena, Icharopena eta maitetasuna.

AZALDUEREA.

¿Cer da on-oidadea edo virtutea? Guizona ontasun osora croaten dabena, eta gauzac ondo eguiten lagundutzen deutsana.

¿Ceinbat eratacoac izan leitequez on-oidadeac? Berezcoac eta izatez gañeticoac.

¿Cer da on-oidade berezcoa? Ontasunaren asiera berozeotic urtenic, azquen berezco batera succenduten dana; berbaraco, guizonen arteco premiñac ienstetic sortu eta jaiotetan erruquitasun berezcoa.

¿Cer da on-oidade izatez gañeticoa? Cergaititasun izatez gañetico batetie urtenic, azquen izatez gañetico batera succenduton dana; berbaraco, Jaungoicoaganaco maitetasunaguitic enquiten dan prestatasuna, premiñan dagoanari lagunduteco, gueure pecatuen zorren orderaco, eta beste onelango gauza izatez gañeticoac.

¿Beste ceintzue erataeoac izan leitequez on-oidadeac? Jaungoicoac guri emonac eta gueuc gueure aleguinez artuac.

¿Ceintzue dira, Jaungoicoac guri emonac? Jaungoicoac gure arimetan isuri, incau eta ezarten dituzanae, guec gueure aldetik ecer egunin baga; eta an batezbere eguiten da Sacramentuen bitartez.

¿Ceinzue dira, gueuc gueure aleguinez artuac? Jaungoicoaren gracia lagun dogula, eta mueta bat bateco eguiquera on-oidadetsuac sarri eguninagaz, irabaci, jarichi eta gucuganduton doguzanae.

¿Beste cein desbardintasun aurquituten da, on-oidade Jaungoicoac emonicoen eta gueure aleguinez arturicoen artian? Guec gueure aleguinez arturico on-oidadeac, sortuton dabe eta dardare erraztasuna edo macurtasuna, eta Jaungoicoac emonicoac, ez; bada oneec obeto dira prestaera oitucorrac, on-oidadeko eguiquerae eguiteco.

¿Beste ceinbat erataeoac izan leitequez on-oidadeac? Adinari dagocazanac, eta adinaren ontasunari beguiratuten deutsonac; oituracorrac, eta oneec dira, oituren ontasuneraco diranac; eta Jaungoicoagazcoac, eta oncee dira, Jaungoicoaganeo alcartasuna edo batutasuna eguiten dabeenac.

¿Celango desbardintasuna aurquituten da, Jaungoicoagazco on-oidaden eta beste emparauen artian? Jaungoicoagazcoac guec gueure aleguinez ecin irabaci eta gueugandu guinaiquez, dagoz guizonaren alizatearen gañetic, eta beraugaitic, euren ez beti dira, Jaungoiconen emonac; beste emparauac izan leitequez

aleguinez irabaci eta artuac, eta baitabere Jaungoicoac gure arimetan isuriac eta ezarriac.

¿Ceintzue dira on-oidaderic ederrenac, ereguienac eta goratueneac? Jaungoicongazcoac, eta oneen artian da maitetasuna.

¿Ceintzue dira on-oidaderic ederrenac, ereguienac eta goratueneac oituracorren artian? Asigarriac edo lenenac derichoenac, eta oneen artian da sucentasuna.

¿On-oidade oituracorrac aurquitu leitequez guizonagan, batzuc euqui eta besteac euqui bagarie? Oso osoan onac badira, ez, eta alan bat galdu ezquiero, galduen dira beste guztiac; ez badira guztiz osoac, edo badira macurtasun berezcoac, bai; bat izan leiteque erruquiorra, eta demporean berean izan leiteque naguia eta alperra.

¿Celan galduen dira on-oidadeac? Suceen galduen dira, on-oidadearen contraco gauzac eguinagaz; ez sin sucen, on-oidadeac iracasten dabeena ez eguinagaz.

¿Gracia galdu ezquiero, galduen dira on-oidade oituracorrac? Oso osocoac edo izatez gañeticoac badira, bai; guztiz osoac ez badira, edo macurtasun berezcoac badira, ez.

Jaungoicoagazco on-oidaden eta bacocharen biciereari dago-
cazanen ostean, ¿cein da oituraeorren artian, gure gueiagotan
euqui bear doguna? Dancagun grifa edo ecandu charraren
contracoa dan on-oidadea; eta ausse da, iracatsi onetic atera
bear dogun onerea.

JAZOEREA.

San Francisco Sales-coac diño: «Erlen erreguiñac ez dabela iñoz urtetan campora, bere erle-lagunac eta otseinac beragaz eroaten ez dituzala; eta caridadea edo maitetasuna ez dala iñoz sartuten biotzean, beste emparau on-oidade guztiac beragaz ez daroazala. Gure eguinbear berarizcoari ez dagocozan onoi-
dadaren artian, gueiagotan euqui bear doguz, ereguienac diranac, eta ez arguitsuenac diranac; sendoenac diranac, eta ez ede-
rrenac diranac. Ondo da, bacochac on-oidade berarizco bat euquiteco aleguinac eguitea, ez beste emparau on-oidadeac deslai leguez ichiteco, ezpada arimea menderatuago euquiteco.

Ecandu charren bat azpiratu eta goitu gura dogunean, bere contraco on-oidadea euquiteco aleguinac eguin bear doguz, onetara sueenduten doguzala beste emparau on-oidadeac; baina onelar ez bacarric goitueo doguz gueure arerioac, baitabere eguingo doguz aurrerapen andiac on-oidadeco bidean. Burrnea eguin bear badogu andiquerriaren eta aserraquerriaren contra, macurtu eguzizue ceuen biotza umiltasunagana eta gozotasunagana, sucendu eguzuez onetara ceuen escari eta erreguaec, Sacramentuac, eta beste emparau on-oidadeac, diran legnez zurtasuna, iraupena, jan-edanean beguiratua izatea eta beste emparauac.

Iracatsi 3.^a—On-oidade asigarriac edo lenenac.

Esan eguzuz on-oidade asigarriac edo lenenac.—On-oidade asigarriac edo lenenac dira lau: 1.^a zurtasuna; 2.^a sucentasuna; 3.^a sendotasuna; eta 4.^a beguiratua izatea.

AZALDUEREA.

¿Cergaitie derichoe asigarriac edo lenenac lau on-oidade onei? Diralako on-oidade oituracor guztien asiera eta jatorriae leguez.

¿Cer da zurtasuna? Da on-oidade bat, iracasten deuzezuna, cer dan ona eta Jaungoicoaren gogocoa, ceintzue diran, gauzac ondo eguiteco bideac, noz, nun eta celaeo cerceridaeacaz eguin bear diran, gure eguiquerae izan daitezan osoro eta guztiz onac.

¿Ceintzue on-oidade dira, zurtasunaren alabac legnez euquiae izan bear diranac? Lenie-icustea, mesodeac edo calteac igarten dituzana; senorea, gauzac eldutasunagnz neurututene dituzana; artustea, eguinbideric adjutuenac eta egoquienac aututen dituzana; norboragan uste guichi euquitea, eta jaquitunen erechi eta osanai erraz eta lazter jarraitutea.

¿Ceintzue dira zurtasunaren contraco ecandu edo char oida-deac? Urduritasuna, gogoarteric-eza, deslaya, eta zurtasunic-eza; eta baitabere zurtasun araguicorra, astucia edo gaizgandaea, engaña, malmuzqueria eta lurreco gauzaegianaco ardura larreguia.

«Cer da sucentastuna? Da on-oidade bat, bacochari berea emotera aurreratu eta cirquinduten gaituzana.

«Ceintzue on-oidade dira sucentasunaren alabac? Erreligioa, Jaungoicoari zor jacona emotera, aurreratu eta cirquinduten gaituzana; biotz-euquierea, senideai zor deutseguna eguitera, aurreratu eta cirquinduten gaituzana; esanecotasuna, nagusiagoai eta zarragoai zor deutseguna eguitera, aurreratu eta cirquinduten gaituzana; ezquer-ontasuna, onguillai eta mesedeguillai zor deutseguna eguitera, aurreratu eta cirquinduten gaituzana, eta adisquidetasuna, adisquideai zor deutseguna eguitera, aurreratu eta cirquinduten gaituzana.

«Ceintzue ecandu edo char-oidade dira sucentasunaren contracoac? Jaungoicoaganaco eta besteacganaco daueaguzan eguinbearrac eguitera, atzeratutene gaituezanne, diran leguez biotzberabacotasuna, erreliginoebacotasuna, gurazoacganaco gogortasuna, ezquerbacotasuna, esancharrecotasuna, eta, guztia batera esateco, oquertasun guztia.

«Cer da sendotasuna? Da on-oidade bat, ondo eguin eta gueure eguinbearrac bete bear doguzanean, aguertutene jacuzan eragozpenac, gachtasunac eta arrizeuac azpiratu eta goitutene, lagunduten deuzcuna.

«Ceintzue on-oidade jaiotene dira sendotasunetic? Uste betea, arrizeuai arpegui emoten deutsena; arimandigoa, eguiquera andiac eta goratuac eguiteco aurrerabidea emoten dabena; equiñandigoa, gura dan gauzea jarichi eta alcantzetaco, bearrrecoac diran eguinbideac lazter iminteco, aurreratu eta indartutene dabena; iraupena, azqueneraño lana eguiten, lagundutene dabena; eta eroapena, bicitzaco eragozpenac, atsecabeac eta naibagueac onean eta baquean iragoteco, indartu eta aurreratutene dabena.

«Ceintzue ecandu edo char-oidade dira sendotasunaren contracoac? Gueiyeguiac diran aldetic, bildurbacotasun larregua, azartasuna, arrotasuna eta antustea; eta guichieguiacl diran aldetic, bildurra, biotzeco-jausitasuna, epeltasuna eta munduko esamezacganaco bildurra.

¿Cer da beguiratua-izatea? Gorputzeco sentzunac eta atseguiñae ondo neurtu eta suenduten dituzana.

¿Ceintzue on-oidade jaioten dira beguiratua-izatetic? Janurritasuna, janari bearrecoac bucarrie artutten, iracasten daben; edan-nirritasuna, edarietan neurria izaten, iracasten dabena; garbitasuna, araguiaren atseguiñac eta gozotasunac euren neurriean enqui eraguiten dituzana; moduztasuna, guizonari gano-ra onean ibili eta gauzac eguiten, iracasten deutsana; umiltasuna, aguerturic guri gueure ecerezlastuna eta argaltasunac, ezagutu eraguiten deuzezuna, gu gagozala Jaungoicoaren mendean eta premian; eta gozotasuna, arimaco urduritasunac oei eta menderatuten dituzana.

¿Ceintzuc ecandu edo char-oidade dira on-oidade onen contracoac? Beguiratua-ezizatea, ordiqueria, loiqueria, andiqueria, eta eurogandie datozañ beste emparau guztiac.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Celan guizon zur eta jaquitun batec eguiten daben aleguin guztia, bere echea cimentu onetan egun eta jasoteco; alan gue egun bear dogu aleguin guztia, on-oidade oneen cimentu gogor eta sendoa aurquituteco eta bere ganean gure arimaco eche ona eguiteco.

JAZOEREA.

Gauñee dino: «celan dagozan amar aguindu, ceintzuetara suenduten diran beste emparau guztiac, alan dagoz amar on-oidade, ceintzuetara suenduten diran beste emparau guztiac; (on-oidade oneec dira iru Jaungoicoagazcoac, iru adincortiac eta lau asigarriac edo lenenac) eta celan dagozan iru aguindu, Jaungoicoaganaco daucaguñan eguinbearrac iracatsi eta suenduten dituezanac, eta beste zazpi aguindu, gue gueuganaco eta besteaguanaco daucaguñan eguinbearrac iracatsi eta suenduten dituezanac; alan dagoz iru on-oidade, Jaungoicoaganac suenduten diranac, eta zazpi gueugana eta besteagana suenduten diranac. Eta azquenez, celan aguindu guztiac dagozan sarraturic caridadeco edo maitetasuneco aguinduan, alan on-oidade guztiac suenduten dira eta dagoz sarraturic, on-oidade guztiak asiera eta azquena da maitetasuneco on-oidadean.

Iracatsi 4.^a— Arimearen arerioac: esetsiyac.

¿Ceinbat dira arimearen arerioac? Iru: mundua, demoninoa eta araguia. ¿Cer aditu bear du mundua esanagaz? Quizacume gaito, donga eta nasaiyac. ¿Nor da demoninoa? Jaungoicoac ceruraco egunico ainguero bat, guero Jaungoicoari berari jarqui eta machinatu jacobaco, bere lagunacaz betico infernuan ondatua izan zana. ¿Cer da araguia? Gure gorputz au berau bere grifa eta macurtasun charracaz. ¿Celan goitu eta iguez eguiten da munduagandic? Bere andiqueriai eta arroqueriai jaramon eguin ezagaz. ¿Celan goitu eta iguez eguiten da demoninoagandic? Erreguagaz eta umiltasumagaz. ¿Celan goitu eta iguez eguiten da araguiagandic? Au goitu eta beragandic iguez eguiten da latztasunacaz, ecigarriacaz eta barauacaz; ausse da areriorie andiena eta bildurgarriona, gueugandic ecin bota guinaiquealaco, mundua eta demoninoa leguez.

AZALDUEREA.

¿Cer da esetsiya edo tentacinoa? Da pecaturaco cirquinga rria edo biztugarria, munduagandie, demoninoagandic edo araguagandic jaio eta etorri leitequeana.

¿Ez dino bada Escritura Santune, Jaungoicoac esesten dituzala bere serbitzallac? Esaten da, Jaungoicoac esesten dabela, bai Berac gure arimen oneraco ichi eta laquetuten dituzalaco gure arerioen esetsiyac edo tentacinoa, odo bai Berac ondo icusi gura dabelaco gure baraganaco leiyaltasuna edo amodia, guri gauza gachac eta neque andicoac escaturic; eta osangura onetan esaten da, Jaungoicoac esetsi ebala, au da, icusi ebala Abraham-en leiyaltasuna.

¿Essetsiya pecatu da? Essetsi batberoz ez da pecatu, danie lucena eta eragoquienak izan arren bere, araguiari cirquinak bat eraguitara eta arimeari atsegui ustebagacoren bat artu erauguin arren bere.

¿Noz izango da bada pecatu? Bacarriz borondateac bere naiya edo baiya emoten dabenean, edo ezauperazco atseguiak arautzen dabenean pecatuan, pecatua egitez eguin ez arren bere.

¿Esetsiac enquitea da arima charto dagoankaren ezaugarria? Guztia da bestera; esetsiac enquitea da, on-oidadeco bidean eta ontasunearrak aurrerapenaceguingura dituezan arimai dagocoena; alan diño San Pablo: «Jesucristogar biotzberaro biei gura dabeen guztiac, iragoco dituezala esetsiac.

¿Cergaitie alan? Gauza berezcoa daino, demoninoae baquean ichi daguioela, bere bereac diran arima charrai, eta suncendu daguizala bere esetsiac ota indarrac Jaungoicoaren serbitzalla eguiazcoaegana; celan dan gauza berezcoa, araguia muquertu eta jagui daitela, bera azpiratu, eci eta menderatu gura dauen, eta egon daitela baquean, utseguin guztiac artutzen, berari ichiten jaconeak; eta celan dan gauza berezcoa, munduac maitetu daguizala, bere bereac diranac, eta gorrotan daguizala, Jesucristorenac diranac.

¿Cergaitie ichi edo laquetuten dau Jaungoicoa, gure arerioae gu esetsi gagniezala? Batezberre bost gauzataraco: 1.^a gure beraganako leiyaltasuna icusteko; 2.^a arimako lanetan guri biarra eraguiteko; 3.^a gure umiltasuneraco; 4.^a gure eguiñsari-raco; eta 5.^a gure zoriontasuneraco.

¿Celan dira esetsiac, gure Jaungoicoaganako leiyaltasuna icusteko? Eurac aguirian iminten dituezalako Jaungoicoaren serbitzallen leiyaltasuna, eroapena, maitetasuna eta sendotasuna. Alan esetsien bitartez argui eguin eben Job-en eroapenac, Abraham-en leiyaltasunac, martiren sendotasunac eta santu guztien eguiquera miragarriac.

¿Celan dira, arimako lanetan guri biarra eraguiteko? Cergaitie celan soldadua, guerra-demporan, beti egoten dan zur, guertu eta prest; alan arima leiyala bieiten da ardura eta berotasun gueiagogaz, arerioz inguruturik eta esetsiz beteric icusten danean.

¿Celan dira gure umiltasuneraco? Esetsiac aguertutene deuzcuezalako gueure ecereztasuna eta argaltasuna, eta eroaten gaituezalako, indarra eta laguntasuna Jaungoicoagan billatutera.

¿Celan dira gure eguiñsari-raco? Azpiratua eta goitua dan esetsi bacozagaz, indartu eta sendatuten da, bere contracoa

dan on-oidadea, eta emoten deuzeulako graciaren gueitupena eta irabaci barri bat ceruco zoriontasumeraco.

¿Celan dira gure zoriontasuneraco? Eein egon leitequealako aroric edo coroaric, garaitza bagaric; eta garaitza egoteco, egon bear dabe burruac, gudac eta esetsiac; alan diño A postoloac «ez dala izango arotua edo coronaua, ondo burruean eguinie, azqueneraño irauten dabena ezpada.»

Au onelan dala ¿gueue billatu bear gueunquez esetsiae, edo curae euquiteco aleguinac egui bear gueunquez? Ecelanbere ez; ori izango litzateque autusto eta arroqueria andi bat euquitea, Jaungoicoac ondo castiganco leuqueana, pecatuan jausten guri ichiagaz.

¿Bada ecelan artu bear dira esetsiac? Umiltasunagaz eta bildur osagarriagaz, ozagututen dogula gueure argaltasuna; baña dempura berean iminten dogula gueure uste guztia, gueuro oneraco laquetuten dituzan eta deslai ichico ez gaituzan Jaungoicongan, eta gueure aldetik aleguina eguiten dogula, gueure indarracaz, ceruco laguntasunacaz eta icharopen osongaz azpiratu eta goituteco osetsiac eta tentacinoac.

¿Celango eguiac euqui bear doguz gueure gogoan, esetsiac edo tentacinoac etorten jacuzanean, deslaituric eta quiquilduric eta guztiz larrituric ez gueratutecio? Urrengo oneec: 1.^a gure arerioac ecin esotsi eta estutu guinaiquezala gu, Jaungoicoac eurai laquetu edo ichiten deutsen baño gueiago; 2.^a Jaungoicoac ez dabela iñoz laquetu edo ichico, gu izan gaitezala esetsiac eta estutuac, gure indarrac al dabeen baño gueiago; 3.^a eguinie gue gueure aldetik aleguin guztia, Jaungoicoac ez deuzeuzala ucatuko, esetsiac azpiratu eta goituteco bear doguzan laguntasun eta gracia; eta 4.^a demoninoa ecingo dala sartu iñoz gure ariman, gue gueure guraz eta borondatez edegui eta zabaldutenez ez badeutsagaz gueure barruko ateac.

¿Celaco eguinbideac artu bear doguz, esetsietan edo tentacinoetan ez jausteko? Ez dogu imini bear uste larreguiric gueure indarretan, eta bai euqui bear dogu uste audi bat Jaungoicongan; erregu beroac egui eta escatu bear dira cerueo laguntasunac; egui bear da aleguina, esetsiac lenengo unetic

gueugandie botateco, eta dempora egoquian gueure confeso-
reari curae aguertuteco; eta onczaz gañera, imini bear dira,
Aita Astotec dacarzan osagarriac, gogoan enquiric coin dan
azpiratu bear dan arimearen arerioa.

¿Cein da, iracatsi onetic atera bear dan onorea? Beti zur eta
erreguacaz indarturic eta sendaturic aurquitutea, Jesucristoc
berac dirauzeun leguez, esetsi edo tentacinoan ez jausteco.

JAZOEREA.

Essetsi edo tentacinoe estu, luçē eta bildurgarrizeo bat irago
izanie Santa Catalina Sena-coac, aguertu jacon Jauna berari,
eta Santeac esan eutsan: «¿Nun cengozan, neure Jaun gozoa,
nire biotza ainbeste iluntasunez eta loitasunez beteric icusten
zanean?—Zuro biotzaren barruan nengoan ni, neure alabea,
erantzun eutsan Jaungoicoac.—¿Celan bici al ceintequzan, ba-
rriro esan eutsan Santeac, nire biotz ainbeste ezaintasun eta
ciquinqueria eueazanagan? ¿bici al zara zu leeu ain itsusietan
eta loiyetan?—Eta gure Jaunac esan eutsan: Esan eguidazu:
gogoracinoe loi orreec ¿poztuten cinduezan ala estutasuna
emoten eutzen?—Estutasun eta larritasun guztiz andi bat,
erantzun eutsan Santeac. —Bada noc artu eraguiten eutzuzan
estutasun eta larritasun ori, eeure arimabarruan escutaniric
nengoan neuronec ezpada? Sinistu eguidazu; ni aurquitu ez
banitz an, zure biotzaren inguru, sarta ecinie ebilzan go-
goracinoe char orreec, sartuco eiran, eeure borondatearen nai-
yagaz eta baiyagaz, eta ilgo eben arimea.

Iracatsi 5.^a—Almenac eta sentzunac. Latztsunac.

Esan eguiuz gorputzeco sentzunac.—Dira bost: lenengoa,
beguinacaz icustea; bigarrena, belarriacaz entzutea; irugarrena,
aoagaz dastatu edo guztoartutea; laugarrena, surracaz usain
eguitea; bostgarrena, escuacaz uentutea. Sentzunac eta oste-
rantzeco beste zati gorputzecoac, geetaraco emon euzuzan
Jaungoicoac? Guztiacaz eta gauza guztieta bera serbietaco.
Esan eguiuz arimearen almenac:—Dira iru: lenengoa, gomu-

tea; bigarrena, adina; irugarrena, borondatea. ¿Cetaraco emon euzcun Jaungoicoae gomutea? Gomuta gueintecen beragaz eta bere mesede guztiacaz. ¿Cetaraco emon euzcun adina? Ezagututeco gueure Jauna eta bera gogoan erabilteco. ¿Cetaraco emon euzcun borondatea? Bera maite izateco, onic andiena leguez, gauza guztien gañean, eta beragaitic gueure laguna, gueure burnac leguez.

AZALDUEREA.

Baldin Jaungoicoac emon beuzcuzan arimearen almenac eta gorputzeco sentzunac, bera serbiu eta maite izateco, ¿celan da bada, guztiac charreraco macurturic egotea, eta Jaungoicoaren gogocoac diran gauzac eguiteco, ainbeste atzeracuntza enquitea? Asieran ez zan izan alan; bada guizonac ondo eta sucen eguinie urten eban Jaungoicoaren escuetatic; pecatu izan zan, oquertasun eta neste char ori ecarri cituzana.

¿Bada celan egun eban Jaungoicoac guizona? Graciaco eta sucentasun oso bateco egoera izatez gañetico baten, ceñetan guztia egoan guztiz artez eta sucen, araguia arimearen mendean, grifiac errazoiaren azpian, eta errazoa Jaungoicori menderaturic.

¿Celango gach-eta calteac egun cituzan pecatuac guizonaren izatean? Ceruco gracia eta doe izatez gañeticoac galdu oraguinagaz gañera, gueratu zan zañituric bere izatecorretan; adina iluntasunez inguruturic, borondatea charrera macurturic, grifiac eta gurariae errazoiaren contra jaguiric eta araguia arimeari jarquiric.

¿Bada ez dira parcatuten bateoagaz pecatu jatorrizcoa eta bere ondorengo guztiac? Parcatuten dira pecatu jatorrizcoa eta norberac eguinie duncazan pecatu guztiac, eurocgaitie zor dan castigu guzti guzti parcatuagaz batera; baña gueratuten da uaieraguillearen jarquierea, umiltasuneraco, burrucaraco eta indartsuen irabaci eta garaitza gueiagoraco.

¿Cein da, pecatuaren gach eta calteac osatuteco, berarizcoa dan on-oidadea? Latztsasuna, Jesucristoe aguinduten dabena, diñoanean: «Norbaitec etorri gura baldin budau nire atzetic,

bera berari neatu beitequeo, artu begui curutzea, eta jarraitu beguit.»

¿Cer da latziasmu? Naieragnillearen grillen eta gurarien errazoiagazco alcartasun eta joabide suen bat, Jaungoicoaren borondatearen erara.

¿Ceinbat eratacoa izan leiteque latztasuna? Norberae artua eta norberae gura izan baga, etorriya.

¿Cetan dago, norberae gura izan baga, etorririco latztasuna? Pozie, edo beintzat onean eta eroapenagaz, iragotean, gueuru borondatea baga jazoten jacuzan oquerrac eta nequeac; diran leguez gosea, otsa, beroa, gueisotasunac, samintasunac, ese tsiac, eta beste onelangoac; eta baitabere norberaren bicieraco eguinbearrac ondo eta ciatz betebeurrac beragaz dacarzan nequeac eta gachtasunac.

¿Cetan dago, latztasun norberac artua? Nequetsua eta min garria dana, billatutean edo norberaren guraz artutean, edo gogocoa eta gozogarria dan cerbait, ez artutean on-oidadegaganaco maitetasunagaitic.

¿Ceinbat eratacoa izan leiteque, latztasun norberac artua? Naita naiezecoa eta onerazpenecon, eta baitabero barruhoa eta campocoa.

¿Cein da naita naiezecoa? Pecatura eroaten gaituzana, edo Jaungoicoaren aguinduac eta norberaren bicieraco eguinbearrac ondo betelako eragozpena dan guztia, azpiratu edo quenduteco dana: berbaraco, oquelaric cein jan leitequean egunean, oquelaric ez jatea, calte eguin leiquean edariric, ez artutea.

¿Cein da onerazpenecon? Ontasuneko bidean aurroratuteagaitic, eguin leitequean cerbait, charra ez dana, ez eguitea; berbaraco, olgantza on-antzeco batera ez joatea, barau eguin bear ez dan egunetan, barau eguitea.

¿Cein da barruhoa? Arimearen almenacaz eguiten dana, norberaren borondatearen ichiera; eta ausse da osoena eta beteena.

¿Cein da campocoa? Gorputza eta bero sentzunac castigan, eci eta neeatuten dituzana; eta ausse da santu guztiac eguin izan dabeena, eta guztiz gomendaturic dagoana.

¿Bearrecoa eta noraezcoa da latztasuna? Latztasun naita naiezcoa da bearrecoa arimearen zoriontasuneraco, bada Jesucristoc osanie dancio: «Penitencia eguiten ez badozue, guztioe bardinoro galdueo zare»: onerazpenecoa da guztiz osasungarria eta ona, eta ontasunean aurreratu gura dabentzat, da osoro bearrecoa.

¿Cer sarratu bear dau beragan latztasunac? Guizon guztia, bada guztia beragan dago oquerturic eta nasturic; arimearen almenac, sentzunac, griñac eta araguiaren gurariac; charra dan guztitic, eurai alde eraguiten jaquela, pecaturic egun baga egun leitequezan gauzac, nozbait ucatuten jaquezala, eta beti succenduten doguzala eurac, siniste santuagaz arguiturico errazoiac escatu eta aguindutzen daben erara.

Baña latztasuna da gauza gogor eta mingarrria. Osagarrria bero, izan arren garratza eta samina, artutu da, gorputzaren osasuneraco bearrecoa danean; alan egun bear da latztasuna, gogorra eta nequetsua izan arren, dalaco arimearentzat ona eta osasungarria.

Dirudi, norbera castigau eta ecite ori dirala, gueuc gueuganaco euqui bear dogun maitetasunaren contra.—Aragua casiguetea eta bere grifiac ecitea da gauza bearrecoa arimearen zoriontasun beticoraco, eta beraugaitic da guztiz ondo datorrena, gueuc gueure burnari zor deutsagun maitetasun edo amodio ondo aituricoagaz; celan dan gueuc gueuganaco euqui bear dogun maitetasunaren contracoa, pecatura eta betico ondamentira eroaten gaituezan griña citalai nasaitasun ascatu bat emotea.

Edolabere edo bientzat ecin ucatu leiteque, latztasuna dala guizonaren duintasunaren eta auqueratasunaren contracoa. Guizonaren duintasunaren eta auqueratasunaren contraco gauzea da, araguiaren griña aberecorrac azpiratu eta menderatu daguiela arimca, eta eroan daguiela, aragui ustelcorrac nai daben lecura; baña goratasun eta duintasun audico gauzea da, arimea izan daitela griña guztien erreguiña eta aguintaria, eurac eci eta azpiratu daguizala, eta succendu daguizala ceruco bide onetic.

Azquenean bero ez dago ontasun osoa latztasunean.—Eguia da; bada ontasun osoa dago maitetisunean edo Jaungoicoagazco batueran; baña, celan goiyan dagoan arri bat, beruri eutsitzen deutsen eragozpenac quendu eta bertatik, jausiten dan bere beeco lecura; alan arimea, coinbat eta lurreko eragozpen, zaltatasun eta macurtasun guichiagogaz aurquitutzen dan, aïnbet eta indar gueiagogaz succenduten da Jaungoicoagana eta batutzen da Jaungoicoagaz.

Baña asco dagoz, euren bicieraco eguinbearrac eta cereguinac eguin eta bete ecin dituezanac, latztasun eta penitencia larregui eguin izan dabeelako.—Zurtasuna da, on-oidade guztiac euren neurrian erabili bear dituzana, beguiraturic bao-eharen urteai, osasunari, indarrai, eguinbearrai eta biciereari, eta jarraituric arimaco aita eta suenzalle jaquitunaren erechi eta esanai; eta ausse da, iracatsi onetic atera bear dogun onerera.

JAZOEREA.

Aita Beneragarri Claret-ee «Bido sucena» derichou bero liburuaren dino: «Latztasuna, San Francisco Sales-coaren esaera eta bardineantz ederrean, ain bearrecoa jacula ceinda gatza araguiaren edo oquelcaren iraupeneraco dan bearreco eta naita naiezecoa: alan bada, celan aragui ilac, gatz hnga, galduen diran, ustelduten diran eta arreen janari izatera elduten diran, eta gatzagaz barriz iraun eraguiten jaquen urto guztian; alan gure latztasunuren gatzagaz irauten dogu on oidaean eta bide onsan, eta bera baga izango gara ecandu charren eta grifia citalen janariac, eta uzquenean guztiz eta osoro galduco gara betico: eta ona emen cergaitic esaten eban San Pablo aibeste ciurtasunegaz: «*Anaiyac, biciten bazare araguiaren erara, berari atseguinac emonic eta latztasunagaz bera eci bagarie, ilgo zare, condenuco zare; baña latztasunagaz eciten badozue aragui, bicico zare, salbauco zare.*»

Iracatsi 6.^a—Espiritu Santuaren doiac.

Esan eguiuz Espiritu Santuaren doiac.—Dira zazpi: 1.^a ja-

quituriaren doia; 2.^a alinaren doia; 3.^a zentzatuaren doia; 4.^a ulertasunaren doia; 5.^a sendotasunaren doia; 6.^a erruquitasunaren doia; eta 7.^a Jaungoicoaganaco bildurraren doia.

¿Cer dira Espiritu Santuaren doiak? Dira oitura izatez gañetico batzue, Espiritu Jaungoicozcoac gure arimacgan ezarri eta isuriak, ontasuneko bidean aurreratu eragiten deuzuenak, graciaren arguitasunac leiyal artuteco, gu otsanak eta bigunak eguiten gaituezanak.

¿Cer jaquin bear dogu doe oneen gañean? Beti doazala caridadeagaz edo maitetasunagaz alcaturic eta baturic, zoriontasun beticorako bearrecoac jacuzala, guizona aurreratu eta cirquinduten dabeela, on-oidadezeo eguiquerac baño goragoak eguitera, Santo Tomasek dirauzun leguez.

¿Cetaraco emoten jacuz doe oneec? Zazpi char-oidade sus-trainco, San Antonino iracasten dabent leguez, zazpi espíritu charrac diranai, gogor eta burrucan egun, eta eurak azpiratu daiguzan.

¿Nundie galduen dira doe oneec? Pecatu ilgarriagaz, bada Espiritu Santua ecin bici leiteque, pecatuan dagoan arimengan, eta barriro artuten dira graciagaz batera penitenciaren bitartez.

Baldin doe oneec badira, pecatugaz batera egon ecin leitequezanae, ¿celan azaldu eta adierazoten deutzazu, pecatari asoc et char eta dongae euqui daguiezala ulertasuna, jaquituria, indarra eta beste doeak, oneec aguertutenez ez dituezan arima artez eta suenak leguez? Ulertasuna, jaquituria eta besteak izan leitequez, 1.^a doe berezkoac leguez; 2.^a Jaungoicoac emoten dituzan gracia berarizkoac leguez; eta 3.^a Espiritu Santuaren doiak leguez; lenengo esangura biyetan egon leitequez pecatuagaz batera, eta arima artezaegak eta pecatariagak aurquitu leitequez; irugarren esanguran barriz bacarrak aurquitu leitequez, maitetasunaren bitartez Espiritu Santuaren bicilekuak dirau arimengan.

¿Bada celango desbardintasuna dago euren artian, doe berezkoac leguez, gracia berarizkoac leguez, eta Espiritu Santuaren doiak leguez? Doe berezkoac leguez dira bacocharren argui-

tasunaren eta nequearen eitorriac eta ondorengouc; gracia berarizcoac leguez Jaungoicoac emoten deutsoz, berac gura dabenari, guizonaren batberc neque bagaric, Apostoloai emon izan jaquezan leguez; Espiritu Santuaren doiak legnez, dira arimaco ontasunera batzuc leguez, arimea prestau eta aurreratuten dabenac, gauza jaungoicozcoetan, guizacumecocetan eta on-oidadeco eguiquerarie goratuenetan Espiritu Santuaren beraren dei cerucoari jarraitutern.

Azaldn cta adierazo eguidazu iracatsi ori irudi bategaz jaquituriaco doian.—Munduac deituten dentse jaquitunac, eta alan dira, jaquituriaco lenengo asierac ezagututene dituezanai; baña pecatuan badagoz, ero eta barbullo batzuc dira jaungoicozco eta arimaco gauzetan, euren jaquituria andia izan arren bere; bada San Pablo diño: «guizon araguicorrac ez dituzala ezagututene, Jaungoicoaren Espirituarenac diran gauzac»; bestera, arima on eta artezac erraz eta lazter aurreratu eta cirquinduten dituz jaquituriaco doiak, jaungoicozeo gauzaez ezagututera, eta gauza guztiak erabaguitutera, ezaupera jaungoicozcoac iraunosten deutsen erara.

¿Cointzue dira ereguiagoac eta goratuagoac, doiak ala on-oidadeac? On-oidade asigarrine edo lenenac dira doiak baño ereguiagoac eta goratuagoac; baña doiak dira beste emparau onoidade oitnaracorrac eta adincorrac guzti guztiak baño ereguiagoac eta goratuagoac.

¿Ce onera atera bear dogu esan dumentic? Izanie ain ereguiac eta ain bearrecoac doe oneee, ascotan eta eeingueiagotan enqui bear doguzala gue eurac, ezquer onagaz artu bear doguzala eta eurac galduzeco bildur andi bat cuqui bear dogula.

JAZOEREA.

Gaumec «Iraupeneko Jaquinbidea» derichon bere liburuan, dino: «Jesueristoc aguertu deuzen, demoninoa ariman sartutene danean, beragaz eroaten dituzala zuzpi espíritu char, zazpi char oidade edo ecandu char sustraizeoac diranae; baitabere daquigu aguertuera jaungoicozcoaren bitartez, Espiritu Santua gracingaitie guizonagan sartutene danean, emoten deutsazala

zazpi espíritu, doiac derichoénac, zazpi espíritu charrai burru-can eguin eta eurac goituteco. Guizon pecatuan jausia da, zazpi zauri ilgarriz zaurituric dagoan gueiso bat leguez, edo soldadu argal bat leguez, zazpi arerio bildurgarrizcoac esesten deutsena. Espíritu Santua bere zazpi doiacz da gueisoaren osaguillea, bere zauriac osatuteco, zazpi osagarri emoten deutsazana; da soldadu argalaren laguntasun indartsua, zazpi indar edo almenac emoten deutsazana, bere zazpi arerioac goituteco.»

Iracatsi 7.^a—Espíritu Santuaren frutuac edo ecarriac, eta Zoriontasunac.

Esan eguizuz Espíritu Santuaren frutuac.—Dira amabi: lenengoa, maitetasuna edo caridadea; bigarrena, baquea; irugarrina, biotzeco anditasuna; laugarrena, erruquitasuna edo biguntasuna; bostgarrena, sinistea; seigarrena, continencia edo enquidagoa; zazpigarrena, atseguina edo poza; zortzigarrena, eroapena; bederatzigarrena, ontasuna; amargarrena, otzantasuna; amaiagarrena, moduontasuna; amabigarrena, garbitasuna. Esan eguizuz zoriontasunac.—Dira zortzi: 1.^a Zorionecoac biotzetic ezeuquiak edo premiñadunac, eureka dalaco cerueta-co erreñua; 2.^a Zorionecoac otzanac edo bigunac, euren mendean enquico dabeelaco lurra; 3.^a Zorionecoac negar eguiten dabeenac, poztuac izango diralaco; 4.^a Zorionecoac sucentasunaren gose-egarri diranac, asebeteac izango diralaco; 5.^a Zorionecoac erruquierac, aurquituco dabeelaco erruquiya; 6.^a Zorionecoac biotz garbicoac, icusico dabeelaco Jaungoicoa; 7.^a Zorionecoac baquetuac, Jaungoicoaren semeen icena emongo jaquelaco; 8.^a Zorionecoac sucentasunagaitic gorrotoak eta esetsiac daroezanac, eureka dalaco ceruetako erreñua. ¿Nortzue dira biotzetic ezeuquiak edo premiñadunac? Onrarie ez aberastasun bidezcoric bere, gogoz beinic bein, gura ez dabeenac. ¿Nortzue dira otzanac edo bigunac? Aserrierie, ez eta ozta bere cirquinie bere, ez dauquenac. ¿Celan euquico dabe lurra

euren mendem? Euren buruen jaube dirala. ¿Nortzue dira negar eguiten dabeenac? Atsegui, dongae ez diranae bere, isten dituezanac. ¿Nortzue dira sucentasunaren goso-egarri diranae? Aleguiñaz ecetan bere utsie eguitea nai ez leuqueenac. ¿Nortzue dira erruquiorrae? Urecoac ez diran erbestecoacenz bero, guztiz biotz-beerae. ¿Nortzue dira biotz garbicoac? Euren barruko gurari dongae goitaten dituezanac. ¿Nortzue dira baquetuac? Euren buruai eta bestenai baquea emon daroakenac. ¿Nortzue dira sucentasunagaitic gorrotoe eta esetsinac daroezanac? Sendo eta gogor dagozanac gauza on guztietan, munduoen gach-erechian egon arren. ¿Cergaitic deriche onei zoriontasunac? Bicitza onetaco zoriona eta besteraco icharopeña eurotan dagozalaco.

AZALDUEREA.

¿Cer dira Espiritu Santuaren frntuac? Espiritu Santuaren graciagaz eguniten diran eguiquera oregui batzue, atseguingarriac diranae, arerio arimacoai gogor eguitean, enqui izan dan sendotasunaren saritzat emoten diranae.

¿Cergaitic deriche frntuac? Sartuten dabeelaco gozotasuna guizonaren biotzean, sugatz edo arbola on baten frntuac aoari gozotasuna emoten deutsan leguez.

¿Cer dira zoriontasunac? Santutasunaco eta ontasuneko eguiquera batzue, arimea egoera iraunkor eta on baten imini eta cernico zoriontasun beticonaren asierea euqui eraguiten deutsenac.

¿Zoriontasunai esquinirico sariae dira, bicitza oneri ala bestecoari dagocozanac? Sariac diran aldetic, bicitza oneri dagocozanne dira, zoriontasunaren asierea iminten dabeela arimagan; eta irabaciak edo merecimentuac diran aldetic, gueroco beste bicitzoari dagocozanac dira, izaten dirala prestaora batzue leguez, ceruco zoriontasun betieora sucenduten dabeenac arima ona.

¿Cetan dira bardia Espiritu Santuaren frntuac eta zoriontasunac? Bitzuac egunsariaren izaten dauquelaco, atseguinga

rriac diralaco, maitetasunagaz edo caridadeagaz beti alcartic eta baturic doazalaco, eta pecatuagaz galduen diralaco.

¿Nun aurquituten dira, edo nun aguertuten dira Espíritu Santuaren frutuac eta zoriontasunac? Guzonaren alde erreguiar, au da, ariman; nozbait gafiez-eguin eta aguertuten badira bere gorputzeco sentzunetan; baña au ez da izatecorra, eta gueinean jazoten dana.

¿Jazo al leiteque, batec bere gorputzean miñiac eta nequeac euqui eta iragotea, eta dempora berean bere arimeac Espíritu Santuaren frutuac eta zoriontasunac euquitea? Bai, badaezbada bagn: eta guelienetan jazoten dana da, gorputzeco miñen eta nequen erdiyan, eta estutasunic eta larritasunic andienetan bere, arimea errime, sendo, baque gozoan eta pozic aurquitutea. Alan Apostoloac esaten eban: «Estutasun guztien erdiyan nago gozotasunez beterie.»

¿Celango desbardintasuna aurquituten da Espíritu Santuaren frutuen eta zoriontasunen artian? Espíritu Santuaren frutuac dira azquenurrecoac eta iragogarriac, eta zoriontasunac barriz dauque azquen erreguiago eta osoago bat, eta dira irauncorac.

¿Azaldu eta adierazo al cinaiquedazu ori irudi bategaz? Batec jaten dituzanean janari eta gauza gogoco eta gozoac, oneec bereala gozotuten deutse bere aosabiya; gañera janari oneec emoten deutse gorputzari osasuna, indarra, sendotasuna, egoreaona eta atseguiua; alan Espíritu Santuaren frutuac dira eguiite onen eguiqueraurreco eta iragogarriac leguez, eta zoriontasunac dira eguiite on euroren gozotasun, baque eta zoriontasunaren eguiquera irauncor bat leguez.

¿Ce onera atera bear dogu iracatsi onetic? Espíritu Santuari onerazpen eta amodio andi bat euquitea, jarraituten deutsegula bere arguitasunai, gauza onac eta erreguiac eguitera, cirquinduten gaituezanean, alan irabaci eta gueuganduteco bere frutu guztiz gozoac eta zoriontasunac.

JAZOEREA.

San Francisco Sales coac dino: «Onerazpeneko on-oidadeak

dirala bacarrie, arimea asetan dabeenac. Beguirea ce gogocoac eta ederrae diran. Imini eguiuz alde baten on-oidadeac, eta bestean euren contraeoac diran char-oidade edo ecandu dongac. Celango gozotasuna aurquitudun dan eroapenean, aserteagaz eta estutasunagaz bardinduten bada; umiltasunean, arroqueria eta diruzaletasuna bere onduan iminten badira; prestutasunean, cicozqueriagaz bardinduten bada; maitetasunean, gorrota eta icusieccina bere alboan iminten badira; janedanean beguiratua izatean, bere arerioac diran nasaiqueriacaz bardinduten bada. On-oidadeac dira miragarrizone, gozolnsun eta atseguiñecingueiagocoacaz betetan dabeelako arimea, arimeac on-oidadeac beragan daucazanean, eta char oidadeac edo ecandu dongac barriz erquinduric, necaturic eta saminduric ichitzen dabe arima erruquigarria. Eta au ezaguturie, georgaitic eguingo ez da aleguina, ondasun ain aberntsac irabasteko? Char-oidade edo encandu donguen gañean icusten dana da, ecauduchar-chiquidun dana ez dagoala atseguiñez, eta ecauduchar-ascodunac ez dauncala ifioz baqueric ez pozie. Bitartean, on oidadeco bidean ibilten asiten dana, dago atseguiñez eta pozie, atseguiñ eta poz au gneitu eta ugaritudun jaco-zala, bere on-oidadeac gueitudun diran neurrian.*

Iracatsi 8.^a—Ontasuneco osotasuna eta bera jarichiteco eguinbideac.

¿Ceinbat dira azquenquiae? Lau: Eriotzea, Erabaguia, Infernua eta Zoriontasuna. ¿Cer da Zoriontasuna? Ondasun guztiac, ecertarico mingarri bagarie, aurquitudun diran egoera oso oso ona; infernian barriz gach guztiac, ecertarico pozgarri, bagarie, aurquitudun dira. Eta infernutic gorde eta ceruero zoriontasunean sartuteco, ¿cer eguiñ bear da? Gorde eta bete bear dira aguinduae. ¿Eta errazago gorde, eta ntsic ez eguiteco, erazco bideric badago? Bai, Jauna. ¿Ceintzue dira? Sacramentu Santuac sarri artu; goisean goisean Jaungoicoari egnororego egniquerac esquin; egunean egunean Meza santua entzun; Andra Mariaren atseguiñcraco Errosario Santua errezan; arimaco

gauzetaco liburuac iracurri; gaubean gaubean arimaco azterre-na eguin; eta batera asco esateco, Confesore jaquintun on eta zuur bat autu eta beronen mendean beti egotea. Ondo diñozu; cergaitic Contesore on bat autu eta artutea da, San Francisco Sales-coac diñoa leguez, ardura guztien ardurea. Alan egui-zue bada zuec, bada Confesore ona izango jatzue ainguera bat leguez, ondo sucendu eta guiyauco zaituezana, iracatsiric cer eguin bear dozuen, aguinduetaco bidetic ondo ibilteco, eta Jaungoicoa zoriontasun beticoan icusteco, cein dan, gu ecere-zetic eguitean, icentau jacun azquen dontsua. Jaungoicoac ara eroan gaguizala guztioe. Alan izan dedilla.

AZALDUEREA.

¿Ontasun osoa gueugandu bearrean gagoz guztioe? Ez gagoz *ontasun osoco biciera* autu eta artu bearrean; baña gagoz *gueure bicieraco ontasun osoa* gueuganduteco aleguinac eguin bearrean.

Azaldu eta adierazo eguidazu arguiroago.—Deituten jaco ontasun osoco biciera erreligiosoenari, bere iru esquintsari edo voto preminazcoa, garbitasunecoa eta esanecotasunecoa esca-tuten dituzanari, eta biciera onetan sartu bearrean ez gagoz iñorbere, atara deituac izan ez bagara cerutic; baña guztioe gagoz gueure bicieran oso onac izan bearrean: aitac izan bear dau oso onac, esconduac izan bear dau oso onac, semeac izan bear dau oso onac, eta alan beste emparau guztiac, Jaungoi-coac aguinduten daben leguez.

¿Cetan dago ontasun osoaren izatea? Jaungoicoagazco al cartasun edo batutasunean maitetasunaren bitartez; alan ira-casten dau arguiro Santo Tomasec, eta bardin Apostoloac, diñoaean: «Gauza guztien gafetic euqui eguzue maitetasuna edo caridadea, cein dan ontasun osoaren locarria», eta San Agustinec emoten dau errazoia, diñoala, «cergaitic bacarric maitetasunac alcarty eta batuten gaituzan, gueure azquena dan Jaungoicoagaz.»

¿Noc danco maitetasun ori? Jaungoicoagazco baquean eta gracián dagoanac, bere aguinduaec ondo gorde eta betetan di-

tuzanac, bere bicieraco eguinbearrac ciatz betetan dituzanac, eta gauza guztietan, bai caltegarrietan eta bai mesodegarrietan bere borondatea Jaungoicoarenagaz bat eguiten dabenac.

¿Deitu leitequeoe ontasunean osoac edo onac, eguiquera ereguiac eta goratuac eguiten dituezanai, baña Jaungoicoaren aguinduac eta euren bicieraco eguinbearrac ondo gorde eta betetan ez dituezanai? Ecelanbere ez; bada ontasun osoa dago, ez gauza ereguiac eta goratuac eguitean, ezpada Jaungoicoac aguinduten dituzan gauzac, ondo eguitean: alan gurazo batec, esquecoai eta premiñadunai bere ondasun guztiac emou arren, ez badaneo, bere semealabai eta echeocoai aciera ona emoteo, arduraric, ez da izango gurazo ona: abadetzaraco edo beste bicibide baterako icasten dabilenac, egun guztia erreguac eguiten emou arren, ez leuque eguingo, Jaungoicoac aguinduten deutsana, eta ez litzateque izango icasla ona, gauzac icasteco alegrina eguingo ez baleu, eguin bear daben leguez.

Ori orrelan dala ¿badagoz ontasun oso oso inueta desbardiñac? Ez dago ontasun oso izatezeo bacar bat baño, eta au da maite-tasuna edo caridadea, eguinic bacochac, Jaungoicoac gura daben eta aguinduten dabena; baña desbardiñac dira, izatezcoac ez diranae: alan bat izan bear dau erreligiosoaren ontasun osoac, eta beste bat soldaduarenac, bat emacume escondu bat-enac, eta beste bat alargunarenac...

¿Badagoz mailla desbardiñac ontasun osoan? Bai, ezdabaida baga; bada arguiro dino Espíritu Santuac: «Arteza dana, orain-die gueiago arteztu daitela, eta santua dana, gueiago santutu daitela.»

¿Celango mailla desbardiñac gueienean ezagututen dira ontasun osoan? Iru; 1.^a asibarrieu edo cristinu onena; 2.^a aurreira doazanena edo onerazpentzuena; eta 3.^a oso beteena.

¿Ceintzuc dira leuengo maillacoac? Oituraz Jaungoicoagazco baquean eta gracian bieirie, Jaungoicoaren aguinduac eta euren bicieraco eguinbearrac gorde eta betetako alegrinae eguiten dituezanac, edolabere edo beintzat pecatu ilgarrian ez jansteeo ardureagaz, griña dongai eta gurari eitalai, oraindic

eciric eta azpiraturie ez dauquezanai, burruan eta gogor eguiten deutsela.

¿Ceintzue dira bigarren maillacoac? Goituagaz eta azpiratuagaz eroanic euren griña dongae, borondate lazter eta bici bat dauquenac, Jaungoicoaren gogoco diran gauza guztiac eguiteco, eta euren bicieraco on-oidadeac escatutzen dabeena, pozic eta sendotasunagaz eguiten dabeenac.

¿Ceintzut dira irugarren maillacoac? Euren griña citalac guztiz azpiratuta euquiric, pecaturic batbere, pecatu arin borondatezcoa bada bere, eguiten ez dabeenac, ardura guztiagaz on-oidadeco bidean dabilzanac, Jaungoicoagaz alcaturic eta baturic bici diranac, eta euracgandic alde eragrin eta urrinduten dituezan gauza guztiac, pecatu ez diranac bere, baña alcartasun orretaraco eragozpenac izan leitequezanac, berbaraco, zaletasunac, aberastasuneraco macurtasuna, eta beste onelangoac.

¿Jaungoicoac escatutzen deutse guztiai ontasun osoco mailla bardina? Guztiai escatutzen deutse lenengo maillaco ontasun osoa eastigu beticoaren beian, cergaitie ecin ifior salbau leiteque, maitetasuna edo caridadea euqui baga; guero bacochari escatuko deutso Jaungoicoac gueiago edo guichiago, beragan die artu izan dituzan doe, gracia eta meseden neurrian, Jesucristo berac diñoan leguez: «Asco artu izan dabenari, asco escatuko jaco.»

¿Izatezcoa eta bearrecoa da ontasun osoraco eta onerazpenetako, gauzac atseguinez eta pozic eguitea? Onerazpenaren izatea dago, Jaungoicoaren gogocoa dana, eta berac aguindutzen dabena, arin, lazter eta sendotasunagaz eguitean, araguiaren aldetik atzeracuntzen bat eta nequeren bat aurquitu arren bere.

¿Imini al cinaiquedazu jazoeren bat, iracatsi ori gueiago azaldu eta arguitu daiqueana? Jesucristo gure Jaunac bere araguiaren aldetik euqui cituzan Gesemanico ortuan estutasun eta larritasun andiac, il aguinean leguez imini ebenac; baña bere borondatea egoan errime, sendo eta guertu, bere Aita Beticoac prestau eutsan calizea edateco, esaten ebala: «ez bei te eguin nire borondatea, ezpada ceurea.»

¿Cer dirauztazu onerazpeneco eguitetaco atseguinen, pozen, negarren eta beste onelangoen gañcan? Guzti ori ez dala onerazpeneraco izatezcoa eta bearrecoa; baña ona da, gure argalatasunari laguntasuna emon eta sendatuten dabelaco, edo egui-te onen saria dalaco.

Eta on-oidade oituracorrac, biotzhoeratasuneco eguinerae leguez, ¿cer dira ontasun osoraco? Ontasun osora elduteco eguinibide bearrecoae eta noraezeacoac; cergaitic ecin ifor alcartu eta batu leiteque Jaungoicoagaz, eragozpenac diran grína charrac eta pecatuac, on-oidade oituracorren bitartez quendu eta azpiratu baga; eta ecin ifioe jarichi eta alcantzau leiquez bearreco graciae, escabideac, errengiac eta biotzhoeratasuneco eguinerae egnin baga.

¿Ceintzue dira, biciera guztientzat eta ontasun osoco mai-lentzat gucien eta sarrien gomendaurie eta aguindurie dagozan biotzhoeratasuneco eguinerae? Aita Astetec aitatu eta dacarzanac, eta onci egotzi leitequeoez Jesus Sacramentaduagannaco eta Jesusen Biotz gozoaganaco zaletasun eta onerazpenac, Andra Mariaren eta bere senar San Joseren alcartasunac eta anaetasunac, eta hatzebere sarturie egotea, Eleizeac ain ontzat eta ainbeste bidar gomendaurie daueazan irugarren Ordenetan, ceintzuetan, eguinie euren neurriac iracatsi eta aguinduten dabeena, dagozan sarturie esandako eguinera guztiac; eta besten onbideagaz irauten daben batec bere eguinbearren betetasuneeen, eta aurreratu eta poztutenean, bere lagun alcartasunecoan bicitza onari jarraitutera.

Amaitueo dogu, jazoeratzat iminiagaz, urrengo

Bieitza Cristinaeorraren Suenbidea

(AITA GAUTRELET-GANDIC S. J. ARTUA.)

«Erdue, semeac, entzun eguidazue,
eta iracalsico deutzuet Jaunaren bil-durra.»

(Psalm. XXXIII, 12.)

Egun bacoheraco.

1. Euqui eguizu, al dala, ordu icentuan bat oetic jaguiteco,

Jagui zaitez lazter, atzerapen eta naguitasun guztiak azpiratu eta goituten dozuzala, Jaungoicoari izan bear deutsazun mai-tetasunagaitic, eta sinistu eguizu, nequegarri au guztiz bere gogocoa izango jacola; ez eiquezu galdu gura izan une bateco naguitasunagaitic egun guztico irabaciaren alde andi bat, bida egun guzti guztia izan oi da, asierac esquini izan jacoza-rentzat.

2. Irazartuten zareanean, zure lenengo gogoracinoac izan bear dau Jaungoicoarentzat, ceure biotza berari esquiniten deutsazula; zure lenengo herbac izan bear dabe *Jesusen, Mariaren eta Joseren icenac*; zure lenengo eguinereac Curutze Santuaren eguiten.

3. Modutasun guztiagaz bein jantsi ezquiero, belaubinbicotic Santo Cristo baten edo santuen beste irudiren baten ofietan, esquini eguiozuz Jaungoicoari lotsa eta itsal guztiagaz ceure eguiquerac, eta ez zaitez iñoz aztu, Andra Mariaren eta ceure Aingueru zaintzallearen escuetan eta ardurara ceure izate guztia iminteagaz. Ez eguijuz ichi erreza baga egunean iru bidar *Ave Marietakoic*, campaiac joten dabenean.

4. Ceure eguiquerac esquini eta guero, cerbait demporan euqui eguijuz gogoartea ceure zoriontasunaren ganean, edo beste egua beticoren baten ganean. Gogoarte au eguitea da gauza balio andicoa, eta bera baga ecin iraun leiteque luzaro on-oidadecoz eta santutasuneko egoeran. Egunaren asieran eguijuz al bacinaique gogoartea, eguijuz al dozun lenengo unean, eta, biarrian edo lanean zabilzala, eguijuz cinai-que, ez budaneazu beste demporaric.

5. Meza entzulera joan al bacinaitequez, ceure eguinbearrak eta cereguinai utsie eguijuz buga, ez zaitez iñoz gueratu on ain andia eguijuz baga. Ecin dozunean, edolabere esquini eguijuz Jaungoicoari ceure gurariac, eta ceure gogoagaz iragoten zareala Eleizara, alcartz eta batu zaitez biotzetic, Meza Santuan esquiniten dan Jesucristogaz, eta an dagozan fededun onacaz.

6. Iguez eguijuz, ecandu char guztien ama dan naguitasunetic. Izan zaitez otsana, menua eta esanecoa, bere Ama guztiz

Santearen eta San Joseren aguinduen beian bici izan zan Jesucristoren antzera. Lanean asten zareanean, esquini eguiozu Jaungoicoari ceure lana, escatuten deutsazula bere bendeeinoa, eta Curutze Santuaren eguiten dozula. Lan bitartean, gomutau zaitez zagozala Jaungoicoaren aurrean, Beragana sucedu eta goratuten dozula ceure biotza sarri esateco erregu laburchuen bitartez, eta erloiyoa orduna joten dabenean, agur eguiozu Maria Dontzella guztiz Santeari, Ave Maria esanagaz.

7. Ez eguzu jan orduetatic campora; jan eguzu ceure echeacoacaz batera, aurrez bedeincatuten dozula maiya, eta jan ostean ezquerac einenten deutsazuzala Jaungoicoari, munduoen esamesai eta bildurrai batbere jaramonic egnin baga.

8. Arratzaldean euqui eguzu arimaco iracurtealdiren bat, Kempis derichon *Cristoren Imitacioneco* liburuan, edo besto liburu onen baten.

9. Ceure nagusien aguindusi eta ceure bicieraco eguinbearrail utsic eguin baga, eguin eguzu aleguina icusaldi bat eguitoco Jesus Sacramentaduari, bera lotsa eta itsal andiangaz adorau eta bearreco graciae eta laguntasunac escatutzen deutsazuzala.

10. Euqui eguiozu ceure bieitzaco egun guztietan onerazpen andi bat ceure Ama Maria Dontzella guztiz garbiari, egunoro errezeptan dozula guichienez bere Errosario Santuaren zati bat, eta eguiten dozuzala, batezbere bere jaiegumetan, bere gogocoac diran eta ceure beraganaco amodiocac iracasten deutuzuzan gauza onac.

11. Egunaren azquenac izan bear dau, bere asiercarri erantzunto deutsanac. Onerazpen eta ardura guztiagaz eguin eguiuz gaubeco eguite onac, eta aleguin guztiagaz aracatu eta aztertu eguztuz ceure arimaco bazter eta inguruac, Jaungoiren aurrean eguin ete dozun utseguiteren bat egun atan iesteco, eta jauzi bazara, parca escatu eguiozu Jaungoicoari, arrerantzean bera ez irainduteco gogo eta asmo sendongaz.

12. Euqui eguzu ordu icentau bat oera joateco, eta an eguiten dozun uncan, gogoratu zaitez zagozala Jaungoicoaren aurrean. Artu eguzu ur bedeincatua, sifatu zaitez, eta

beragaz isuri eguizu oia. Loac artu zaguizan baño lenago, succendu zaitez Jaungoicoagana eta bere Ama Andra Mariagana, euren escuetan iminten dozula ceure arimea, gau atan ilteco bacengoz leguez, eta Auciepalla nagusiaren aurrean aguertuteco egoera onean zagozan gogoratuten zareala.

Aste bacoheraco.

1. Ondo gorde eguiuz domeca eta jaiegunac, eleizquisunetara joateari iñoz ichi baga, Eleizan iracatsien bat entzuten dozula, eta egun aretan arimaco iracurte gueiago eguiten dozula.

2. Mundutarren oiturai eta biciereari batbere jaramonic egui baga, egui eguiuz ceure gauza on guztiae; iguez egui zu lagun charraegandic eta olgantza pecaturaco arrizeua dauenetatic, diran leguez dantzac, teatroac eta araco ibiltoqui agirriac, ceintzuetan batutenean diran jente asco, ez ain onac. *Alaco lecurtan*, dino Eleizaco gurazo batec, *demoninoac esetsi eta burruea gueiago eguiten dituz eta garailza gueiago irabasten dauz.*

II bacoheraco.

1. Confesau zaitez ilean bein, edo sarriago, ceure confesorearen erchia alaun bada. Confesau bear dozun aldi bacochean, prestau zaitez, orduan ilteco bacengoz leguez.

2. Ondo izango da, il bacochean bacartadeco egun bat euguitea. Egun atan, bicitza cristinaucorraren sucenbide au iracurri ezquero, egui eguizu eriotzaraco prestaera ona, azque-nean artutenean dozuzalaurren ilaraco erabagui eta asinu barriac.

Urte bacoheraco.

1. Urte guztietan egui eguizu ceure bateoco eta ceuro lenengo comuninoeco egunen gomutea, urreratutenean zareala egun atan, edo urrengo domecan, Sacramentu Santuac artutera, eta orduan eguiten dozuzala beste eguiquera on batzue eguneroconaz gañera.

2. Urte bacocharren azquenean, edo ceure confesoreari ondoen erechiten jaconearen, bere sucenbidearen beian egun eguzuz egun batzuetako eguinera arimacoac, aracatu eta aztertu dozula ceure bicitzako egoerea, eta artuten dozuzalaurrengo urterako erabagui eta asmo barriac; eta ausse izango da era ona urte guztiko confesioe bat eguiteco.

•Baquea eta erruquitasuna, sucenbide oneri jarraitutent deutsen guztientzat.» (Gal. VI, 16.)

Gueitupena.

¿Badago iracatsi gueiago, cristinau egiazkoae jaquin bear dituezanae? Bai, aita; eta dira, gaureo demporetako errueuntza eta arrizuenen contra Vaticano-ko Batzarrac eta Aita Santuac daracuzcuezanac.

¿Ceintzuc dira heregia eta errauntza orreec? Jaungoicoae edo bere Eleiza egiazkoac iracasten dituezan egunen bat, uanatu edo badaezbadan iminten dituezanac; eta euren asmatzallae dira, guztia gueia dala diñoen gueitarrac edo materialistae; Jaungoicoric ez dagoala diñoen Jaungoicobagacotarreac edo ateoac; Jaungoicoa dagoala esan, bafia Jaungoicoari gauzen sucenbidea quenduten deutsen deistac; mundua eta gauza guztia Jaungoico dirala diñoen panteistac eta Krausistac; Jaungoicoaren aguertuarea eta iracatsiac ucatuten dituezan erracionalistac edo librepensadoreac; protestanteac edo evanglicoac, liberalac; eta batean asco esateco, Jaungoicoae bere Eleiza egiazkoaren bitartez iracasten dabena, uatu eta egitzat artuten ez dabeen guztia.

¿Celango sareac imini eta zabaldutent deutsez oneec catolicorai? Batezbere iru, eta dira: Eleizeari bere nagusitasuna quendu gura izatea, dirua esquinita, eta oitura onac chartu eta nasaitutea.

¿Celan quendu gura deutse Eleizeari bere nagusitasuna? Ecer bagaric ichi eta premiñan iminiagaz, eta bere contrako gauza guzurrezkoac esan eta munduan zabalduagaz.

2. Urte bacocharren azquenean, edo ceure confesoreari ondoen erechiten jaconearen, bere sucenbidearen beian egun eguzuz egun batzuetako eguinera arimacoac, aracatu eta aztertu dozula ceure bicitzako egoerea, eta artuten dozuzalaurrengo urterako erabagui eta asmo barriac; eta ausse izango da era ona urte guztiko confesioe bat eguiteco.

•Baquea eta erruquitasuna, sucenbide oneri jarraitutent deutsen guztientzat.» (Gal. VI, 16.)

Gueitupena.

¿Badago iracatsi gueiago, cristinau egiazkoae jaquin bear dituezanae? Bai, aita; eta dira, gaureo demporetako errueuntza eta arrizuenen contra Vaticano-ko Batzarrac eta Aita Santuac daracuzcuezanac.

¿Ceintzuc dira heregia eta errauntza orreec? Jaungoicoae edo bere Eleiza egiazkoac iracasten dituezan egunen bat, uanatu edo badaezbadan iminten dituezanac; eta euren asmatzallae dira, guztia gueia dala diñoen gueitarrac edo materialistae; Jaungoicoric ez dagoala diñoen Jaungoicobagacotarreac edo ateoac; Jaungoicoa dagoala esan, bafia Jaungoicoari gauzen sucenbidea quenduten deutsen deistac; mundua eta gauza guztia Jaungoico dirala diñoen panteistac eta Krausistac; Jaungoicoaren aguertuarea eta iracatsiac ucatuten dituezan erracionalistac edo librepensadoreac; protestanteac edo evanglicoac, liberalac; eta batean asco esateco, Jaungoicoae bere Eleiza egiazkoaren bitartez iracasten dabena, uatu eta egitzat artuten ez dabeen guztia.

¿Celango sareac imini eta zabaldutent deutsez oneec catolicorai? Batezbere iru, eta dira: Eleizeari bere nagusitasuna quendu gura izatea, dirua esquinitea, eta oitura onac chartu eta nasaitutea.

¿Celan quendu gura deutse Eleizeari bere nagusitasuna? Ecer bagaric ichi eta premiñan iminiagaz, eta bere contrako gauza guzurrezkoac esan eta munduan zabalduagaz.

¿Bada ezenquitasunac edo premiñeac ez datu emoten nagusitasuna cristinauen artian? Emoten dau eta quenduten dau.

¿Celan izan leiteque ori? Bere ondasunac premiñadunen artian zabalduten dituzan aberatsari, emoten deutsonagusitasuna; baña quenduten deutso, esquean ibili bearrean, eta preminadunai lagun al ecinean, aurquituten dan Abade edo Eleizguizonez; eta baitabere quenduten deutso Eleizaco eleizquizunen anditasunari; bada, ezenquitasunagaz edo premiñeagaz, ez bacarric ez dira eguiten gauzac, Jaungoicoaren Anditasunari dagocozan leguez, baitabere gueienen aldetic izaten dira begui charracaz icusiac.

¿Bada Apostoloac ez ciran izan ezeuquiac eta premiñadunac? Ori celan dala.

¿Cer esan gura dozu orregaz? Ciran ezeuquiac eta premiñadunac, Cristo, bere jarrai joan ceitezala, eurai esan eutsnean; eta beti izan ciran biotzetic ezenquiac edo premiñadunac, aborastasunae billatutenez eitzinez, eta ezeuquiac leguez bici izan ciralaco.

¿Cein esanguran ez ciran izan ezeuquiac edo premiñadunac? Ez ciran ezeuquiac, cergaitic, Jesucristo cerura igoen eban ostean, euquen aseo, Jesusen fede santura biurturiko aberatsac euren borondatez emoten eutsena, eta guero curae premiñadunen artian zabalduten ebena.

¿Ceri jarraituten deutse sectarioac, Eleizearen contra gauza guzurrezcoac esan eta munduan zabalduteco? Euren burna eta nagusi lenengocoetatic batenaren esanari: Guzurragaz charto esan eguzu, guzurragaz charto esan eguzu, bada erabait gueratuten da.

¿Cer egun bear dau cristinau on batec, Abade edo Eleizguizonek bateri bere entzuteona quenduten jaconean? Seme on batec egun bear dabena, bere aitari entzuteona quenduten deutsnean.

¿Eta Abadearen edo Eleizguizonearen utseguitea aguiria, jaquina eta ezaguna bada? Artu bere erruquia eta ez jarraitu berari bere biciera charrean.

¿Eta orduan ondo izango da, berri guichitan enquitea? Se-

meac ez dau guichitan enquiten bere aita, danic charrena eta donguena izan arren bere aita.

¿Eta Abadetasuna guichitan enquitea? Ascozaz guichiago; izango litzateque, osatuteco-jaqnituria guichitan enquitea leguez, dagozalaco osaguille guichi edo gueiago jaquituria bagaocoa eta arimagalducoac.

¿Asco zor deutso Eleizeari munduko alcartastinac? Eleizeac bere Erreliginoe Santuagaz emon eutsen argitasun egiazcoa erreñuai; eta Eleizeari zor deutse, batetic eta bestetic dauquena.

¿Cein libertaden arerio da Eleizea? Guzurrezcoarena, nasaiqueriaren icena guztiz ondo jatorconarena.

¿Suenbaguea eta gogorra da Eleizea, heregiac galerazo eta euren ereintzallac eta zabaltzallac castignetan dituzanean? Ez: ez dan leguez erreguea, lapurrae, eriotzaguiac eta oquerrae castiguetan dituzanean, arteztasunac alan escatuten badau.

¿Bada Eleizea, mundocon gauzen gañeco jaquiturian aurrapenak eguiten galcrazoten dabena? Ez: ezpada berri da laguntasuna emoten deutsena jaquituria egiazcoaren eta onaren aurrapen guztiai.

Ori alan dala ¿Eleizeac ez dituz galerazen erracuntzae eta ecandu charrac ezpada? Alan da, eta ori da bere betico lana.

¿Ez dabe esaten sectarioe eta guzur-asmatzallac, eurac zabalduen dituezala argitasuna eta ontasuna munduan? Bai; bafia sectarioac deituten deutse argitasuna iluntasunari, eguna guzurrari eta erracuntzeari, libertadea nasniqueriarri, aurrapena dongaqueriari, jenten-arteo ezaupera andia aguintarien contra jaguiteari eta machifiadeari: berba baten esateeo, ona charrari eta charra onari.

¿Ez dabo esaten setalariae, ori berori eguiten dabela Eleizeac? Orregaitic ecin ifior izan leiteque catolicoa eta setalaria batera.

¿Celan daquign gue, eurac dabilzala bide oquerretic? Eleizea dala Iracasla jaungoicozcoa, iracatsi eta adierazoten douzcuen errazoe guztiagaitic; eta au alan dala, gue sinistuten dogu edo sinistru bagarie ichiten dogu, Eleizeac sinistuten dabena edo sinistuten ez dabena.

¿Co errazoe dira orreec? Icasbide cristinaucor onetan aita-tuac, eta gañera zugatza edo arbolea ezagututen da bere frutuetic.

¿Cer esan gura dau orrec? Asco eta naicoa dala, iracatsi jaungoicozcoaren erara bici diranen frutuac icusten, eta seta charren erara bici diranen frutuac icustea, lazter edo ondo ezagututeco, iracatsi bata dala Jaungoicoarena eta bestea deabruarena.

¿Bada ez dagoz catolico charrac? Bai; baña dira, iracatsi jaungoicozcoac eta eguiazcoac aguinduten daben legucz, bici ez diranac.

¿Cein arbolaco frutua da, Civilizacion moderna edo Liberalismoa erderaz derichon, eta euzcaraz Arguitsutasun barria edo Leiberetsutasuna deitu leitequeona? Setalarien arbolacoa.

¿Frutu orren alde edo zatiaren bat al dira, jaquituria izatez-co eta ciazcoetan, ceru goietaco izarretacoan eta menasquintza-coetacoan, Iurrenekoan, chimiztacoan, oraingo demporetan egunian izan diran aurrerapen andi eta miragarrizcoac? Ez, ezelanbere; frutu orreec bardin saldutzen dira, edo obeto, cristinu eguiazcoen mercantuan setalarionean baño.

¿Cetan dago, bada, Arguitsutasun edo Leiberetsutasun ori? Milla zazpireun eta larogueta bederatzigarren urteco Asieren iceangaz ezagutuac diran, eta urte ataco Irabi edo Nazte Andiae iracatsi cituzan erracuntza ecingueiagocoetan.

¿Ceintzue dira orreec, berba labur eta guichitan curac sartutene badira? Jaungoicoa eta bere Eleizea guichitan euqui, ecertaraco ez artu eta jaramonic eurai ez eguitea erreñuco gauza guztien edo batzuen suenbideraco.

¿Ontzat emon leique Eleizeac erreñuco gauzen suenbide ori? Iñozbere ez, cergaitic Jesueristoc esan eban: infernuco indarrac ez ebela iñoz azpiratu eta goituko bere Eleizea.

¿Eta cergaitic gueiago? Dalaco errazoiaren contracoa eta deabruzcoa, bada dauco bere oïña, Jaungoicoa eta bere Eleizea guichitan euqui eta aintzacotzat bere ez artutean.

¿Badago Leiberetsutasunen bat, catolicoa deituten jacona? Alan deituten deutse bere jarraitzallae eta adisquideac; baña

Eleizeac iracasten dau, Leiberetsutasun catolicoa deituten deutsena, ez dala catolicoa.

¿Beraz ez dago Leiberetsutasunie, ona danic? Batbere ez; cergaitic Leiberetsutasuna da pecatu ilgarria eta berez Cristoren iracatsien contracoa; bacarrir dagoana da, batzuc deitutent deutsela Leiberetsutasuna, ez dan gauzeari.

¿Badago loturie Leiberetsutasuna erreñuco gauzen suenbideren bategaz? Ez: Monarquia bat edo Erregueac-bacarricaguindutea izan leiteque liberala edo leiberecorra, eta Errepublica bat edo ascoc-bat-buru-dala-aguindutea izan leiteque ona eta catolicon, bataren eta bestearen iracatsien eran.

¿Ceintzue dira iracatsi liberaralac edo leiberecorrac? Milla zazpircan eta larogueta bederatzigarren urtecoac, erreñuco gauzen suenbidean, Jaungoicoac eta bere Eleizeac aguindutent dabeenari, jaramonic ez eguitatic, urtetent dabeenac.

Esan eguidazuz batzue.—Errian-dagoala-aguintaritasuna esatea, edocein cultu edo erreliginoe ontzat emon eta ichitea, moldeteguiari eta iracatsiai batbere mugarieez imintea, oituracortasun guztilracoa eta beste onelangoac.

¿Celango ondorengoa urtetent dabo ortic? Escola eleizeor bagae, periodico eta papel char eta loiak, matrimonio civila edo nazqueria, templu heregenac cristinu-errieta eguitea, Eleizguizounen esubideac ucatutea, neurribagako lucreria, domeca eta jaieguna ez gordetea eta beste onelango asco.

¿Cer diño Eleizeac gauza guzti orrean gañean? Dirala guztiz donga eta charrac, eta Cristoren iracatsien contracoac.

¿Cer gueiago? Iñoz ecin izan leitequezala ontzat emonac, eta bai bacarrir laquetu edo iehi leitequezala, beste gach andiegoaren baten bildurrez, eurac osoro eta guztiz galera zotent badira.

¿Nori dagoco erabaguitea, cristinu-errieta cerceridadeac escatutent dabeen ala ez, laquetuac izan daitezala alako gach andiac? Aita Santuari eta Obispoai, arimen aitac eta Erreliginoaren eta Oituracortasunaren ernbaguitzallac diranni: guztiac dira euren esubidecoac.

¿Cegaz bardindutent dira, Eleizearen eta erreñuco aguintarien artian egon bear dabeen artnemoniae eta joanetorriac?

Arimaren eta gorputzaren artian egon bear dabeenacaz: gorputzeo gauzac, al dala, ez deutse calteric egun bear arimacoai, ezpada oneen azpian egon bear dabe.

¿Cer egun bear dogu, Eleizearen arerioa dan erreñuco aguintaritasunaren beian bici gareanean? Baque osoan badago bere aguintaritasunean, eroapena euqui beragaz, erreguac eta escabide andiac egun Jaungoicoari, eta alcaturic eta baturic guztioe Obispo Jaunen aguinduen beian, egun bear dogu alequin guztia, eguiac, arteztasunac eta Eleizeac azpiratu eta goitu daguiezan euren arerioac.

¿Erreñuco aguintaritasun liberalac diran guztia, dira Eleizearen arerioac? Bai, badezbada baga; bada Cristogaz ez da goana, Cristoren contra dago.

¿Celango pecatua eguiten dabe, Eleizeagazco baquean eta bere arerio dana, aguintari edo diputadu aterateco, aleguinac egun eta euren laguntasuna emoten deutsenac? Gueiencan pecatu ilgarria; eta dira, eguiten diran legue charren eta Eleizearen contracoen errudun, eurac lagundu izan deutsenac, atarraco baiya emon badabe.

¿Beraz Eleizea sartu leiteque erreñuetaco gauzen sucenbidean? Eleizea sartu leiteque eta sartu bear dau erreñuetaco gauzen sucenbidean; onec cericusia daucanean siniste santuagaz, oitura onacaz, arteztasunagaz eta arimen zoriotasun beti coagaz; baña guztiz lurrecoac eta demporacorrac diran gauzetan bacochari ichiten deutso, ondoen derichonari jarraitutea.

¿Cein da, erreñuen gañean Eleizeac daucan egunbearra edo eguiquizuna? Ama on batena.—Azaldu eguzu ori apur bat gueiago.—Jesucristoc aguindu eutsen Eleizaco Aguintari nagusiai, iracatsi eguezala Erreliginoe Santua eta Oituracortasun ona, guztia, legue-eguinzallac eta euren mendekoae, artu bear dituezanac; eta castigau eguezala cristinau muquerrac eta buru-urtenac.

¿Asco eta naieoa da, norberaren bieitza isileeoan Erreliginoa eta Oituracortasun ona enquitea? Ez; ergaitic Erreliginoac iracasten dabena egunbearrean dago munduko alcartasuna bere, cefaren Jaun eta Jaube nagusia dan Jaungoicoa; eta Oi-

turacortasun ona zabalduten da guizonaren eguiquera guztietaraño; eta erreñuco gauzac suenduten dituezan aguintariac, egun bear dabe guztia, Jaungoicoaren aguindnac esaten deutsen leguez.

Orduan ¿pecatu egiten dau, erreñuco gauzen sucenbidean liberala danac? Bai, bidaezbada baga: cergaitic erreñuco gauzen sucenbide liberala danagan dago, Eleizeac chartzat emonic daucan Liberalismoa edo Leiberetsutasuna.

¿Eta liberaltzat badanco, Aita Santuac chartzat emonic ez daucan gauzea? Pecatu egniten dau, liberala deituagaz, jaquinie, Aita Santuac chartzat emonic daueala Liberalismoa edo Leiberetsutasuna.

Azaldu eguidazu ori irudi bategaz.— Izango litzateque, ni dei tuco banintz leguez mahomutarra, neure gogocoa dalaco euren jantsia edo turbantea; edo evangelicoa, sinistuten dodalaco Evangelio Santuan.

Ori orrelan dala ¿catolicoac izan bear dan liberalen contracoac? Bai, ciurtasun guztiagaz; izan bear dabent leguez protestanten contracoac, masoen contracoae; berba baten esateco, egon bear dabe, Cristoren eta bere Eleizearen arerioac dirau guztien contra.

¿Cein aguinduen contra da Liberalismoa? Sucen eta osoro doa aguindu lenengoaren eta laugarrenaren contra; edo obeto esateco, aguindu guztien contra, guztiac guichitan euquí eta ausi eta ez gordetako aurrerabidea emoten dabelaco.

Catolicoac izan bear dabe liberalac, berba oni anchina emoten jaca esanguran; au da, izan bear dabe prestuac eta escuzabalecoac, Eleizeari eta premiñadunai dagocoena, emoteco.

Esan eguizu: Liberalismoac edo Nasaiqueria erreñucoac aguinduten dabent lecuan, ¿gauza ona da euquitea, iracurtea, gueituten edo zabaldutea liburuac, periodicoac, escolac, icusgarriac, modac, dantzae, oneeo dongac eta charrac izan arren bere, erreñuco aguintaritasunac edo oitureac laquetu edo ichiten dituzalaco? Ez, ezelanbere; cergaitic Jesucristoek diño, donga eta charrac condenanteo dirala; eta gue ez daguioegula jarraitu mundutarri; eta munduaren adisquidea dala Jaungoicoaren arerioa.

¿Orregaz balieta dira setalariac, catolicone nasaitu eta chartuteco? Bai, orregaz berorregaz.

¿Cergaitic eguiten dituez setalariac ainbeste aleguin, catolicone bide charretara eroan eta nasaituteco? Ondo daquielaco, catolico charrac erraz eguiten dirala eurac leguezco setalari.

¿Eta cergaitie gura dau Eleizeac ainbestean, gure iracurri ez daguiguzala liburu eta papel charrac, enqui ez daguiguzala escola charrac, eta joan ez gaitezala dantzelara edo ieusgarri charretara? Gure aina on eta santea dan leguez, gura ez dabelaco, gu bere semloe chartu eta nasaitu gaitezan.

Eta diruaganaco zaletasunaren gañean ¿celango erabaguia emoten dau Cristoc? Ausse: «¿cer balio deutso guizonari, mundu guztia irahasteac, izango bada bere arimearen caltean?» Eta beste au: «Billatu eguzue, guztiaz gafetic, Jaungoicoaren erreñua eta bere sucentasuna, eta Jaunac emongo deutzuez gueitupentzat, ondo jatortzuezan ondasun lurrecoac.»

¿Celan deituten jaco, bere espiritu charra izanie Liberalismoa, Eleizari lecu guztietan burruetan egun eta eseten deutsian seta dongueari? Francemasoneria.

¿Beraz Francemasoneria ez da alcetasun onguilla eta mese-deguilla bat, eta ain guichi erreñuco gauzen sucenbide ona gura dabena? Ez daq eguiten orrelango gauzarie; bere asmua da, Jaungoicoari zor jacon adoracinoa eta aguintaritasuneguiazko guztia mundu onetatic guztiz quendu, eta euren lecuan Satanas edo Lucifer Jaungoicotzat guztiai enqui eraguin, eta deabruaren aguindura guztioi biei eraguitea.

¿Ceintzue dira seta infernuco orren aguintari nagusiac? Izan oi dira judegune, erreñuetako neste, gorabera eta machinaden bitartez egun izan diran munduko aberatsenac.

¿Celango castigua dauco, seta infernuco orretan edo beste bere antzecoren baten dagoan catolicone? Excomuninoa, quendu eein leitequeona, seta orretatic urteten ez daben artian.

¿Eta ilten bada, seta orretatic urten gura ez dabela, edo ondo confesau baga, condenauco da? Bai, betieo.

¿Cer dinozu Comunismoaren, Socialismoaren, Democracia barriaren, Anarquismoaren eta eurac leguezco beste seten ga-

AURQUITEGUÍA.

Orrialdea.


<i>Icasbide cristinaucorraren azalduerea</i>	7
Iracatsi 1. ^a —Cristinallaren icenaren ganean.....	7
* 2. ^a —Cristinauaren eguinbearrac.....	8
* 3. ^a —Cristinanaren ezaugarri edo señalera..	9
* 4. ^a —Curutze Santuaren indarrac.....	10
* 5. ^a —Icasbide cristinaucorraren zatituerea.	12
<i>Icasbide cristinaucorraren lenengo Zatiya</i>	14
Iracatsi 1. ^a —Siniste edo fedearren ganean guztieran.	14
* 2. ^a —Fedearren zatiyac eta cerceridadeac...	15
* 3. ^a —Fedearren neurriac.....	17
* 4. ^a —Fedearren eguinbearrac.....	19
* 5. ^a —Jaungoicoa dagoanaren ganean.....	20
* 6. ^a —Jaungoicoaren ontasun oso eta beteac.	22
* 7. ^a —Irubatasun edo Trinidad guztiz Santua	24
* 8. ^a —Jaungoico Eguillea.....	26
* 9. ^a —Jesucristo.....	28
* 10. ^a —Araguituerearen escutapena.....	30
* 11. ^a —Erostaren escutapena.....	32
* 12. ^a —Jesucristoren oriotzeari jarraitu eutsen escutapenac.....	35
* 13. ^a —Biztuerea eta erabagui edo juicio guz- tienai.....	37
* 14. ^a —Bicitza béticoa.....	39
* 15. ^a —Beste bicitzaco egoera desbardinac...	40
* 16. ^a —Santuen Alkartasuna.....	43
* 17. ^a —Eleiza gudalaria.....	44

Iracatsi	18. ^a —Eleiza egniazcoaren ezaugarriac.....	46
*	19. ^a —Aita Santu Erromacoa.....	47
*	20. ^a —Eleizearen azquenengo erabaguiac....	49
*	21. ^a —Eraiscuna liberalismoaren ganean....	52
<i>Bigarren Zatiga: Sarrerea</i>		57
Iracatsi	1. ^a —Icharopena.....	57
*	2. ^a —Erreguaren izatea.....	58
*	3. ^a —Erregu mueta desbardinac.....	60
*	4. ^a —Erreguaren cerceridadeac.....	62
*	5. ^a —Aita-gurearen iru escabide lenengoac.	64
*	6. ^a —Aita-gurearen beste emparau escabideac	65
*	7. ^a —Celan erregutu bear deutsagun Jaungoicoari eta celan Santuai.....	67
*	8. ^a —Dontzellearen orregua.....	69
*	9. ^a —Maria Dontzella guztiz Santearen ereguitasunac.....	71
*	10. ^a —Irudiyen cultua edo gurtea.....	73
*	11. ^a —Angueruac.....	75
<i>Irugarren Zatiya: Sarrerea</i>		77
Iracatsi	1. ^a —Maitetasunt edo Caridadea.....	77
*	2. ^a —Jaungoieoren Aguindua.....	79
*	3. ^a —Lenengo aguinduan aguinduten dirangauzac.....	80
*	4. ^a —Lenengo aguinduaaren contrako pecatuac.....	83
*	5. ^a —Bigarren aguindua.....	85
*	6. ^a —Bigarren aguinduaaren contrako pecatuac.....	87
*	7. ^a —Irugarren aguindua.....	90
*	8. ^a —Irugarren aguinduaaren contrako pecatuac.....	92
*	9. ^a —Laugarren aguindua. Semealaben edo mendekoien eguinbearrak.....	94

Iracatsi	10. ^a —Nagusien eguinbearrac.....	97
»	11. ^a —Bostgarren aguindua.....	99
»	12. ^a —Seigarren aguindua.....	102
»	13. ^a —Zazpigarren aguindua.....	105
»	14. ^a —Zazpigarren aguinduaren jarraipena..	106
»	15. ^a —Zortzigarren aguindua.....	110
»	16. ^a —Eleizearen aguinduac.....	112
»	17. ^a —Barauba eta janari dabocatuac ez jatea.	114
»	18. ^a —Bula Santuaren gañeco eraiscuna.....	117
»	19. ^a —Erruquizco eguiquerac.....	119
<i>Laugarren Zatiya: Sacramentuac</i>		123
Iracatsi	1. ^a —Sacramentuac guztieran.....	123
»	2. ^a —Sacramentuen arguipetza.....	124
»	3. ^a —Gracia.....	126
»	4. ^a —Bateoco Sacramentua.....	129
»	5. ^a —Confirmacioneoco Sacramentua.....	131
»	6. ^a —Confesinoeco Sacramentua.....	133
»	7. ^a —Pecatuac	135
»	8. ^a —Arimaco azterrena.....	137
»	9. ^a —Damua.....	139
»	10. ^a —Aozco autormena.....	142
»	11. ^a —Erabaguia	145
»	12. ^a —Eguiquerazco ordaindutea edo quitugarrria.....	147
»	13. ^a —Parcamenac.....	149
»	14. ^a —Sarri confesetea eta bere mesodeac...	151
»	15. ^a —Pecatu ariña.....	153
»	16. ^a —Comuninoeco Sacramentua: Sacramen- tu onen izatea, egunaizantasuna eta eguitadeac.....	156
»	17. ^a —Comuninoa: bera artubearra eta pres- taerac.....	158



Iracatsi 18.a—Gorputzaren aldetic bear diran prestaerac, eta Sacramentu au artuteco da goan eguinbearra.....	160
» 19.a—Celan Jesucristo dagoan eguiaz eta bernetan Comuninoeco Sacramentuan..	163
» 20.a—Oleacinoco Sacramentua.....	166
» 21.a—Ordiaco Sacramentua.....	168
» 22.a—Escontzaco Sacramentua. Bere izatea.	171
» 23.a—Escontzearen azquenac eta eguinbearrreac.....	173
<i>Bostgarren Zatiya: Char-oidadeac eta On-oidadeac</i>	176
Iracatsi 1.a—Char-oidadea guztieran. Char-oidade sustraizeoac.....	176
» 2.a—On-oidadeac guztieran.....	179
» 3.a—On-oidade asigarriac edo lenenac.....	182
» 4.a—Arinaren arerioac; esetsiyac.....	185
» 5.a—Almenac eta sentzunac. Latztasunac.	188
» 6.a—Espíritu Santuaren doiac.....	192
» 7.a—Espíritu Santuaren frutuac edo ecarriac, zoriontasunac	195
» 8.a—Ontasuneco osotasuna eta hera jarichtoco eguinbideac.....	198
Bicitza Cristinaucorralaren sucenbidea	202
<i>Gueitupena</i>	206



UTZUNE ARTEZTUAC

ORRIALDEA.	LERROA	DIÑO.	ESAN BEAR DAU.
11	9	zituguz	zaituguz
13	29	cristinanac	cristinanac
19	23	Jaungoicaren	Jaungoicoaren
20	2	ezagaltie	ezagaitie
20	3	berbaldiec	berbaldiac
20	4	horegenac	heregenac
20	8	charrangandie	charraegandie
21	35 eta 36	dala-peco siritu	dalaco espiritu
26	1	guenquez	gueunquez
28	3	eguzan	egozan
37	10	eraerabagui	erabagui
44	5	gudaliaren	gudalaruren
50	3	Eteiza	Eleiza
50	23	emononac	emonac
52	33	artnrie	arturie
72	15	erruqnitasun	erruquitasun
80	6	ososatastun	osotasun
87	16	algartasimetan	argaltasumetan
119	26	estuetan	escuetan
123	21	ceintzutan	ceintzuetan
126	11	garbiduten	garbitutene
131	2	quenduzan	guenduzan
136	2	cerbaiti	cerbait
137	18	aurtortuteco	autortuteco
144	6	gueure	gueure
152	15	nagusitasunec	naguitasunec
165	15	ezpda	ezpada
174	34	gueituten	gueituten
176	22	bacaizqueria	becaizqueria
180	30	Jaungoiconganeo	Jaungoicoaganaco
198	27	pozgarri,	pozgarri
201	6	dabeen,	dabeena,
202	24 eta 25	betetasuneen	betetasuncan
202	25 cta 26	alcartasunecoan	alcartasunecoen
204	25	amodiocae	amodioac
206	3	aztertu	azlertutene

